

# NAFARROAKO EKONOMIA

2015eko TXOSTENA

LABORAL kutxa

Ikerketa Departamentua
Zuzendaria: Joseba Madariaga
Lan taldea: **IKEI** research & consultancy SA

© Laboral Kutxa.

ISBN: 978-84-941393-8-3

**1. ESPARRU OROKORRA ... 10**

**1. INGURUNE EKONOMIKOA (NAZIOARTEKOA ETA ESTATUKOA) ... 11**

1.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA ... 11

1.2 ESPAINIAKO EKONOMIA ... 20

**2. NAFARROAKO EGITURA EKONOMIKOA ... 31**

**3. IKUSPEGI OROKORRA ... 37**

3.1 EKOIZPENA ... 40

3.2 ESKARIA ... 42

3.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK ... 45

3.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA ... 46

3.5 FINANTZA-SEKTOREA ... 53

**4. NAFARROAKO ENPRESEN AZTERKETA EKONOMIKO-FINANTZARIOA ... 70**

4.1 JARDUERA: DIRU-SARRERAK, KOSTUAK ETA EMAITZAK ... 70

4.2 INBERTSIOA-FINANTZAKETA ... 71

4.3 ERRENTAGARRITASUNA ETA LOTUTAKO MAGNITUDEAK ... 73

4.4 ENPLEGUAREN PRODUKTIBITATEA ... 74

4.5 NAFARROAKO ENPRESEN DIAGNOSTIKO EKONOMIKO-FINANTZARIOA. SINTESIA. ... 75

4.6 ESPAINIAKO ENPRESA EZ-FINANTZARIOEN ENPRESA-EMAITZAK. ... 76

**2. LEHEN SEKTOREA ... 78**

**1. IKUSPEGI OROKORRA ... 79**

1.1 BILAKAERA ESTATU EREMUAN ... 79

1.2 BILAKAERA NAFARROAN ... 81

**2. NEKAZARITZAKO AZPISEKTOREA ... 85**

2.1 EKOIZPENAK ETA AZALERAK ... 85

2.2 NEKAZARITZAKO PREZIOAK ETA EKOIZPENAREN BALIOA ... 93

2.3 NEKAZARITZA MAKINETAKO INBERTSIOA ... 95

**3. ABELTZAINTZAREN AZPISEKTOREA ... 96**

3.1 AZIENDA-ERROLDA ... 96

3.2 ABELTZAINTZAKO EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK ... 97

3.3 ABELTZAINTZAKO PRODUKTUEN PREZIOAK ... 103

**3. INDUSTRIA ... 104**

**1. EGOERA OROKORRA ... 105**

1.1 JARDUERAREN BILAKAERA ... 105

1.2 ENPRESAK ETA ENPLEGUA ... 107

**2. INDUSTRIA-EGITURA ... 108**

2.1 JARDUERA-AZPISEKTORE NAGUSIEN IDENTIFIKAZIOA ... 108

2.2 ENPRESEN TAMAINA, AZPISEKTOREEN ARABERA ... 112

2.3 ENPRESA NAGUSIAK ETA ATZERRIKO KAPITALAREN PARTAIDETZA ... 114

**3. SIDERURGIA ... 117**

3.1 EGOERA OROKORRA ... 117

3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA ... 120

**4. NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIA ... 123**

4.1 NAZIOARTEKO EGOERA ... 123

4.2 SEKTOREA ESPAINIAN ... 124



LABORAL kutxa

4.3 SEKTOREA NAFARROAN ..... 125

**5. AUTOMOBILGINTZA ..... 131**

5.1 NAZIOARTEKO EGOERA ..... 131
5.2 SEKTOREA ESPAINIAN ..... 136
5.3 SEKTOREA NAFARROAN ..... 142

**6. PAPERA ..... 147**

6.1 NAZIOARTEKO EGOERA ..... 147
6.2 SEKTOREA ESPAINIAN ..... 149
6.3 SEKTOREA NAFARROAN ..... 152

**7. ERAIKUNTZA ..... 155**

**8. NAFARROAKO ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA ..... 160**

8.1 SARRERA ..... 160
8.2 BILAKAERA OROKORRA ..... 160
8.3 SEKTORE EKONOMIKOAK ..... 162
8.4 SOLDATAPEKOEN ESTRATUAK ..... 164

**4. ZERBITZUAK ..... 167**

**1. IKUSPEGI OROKORRA ..... 168**

**2. HEZKUNTZA ..... 169**

2.1 UNIBERTSITATETIK KANPOKO IKASLEEN BILAKAERA ..... 169
2.2 UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA ..... 173

**3. GARRAIOA ..... 176**

3.1 ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA ..... 176
3.2 AIRE BIDEZKO GARRAIOA ..... 179

## Koadro aurkibidea


| | | |
|---|---|---|
| 1. koadroa | Barne Produktu Gordinaren bilakaera | 11 |
| 2. koadroa | Guztizko barne-eskariaren bilakaera | 12 |
| 3. koadroa | Ondasun eta zerbitzuen truke-bolumenaren aldakuntzak | 12 |
| 4. koadroa | Eragiketa arrunten saldoa (ondasunak, zerbitzuak eta transferentziak) | 13 |
| 5. koadroa | Kontsumo pribatuaren deflatorearen bilakaera | 13 |
| 6. koadroa | Banakako lan-kostu nominalen bilakaera | 14 |
| 7. koadroa | Enpleguaren bilakaera | 15 |
| 8. koadroa | Langabezia-tasa | 15 |
| 9. koadroa | Administrazio publikoen finantzaketa-beharrak (finantzaketa-ahalmena (+) edo -beharra (-), BPG nominalaren ehunekoaren arabera) | 16 |
| 10. koadroa | Adierazle nagusiak (UE-28) | 17 |
| 11. koadroa | Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundea (Europar Batasuna) | 18 |
| 12. koadroa | Europar Batasuneko per capita BPGa (2015) | 19 |
| 13. koadroa | Aurreikuspen ekonomikoak (industrializatutako herrialdeak) | 20 |
| 14. koadroa | Barne-produktu gordina eta bere osagaiak (eskaria eta eskaintza) | 23 |
| 15. koadroa | Barne Produktu Gordinaren banaketa (errenta) | 23 |
| 16. koadroa | Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) eta Industriako Prezioen Indizea (IPI). | 25 |
| 17. koadroa | Errenten eta soldata-kostuen adierazleak | 26 |
| 18. koadroa | Lan-magnitude nagusien bilakaera Urteko batezbestekoak | 27 |
| 19. koadroa | Enplegua, lan-egoeraren eta kontratu-motaren arabera. Urteko batezbestekoak | 27 |
| 20. koadroa | Defizit publikoa | 28 |
| 21. koadroa | Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2016) | 30 |
| 22. koadroa | Ekoizpen-egitura (BEGaren konposizio sektoriala), 1960-2015 | 31 |
| 23. koadroa | Egitura okupazionala (enpleguaren konposizio sektoriala), 1960-2015 | 31 |
| 24. koadroa | Nafarroaren parte-hartzea Espainia osoan, 2015 | 32 |
| 25. koadroa | Balio erantsi gordina biztanleko Nafarroan | 33 |
| 26. koadroa | Bilakaera orokorra | 37 |
| 27. koadroa | Zenbait jarduera-adierazleren bilakaera | 39 |
| 28. koadroa | Barne Produktu Gordinaren (BPGd-) bilakaera | 40 |
| 29. koadroa | Industria Sektorearen adierazleak | 41 |
| 30. koadroa | Eraikuntzaren Sektoreko Adierazleak | 41 |
| 31. koadroa | Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak | 42 |
| 32. koadroa | Kontsumo- eta inbertsio-adierazleak | 43 |
| 33. koadroa | Kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan | 43 |
| 34. koadroa | Nafarroako esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera | 44 |
| 35. koadroa | Prezioen bilakaera Nafarroan | 45 |
| 36. koadroa | Soldata-adierazleak | 46 |
| 37. koadroa | 2015ean gizarte- eta lan-arlori buruz onartutako Estatuko araudi garrantzitsuena | 47 |
| 38. koadroa | Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia | 49 |
| 39. koadroa | Langabezia-tasa adin-tarteen arabera. Urte bakoitzeko batezbestekoak | 50 |
| 40. koadroa | Enpleguaren bilakaera, ekonomia-sektoreen arabera. Urte bakoitzeko batezbestekoak | 50 |
| 41. koadroa | EEZPren bulegoetan erregistratutako kontratuak | 51 |
| 42. koadroa | Hitzarmen kolektiboak eta grebak | 51 |
| 43. koadroa | Biztanleriaren mugimendu naturala | 52 |
| 44. koadroa | Nafarroako migrazio-saldoak, adinen arabera | 53 |
| 45. koadroa | Kreditu-erakundeen aktiboaren osaera | 57 |
| 46. koadroa | Kreditu-erakundeak. Kreditua eragileen arabera | 57 |
| 47. koadroa | Kreditu-erakundeak. Kredituak motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk | 58 |

48. koadroa Gordailu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk ..... 59
49. koadroa Gordailu-erakundeak. Eragileen eta esparruaren arabera ..... 60
50. koadroa Etxebizitzen gaineko hipoteka berrien eraketa ..... 62
51. koadroa Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera ..... 62
52. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzazkoen edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk ..... 63
53. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzakoen edo berankortasunaren tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk ..... 64
54. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzazko kredituaren bilakaera, helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk ..... 64
55. koadroa Kreditu-erakundeak. Kreditu-erakundeetako gordailuak, agenteen arabera ..... 65
56. koadroa Gordailu-erakundeak. Gordailuak moten arabera. Beste sektore egoiliar batzuk ..... 66
57. koadroa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta administrazio publikoen gordailua. ..... 67
58. koadroa Errenta gordin erabilgarria, BEG eta aurrezki gordina ..... 67
59. koadroa Kreditu-erakundeak. Etxeetarako(2) eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berriei aplikatutako interes-tasak (TEDR) ..... 69
60. koadroa Nafarroako enpresen emaitzen kontu erantsia ..... 70
61. koadroa Nafarroako enpresen balantze erantsia ..... 73
62. koadroa Nafarroako enpresen errentagarritasuna ..... 73
63. koadroa Enpleguaren produktibitatea ..... 74
64. koadroa Emaitzen kontua. Urtetik urterako bilakaera (enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko) ..... 76
65. koadroa Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak ..... 80
66. koadroa Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Nafarroa ..... 83
67. koadroa Enplegua lehen sektorean. Urteko batez bestekoa* ..... 84
68. koadroa Lur landuen erabilera ..... 86
69. koadroa Nafarroako nekazaritzako ekoizpen nagusiak ..... 87
70. koadroa Zereal-aleen azalera eta ekoizpena ..... 89
71. koadroa Lekaleen azalera eta ekoizpena ..... 89
72. koadroa Tuberkuluen azalera eta ekoizpena ..... 90
73. koadroa Industria-laboreen azalera eta ekoizpena ..... 90
74. koadroa Bazka-laboreen azalera eta ekoizpena ..... 91
75. koadroa Barazkien azalera eta ekoizpena ..... 92
76. koadroa Zur-laborantzen azalera eta ekoizpena ..... 93
77. koadroa Nekazaritza-produktu nagusien prezio eta balioak, guztira ..... 94
78. koadroa Nafarroan inskribatutako nekazaritzako makinen balioespena ..... 95
79. koadroa Azienda-errolda (urte bakoitzeko azaroa) ..... 96
80. koadroa Esnearen ekoizpena ..... 98
81. koadroa INTIA-ITGk kudeatutako esnetarako behi- eta ardi-ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak ..... 99
82. koadroa Nafarroan hildako ganaduaren kanaleko pisua ..... 100
83. koadroa INTIA/ITGk kudeatutako haragitarako behi- eta ardi-ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak ..... 101
84. koadroa INTIA/ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-ustiategien emaitzak ..... 102
85. koadroa Animalia-produktuen prezioak. Urteko batezbestekoak ..... 103
86. koadroa Industriako ekoizpen-jardueraren bilakaera ..... 105
87. koadroa Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen norako ekonomikoaren arabera ..... 106
88. koadroa Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-arloaren arabera ..... 106
89. koadroa Industria-sektoreko langileen eta enpresen kopuruaren bilakaera ..... 107

| | | |
|---|---|---|
| 90. koadroa | Nafarroako industriako enplegua eta sortutako balio erantsia, jarduera-azpisektoreen arabera (2014) | 109 |
| 91. koadroa | Jarduera-adar desberdinek industriako enpleguaren eta balio erantsiaren guztizkoan duten partaidetza (2014) | 110 |
| 92. koadroa | Industria-enpresen kopurua, neurriaren eta jarduera-sektorearen arabera (2015) | 112 |
| 93. koadroa | Industriako langileen kopurua, enpresaren neurriaren eta jarduera-sektorearen arabera (2015) | 114 |
| 94. koadroa | Nafarroako industria-enpresa nagusiak (2015) | 116 |
| 95. koadroa | Altzairu gordinaren ekoizpena | 118 |
| 96. koadroa | Siderurgia-produktuen kontsumoa | 119 |
| 97. koadroa | Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak* | 120 |
| 98. koadroa | Inportatutako lehengaiak | 122 |
| 99. koadroa | Europar Batasuneko nekazaritzako elikagaien industriako ekoizpenaren bilakaera | 123 |
| 100. koadroa | Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera | 124 |
| 101. koadroa | Nafarroako nekazaritzako elikagaien industria (2015) | 125 |
| 102. koadroa | Nafarroako nekazaritzako elikagaien enpresa nagusiak (2015) | 126 |
| 103. koadroa | Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako enpresen kopuruaren eta enpleguaren bilakaera | 127 |
| 104. koadroa | Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera | 127 |
| 105. koadroa | Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan | 128 |
| 106. koadroa | Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako 16 enpresatako lagin baten emaitzen kontu agregatua | 129 |
| 107. koadroa | Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako 16 enpresatako laginaren errentagarritasuna | 130 |
| 108. koadroa | Ibilgailuen ekoizpena eta matrikulazioa | 135 |
| 109. koadroa | Automobilgintzaren Espainiako industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpo-merkataritza | 136 |
| 110. koadroa | Autoen matrikulazioa, marken arabera | 138 |
| 111. koadroa | Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak | 139 |
| 112. koadroa | Automobilgintzaren sektorearen esportazioa eta inportazioa | 139 |
| 113. koadroa | Automobilgintzarako ekipo eta osagaien Espainiako industriaren zifra nagusiak | 141 |
| 114. koadroa | Enpleguaren bilakaera eta enpresa-kopurua(*) | 142 |
| 115. koadroa | Ibilgailu automobilak eta ordezko piezak eraikitzea: enpresa-egitura eta enpresa-kopurua (1) | 143 |
| 116. koadroa | Automobilgintzaren sektoreko Nafarroako enpresa nagusiak, 2015 | 144 |
| 117. koadroa | Kanpo-merkataritzaren bilakaera. Ibilgailu automobilak, zatiak eta osagarriak* | 144 |
| 118. koadroa | Volkswagen Navarra SAren jarduera-magnitude nagusiak | 146 |
| 119. koadroa | Paperaren eta kartoiaren ekoizpena (CEPIko kideak) | 147 |
| 120. koadroa | Paperaren eta kartoiaren ekoizpena, herrialdeka | 148 |
| 121. koadroa | Ore-ekoizpena, herrialdeen arabera | 149 |
| 122. koadroa | Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa. Espainiakoa, guztira. | 150 |
| 123. koadroa | Ekoizpena eta kontsumoa, paper motaren arabera | 151 |
| 124. koadroa | Ekoizpena eta kontsumoa ore motaren arabera | 152 |
| 125. koadroa | Paperaren eta orearen ekoizpena Nafarroan | 152 |
| 126. koadroa | Paperaren eta orearen kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan | 153 |
| 127. koadroa | Paperaren sektoreko enpresa nagusiak Nafarroan | 153 |
| 128. koadroa | Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera | 155 |
| 129. koadroa | Administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren arteko lizitazio ofizialaren banaketa | 156 |
| 130. koadroa | Lizitazio ofiziala, obra moten arabera (2015) | 158 |
| 131. koadroa | Hasitako eta amaitutako etxebizitzak | 158 |
| 132. koadroa | Eraikuntzako langileak | 159 |

133. koadroa Enpresak atal ekonomikoaren arabera. 2009. eta 2015. urteen arteko alderaketa ..... 164
134. koadroa Enpresak soldatapekoen estratuen arabera. 2009. eta 2015. urteen arteko alderaketa ..... 166
135. koadroa Zerbitzuen sektorearen bilakaera ..... 168
136. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH..... 170
137. koadroa Euskalduntze-maila. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH..... 171
138. koadroa. Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Heziketa Zikloak eta LOGSE batxilergoa. ..... 173
139. koadroa Euskalduntze-maila. Heziketa Zikloak eta LOGSE batxilergoa. ..... 173
140. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean..... 174
141. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) (1)..... 175
142. koadroa Nafarroako ibilgailu-parkea..... 176
143. koadroa Kamioi, industria-traktore eta autobusen matrikulazio garbia(*)..... 177
144. koadroa Motorizazio-indizeak..... 177
145. koadroa Autobideko ibilgailuen trafikoa, Nafarroan* ..... 178
146. koadroa Garraiatutako merkantziak. Jatorriko eta/edo helmugako eskualde barruko eta eskualde arteko garraioa* ..... 179
147. koadroa Iruñeko aireportuko aire bidezko garraioa..... 179
148. koadroa Iruñeko aireportuko aire bidezko garraioa, jatorriaren arabera..... 180

## Grafiko aurkibidea


1. grafikoa Interes-tasen aldakuntza ..... 16
2. grafikoa Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala ..... 29
3. grafikoa BPGaren bilakaera ..... 38
4. grafikoa Kanbio-tasa: Euroa versus dolarra* ..... 54
5. grafikoa Ibex-35aren bilakaera. Hileko itxiera-balioaren gaineko urtetik urterako aldakuntza-tasa ..... 55
6. grafikoa Kreditu-erakundeak. Kredituak motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk (BSE) ..... 58
7. grafikoa Kreditu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk ..... 59
8. grafikoa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuei emandako kredituaren bilakaera ..... 60
9. grafikoa Birfinantzaketa-interesaren tasaren bilakaera. Europako Banku Zentrala ..... 68
10. grafikoa Nafarroako enpresen errentagarritasuna ..... 74
11. grafikoa Nekazaritza-ekoizleek jasotako prezioen indizeak ..... 81
12. grafikoa Nekazaritza-ekoizpen nagusien bolumenaren banaketa,ehunekotan, 2015 ..... 88
13. grafikoa Nafarroako abeltzaintzako azienden banaketaren bilakaera, ehunekotan ..... 97
14. grafikoa Abeltzaintzako ekoizpena Nafarroan ..... 100
15. grafikoa Jarduera-azpisektore desberdinek Nafarroako industriako enpleguaren eta balio erantsiaren guztizkoan duten partaidetza (2014) ..... 111
16. grafikoa Altzairuaren mundu-mailako ekoizpena ..... 119
17. grafikoa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak ..... 121
18. grafikoa Paperaren sektoreko aldagai nagusien bilakaera Espainian ..... 150
19. grafikoa Enpresa kopuruaren bilakaera ..... 161
20. grafikoa Enpresa kopuruaren urtetik urterako aldakuntza ..... 162
21. grafikoa Estatuako guztizkoaren gaineko garrantziaren bilakaera (Estatua=100) ..... 162
22. grafikoa Enpresen bilakaera, sektore ekonomikoaren arabera (indize kopurua 2009=100) ..... 163
23. grafikoa Enpresen bilakaera, soldatapekoen tarteen arabera (indize kopurua 2009=100) ..... 165
24. grafikoa Unibertsitatetik kanpoko ikasleen matrikulazioaren bilakaera Nafarroan(1) ..... 172




# 1. ESPARRU OROKORRA

# 1. INGURUNE EKONOMIKOA (NAZIOARTEKOA ETA ESTATUKOA)

## 1.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA

**Ezaugarri nagusiak: ekoizpen-jarduera**

2015ean, munduko ekonomiaren zabalkuntza-erritmoa moteldu egin da aurreko ekitaldiarekin alderatuta (% 3,1, eta 2014an % 3,4), hain zuzen ere, sortzen eta garatzen ari diren merkatuetako ekonomiak gelditzen hasi direlako (mundu-mailako hazkundearen arrazoi nagusi dira) eta ekonomia aurreratuek gutxi egin dutelako aurrera, petrolioaren merkatzea ezaugarri duen testuinguru batean.

2016ko ekainean ELGAk eginiko aurreikuspenekin bat etorriz, industrializatutako herrialdeen multzoak bere dinamismoa bi dezima hobetu du, nahiz eta haren hazkunde-erritmoak baxua izaten jarraitu duen (2015ean % 2,1 eta 2014an % 1,9).

**1. koadroa Barne Produktu Gordinaren bilakaera**

*(% Δ)*

| Herrialdea | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 1,5 | 2,4 | 2,4 |
| Japonia | 1,4 | 0,0 | 0,6 |
| Alemania | 0,4 | 1,6 | 1,4 |
| Frantzia | 0,6 | 0,6 | 1,2 |
| Italia | -1,8 | -0,3 | 0,6 |
| Erresuma Batua | 2,2 | 2,9 | 2,3 |
| Kanada | 2,2 | 2,5 | 1,2 |
| **Eurogunea** | **-0,3** | **1,0** | **1,6** |
| **ELGA guztira** | **1,2** | **1,9** | **2,1** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2016ko ekaina).*

Lehenik eta behin ekonomia estatubatuarrari eskainiko diogu arreta: 2015ean aurreko ekitaldian lortutako hedapen-erritmoari eutsi dio (% 2,4 2014an eta 2015ean), eta barne-eskariaren hazkundea nabarmen indartu da (2015ean % 3 eta aurreko ekitaldian % 2,5).

Bestalde, sortzen eta garatzen ari diren merkatuek portaera heterogeneoa izan dute, ezaugarri izan dituena Txinaren indar-galera (2015ean % 6,9 eta 2014an % 7,3), Indiak aurreko urtearekin alderatuta izan duen hazkunde handia (2015ean % 7, aurreko ekitaldiaren antzera: % 7,2) eta Brasilen atzeraldia (2015ean -% 3,8 eta 2014an % 0,1).

**2. koadroa Guztizko barne-eskariaren bilakaera**

*(% Δ)*

| Herrialdea | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 1,2 | 2,5 | 3,0 |
| Japonia | 1,7 | 0,0 | 0,1 |
| Alemania | 0,9 | 1,3 | 1,4 |
| Frantzia | 0,8 | 0,7 | 1,4 |
| Italia | -2,6 | -0,3 | 1,0 |
| Erresuma Batua | 2,6 | 3,2 | 2,6 |
| Kanada | 1,8 | 1,3 | 0,3 |
| **Eurogunea** | **-0,7** | **1,0** | **1,7** |
| **ELGA guztira** | **1,0** | **1,8** | **2,3** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2016ko ekaina).*

Europan, Eurogunearen hazkundea % 1,6ra arte areagotu da 2015ean (% 1eko gorakada izan zuen 2014an), eta, beraz, baztertu egin du aurreko urteetan jasandako atzeraldi luzea. Ildo horretan, nabarmendu behar da barne-eskaria indartzeak orekatu egin duela kanpo-sustapenaren ahultzea.

### Kanpo-merkataritza

Testuinguru horretan, industrializatutako herrialdeetako kanpoko merkataritza-jarduerak indarra hartu du inportazioen kasuan (% 4,5eko gorakada 2015ean eta % 3,7koa 2014an), eta lehengo dinamismoari eutsi dio esportazioen kasuan (% 3,9ko gorakada, bai 2014an bai 2015ean). Herrialdeka, bereziki nabarmentzen da Japoniako ekonomiak nola erosketetan hala kanpo-salmentetan izan duen atzerakada.

**3. koadroa Ondasun eta zerbitzuen truke-bolumenaren aldakuntzak**

*(% Δ)*

| Herrialdea | Inportazioak | | | Esportazioak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2013 | 2014 | 2015 | 2013 | 2014 | 2015 |
| Estatu Batuak | 1,1 | 3,8 | 4,9 | 2,8 | 3,4 | 1,1 |
| Japonia | 3,1 | 7,2 | 0,3 | 1,2 | 8,3 | 2,8 |
| Alemania | 3,2 | 3,7 | 5,4 | 1,8 | 3,9 | 4,8 |
| Frantzia | 1,8 | 3,9 | 6,4 | 1,8 | 2,4 | 6,1 |
| Italia | -2,2 | 3,0 | 5,8 | 0,9 | 2,9 | 4,1 |
| Erresuma Batua | 2,8 | 2,4 | 6,3 | 1,2 | 1,2 | 5,1 |
| Kanada | 1,5 | 1,8 | 0,1 | 2,8 | 5,3 | 3,0 |
| **ELGA guztira** | **2,0** | **3,7** | **4,5** | **2,7** | **3,9** | **3,9** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2016ko ekaina).*

Herrialde industrializatu guztien eragiketa arrunten balantzea (alegia, ondasun eta zerbitzuen merkataritza-jardueraren eta transferentzia arruntaren bilakaeraren emaitza) positibo bilakatu da 2015ean (34,9 mila milioi dolar; 2014an -1,5 mila milioi dolarrekoa izan zen). Horren arrazoi nagusi izan dira Euroguneko superabit-saldoa nabarmen hobetzea (2015ean 437,8 mila milioi dolar, eta aurreko ekitaldian 412,3 mila milioi dolar)

eta Estatu Batuetako defizit-saldoa okertzea (2015ean -484,1 mila milioi euro, eta 2014an -389,5 mila milioi euro).

**4. koadroa Eragiketa arrunten saldoa (ondasunak, zerbitzuak eta transferentziak)**

*(mM $)*

| Herrialdea | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | -376,8 | -389,5 | -484,1 |
| Japonia | 39,6 | 23,0 | 121,1 |
| Alemania | 256,1 | 287,0 | 288,6 |
| Frantzia | -22,7 | -26,9 | -2,9 |
| Italia | 18,8 | 39,2 | 39,7 |
| Erresuma Batua | -122,4 | -151,9 | -146,9 |
| Kanada | -57,9 | -40,5 | -51,6 |
| **Eurogunea** | **376,9** | **412,3** | **437,8** |
| **ELGA guztira** | **-24,3** | **-1,5** | **34,9** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2016ko ekaina).*

## Prezioak eta soldatak

Petrolioaren prezioak beherakada nabarmena izan du: Brent upelaren prezioa igaro da upel bakoitzeko 99,4 dolarrekoa izatetik, 2014an, upeleko 52,2 dolarrekoa izatera, 2015ean. Horren ondorioz, kontsumo-prezioek beheranzko joera nabarmena izan dute orokorrean.

Hala, ELGAren arabera, kontsumo pribatuaren deflatorea ez da hazi, ez Eurogunean (2015ean % 0,2 eta 2014an % 0,5) ez Estatu Batuetan (2015ean % 0,3 eta aurreko ekitaldian % 1,4), ezta herrialde industrializatuen multzoan ere (2015ean % 0,7 eta 2014an % 1,6).

**5. koadroa Kontsumo pribatuaren deflatorearen bilakaera**

*(% Δ)*

| Herrialdea | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 1,4 | 1,4 | 0,3 |
| Japonia | -0,2 | 1,9 | 0,2 |
| Alemania | 1,2 | 0,9 | 0,6 |
| Frantzia | 0,8 | 0,0 | -0,1 |
| Italia | 1,2 | 0,2 | 0,1 |
| Erresuma Batua | 2,3 | 1,6 | 0,2 |
| Kanada | 1,4 | 1,9 | 1,1 |
| **Eurogunea** | **1,1** | **0,5** | **0,2** |
| **ELGA guztira** | **1,4** | **1,6** | **0,7** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2016ko ekaina).*

Testuinguru horretan, banku zentral nagusien ohiko eta ezohiko diru-politikak zabaldu egin dira, eta, ondorioz, interes-tasak nahiko baxu mantendu dira. Hori horrela, Europako

Banku Zentralak (EBZ) bere erreferentzia-tasari % 0,05ean eutsi dio ekitaldi osoan; Estatu Batuetako Erreserba Federalak, aldiz, gorakada bakarra izan du, % 0,25ekoa, 2015eko azken hilabetean (beraz, haren erreferentzia-tasa % 0,5ekoa izan da ekitaldiaren amaieran).

Banakako lan-kostu nominalei dagokienez, 2015ean haien aurrerapen-erritmoa jaitsi egin da Estatu Batuetan eta Japonian (2015ean % 1,9 eta % 1, eta 2014an % 2,2 eta % 1,6, hurrenez hurren). Alabaina, indartu egin dira Eurogunean, oso gutxi bada ere (2015ean % 1 eta aurreko ekitaldian % ,9).

**6. koadroa    Banakako lan-kostu nominalen bilakaera**

*(% Δ)*

| Herrialdea | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 1,2 | 2,2 | 1,9 |
| Japonia | -0,8 | 1,6 | 1,0 |
| Alemania | 2,4 | 2,2 | 2,4 |
| Frantzia | 0,7 | 1,0 | 0,1 |
| Italia | 0,8 | 0,7 | 1,1 |
| Erresuma Batua | 0,6 | -1,0 | 1,3 |
| Kanada | 1,9 | 1,3 | 1,4 |
| **Eurogunea** | **1,0** | **0,9** | **1,0** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2016ko ekaina).*

**Lan-merkatua**

Berreskuratze ekonomikoaren ondorioz, lan-merkatuek joera ona izan dute 2015ean: enplegua hazi egin da eta langabezia-tasak behera egin du ia leku guztietan.

Zehazki, okupazioaren hazkundea sendotu egin da aurreko ekitaldiarekin alderatuta, bai Estatu Batuetan bai Eurogunean (2015ean % 2,1 eta % 1, eta 2014an % 1,8 eta % 0,6, hurrenez hurren). Kontuan izan behar da, halaber, enplegua hazi egin dela aztertutako kasu guztietan, Frantzian izan ezik; han geratu egin da (aldakuntzarik ez).

**7. koadroa Enpleguaren bilakaera**

*(% Δ)*

| Herrialdea | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 1,4 | 1,8 | 2,1 |
| Japonia | 0,7 | 0,6 | 0,4 |
| Alemania | 1,0 | 0,9 | 0,7 |
| Frantzia | -0,2 | 0,1 | 0,0 |
| Italia | -1,8 | 0,1 | 0,6 |
| Erresuma Batua | 1,2 | 2,3 | 1,5 |
| Kanada | 1,4 | 0,6 | 0,9 |
| **Eurogunea** | **-0,6** | **0,6** | **1,0** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2016ko ekaina).*

Bestalde, langabezia-tasak beheranzko bilakaera izan du oro har, bi kasu hauetan salbu: Frantzian gorakada txiki bat erregistratu da (2015ean % 10 eta 2014an % 9,9), eta Kanadan maila berean jarraitu du (% 6,9 2014an eta 2015ean). Estatu Batuetan, langabezia-tasak behera egin du, % 6,2tik (2014an) % 5,3ra (2015ean), eta Eurogunean % 11,5etik % 10,8ra. ELGAko herrialde guztien tasa % 6,8koa da (2014an % 7,3koa izan zen).

**8. koadroa Langabezia-tasa**

*(biztanleria aktiboaren % )*

| Herrialdea | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 7,4 | 6,2 | 5,3 |
| Japonia | 4,0 | 3,6 | 3,4 |
| Alemania | 5,2 | 5,0 | 4,6 |
| Frantzia | 9,9 | 9,9 | 10,0 |
| Italia | 12,1 | 12,6 | 11,9 |
| Erresuma Batua | 7,6 | 6,2 | 5,4 |
| Kanada | 7,1 | 6,9 | 6,9 |
| **Eurogunea** | **11,9** | **11,5** | **10,8** |
| **ELGA guztira** | **7,9** | **7,3** | **6,8** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2016ko ekaina).*

## Diru- eta aurrekontu-politika

Jasotako gehiegizko defizit-mailak murriztera bideratutako neurri zorrotzak aplikatzearen ondorioz, kontu publikoen desorekak egonkortu egin dira, eta aintzat hartutako esparru geografiko guztiek bilakaera positiboa izan dute, Kanadak izan ezik. Zehazki, Ipar Amerikako ekonomiak -% 4,4ko defizita izan du 2015ean (-% 5,1eko 2014an), Euroguneak -% 2,1ekoa (aurreko ekitaldian -% 2,6koa) eta industrializatutako herrialde guztiek -% 3,1ekoa (-% 3,6koa 2014an).

**9. koadroa Administrazio publikoen finantzaketa-beharrak (finantzaketa-ahalmena (+) edo -beharra (-), BPG nominalaren ehunekoaren arabera)**

*(BPGaren % )*

| Herrialdea | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | -5,5 | -5,1 | -4,4 |
| Japonia | -8,5 | -6,2 | -5,4 |
| Alemania | -0,1 | 0,3 | 0,7 |
| Frantzia | -4,0 | -4,0 | -3,5 |
| Italia | -2,9 | -3,0 | -2,6 |
| Erresuma Batua | -5,7 | -5,6 | -4,4 |
| Kanada | -1,9 | -0,5 | -1,7 |
| **Eurogunea** | **-3,0** | **-2,6** | **-2,1** |
| **ELGA guztira** | **-4,1** | **-3,6** | **-3,1** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2016ko ekaina).*

Lehen ere aipatu dugun moduan, banku zentral nagusiek politika moldakorrak aplikatzen jarraitu dute; zehazki, Europako Banku Zentralak (EBZ) % 0,05ean eutsi dio bere erreferentziako tasari 2015 osoan, eta Estatu Batuetako Erreserba Federalak ehuneko puntu laurden bateko igoera bakarra izan du (bere erreferentzia-tasa % 0,5ean geratu da 2015 ekitaldiaren amaieran).

**1. grafikoa Interes-tasen aldakuntza**




*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2016ko ekaina).*

### Europar Batasuna

Arreta Europan jarriz, eta Europako Batzordearen udaberriko aurreikuspenekin bat etorriz, EB-28 osoak bere hedapen-erritmoa % 2ra arte sendotu du 2015ean (2014an % 1,4). Hazkunde horren faktore nagusia barne-eskaria da (% 2,1). Ildo horretan, nabarmendu behar da barne-eskariaren osagai guztien aurrerapen-erritmoa indartu egin dela aurreko ekitaldiarekin alderatuta: kontsumo pribatuak % 1,2tik % 2ra egin du gora 2014tik 2015era, kontsumo publikoak % 1,2tik % 1,4ra eta inbertsioak % 2,7tik % 3,4ra. Horrez gain, erkidegoko esportazioen eta inportazioen hedapena ere areagotu egin da: 2015ean % 5,3 eta % 5,9, eta 2014an % 4 eta % 4,7, hurrenez hurren.

**10. koadroa Adierazle nagusiak (UE-28)**

*(Urtetik urterako aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| **Jarduera** | | | |
| – Kontsumo pribatua | -0,1 | 1,2 | 2,0 |
| – Kontsumo publikoa | 0,3 | 1,2 | 1,4 |
| – Kapital Finkoaren Eraketa Gordina | -1,7 | 2,7 | 3,4 |
| – Barne-eskaria | -0,1 | 1,5 | 2,1 |
| – Esportazioak | 2,2 | 4,0 | 5,3 |
| – Inportazioak | 1,6 | 4,7 | 5,9 |
| – BPG | 0,2 | 1,4 | 2,0 |
| **Prezioak eta soldatak** | | | |
| – BPGaren deflatorea | 1,4 | 1,1 | 1,1 |
| – Kontsumo pribatuaren deflatorea | 1,3 | 0,7 | 0,2 |
| – Banakako lan-kostu errealak | -0,5 | -0,4 | -0,5 |

*Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2016ko udaberria).*

Herrialdeen araberako analisi zehatzak agerian jartzen du Greziaren BPGak behera egin duela 2015ean (-% 0,2), eta erkidegoko gainerako bazkideek maila desberdinetako aurrerapenak egin dituztela. Zehazki, Irlanda, Malta, Luxenburgo, Txekiar Errepublika eta Suedia izan dira kide dinamikoenak, eta denek % 4 baino gehiagoko hazkundeak jaso dituzte (% 7,8, % 6,3, % 4,8, % 4,2 eta % 4,1, hurrenez hurren). Beste herrialde hauek dira, aldiz, aurrerapen txikiena egin dutenak: Austria, Italia eta Finlandia (% 0,9, % 0,8 eta % 0,5, hurrenez hurren). Bestalde, Alemaniak, Batasuneko eragile ekonomiko nagusia izanik, % 1,7ko hedapena erregistratu du, aurreko ekitaldikoaren antzekoa (2014an % 1,6). Testuinguru horretan, Erresuma Batuaren hazkundea jaitsi egin da, % 2,3ra (aurreko ekitaldian % 2,9koa izan zen), eta Frantziarena indartu, % 1,2ra arte (2014an % 0,2).

**11. koadroa Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundea (Europar Batasuna)**

*(urtetik urterako aldakuntzaren % )*

| Herrialdea | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Irlanda | 1,4 | 5,2 | 7,8 |
| Malta | 4,1 | 3,7 | 6,3 |
| Luxenburgo | 4,3 | 4,1 | 4,8 |
| Txekiar Errepublika | -0,5 | 2,0 | 4,2 |
| Suedia | 1,2 | 2,3 | 4,1 |
| Errumania | 3,5 | 3,0 | 3,8 |
| Polonia | 1,3 | 3,3 | 3,6 |
| Eslovakia | 1,4 | 2,5 | 3,6 |
| Espainia | -1,7 | 1,4 | 3,2 |
| Bulgaria | 1,3 | 1,5 | 3,0 |
| Hungaria | 1,9 | 3,7 | 2,9 |
| Eslovenia | -1,1 | 3,0 | 2,9 |
| Letonia | 3,0 | 2,4 | 2,7 |
| Erresuma Batua | 2,2 | 2,9 | 2,3 |
| **EB-28** | **0,2** | **1,4** | **2,0** |
| Herbehereak | -0,5 | 1,0 | 2,0 |
| Alemania | 0,3 | 1,6 | 1,7 |
| Lituania | 3,5 | 3,0 | 1,6 |
| Kroazia | -1,1 | -0,4 | 1,6 |
| Txipre | -5,9 | -2,5 | 1,6 |
| Portugal | -1,1 | 0,9 | 1,5 |
| Belgika | 0,0 | 1,3 | 1,4 |
| Danimarka | -0,2 | 1,3 | 1,2 |
| Frantzia | 0,7 | 0,2 | 1,2 |
| Estonia | 1,6 | 2,9 | 1,1 |
| Austria | 0,3 | 0,4 | 0,9 |
| Italia | -1,7 | -0,3 | 0,8 |
| Finlandia | -0,8 | -0,7 | 0,5 |
| Grezia | -3,2 | 0,7 | -0,2 |

*Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2016ko udaberria).*

Per capita BPGa aztertzen badugu, erosketa-ahalmenaren parekotasunari dagokionez, nabarmendu behar da oraindik ere alde handiak daudela Batasuneko kideen artean. Lehengo kideen artean, Greziak (% 65,8), Portugalek (% 72), Espainiak (% 85,3), Italiak (% 87,7) eta Frantziak (% 97,3) dituzte maila baxuenak, EB-15eko batez bestekoa (% 100) baino baxuagoak. Maila altuena, berriz, Luxenburgok du (% 247,9). EB-28 osoa kontuan hartuta, pixkanaka bazkide berriak sartzearen ondorioz, Europako batez besteko per capita BPGa nabarmen murriztu da.

**12. koadroa Europar Batasuneko per capita BPGa (2015)**

| Herrialdea | UE-15=100 | UE-28=100 |
|---|---|---|
| Luxenburgo | 247,9 | 268,9 |
| Irlanda | 130,0 | 141,0 |
| Herbehereak | 120,4 | 130,6 |
| Austria | 117,1 | 127,0 |
| Alemania | 115,0 | 124,7 |
| Suedia | 114,5 | 124,2 |
| Danimarka | 113,5 | 123,1 |
| Belgika | 108,3 | 117,5 |
| Erresuma Batua | 100,3 | 108,8 |
| Finlandia | 100,1 | 108,6 |
| **EB-15 guztira** | **100,0** | **108,5** |
| Frantzia | 97,3 | 105,5 |
| **EB-28 guztira** | **92,2** | **100,0** |
| Italia | 87,7 | 95,1 |
| Espainia | 85,3 | 92,5 |
| Malta | 81,9 | 88,8 |
| Txekiar Errepublika | 79,6 | 86,3 |
| Eslovenia | 76,7 | 83,2 |
| Txipre | 75,7 | 82,1 |
| Portugal | 72,0 | 78,1 |
| Eslovakia | 72,0 | 78,1 |
| Estonia | 69,9 | 75,8 |
| Lituania | 69,8 | 75,7 |
| Grezia | 65,8 | 71,4 |
| Polonia | 63,5 | 68,9 |
| Hungaria | 63,5 | 68,9 |
| Letonia | 59,9 | 65,0 |
| Kroazia | 54,3 | 58,9 |
| Errumania | 52,0 | 56,4 |
| Bulgaria | 43,7 | 47,4 |

*Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2016ko udaberria).*

**Aurreikuspenak**

Nazioarteko erakunde nagusien arabera, 2015ean ikusitako portaerari jarraituz, 2016an mundu-mailako berreskuratze ekonomikoak aurrera jarraituko du, erritmo gero eta motel eta ahulagoan bada ere. Berriz ere, sortzen eta garatzen ari diren ekonomiek sustatuko dute mundu-mailako ekonomia. Hori horrela, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) 2016an munduko ekonomia batez besteko % 3,2 haziko dela aurreikusten du.

Aurreratutako ekonomia guztiek, batuta, % 2 inguruko zabalkuntza lortuko dute 2016an eta 2017an, eta Estatu Batuek dinamismo handiagoa izango dute Euroguneak eta Japoniak baino. Ildo horretan, ELGAren arabera, Ipar Amerikako ekonomia % 1,8 haziko da 2016an (2017an % 2,2), Eurogunearena % 1,6 (2017an % 1,7) eta Japoniarena % 0,7 (2017an % 0,4).

Sortzen eta garatzen ari diren ekonomiei dagokienez, horiek pixkanaka indartuz joango direla aurreikusten da; hain zuzen ere, NDFk % 4,1eko aurrerapena aurreikusten du 2016rako eta % 4,6koa 2017rako.

**13. koadroa Aurreikuspen ekonomikoak (industrializatutako herrialdeak)**

*(% )*

| Kontzeptua | 2016 | 2017 |
|---|---|---|
| – BPG erreala (% Δ) | | |
| • Estatu Batuak | 1,8 | 2,2 |
| • Japonia | 0,7 | 0,4 |
| • Eurogunea | 1,6 | 1,7 |
| • ELGA guztira | 1,8 | 2,1 |
| – Inflazioa (kontsumo pribatuaren deflatorea) (% Δ) | | |
| • Estatu Batuak | 1,0 | 1,8 |
| • Japonia | 0,0 | 2,2 |
| • Eurogunea | 0,3 | 1,0 |
| • ELGA guztira | 1,1 | 1,8 |
| – Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren % ) | | |
| • Estatu Batuak | 5,0 | 4,7 |
| • Japonia | 3,2 | 3,1 |
| • Eurogunea | 10,2 | 9,8 |
| • ELGA guztira | 6,4 | 6,2 |
| – Defizit publikoa (BPGaren % ) | | |
| • Estatu Batuak | -4,3 | -3,7 |
| • Japonia | -5,1 | -4,0 |
| • Eurogunea | -1,8 | -1,4 |
| • ELGA guztira | -2,9 | -2,4 |
| – Munduko merkataritza (% Δ) | 2,1 | 3,2 |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2016ko ekaina).*

## 1.2 ESPAINIAKO EKONOMIA

### Ezaugarri nagusiak

2014an %1,4ko gorakada izan ondoren, Estatuko BPGaren aurrerapen-erritmoa indartu egin da, 2015ean %3,2ra iritsi arte, eta jardueraren indartze horrek eragin positiboa izan du lan-munduan.

Hori horrela, 2015ean Espainiako ekonomiak, Europar Batasunarekin alderatuta, dinamismo handiagoa lortu izanaren ondorioz, pixka bat aurrera egin du Erkidegoko ekonomia nagusiekiko benetako konbergentzia-prozesuan.

Eskariari arreta eskainiz, BPGa areagotzearen arrazoietako bat izan da barne-eskariak ehuneko 3,7 puntuko ekarpen positiboa egin diola mundu-mailako hazkundeari (2014an

ehuneko 1,6 puntu positibo), eta hori zati batean konpentsatuta geratu da kanpoko sektorearen ehuneko puntu erdiko ekarpen negatiboarekin (ehuneko bi dezima negatibo 2014an).

Eskaintzari dagokionez, sektore guztiek egin dute gora 2015ean, eta tasa positiboetara iritsi dira bai eraikuntzaren sektorea bai lehen sektorea (2015ean %5,2 eta aurreko ekitaldian -%2,1, eta %1,9 eta -%3,7, hurrenez hurren). Industriaren eta zerbitzuen sektoreek berriz aurrera egiten jarraitu dute, erritmo handiagoan (2015ean %3,4 eta aurreko ekitaldian %1,2, eta %3,1 eta %1,9, hurrenez hurren).

Lan-merkatuari dagokionez, okupazioaren hazkundea ere indartu egin da, %3ra arte igoz 2015ean (%1,2ko gorakada izan zuen 2014an), eta 17.866.000 pertsona egon dira lanean. Horrez gain, nabarmendu behar da sektore guztietan, oro har, areagotu egin dela okupazio-maila: eraikuntzan %8,1, industrian %4,3, zerbitzuetan %2,6 eta lehen sektorean %0,1. Bestalde, langabezian dauden biztanleen kopuruak -%9,9 egin du behera 2015ean (2014an -%7,3), eta, hain zuzen ere, 5.056.000 pertsona egon dira langabezian, alegia, %22,1. Langabezia-tasa hori EB-28ko bigarren altuena da, Greziaren atzetik (%24,9, Europako Batzordearen arabera).

Prezioei dagokienez, abendutik abendura, KPIa ez da batere aldatu urtetik urtera (%0), baina urteko batez besteko terminoetan pixka bat negatiboa izan da (-%0,5).

Azkenik, aurrekontu-exekuzioari dagokionez, BPGaren -%5,08ko defizita jaso da 2015ean (kreditu-erakundeentzako laguntzak barne); erregistro horrek ehuneko 0,81 puntutan hobetzen du aurreko ekitaldian lortutakoa (BPGaren -%5,89ko defizita 2014an).

**Agregatu makroekonomiko nagusiak**

Lehenago ere esan dugun moduan, estatu-mailako BPGaren hedapena indartu egin da 2015ean, %3,2ra arte (2014an %1,4), eta urtetik urterako hazkundea indartzeko joera erakutsi du ekitaldiko hiruhilekoetan zehar (urtetik urterako aurrerapenak: %2,7, %3,2, %3,4 eta %3,5, hurrenez hurren).

Puntu honetara iritsita, jarraian jardueraren bilakaera aztertuko dugu, hainbat ikuspegi kontuan hartuta: eskaria (norakoa), eskaintza (jarduera) eta errenta (banaketa).

- 2015ean, Espainiako BPG osoa 1.081.190 milioi eurora[1] iritsi da; horietatik 830.918 milioi azken kontsumoari dagozkio (611.231 etxeena, 11.017 etxeen zerbitzura dauden irabazi asmorik gabeko gizarte-erakundeena (EZIAGGE) eta 208.670 administrazio publikoena), 220.219 inbertsioari (112.246 eraikuntzara bideratutakoak, 75.767 ekipo-ondasunetara eta 32.206 jabetza intelektualeko produktuetara), eta 3.133 izakinen aldakuntzari. Hori horrela, azken barne-eskaria 1.054.270 milioi eurokoa izan da. Kanpo-eskaria esportazioen (358.391 milioi euro) eta inportazioen (331.471 milioi euro) arteko aldea kalkulatuta ateratzen da; hori kontuan hartuta lortzen dugu guztizko eskaria.
- Kanpo-eskariaren ehuneko puntu erdiaren ekarpen negatiboari gehitzen badiogu barne-eskariak ehuneko 3,7 puntuko ekarpen positiboa izan du, BPGaren aurrerapena %3,2koa izan da 2015ean. Barne-eskariaren esparruan, bai kontsumo pribatuaren bai publikoaren hazkunde-erritmoa areagotu egin da, baita inbertsioena ere (2015ean %3,1 eta 2014an %1,2; 2015ean %2,7 eta 2014an aurrerapenik ez; eta 2015ean %6,4 eta aurreko ekitaldian %3,5; hurrenez hurren). Arreta inbertsioari eskaintzen badiogu, eraikuntzarekin lotura duen alderdia berriz ere tasa positiboetara itzuli da (2015ean %5,3 eta 2014an -%0,2); ekipo-ondasunei loturikoak, aldiz, aurreko ekitaldiko dimentsio berdintsuari eutsi dio (2015ean %10,2 eta 2014an %10,5).
- Sektorekako banaketa aintzat hartzen badugu, 24.674 milioi euro lehen sektoreari dagozkio, 167.203 milioi euro industria-sektoreari (130.759 manufaktura-industriari dagozkio), 54.343 milioi eraikuntzari eta 735.603 milioi zerbitzuei. Partida horiek zergei dagozkienei gehituz gero (93.367 milioi euro), guztizko ekoizpena lortuko dugu.
- Sektore guztiek gora egin dute 2015ean; alabaina, dinamismo handiena eraikuntzak izan du (%5,2), eta ondoren industriak (%3,4), zerbitzuek (%3,1) eta lehen sektoreak (%1,9). Aurreko ekitaldiari dagokionez, bai eraikuntzak bai lehen sektoreak lehengo hazkundeari heldu diote (-%2,1 eta -%3,7 2014an, hurrenez hurren), eta industria-sektorea eta zerbitzuak indartu egin dira (%1,2 eta %1,9 2014an, hurrenez hurren).

[1] Prezio arruntak.

**14. koadroa Barne-produktu gordina eta bere osagaiak (eskaria eta eskaintza)**

*(urtetik urterako tasaren %, bolumen kateatua)*

| | Eragiketak | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| ESKARIA | Azken kontsumoaren gastua | 0,9 | 3,0 |
| | – Etxeena | 1,2 | 3,1 |
| | – EZIAGGEena | 1,3 | 1,0 |
| | – Administrazio publikoena | 0,0 | 2,7 |
| | Kapital finkoaren eraketa gordina | 3,5 | 6,4 |
| | – Eraikuntza | -0,2 | 5,3 |
| | – Ekipo-ondasunak eta aktibo landuak | 10,5 | 10,2 |
| | Izakinen aldakuntza* | 0,2 | 0,1 |
| | Barne-eskaria* | 1,6 | 3,7 |
| | Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa | 5,1 | 5,4 |
| | Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa | 6,4 | 7,5 |
| **Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan** | | **1,4** | **3,2** |
| ESKAINTZA | Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza | -3,7 | 1,9 |
| | Industria | 1,2 | 3,4 |
| | Eraikuntza | -2,1 | 5,2 |
| | Zerbitzuak | 1,9 | 3,1 |
| | Produktuen gaineko zerga garbiak | 0,8 | 2,8 |

*(*): Merkatuko prezioen BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena.*
*Iturria: EIN.*

- Errentaren alderditik begiratuta, soldatakoen ordainketak hartu du BPGaren %47,2, ustiapenen soberakin garbiak %42,6 eta ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiek gainerako %10,3.

**15. koadroa Barne Produktu Gordinaren banaketa (errenta)**

*(%Δ nominala)*

| Eragiketak | 2013 | 2014 | 2015 | 2015 (M eurotan) |
|---|---|---|---|---|
| Soldatakoen ordainketa(1) | -2,4 | 0,9 | 3,9 | 509.894 |
| Ustiapenaren soberakin gordina(2) | -1,2 | 0,4 | 3,1 | 460.156 |
| Ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak(3) | 6,0 | 4,0 | 6,9 | 111.140 |
| Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan(4) | -1,1 | 1,0 | 3,8 | 1.081.190 |

*(4) = (1)+(2)+(3).*
*Iturria: EIN.*

## Kanpo-merkataritza

Estatu-mailako jarduera ekonomikoa indartzearekin batera, Espainiako inportazioen hazkundea %7,5era arte igo da 2015ean (2014an %6,4); aldi berean, esportazioen hazkundea gutxiago hazi da (2015ean %5,4 eta 2014an %5,1), Estatuko bezero nagusiek dinamismo txikiagoa izan baitute, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Hala, kanpo-eskariak hazkunde orokorrari egiten dion ekarpen negatiboa hiru dezima areagotu da aurreko ekitaldiarekin alderatuta: ehuneko puntu erdi negatibo bat 2015ean, eta ehuneko bi dezima negatibo 2014an. Ekitaldiko hiruhilekoetan profil heterogeneoa izan du (ehuneko -0,4 puntu 2015eko lehen hiruhilekoan, -0,2 bigarrenean, -0,7 hirugarrenean eta -0,6 laugarrenean).

**Laneko prezioak eta kosteak**

Petrolioaren prezioak izan duen beheranzko joerarekin bat etorriz, 2015eko prezioen bilakaeraren ezaugarri nagusia izan da horien hazkunde-maila baxua edo, are gehiago, horien atzerakada. Zehatzago esanda, urtarriletik maiatzera, kontsumo-prezioen urtetik urterako beherakadak gero eta txikiagoak izan dira (-%1,3, -%1,1, -%0,7, -%0,6 eta-%0,2, hurrenez hurren), gorakada txikiak izan dituzte ekainean eta uztailean (%0,1 bi kasuetan), atzera egiten jarraitu dute abuztuan eta irailean (-%0,4 eta -%0,9, hurrenez hurren), berriz ere behera egin dute urrian eta azaroan (-%0,7 eta -%0,3, hurrenez hurren) eta ez dute aldakuntzarik izan abenduan (%0). Hala ere, abenduko urtetik urterako tasak atzean utzi du zeinu negatiboa aurreko ekitalditik (2015ean %0 eta 2014an -%1). Urteko batez besteko zifrei dagokienez, inflazioaren beherakada areagotu egin da: 2015ean %0,5 eta 2014an -%0,2. Azpiko inflazioak, berriz %0,6an jarraitu du (ez da aldakuntzarik egon aurreko ekitalditik).

Hala, kontuan hartuta ELGAren arabera Eurogunearen inflazio-tasa, kontsumo pribatuaren deflatoaren bidez neurtuta, %0,2koa izan dela 2015ean (2014an %0,5ekoa), Espainiako ekonomiaren eta moneta bakarraren blokearen arteko diferentziala ehuneko zazpi dezima negatibokoa izan da (aurreko ekitaldiko zifra berbera).

Ondasunen multzo desberdinak aztertuz gero, besteak izeneko taldea, edari alkoholdunak eta tabakoa, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak eta irakaskuntza izan dira inflazio handienekoak; denek %1 baino gehiagoko tasak izan dituzte (%1,6, %1,4, %1,2 eta %1,1, hurrenez hurren). Horien ondoren, hauek ditugu: hotelak, kafetegiak eta jatetxeak (%0,8); jantziak eta oinetakoak (%0,3) eta medikuntza (%0,1). Gainerako taldeen prezio-mailek, berriz, behera egin dute: etxeko tresneria (-%0,2), aisia eta kultura (-%0,4), komunikazioak (-%1,8), etxebizitza (-%2,1) eta garraioak (-%4,5).

**16. koadroa Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) eta Industriako Prezioen Indizea (IPI).**

*(Urtetik urterako aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| KPI | | | |
| – Indize orokorra[1] | 0,3 | -1,0 | 0,0 |
| – Indize orokorra[2] | 1,4 | -0,2 | -0,5 |
| Elikagaiak | 3,2 | -0,1 | 1,2 |
| Elikagaiak ez direnak | 0,9 | -0,2 | -1,0 |
| • Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak | 2,8 | -0,3 | 1,2 |
| • Edari alkoholdunak, tabakoa | 6,1 | 1,4 | 1,4 |
| • Jantziak eta oinetakoak | 0,0 | 0,1 | 0,3 |
| • Etxebizitza | 0,9 | 1,3 | -2,1 |
| • Etxeko tresneria | 0,9 | -0,5 | -0,2 |
| • Medikuntza | 6,9 | 0,1 | 0,1 |
| • Garraioak | 0,4 | -0,9 | -4,5 |
| • Komunikazioak | -4,2 | -6,1 | -1,8 |
| • Aisia eta kultura | 0,7 | -1,4 | -0,4 |
| • Irakaskuntza | 8,1 | 1,8 | 1,1 |
| • Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak | 0,5 | 0,5 | 0,8 |
| • Beste batzuk | 2,0 | 1,0 | 1,6 |
| Azpikoa | 1,4 | 0,0 | 0,6 |
| IPI | | | |
| – Indize orokorra | 0,6 | -1,3 | -2,1 |
| • Kontsumo-ondasunak | 2,2 | -0,5 | 1,1 |
| • Ekipo-ondasunak | -0,1 | 0,2 | 0,8 |
| • Bitarteko ondasunak | -0,5 | -1,5 | -0,7 |
| • Energia | 0,5 | -3,1 | -8,8 |

*(1): Abendutik abendura*
*(2): Urteko batez besteko aldakuntza.*
*Iturria: EIN.*

Industriako prezioei dagokienez, 2015ean indize orokorraren beherakada indartu egin da, -%2,1era arte (2014an -%1,3), energiaren prezioen beherakada nabarmenaren ondorioz (-%8,8); izan ere, bitarteko ondasunek ez dute ia beherakadarik izan (-%0,7) eta kontsumo- eta ekipo-ondasunei dagozkienek gora egin dute (%1,1 eta %0,8, hurrenez hurren).

Bestalde, kontuan izanda 2015ean ekoizpena %0,2 areagotu dela (BPGak %3,2 egin duelako gora, eta enpleguak %3, lanaldi osoko lanpostuei dagokienez), eta soldatako bakoitzeko ordainketak %0,5 egin duela gora, lan-kostu unitarioa %0,3 areagotu da (2014an -%0,8 murriztu zen).

**17. koadroa Errenten eta soldata-kostuen adierazleak**

*(%Δ)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| BPG erreala | -1,7 | 1,4 | 3,2 |
| Enplegua guztira* | -3,5 | 1,1 | 3,0 |
| Produktibitatea | 1,8 | 0,3 | 0,2 |
| Soldatakoen ordainketa | -2,4 | 0,9 | 3,9 |
| Soldatako enplegua* | -4,0 | 1,4 | 3,4 |
| Soldatako bakoitzeko ordainketa | 1,6 | -0,5 | 0,5 |
| Lan-kostu unitarioa | -0,2 | -0,8 | 0,3 |

*(*): Kontabilitateko Nazionaleko enpleguaren datuak erabili dira: lanaldi osoko lanpostuak.*

*Iturria: Guk geuk eginiko balioespena, EINen datuetatik abiatuta.*

## Lan-merkatua

Jarduera sendotzearen ondorioz (BPGa %3,2 areagotu da 2015ean, eta %1,4 zen 2014an), Estatuko lan-merkatuak bilakaera positiboa izan du 2015ean; okupazioak gora egin du eta langabeziak behera. Dena den, langabezia-tasak maila oso altuan egoten jarraitu du.

Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) arabera, lanean ari diren biztanleen hazkundea %3ra arte igo da 2015ean (%1,2ko gorakada izan zuen 2014an). Aldi berean, langabezian dauden biztanleen kopuruaren beherakada-erritmoa ere indartu egin da, -%9,9ra arte (aurreko ekitaldian -%7,3), eta biztanleria aktiboaren kopuruak -%0,1 egin du behera (22.922.000 pertsona).

Jarduera-tasa ez da ia batere aldatu (2015ean %59,5 eta 2014an %59,6); zehazki, gizonezkoen tasak behera egin du pixka bat (2015ean %65,7 eta aurreko ekitaldian %65,8), eta emakumeenak egonkor jarraitu du (%53,7 2014an eta 2015ean).

Lehen aipatutako enpleguaren %3ko hedapena (17.866.000 pertsona lanean) arrazoi hauengatik gertatu da: okupazioaren hazkundea sendotu egin da bai industrian (2015ean %4,3 eta 2014an %1) bai zerbitzuetan (2015ean %2,6 eta aurreko ekitaldian %1,7), eta gora egin du, halaber, eraikuntzan (2015ean %8,1 eta 2014an -%3,4) eta lehen sektorean (2015ean %0,1 eta 2014an -%0,1).

**18. koadroa Lan-magnitude nagusien bilakaera**
**Urteko batezbestekoak**

*(mila pertsona eta %)*

| Kontzeptua | 2015 | %∆ 2013 | %∆ 2014 | %∆ 2015 |
|---|---|---|---|---|
| Biztanleria aktiboa | 22.922,0 | -1,1 | -1,0 | -0,1 |
| Landun biztanleria | 17.866,0 | -2,8 | 1,2 | 3,0 |
| – Nek., abeltz., arrantza | 736,8 | -0,9 | -0,1 | 0,1 |
| – Industria | 2.482,3 | -5,2 | 1,0 | 4,3 |
| – Eraikuntza | 1.073,7 | -11,3 | -3,5 | 8,1 |
| – Zerbitzuak | 13.573,3 | -1,7 | 1,7 | 2,6 |
| Biztanleria langabetua | 5.056,0 | 4,1 | -7,3 | -9,9 |
| Langabezia-tasa* | 22,1 | 5,2 | -6,3 | -9,7 |

*(*): Biztanleria aktiboaren %.*
*Iturria: EIN (BAlko biztanleria-oinarria, 2011. 2016ko ekaineko datuak). Geuk egina.*

Aldi berean, ordaindutako enpleguaren aurrerapen-erritmoa ere sendotu egin da (2015ean %3,4 areagotu zen, eta 2014an %1,5); eta soldatakoa ez den enplegua ere hazten hasi da (2015ean %1,1 eta aurreko ekitaldian -%0,4). Kontratu-motaren arabera, aldi baterako soldatakoen kopuruaren gorakadak indar handiagoa izan du kontratu mugagabea dutenenak baino (%8,3 eta %1,9, hurrenez hurren).

Langabezia aintzat hartuta, 2015ean horren beherakada areagotu egin da, -%9,9ra arte (2014an -%7,3); zehazki, 5.056.000 pertsona egon dira langabezian. Hori horrela, langabezia-tasa %22,1eraino jaitsi da (aurreko ekitaldian %24,4). Erregistro hori EB-28ko bigarren altuena izan da, Greziaren atzetik (%24,9, Europako Batzordearen arabera).

**19. koadroa Enplegua, lan-egoeraren eta kontratu-motaren arabera. Urteko batezbestekoak**

*(mila pertsona eta %)*

| Kontzeptua | 2015 | %∆ 2013 | %∆ 2014 | %∆ 2015 |
|---|---|---|---|---|
| Landun biztanleria | 17.866,0 | -2,8 | 1,2 | 3,0 |
| Soldatakoak | 14.773,5 | -3,5 | 1,5 | 3,4 |
| – Sektore pribatua | 11.798,4 | -2,9 | 2,0 | 3,9 |
| – Sektore publikoa | 2.975,0 | -5,6 | -0,4 | 1,7 |
| Soldatakoak ez direnak* | 3.092,5 | 0,3 | -0,4 | 1,1 |
| – Enplegu-emaileak | 888,3 | -4,7 | 0,6 | 1,3 |
| – Autonomoak | 2.076,1 | 3,3 | -0,2 | 1,4 |
| – Kooperatibistak | 22,7 | -16,8 | 5,2 | -7,3 |
| – Familia-laguntza | 100,4 | -6,8 | -10,3 | -2,3 |
| Kontratu mugagabedun sold. | 11.059,3 | -3,1 | 0,4 | 1,9 |
| Ali baterako kontratudun sold. | 3.714,2 | -4,6 | 5,3 | 8,3 |
| Lanaldi osoko okup. | 15.053,8 | -4,3 | 1,1 | 3,2 |
| Lanaldi partzialeko okup. | 2.812,2 | 6,0 | 1,9 | 1,9 |

*(*): Batura ez dator bat guztizkoarekin, bertan sailkatu ezin direnak ere sartu baitira.*
*Iturria: EIN (BAlko biztanleria-oinarria, 2011. 2016ko ekaineko datuak). Geuk egina.*

### Sektore publikoa eta interes-tasak

Administrazio publikoen guztizko defizita BPGaren -%5,08koa izan da 2015 ekitaldiaren amaieran (kreditu-erakundeei emandako laguntzak barne).

Autonomia-erkidegoen arabera xehatutako analisitik ondoriozta daiteke administrazio horiek guztiek saldo defizitarioak izan dituztela 2015ean; Kanarietan erregistratu da eskualdeko BPGarekiko defizit txikiena (-%0,54), eta Katalunian handiena (-%2,7). EAEn, defizita -%0,69koa izan da; beraz, ehunen bat hobetu da helburu gisa ezarrita zuen zifra (-%0,7).

**20. koadroa Defizit publikoa**

*(BPGaren %)*

| Kontzeptua | 2014 | 2015 |
|---|---|---|
| Administrazio zentrala* | -3,57 | -2,53 |
| Autonomia-erkidegoak | -1,75 | -1,66 |
| Tokiko udalbatzak | 0,57 | 0,44 |
| Gizarte Segurantza | -1,04 | -1,26 |
| **Administrazio publikoak guztira*** | **-5,79** | **-5,00** |
| • Kreditu-erakundeentzako laguntzak | -0,10 | -0,08 |
| **Administrazio publikoak guztira** | **-5,89** | **-5,08** |

*(*): Finantza-laguntzarik gabe.*
*Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioa (2016ko apirilaren 7a).*

Azkenik, berriz ere aipatu behar da 2015aren amaieran Europako Banku Zentralaren erreferentziazko tasak %0,05ean jarraitu duela, eta Erreserba Federalarena %0,5ean finkatu dela, abenduan %0,25 igo ostean.

**2. grafikoa** **Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala**




*Iturria: EBZ, Erreserba Federala.*

## Aurreikuspenak

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak 2016ko apirilaren amaieran argitaratutako aurreikuspenen arabera, Espainiako BPGak %2,7 egingo du gora ekitaldi horretan (2017an %2,4). Enplegua ere, lanaldi osoko lanpostu kopuruaren arabera neurtuta, igo egingo da (%2,5). Dena den, Estatuko langabezia-tasa altuegia izaten jarraituko du; aurreikuspen ofizialaren arabera, %19,9koa.

**21. koadroa Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2016)**

| Kontzeptua | Urtetik urterako aldakuntza-tasa |
|---|---|
| **BPG eta ESKARI-AGREGATUAK** | |
| • Nazio-mailako azken kontsumo pribatuaren gastua | 3,2 |
| • Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua | 1,0 |
| • Kapital finkoaren eraketa gordina | 5,6 |
| – Barne-eskaria (BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena) | 3,1 |
| – Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa | 5,3 |
| – Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa | 7,0 |
| – Kanpo-saldoa (BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena) | -0,4 |
| – BPG | 2,7 |
| **LAN-MERKATUA** | |
| – Enpleguaren aldakuntza %-tan(*) | 2,5 |
| – Langabezia-tasa | 19,9 |

*(*): Lanaldi osoko lanpostuak kontuan hartuta.*
*Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa (2016ko apirila).*

# 2. NAFARROAKO EGITURA EKONOMIKOA

Azken urte hauetan, Nafarroako egitura ekonomikoak ekonomia garatuen ohiko ezaugarriak ditu; izan ere, Nafarroako ekoizpenaren eta enpleguaren sektore-banaketaren ezaugarria da zerbitzu-sektorea nagusitzen dela; ondoren, industria-sektorea dago, nolabaiteko aldearekin, eta jarduera horrek Nafarroan duen garrantzi erlatiboa Nafarroaren inguruneko ekonomiena baino zertxobait handiagoa da; eraikuntzaren eta lehen sektorearen garrantzi erlatiboa, berriz, askoz ere txikiagoa da.

**22. koadroa Ekoizpen-egitura (BEGaren konposizio sektoriala), 1960-2015**

| Sektorea | 1960 | | 1975 | | 1990 | | 2015 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia |
| Nekazaritza | 33,0 | 22,6 | 14,1 | 9,7 | 4,9 | 4,9 | 3,2 | 2,5 |
| Industria | 27,5 | 31,5 | 37,4 | 31,8 | 38,7 | 27,5 | 31,5 | 17,0 |
| Eraikuntza | 5,3 | 5,3 | 6,4 | 7,3 | 7,8 | 9,7 | 5,3 | 5,5 |
| Zerbitzuak | 34,2 | 40,6 | 42,1 | 51,2 | 48,6 | 57,9 | 60,0 | 74,9 |
| **Guztizkoa** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

*Iturria: EIN, FUNCAS.*

**23. koadroa Egitura okupazionala (enpleguaren konposizio sektoriala), 1960-2015**

| Sektorea | 1960 | | 1975 | | 1990 | | 2015 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia |
| Nekazaritza | 41,1 | 41,7 | 20,9 | 23,4 | 7,2 | 11,0 | 3,5 | 4,3 |
| Industria | 23,1 | 23,2 | 36,8 | 27,2 | 35,7 | 22,6 | 24,6 | 13,6 |
| Eraikuntza | 7,2 | 6,8 | 8,8 | 9,6 | 8,5 | 9,4 | 6,4 | 5,8 |
| Zerbitzuak | 28,6 | 28,3 | 33,5 | 39,8 | 48,6 | 57,0 | 65,5 | 76,2 |
| **Guztizkoa** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

*Iturria: EIN, FUNCAS.*

Nafarroako ekoizpenaren eta enpleguaren sektore-osaeraren bilakaerak Nafarroako ekoizpen-sarean azken hamarkada honetan izandako aldaketa nabarmenak erakusten ditu. Aldaketa horien artean honako hauek nagusitzen dira: zerbitzuen garrantzia zertxobait igo da eta lehen mailako sektorearen garrantzia nabarmen jaitsi da. Era berean, joan den mendeko hirurogeiko hamarkadan industria-jarduerak hasitako hazkundeak eragin zuen sektore horren garrantzia gero eta handiagoa izatea eskualdeko ekonomian; izan ere, hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean gehieneko mailetaraino iritsi zen, baina, ondoren, jaitsi egin zen, nahiz eta jaitsiera hori inguruneko ekonomietakoa baino arinagoa izan zen. Bestalde, eraikuntza-sektoreak izandako partaidetzaren portaera aldakorragoa izan da denboran; hala eta guztiz ere, ikusi da sektore horren garrantzi erlatiboa zertxobait igo dela, bereziki mende honetako lehenengo urteetako goranzko azken zikloan, garai horretan Nafarroako ekonomiaren

(eta Estatu osoaren) hazkundearen eragile nagusietako bat izan zelako, baina joera hori eten egin da azken urte hauetan, jarduera hori pairatzen ari den krisi handiaren ildotik.

Nafarroan ekoizpenaren eta enpleguaren sektore-osaeran izandako aldaketek, oro har, Espainia osoan ikusitako antzeko jarraibideei jarraitu dieten arren, aldaketa horiei buruzko azterketa zehatza egiten badugu, ikusiko dugu Nafarroako ekonomia-egituren osaeran islatzen diren alderdi desberdin batzuk daudela. Zehazki, aipatu behar dugu nekazaritza-ekoizpenak Nafarroan izan duen partaidetzaren murrizketa Estatu osoan izandako jaitsiera baino zertxobait txikiagoa izan dela; izan ere, Nafarroan, gaur egun % 3,2 da, eta Espainia osoan, 2015ean, % 2,5 izan zen.

Era berean, ikusten da hirugarren sektoreko ekoizpeneko partaidetzaren hazkundea handiagoa izan dela Espainia osoan Nafarroako ekonomian baino (Nafarroaren partaidetza % 60,0 izan da 2015ean; Espainian, aldiz, % 74,9 izan da); egoera horrelakoa da, batez ere, turismoari lotutako hirugarren sektoreko jarduerek garrantzi handia dutelako Espainian. Azkenik, industria-sektorearen garrantzi erlatiboa izugarri jaitsi da Espainiako ekonomian, baina partaidetza horren jaitsiera txikiagoa izan da Nafarroan (2015ean % 31,5 izan da Nafarroan; Espainian, aldiz, % 17,0).

**24. koadroa Nafarroaren parte-hartzea Espainia osoan, 2015**

| Sektorea | % Nafarroa/Espainia | |
|---|---|---|
| | BEG | Enplegua |
| Nekazaritza | 2,14 | 1,19 |
| Industria | 3,12 | 2,64 |
| Eraikuntza | 1,62 | 1,59 |
| Zerbitzuak | 1,35 | 1,26 |
| **Guztizkoa** | **1,69** | 1,46 |

*Iturria: EIN.*

Beraz, Nafarroak eta Espainiak nekazaritzaren eta eraikuntzaren sektoreetako ekonomietan izandako partaidetza-maila antzekoa denez, Nafarroaren ekonomia-egitura eta Espainia osoarena bereizten dituen alderdi nagusia industriaren eta zerbitzuen sektoreek duten partaidetzan ikusten da gaur egun. Alde horretatik, Nafarroako industria-ekoizpenaren garrantzi erlatiboa Espainian izandakoa baino ehuneko 14,5 puntu handiagoa da 2015ean (14,2 puntu 2014an); zerbitzu-sektorearen kasuan, berriz, garrantzi hori 14,9 puntu txikiagoa da Nafarroan (14,8 puntu 2014an). Aipatutako alderdi horiek berretsi egiten dira enpleguaren sektore-osaerak izandako bilakaera aztertzen denean; izan ere, arestian deskribatutako ekoizpen-sistemaren eraldaketa ekoizpen-sarearen eraldaketarekin lotuta dago.

**25. koadroa Balio erantsi gordina biztanleko Nafarroan**

*(Espainiako batez besteko oinarriaren indizea=100)*

| Urtea | BEG biztanle bakoitzeko |
|---|---|
| 2006 | 128,8 |
| 2007 | 128,7 |
| 2008 | 129,1 |
| 2009 | 128,7 |
| 2010 | 129,9 |
| 2011 | 125,4 |
| 2012 | 126,1 |
| 2013 | 125,5 |
| 2014 | 123,5 |
| 2015 | 123,2 |

*Iturria: EIN.*

Testuinguru horretan, estatu-eremuan Nafarroako ekonomiak izandako industria-espezializazio nabarmenak ekarri du azken urte hauetan Nafarroako garapen eta ongizate-maila Estatu osokoa baino handiagoa izatea. Horiek horrela, Nafarroako ekonomiak azken urte hauetan dinamismo handiagoa izan duenez, biztanle bakoitzeko balio erantsi gordina estatuko batez bestekoa baino zertxobait handiagoa da gaur egun Nafarroan (% 23,2 handiagoa 2015ean).

Azkenik, kapitulu hau amaitzeko, jarraian Nafarroako ekoizpen-sistema osatzen duten jarduera-sektoreen ezaugarri nagusiak zehaztuko ditugu oro har.

### Lehen sektorea

Nahiz eta sektore horrek enpleguari eta ekoizpenari egiten dien ekarpena nabarmen murriztu den azken hamarkada hauetan, nekazaritza-jarduera oinarrizko jarduera da eskualdeko ekonomiarako, bai sektore horrek duen garrantzi erlatiboarengatik (enpleguaren % 3,5 eta BEGaren % 3,2 da 2015ean) eta bai sektore horrek lurraldean duen banaketarengatik (Nafarroako hainbat gunetako [Pirinioak eta Erriberagoitia] ekonomia-oinarria da), eta, batez ere nekazaritzako elikagaien industriari eusten diolako, industria horren garrantzia eta dinamismoa Nafarroako ekonomia hazteko eta Euskal Autonomia Erkidegoko eremu zabaletan biztanleria ezartzeko azpiko alderdietako bat delako.

Horrenbestez, Nafarroa iparraldetik hegoaldera zeharkatzen badugu, ikusiko dugu gradualki igaroko garela baso-aberastasun handia, zelai, artasoro eta erremolatxa-soro ugari dituzten eta, beraz, nagusiki abere-hazkuntzari lotuta dauden lurralde menditsuetatik tarteko eremura, hau da, lekaleen soroak eta bazka-soroak, fruta-arbolak eta azkenaldi honetan industria-landaketak (ekilorea eta koltza) nagusitzen

diren eremura. Erriberan areagotu egiten da mahatsondoen hedapena, eta eskualdeko kontserba-industria tradizionala eta garrantzitsua hornitzen duten baratzeko produktuak (ospe handikoak) nagusitzen dira. Nekazaritza- eta abeltzaintza-ekoizpenak duen ospearen froga gisa, Idiazabal gaztaren (Urbasa eremuan), Erronkariko gaztaren, Nafarroako zainzurien, Lodosako pikillo piperren, Nafarroako ardoaren (ardo, beltza, gorria eta zuria) eta Nafarroako txahalaren jatorrizko izendapenak aipa daitezke.

Era berean, nabarmendu behar da espero dela Nafarroako nekazaritza-jarduerak etekin gehiago ateratzea eta indartzea Itoizko urtegiarekin eta Nafarroako Ubidearekin, horiei esker lur ureztatuak ezarri eta hobetuko baitira Ubideko eremu ureztagarrian (Nafarroan egin den obra hidrauliko garrantzitsuena da). Proiektu horri esker, 220 biztanlegune baino gehiago urez hornitu ahal izango dira (besteak beste, Iruñerriko Mankomunitate osoa), baliabide natural honen egungo defizita arindu ahal izango da, eta ahalbidetuko du lehorreko 59.160 hektarea lur ureztatu bihurtzea, nahiz eta hasiera batean 53.125 hektarea izango zirela aurreikusi; igoera hori gertatu da Ubidearen lehenengo fasea handitu delako eta bigarren fasean aldaketa batzuk egin direlako (bigarren fasean proiektuaren birdefinizioa aztertu behar izan baita; izan ere, proiektua idatzi zenean Bardeako egoera desberdina zen, oraindik ez zutelako biosferaren erreserba izendatu).

Hori horrela, aurreikusten da 2012. urtetik 2021. urtera bitarteko aldian 264 milioi euroko inbertsioa egingo dela azpiegitura honetarako, eta hiru bide erabiliz finantzatuko dela: Canasa sozietate publikoaren kapital sozialera egindako ekarpenak, banku-kredituak eta Canasaren diru-sarrerak (erabiltzaileek egindako ekarpenen bitartez). Kalkulatzen da Canasa sozietateak hemendik 20 urtera 723 milioi euroko inbertsioa egingo duela azpiegitura honetara.

Gaur egun, eta Nekazaritza, Elikagaigintza eta Ingurumen Ministerioak jakinarazi zuenaren arabera, Nafarroako Kanalaren lehen fasea zabaltzeko obrak gauzatze mailaren % 40ra iritsi dira. Lanak erritmo egokian garatzen ari dira. Horrela, dagoeneko 16.000 metro tutu baino gehiago ezarri da, aurreikusitako 28.832 metroetatik, eta Kanaleko obra zibila amaituta dago.

Kalkulatzen da obra egin ondoren 15.275 hektareen lehen mailako sektorearen urteko ekoizpenaren balioa 45 milioi euro izatea jarduna gauzatu aurretik (gaur egun 24 milioi da) eta nekazaritzako ustiategietatik lortutako onura 7 milioi euro izatetik 16 milioi euro izatera igarotzea, eta guztizko BEGa 84,8 milioi izatera.

## Industria

Nafarroa Espainiako eskualde industrializatuenetako bat da, eta industria-sektorea funtsezko ekoizpen-jarduera bihurtu da azken hamarkada hauetan (2015ean enpleguaren % 24,6 da, eskualdeko BEGaren % 31,5), eta jarduera horren portaerak baldintzatu egiten du neurri handi batean Nafarroako ekonomiaren hazkundea. Jardueraren azpisektore nagusiak honako hauek dira: ibilgailu motordunen Fabrikazioa, janari-industria, produktu metalikoen Fabrikazioa, beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen Fabrikazioa. Jarduera horiek, 2015ean, Nafarroako industriaren guztizko enpleguaren % 54,4 eta industria horrek sortutako balio erantsiaren % 51,0 ziren oro har, Estatistika Institutu Nazionalak emandako informazioaren arabera.

Nafarroako eta Estatu osoko industria-sarearen ezaugarria da ETEeak nagusitzen direla. Nolanahi ere, Nafarroan dauden atzerriko inbertsioak oso elementu garrantzitsuak dira sektorea dinamizatzeko eta modernizatzeko, nahiz eta horren ondorioz, Erkidegotik kanpoko erabaki-zentroek baino mendetasuna handiagoa izan. Hori horrela, gaur egun Nafarroan dauden ehun industria-enpresak baino gehiagok kapital multinazionala dute, batez ere ertainek edo txikiek, eta esportatzeko joera handia dute; 2015ean, joera hori, batik bat, ibilgailu motordunak fabrikatzeko, makineria eta ekipoa fabrikatzeko eta produktu metalikoak fabrikatzeko –makineria kenduta– azpisektoreetara bideratu dira. 2015ean, atzerriko inbertsioa Nafarroako industrian 9.537,48 milako eurokoa izan zen (16.917,27 milako eurokoa 2014an)

Banaketa geografikoa dela eta, industria-enpresak funtsean Iruñeko eremuan kokatzen dira, eskualdearen ipar-mendebaldean, Erriberagoitian eta Tuteran.

## Eraikuntza

Mende honen hasierako goranzko azken zikloan, sektore horrek garapen garrantzitsua izan zuen Nafarroan eta Estatu osoan oro har; bilakaera hori Nafarroan izan zen etxebizitzen eskaera handiak eta etxebizitzen eraikuntza nabarmenak bultzatu zuten; dinamika horri hainbat faktorek lagundu zioten, hala nola interes-tasak txikiak izateak edo egoera ekonomikoa egokia izateak; era berean, ikusi zen obra zibilaren bilakaera positiboa izan zela. Hala eta guztiz ere, guztiok dakigunez, bilakaera hori eten egin da azken urte hauetan, jarduera hori krisi handia igarotzen ari delako, eta 2015ean guztizko enpleguaren % 6,4 da eta eskualdeko BEGaren % 5,3.

**Zerbitzuak**

Ekonomia garatuen sistema ekonomikoaren tertziarizaziorako joerari jarraiki (horri gehitu behar zaio sektore publikoaren presentzia areagotu egin dela, industria-enpresen jarduera jakin batzuk kanporatu egin direla eta zerbitzuen eskaera igo egin dela), zerbitzu-sektoreak oso profil dinamikoa izan du azken urte hauetan (nabarmendu behar da sektore hori iraunkorra dela eta ziklo ekonomikoaren mendetasuna txikiagoa izateaz gain, hazkundea iraunkorra dela oro har), eta Nafarroako ekoizpen-sarean duen partaidetza etengabe areagotu dela. 2015ean enpleguaren % 65,5 eta eskualdeko BEGaren % 60,0 da, eta 2014an enpleguaren % 65,4 eta eskualdeko BEGaren % 59,6.

Nafarroako zerbitzuak kontuan hartuta, honako hauek nabarmentzen dira beren kalitatea eta garrantzia direla medio: osasun-, hezkuntza- eta merkataritza-arlokoak, baita banku-, aholkularitza- eta kontsultoretza-arlokoak ere. Bilakaerari dagokionez, azken urte hauetan enpleguaren hazkundea batez bestekotik gora igo duten azpisektoreak honako hauek dira: enpresentzako Zerbitzuak, Zerbitzu publikoak eta Merkataritza eta Ostalaritza. Testuinguru horretan nabarmendu behar da Interneten eta teknologia berrien esparruan informatikan eta telekomunikazioetan (webguneak eta enpresa-atariak egitea...) jarduten duten enpresa asko sortzen ari direla. Halaber, eta oso erakargarriak izan arren, turismoak Nafarroako ekonomian duen garrantzia mugatua da oraindik, nahiz eta eskualdeko ekonomian presentzia esanguratsua izatea lortzen ari den, eta espero da datozen urteetan ere bilakaera positibo horrekin jarraitzea.

Lurralde-banaketari dagokionez, adierazi behar dugu zerbitzu-sektoreko enpleguaren % 60 inguru Iruñean eta haren Eskualdean biltzen dela, goi-mailako gune tertziarioa delako tamaina txikiko Erkidego batentzat.

# 3. IKUSPEGI OROKORRA

Nazioarteko ekonomian, txikitu egin da mundu osoko ekonomiaren hazkundea, eta testuinguru horretan, Nafarroako ekonomiak bikoiztu egin du aurrerapen-erritmoa aurreko ekitaldiarekin alderatuta (2015ean % 2,9, eta 2014an % 1,5).

**26. koadroa Bilakaera orokorra**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| **NAFARROA** | | | | | |
| – BPG | 1,5 | -1,5 | -1,3 | 1,5 | 2,9 |
| – Enplegua | -0,4 | -4,1 | -3,5 | 1,7 | 0,7 |
| – Langabezia-tasa(1) | 13,0 | 16,2 | 17,9 | 15,7 | 13,8 |
| – KPI(2) | 2,6 | 2,7 | 0,0 | -1,2 | -0,1 |
| **ESPAINIA** | | | | | |
| – BPG | -1,0 | -2,6 | -1,7 | 1,4 | 3,2 |
| – Enplegua | -1,6 | -4,3 | -2,8 | 1,2 | 3,0 |
| – Langabezia-tasa(1) | 21,4 | 24,8 | 26,1 | 24,4 | 22,1 |
| – KPI(2) | 2,4 | 2,9 | 0,3 | -1,0 | 0,0 |

*(1): Biztanleria aktiboaren % .*
*(2): Aldakuntza-tasa abendutik abendura.*
*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, EIN (BAI, 2011ko biztanleria-oinarria).*

Era horretan, EAEk dinamismo hobea izan du Euroguneak baino (2015ean % 1,6 2015ean, ELGAren arabera); horri esker, nolabaiteko aurrerapausoak egon dira Europako ekonomia nagusiekin benetako parekatzea lortzeko prozesuan.

Kontuan hartzen badugu EINren eskualdekako kontabilitatea, Espainiako autonomia-erkidego guztiek areagotu egin dute hedapen-erritmoa 2015ean, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Gehien hazi den autonomia-erkidegoa Valentziako Erkidegoa (% 3,6) izan da; gutxien hazi dena, berriz, Kantabria (% 2,6). Nafarroako ekonomiak, berriz, % 2,9ko gorakada izan du, EINren datuen arabera.

Lan-merkatuari dagokionez, EINren Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuen arabera, Nafarroako biztanle landunen kopuruak % 0,7ra moteldu du hedapen-erritmoa 2015ean (2014an % 1,7). Dinamika hori Estatuan bizitakoa baino txikiagoa izan da (2015ean % 3 hazi da biztanle landunen kopurua). Nolanahi ere, nabarmendu beharra dago langabezia-tasak aurreko ekitaldiko beheranzko joerari jarraitu diola, oro har: Nafarroan, % 15,7tik % 13,8ra jaitsi da 2014tik 2015era, eta Estatuan % 24,4tik % 22,1era.

Prezioei dagokienez, petrolioa merkatzearekin batera, prezioek hazkunde baxua izan dute, baita beherakada ere 2015eko hilabeteetan zehar, Nafarroan zein Estatuan.



LABORAL kutxa

Nafarroan, zehazki, KPIak urtetik urterako beheranzko tasa negatiboak izan ditu uztailera arte (urtarrilean -% 1,4 izatetik hilabete berean -% 0,1 izatera igaro zen); abuztuan eta irailean atzerakada areagotu zen (-% 0,7 eta -% 1,2, hurrenez hurren), baita urrian, azaroan eta abenduan ere (-% 1, -% 0,5 eta -% 0,1, hurrenez hurren). Hala, metatutako inflazio-tasa (abendutik abendura) -% 0,1 izan da Nafarroan eta % 0 Estatuan (-% 1,2 eta -% 1, hurrenez hurren, 2014 ekitaldiaren amaieran).

Azkenik, adierazi behar da Nafarroako ekonomiak urtetik urterako % 3,1eko aurrerapena erregistratu duela 2016ko lehen hiruhilekoan eta, hala, ehuneko bi hamarren okertu duela aurreko hiruhilekoan erregistratukoa (2015eko laugarren hiruhilekoan % 3,3). Laboral Kutxaren aurreikuspenen arabera, BPGa % 2,7 haziko da ekitaldi honetan.

**3. grafikoa BPGaren bilakaera**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*




*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.*

**27. koadroa Zenbait jarduera-adierazleren bilakaera**

*(aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2013 | | 2014 | | 2015 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia |
| **A. EKOIZPENA ETA JARDUERA** | | | | | | |
| A.1 Industria (ekoizpenak) | | | | | | |
| • Nekazaritzako elikagaien industria | -2,2 | -0,9 | 0,4 | 3,7 | 0,3 | 1,0 |
| • Automobilgintza (auto kop.) | 0,8 | 11,7 | 5,6 | 8,9 | -2,4 | 17,6 |
| • Papera (tonak) | 0,0 | 0,1 | -1,8 | -2,4 | 1,0 | 2,6 |
| A.2 Eraikuntza | | | | | | |
| • Amaitutako etxebizitzak (kopurua) | -18,9 | -54,8 | -24,4 | -16,6 | -43,9 | -4,9 |
| • Hasitako etxebizitzak (kopurua) | -65,4 | -31,0 | 68,3 | 0,2 | 34,1 | -- |
| • Barneko zementu-salmentak (tonak)** | -23,0 | -20,9 | 11,8 | 0,4 | -4,9 | 5,5 |
| • Lizitazio ofizialak (euro korronteak) | -8,1 | 23,3 | 8,8 | 42,6 | 98,2 | -28,2 |
| A.3 Nekazaritza-sektorea (ekoizpenak) | | | | | | |
| • Nekazaritza (euro korronteak) | -- | 7,8 | -- | -3,3 | -- | 2,5 |
| • Abeltzaintza (euro korronteak) | -- | 1,3 | -- | -0,8 | -- | -2,4 |
| • Basogintza (euro korronteak) | -- | -- | -- | -- | -- | -- |
| • Guztira (euro korronteak) | 2,0 | 5,0 | 1,6 | -5,3 | 1,4 | 6,1 |
| A.4 Zerbitzuak | | | | | | |
| • Errepide bidezko garraioa (merkantziak) | -3,0 | -7,5 | -14,8 | 3,0 | 34,4 | 8,2 |
| • Aireko garraioa (merkantziak) | -76,7 | -1,9 | 196,4 | 6,9 | -48,2 | 4,6 |
| • Aireko garraioa (bidaiariak) | -16,2 | -3,5 | -12,7 | 4,6 | 7,2 | 6,0 |
| A.5 Finantza-sektorea | | | | | | |
| • Gordailu pribatuak (euro korronteak) | 6,6 | 3,2 | -5,1 | 0,4 | -0,7 | -0,4 |
| • Sektore pribatuko kreditua (euro korronteak) | -8,0 | -9,4 | -10,3 | -4,6 | -6,3 | -4,0 |
| **B. BARNE-ESKARIA** | | | | | | |
| – Autoen matrikulazioa (kopurua) | 12,0 | 4,5 | 19,3 | 19,9 | 19,7 | 22,9 |
| – Ibilgailu industrialen matrikulazioa (kopurua) | 10,4 | 0,1 | 12,0 | 27,8 | 20,9 | 30,8 |
| – Ekipo-ondasunen inportazioa (euro korronteak)* | -5,4 | 3,6 | 4,4 | 15,8 | 37,1 | 21,0 |
| – Energia elektrikoaren kontsumoa (Kw/h) | -- | -2,3 | -- | -1,6 | -- | 1,7 |
| **C. KANPO-MERKATARITZA** | | | | | | |
| – Esportazioak (euro korronteak) | 2,9 | 4,3 | 9,3 | 2,5 | 3,9 | 4,3 |
| – Inportazioak (euro korronteak) | -9,4 | -2,2 | 6,2 | 5,7 | 8,8 | 3,7 |
| **D. PREZIOAK ETA SOLDATAK** | | | | | | |
| – Kontsumo-prezioen indizea (urteko batezbestekoa) | 1,2 | 1,4 | -0,5 | -0,2 | -0,6 | -0,5 |
| – Kontsumo-prezioen indizea (abe/abe)* | 0,0 | 0,3 | -1,2 | -1,0 | -0,1 | 0,0 |
| – Nekazariek jasotako prezioak | 7,9 | 2,8 | -2,6 | -7,1 | -16,8 | -1,8 |
| – Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko | -0,3 | 0,0 | 1,9 | -0,1 | -0,1 | 1,1 |
| **E. LAN-MERKATUA*** ** | | | | | | |
| – Biztanleria aktiboa | -1,4 | -1,1 | -1,0 | -1,0 | -1,5 | -0,1 |
| – Landun biztanleria | -3,5 | -2,8 | 1,7 | 1,2 | 0,7 | 3,0 |
| • Nekazaritza | 58,9 | -0,9 | -16,6 | -0,1 | -24,6 | 0,1 |
| • Industria | -1,9 | -5,2 | -0,6 | 1,0 | -3,7 | 4,3 |
| • Eraikuntza | -21,0 | -11,3 | -2,1 | -3,5 | 20,7 | 8,1 |
| • Zerbitzuak | -5,9 | -1,7 | 4,8 | 1,7 | 2,7 | 2,6 |
| – Biztanleria langabea | 9,3 | 4,1 | -13,3 | -7,3 | -13,3 | -9,9 |
| – Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren % ) | 17,9 | 26,1 | 15,7 | 24,4 | 13,8 | 22,1 |
| – Erregistratutako kontratuak | 18,8 | 3,9 | 14,9 | 13,1 | 15,3 | 11,1 |

*(*): Nafarroan, material elektrikoa eta makinen eta aparatuen inportazioa.*
*(**): Ipar Eremua: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa.*
*(***): BAI, 2011ko biztanleria-oinarria.*
*--: Ez dago behin betiko datu ofizialik.*
*Iturria: geuk egina, hainbat estatistika-iturri oinarri hartuta.*

## 3.1 EKOIZPENA

2014an hazkunde-tasa positiboetara itzuli ondoren, Nafarroak zein EAEk eta Estatuak nabarmen handitu dute hazkundearen erritmoa 2015ean. Zehazki, Nafarroako BPGd-a % 2,9 handitu da 2015ean (aurreko ekitaldian % 1,5), EAEri dagokiona % 2,8 (2014koaren bikoitza; % 1,4) eta estatuaren BPGd-a % 3,2 (% 1,4 aurreko ekitaldian). Hala, badirudi ekonomiaren berreskurapena egonkortu egin dela hiru geografia-eremu hauetan.

Nafarroak erakutsitako profila goranzkoa izan da 2015eko hiruhilabeteetan zehar. Alde horretatik, urtetik urterako hazkundeak % 2,4, % 2,8, % 3,1 eta % 3,3 izan dira lehenengo hiruhilekoan, bigarrenean, hirugarrenean eta laugarrenean, hurrenez hurren.

Eskaintzaren ikuspegiari dagokionez, sektore guztiek egin dute gora Nafarroan, oro har, 2015ean. Hala, zerbitzuek % 3,2 areagotu dute euren aurrerapen-erritmoa (2014an, % 1,5), industria-sektoreak dezima bat moteldu du (% 2,9 2015ean eta % 3 aurreko ekitaldian), lehen sektoreak % 2,5 biziagotu du erritmoa (% 1,2 aurreko ekitaldian) eta eraikuntza % 1,2 hazi da (-% 3 ,6 2014an).

**28. koadroa Barne Produktu Gordinaren (BPGd-) bilakaera**

*(Urte arteko benetako aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| NAFARROA(1) | | | |
| – Nekazaritza | 0,6 | 1,2 | 2,5 |
| – Industria | -1,1 | 3,0 | 2,9 |
| – Eraikuntza | -5,8 | -3,6 | 1,2 |
| – Zerbitzuak | -0,7 | 1,5 | 3,2 |
| – Guztizkoa | -1,3 | 1,5 | 2,9 |
| ESPAINIA(1) | | | |
| – Nekazaritza | 16,5 | -3,7 | 1,9 |
| – Industria(2) | -5,2 | 1,2 | 3,4 |
| – Eraikuntza | -9,8 | -2,1 | 5,2 |
| – Zerbitzuak | -0,6 | 1,9 | 3,1 |
| – Guztizkoa | -1,7 | 1,4 | 3,2 |

*(1):Balio Erantsi Gordina oinarrizko prezioei sektoreen kasuan, BPGd merkatuko prezioei guztizkoaren kasuan.*
*(2): Ez da sartzen energia.*
*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.*

Analisia industria-sektorean ardaztuz gero, 2015ean bilakaera desberdina izan du Nafarroan: Nafarroako Industria Ekoizpenaren Indizearen (IPI) zabalpena moteldu egin da (2015ean % 2,2; 2014an, berriz, % 3,9). Industria-giroa, berriz, positibo bihurtu da; izan ere, bilakaera ona izan dute aldian aldiko eskaerek (nahiz eta oraindik kopuru negatiboetan dauden) eta, bereziki, aurreikusitako eskaerek. Kontrara, Nafarroako industria-enpleguak behera egin du -% 3,7ra arte (aurreko ekitaldian, -% 0,6).

**29. koadroa Industria Sektorearen adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Industria Ekoizpenaren Indizea (IPI)(1) | -1,6 | 3,9 | 2,2 |
| Industria-giroa(2) | -16 | -6 | 2 |
| Aldian aldiko eskaerak(2) | -34 | -12 | -1 |
| Aurreikusitako eskaerak(2) | 1 | 4 | 13 |
| Industriako enplegua | -1,9 | -0,6 | -3,7 |

*(1): Egutegiaren eraginez zuzendutako datuak.*
*(2): Erantzun-saldoak.*
*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.*

Eraikuntzari dagokionez, Nafarroan gorakada zen nagusi sektore honetan, baina zementuaren barne-salmenten hazkundea eten egin da (2015ean -% 4,9 eta 2014an % 11,8), lizitazio ofizialetan nabarmen areagotu da aurrerapen-erritmoa (2015ean % 98,1; aurreko ekitaldian, berriz, % 8,8), hasitako etxebizitzen kasuan moteldu egin da (2015ean % 34,1; 2014an, berriz, % 68,3), amaitutako etxebizitzetan areagotu egin da beherakada (2015ean -% 43,9; aurreko ekitaldian, berriz, -% 24,4) eta sektoreko enplegua hazi egin da (2015ean % 20,7; 2014an, berriz, -% 2,1).

**30. koadroa Eraikuntzaren Sektoreko Adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| **Zementu kontsumoa*** | -23,0 | 11,8 | -4,9 |
| Lizitazio ofiziala(1) | -8,1 | 8,8 | 98,1 |
| Hasitako etxebizitzak(2) | -65,4 | 68,3 | 34,1 |
| Amaitutako etxebizitzak(2) | -18,9 | -24,4 | -43,9 |
| Enplegua | -21,0 | -2,1 | 20,7 |

*(*): Oficemeneko enpresa elkartuek Ipar Eremuan (Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) egindako zementu grisaren barne-salmentak dira.*
*(1): Seopan.*
*(2): Etxebizitza Ministerioa.*
*Iturria: Nafarroako Gobernua eta EIN.*

Zerbitzuei dagokienez, sektoreen heterogeneotasuna dela eta, aztertutako adierazleek oso joera ezberdinak dituztela ikus daiteke; hala ere, bilakaera ona izan da gehien nagusitu den joera. Hoteletako ostatu-gauek eutsi egin diete euren dinamismoari (2015ean % 3,6 eta 2014an % 8), aireko trafikoko bidaiariek gora egin dute (2015ean % 7,2, eta aurreko ekitaldian -% 12,7), eta ibilgailu astunen zein arinen trafikoak areagotu egin du bere hazkunde-erritmoa (2015ean % 6,3 eta % 4, hurrenez hurren, eta 2014an % 2,9 tea % 0,8, hurrenez hurren), sektoreko enpleguaren aurrerapena, ordea, moteldu egin da (2015ean % 2,7 eta aurreko ekitaldian % 4,8).

**31. koadroa Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Hoteletako ostatu-gauak | 2,1 | 8,0 | 3,6 |
| Aireko trafikoko bidaiariak | -16,2 | -12,7 | 7,2 |
| Ibilgailu arinen trafikoa autopistetatik | -3,7 | 0,8 | 4,0 |
| Ibilgailu astunen trafikoa autopistetatik | 0,1 | 2,9 | 6,3 |
| Enplegua | -5,9 | 4,8 | 2,7 |

*Iturria: AENA, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.*

## 3.2 ESKARIA

### Barne-eskaria

2014an erregistratutako % 0,6ko gorakada txikiaren ondoren, Nafarroako barne-eskariaren hazkuntza-erritmoaren intentsitatea % 2,6ra igo da 2015ean, eta BPGak % 2,9ko hedapena lortu du ekitaldi horretan.

Arreta barne-eskariaren osagarrietan jarriz gero, nabarmendu behar da 2015ean kontsumo pribatuak zein publikoak indartu egin dutela euren aurrerapena aurreko ekitaldiari dagokionez (% 3,2 2015ean, eta % 0,9 2014an, eta % 2,6 2015ean eta % 0,5 2014an, hurrenez hurren). Era berean, inbertsioa tasa positiboetara itzuli da berriro (2015ean % 1,3 igo zen, eta 2014an -% 0,4 jaitsi zen).

Kontsumo-adierazleak eta inbertsio-adierazleak aintzat hartzen baditugu, ikusiko dugu automobilen eta industria-ibilgailuen matrikulazioen hazkundea areagotu egin dela (2015ean % 19,7 eta 2014an % 19,3; eta 2015ean % 20,9 eta 2014an % 12, hurrenez hurren). Hitzarmenetan itundutako soldata-igoerari dagokionez, aurtengoa % 0,09 altuagoa izan da aurreko ekitaldian hitzartutakoa baino (2015ean % 0,53; 2014an, % 0,44).

### 32. koadroa Kontsumo- eta inbertsio-adierazleak

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Ibilgailuen matrikulazioa | 12,0 | 19,3 | 19,7[3] |
| KPI[1] | 0,0 | -1,2 | -0,1 |
| Soldata-igoera[2] | 0,89 | 0,44 | 0,53 |
| Ibilgailu industrialen matrikulazioa | 10,4 | 12,0 | 20,9[3] |

*(1): Aldakuntza-tasa abendutik abendura.*
*(2): Hitzarmenetan itundua.*
*(3): 2015. urtea. Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, EIN eta Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.*

## Kanpo-merkataritza

2015ean Europako ekonomiak Nafarroakoak baino dinamismo txikiagoa izan du, eta Nafarroako esportazioek moteldu egin dute aurrerapen-erritmoa; inportazioek, aldiz, indartu egin dute.

### 33. koadroa Kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015* | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| ESPORTAZIOAK guztira | 7.448,2 | 8.141,1 | 8.460,0 | 3,9 |
| INPORTAZIOAK guztira | 3.918,6 | 4.163,4 | 4.528,3 | 8,8 |
| SALDOA GUZTIRA | 3.529,5 | 3.977,7 | 3.931,7 | -1,2 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.*

2015ean, zehazki, esportazioak 8.460 milioi eurokoak izan dira, horrek esan nahi du hedapena % 3,9koa izan dela (2014an, % 9,3koa izan zen areagotzea); inportazioak, berriz, 4.528,3 milioi eurokoak izan dira; horrek esan nahi du % 8,8 areagotu dela (aurreko ekitaldian, % 6,2). Horiek horrela, Nafarroako balantza komertzialak 3.931,7 milioi euroko saldo positiboa izan du (2014an 3.977,7 milioi euro), eta esportazioek inportazioen gainean izandako estaldura-tasa % 186,8koa izan da (2014an % 195,5ekoa izan zen).

**34. koadroa Nafarroako esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | ESPORTAZIOAK | | | | | INPORTAZIOAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2013 | 2014 | 2015* | % | % ∆ 15/14 | 2013 | 2014 | 2015* | % | % ∆ 15/14 |
| **GUZTIRA (guztizkoak)** | **7.448,2** | **8.141,1** | **8.460,0** | **100,0** | **3,9** | **3.918,6** | **4.163,4** | **4.528,3** | **100,0** | **8,8** |
| HERRIALDEEN ARABERA (Guztizkoak) | | | | | | | | | | |
| – Frantzia | 1.325,9 | 1.418,1 | 1.468,2 | 17,4 | 3,5 | 547,2 | 539,6 | 526,4 | 11,6 | -2,4 |
| – Alemania | 1.259,8 | 1.303,0 | 1.376,9 | 16,3 | 5,7 | 1.064,7 | 1.228,5 | 1.413,7 | 31,2 | 15,1 |
| – Italia | 467,9 | 494,6 | 639,2 | 7,6 | 29,2 | 264,2 | 250,8 | 283,3 | 6,3 | 13,0 |
| – Erresuma Batua | 653,6 | 618,3 | 621,1 | 7,3 | 0,5 | 225,6 | 164,6 | 162,1 | 3,6 | -1,5 |
| – Portugal | 283,6 | 362,8 | 358,9 | 4,2 | -1,1 | 226,0 | 208,2 | 251,8 | 5,6 | 20,9 |
| – EB-28 guztira | 5.323,9 | 5.743,6 | 6.071,4 | 71,8 | 5,7 | 3.163,9 | 3.346,2 | 3.649,6 | 80,6 | 9,1 |
| – Gainerako Europa | 539,5 | 543,2 | 499,8 | 5,9 | -8,0 | 121,7 | 122,9 | 136,6 | 3,0 | 11,1 |
| – Estatu Batuak | 185,5 | 329,0 | 286,4 | 3,4 | -12,9 | 59,8 | 34,0 | 45,2 | 1,0 | 32,9 |
| – Beste helmuga batzuk | 1.399,3 | 1.525,3 | 1.602,4 | 18,9 | 5,1 | 573,2 | 660,3 | 696,9 | 15,4 | 5,5 |
| SEKTOREEN ARABERA (Guztizkoak) | | | | | | | | | | |
| – Lehen sektorea | 405,6 | 455,7 | 448,1 | 5,3 | -1,7 | 314,8 | 330,3 | 304,0 | 6,7 | -8,0 |
| – Nekazaritzako elikagaien industria | 493,1 | 512,9 | 532,1 | 6,3 | 3,7 | 211,6 | 203,5 | 214,0 | 4,7 | 5,2 |
| – Industria kimikoa | 101,9 | 90,1 | 96,7 | 1,1 | 7,3 | 223,7 | 187,9 | 269,8 | 6,0 | 43,6 |
| – Mat. plastikoak, kautxua | 258,4 | 260,4 | 269,0 | 3,2 | 3,3 | 323,7 | 281,1 | 285,7 | 6,3 | 1,6 |
| – Metal komunen manuf. | 643,5 | 691,2 | 730,0 | 8,6 | 5,6 | 460,1 | 483,1 | 515,5 | 11,4 | 6,7 |
| – Makinak, mat. elektrikoa | 1.649,3 | 1.965,8 | 2.120,6 | 25,1 | 7,9 | 918,4 | 958,5 | 1314,3 | 29,0 | 37,1 |
| – Garraio-materiala | 3.381,9 | 3.640,6 | 3.717,1 | 43,9 | 2,1 | 900,1 | 1.185,0 | 1018,2 | 22,5 | -14,1 |
| – Gainerakoak | 514,5 | 524,4 | 546,4 | 6,5 | 4,2 | 566,2 | 534,0 | 606,8 | 13,4 | 13,6 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.*

Geografiari dagokionez, Europar Batasuna (EB-28) da Nafarroako kanpo-merkataritzaren jatorri eta helmuga nagusia, kanpo-salmenten % 71,8 eta kanpo-erosketen % 80,6 barne hartzen baititu. Esportazioen kasuan, Frantziak % 17,4 biltzen ditu eta Alemaniak % 16,3. Inportazioen kasuan, berriz, Alemaniak % 31,2 biltzen ditu, eta Frantziak % 11,6.

Muga-zergen partidei dagokienez, garraio-materialari buruzkoa nabarmentzen da argi eta garbi, esportazioen % 43,9 eta inportazioen % 22,5 biltzen baititu; era horretan, baldintzatu egiten du neurri handi batean Nafarroako kanpo-merkataritzaren bilakaera globala.

## 3.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK

Beheranzko joera eta petrolioaren prezioaren beherakada ezaugarri dituen testuinguru batean (Brent upela -% 47,5 merkatu da batez beste 2015ean, 2014arekin alderatuta), Nafarroako kontsumo-prezioek urtetik urterako beherakadak izan dituzte ekitaldi osoan zehar; beheranzkoak uztaila arte, goranzkoak abuztuan eta irailean, eta berriz ere beheranzkoak urritik aurrera.

Dinamika horren arabera, 2015ean inflazio-tasa metatuak (abendutik abendura) negatiboa izaten jarraitu du Nafarroan (-% 0,1, eta aurreko ekitaldian, -% 1,2).

**35. koadroa Prezioen bilakaera Nafarroan**

*(Urte arteko aldakuntza tasa)*

| NAFARROA | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| **KPI** | | | |
| Orokorra[1] | 1,2 | -0,5 | -0,6 |
| Orokorra[2] | 0,0 | -1,2 | -0,1 |
| – Elik. eta alkoho. gab. edariak. | -0,4 | 0,4 | 1,7 |
| – Edari alkoholdunak, tabakoa | 4,8 | 0,2 | 1,0 |
| – Jantziak eta oinetakoak | 0,2 | 0,3 | 0,5 |
| – Etxebizitza | -1,2 | -1,9 | -3,0 |
| – Etxeko tresneria | -0,7 | -0,8 | 0,1 |
| – Medikuntza | 1,9 | 0,7 | 1,2 |
| – Garraioak | 1,3 | -5,7 | -2,4 |
| – Komunikazioak | -6,6 | -5,7 | 0,4 |
| – Aisia eta Kultura | 0,1 | -1,5 | -0,1 |
| – Irakaskuntza | 1,4 | 1,8 | 0,9 |
| – Hotelak eta jatetxeak | 0,7 | 0,6 | 0,7 |
| – Beste batzuk | -0,2 | 0,5 | 1,6 |
| **Nekazariek Jasotako Prezioen Indizea** | | | |
| Orokorra | 7,9 | -2,6 | -16,8 |
| – Nekazaritza-produktuak | 13,9 | -2,8 | -24,8 |
| – Baso-produktuak | -0,6 | 0,7 | 53,4 |
| – Animalia-produktuak | 2,0 | -2,5 | -8,5 |

*(1): Urteko batez besteko aldakuntza.*
*(2): Abendutik abendura*
*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.*

Ondasun talde desberdinen arabera, Nafarroan elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldeak izan du inflazio handiena (% 1,7), eta jarraian honako hauek: beste batzuk (% 1,6), medikuntza (% 1,2), edari alkoholdunak eta tabakoa (% 1), irakaskuntza (% 0,9), hotelak eta jatetxeak (% 0,7), jantziak eta oinetakoak (% 0,5), komunikazioak (% 0,4) eta etxeko tresneria (% 0,1). Bestalde, aisia eta kultura, garraioa eta etxebizitza taldeen prezioek behera egin dute (-% 0,1, -% 2,4 eta -% 3, hurrenez hurren).

Nafarroako nekazariek jasotako prezioei dagokienez, indize orokorraren beherakada indartu egin da (2015ean -% 16,8 eta 2014an -% 2,6), batez ere, nekazaritza- eta



LABORAL kutxa

animalia-produktuen beherakada sendotu delako (lehenengoa -% 2,8tik -% 24,8ra igaro da aurreko ekitalditik, eta bigarrena -% 2,5etik -% 8,5era). Baso-produktuen prezioek, berriz, gorakada handia izan dute (aurreko ekitaldian % 0,7 eta oraingoan % 53,4).

Laneko kostuei arreta eskaintzen badiegu, Nafarroan ordu efektibo bakoitzeko soldata-kostuak eutsi egin dio aurreko ekitaldiko dinamismoari (% 0,5 bai 2014an, bai 2015ean). Langile eta hilabete bakoitzeko soldata-kostua, aldiz, jaitsi egin da pixka bat (2015ean -% 0,1 eta 2014an % 1,9).

**36. koadroa Soldata-adierazleak**

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| **Soldata-kostuak (urte arteko aldak. tasa)** | | | |
| – Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko | -0,5 | 0,5 | 0,5 |
| – Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko | -0,3 | 1,9 | -0,1 |
| **Hitzarmenak** | | | |
| – Hitzarmen kopurua | 150 | 181 | 113 |
| – Eraginpeko langileak | 72.793 | 113.933 | 27.346 |
| – Adostutako soldata-igoera | 0,89 | 0,44 | 0,53 |

*Iturria: Lan Kostuaren Hiruhilekoko Inkesta (EIN) eta Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.*

Azkenik, Nafarroako negoziazio kolektiboari dagokionez, 2015ean aurreko ekitaldian baino gutxiago gauzatu dira; guztira 113 hitzarmen erregistratu dira (2014an 181) eta 27.346 pertsonari eragin die (2014an 113.933 pertsonari), eta adostutako soldata-igoera % 0,53 izan da (2014an % 0,44).

## 3.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA

### Estatuko gizarte- eta lan-arloari buruzko araudi garrantzitsuena[1]

Jarraian, labur azaltzen da 2015ean gizarte- eta lan-arloari buruz onartutako Estatuko araudi garrantzitsuena, maila eta oinarrizko edukia kontuan hartuta; haren aurkezpen laburra egingo da.

[1] Azpiepigrafe hau egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanen Kontseiluaren “EAEko egoera ekonomikoa eta lan-harremanak, 2015” txostena erabili da informazio-iturri gisa.

**37. koadroa 2015ean gizarte- eta lan-arlori buruz onartutako Estatuko araudi garrantzitsuena**

| Maila | Oinarrizko edukia | Oharrak |
|---|---|---|
| 30/2015 Legea, irailaren 9koa, lan-arloan enplegurako Lanbide Heziketako Sistema arautzen duena. | Sistemaren erreforma integralari heltzen dio, helburu hauekin: enplegatuen eta langabeen prestakuntzarako eskubidea baliatzeko bermea; enpresek lehiakortasunerako prestakuntzari eginiko ekarpen eraginkorra; negoziazio kolektiboa indartzea ekoizpen-sistemaren beharretara egokitzeko prestakuntza-eskaintzaren barnean; eta efizientzia eta gardentasuna baliabide publikoen kudeaketan. | Lege honen aurretik, martxoaren 22ko 4/2015 Errege Lege Dekretua onetsi zen (Lan-arloko Enplegurako Lanbide Heziketako Sistemaren premiazko erreformarakoa).<br>Hiruko negoziaziorako proposamenen akordioa jasotzen du, hazkunde ekonomikoa eta enplegua indartzeko, Gobernuak eta solaskide sozialek 2014ko uztailaren 29an sinatutakoa.<br>Enpresaren eredu berrian, nolabait, enpresa guztiek hartuko dute parte, beren baliabideekin, beren langileen prestakuntzaren finantzaketan.<br>Era berean aurreikusten du administrazioek, beren eskumeneko eremuetan, prestakuntza-eskaintza beren langile okupatuentzako programazioarekin osatuko dutela. Bertan, enpresa- eta sindikatu-erakundeek utzi egingo diote prestakuntza-planen titular izateari, emateari eta funtsak kudeatzeari, baina horien diseinuan, programazioan eta zabalkundean parte hartuko dute. |
| 23/2015 Legea, uztailaren 21ekoa, Lan Ikuskaritza eta Gizarte Segurantzako sistema arautzekoa. | Arau honen helburua da gizarte- eta lan-ordenamenduan egon diren araudi-aldaketetara egokitzea, batez ere langile orok Lan Ikuskaritzara eta Gizarte Segurantzara jotzeko duen eskubidea, bere eskubideak urratu direla uste duenean.<br>Helburua da funtzio-unitateko funtsezko printzipioen bizikidetza eta sistema ulertzeko modu bakarra eta integrala autonomia-erkidegoetako eskumenen garapenarekin bateratzea. Eta erakundetik indartzea ikuskaritza bera eta, horretarako, lankidetza- eta kooperazio-mekanismoak tartean diren administrazioekin antolatzea. | Sistema ulertzeko modu bakarrean eta integralean eta funtzioa- eta jarduketa-unitatearen printzipioan oinarritzen den eredua ezartzen da, administrazio eskudun guztien parte-hartzearen aurrerapenarekin batera.<br>Legeak arreta berezia eskaintzen dio ikuskaritzako jardueraren plangintzari herritarren eskari handia duten eremuetan; besteak beste: lan-kontratazioaren erregimena, lanpostuetarako sarbidea, berdintasunean eta diskriminaziorik ezean oinarritutako baldintzen araberako prestazioa, laneko segurtasuna eta osasuna, eta gizarte-segurantzako erregimen publikoaren bermea eta biziraupena. Gainera, bitartekari-zeregina indartzen da lan-gatazketan, eta informazioaren eta enpresentzako laguntza teknikoaren lana. |
| 44/2015 Legea, urriaren 14koa, Lan Sozietateei eta Partaidetzako Sozietateei buruzkoa. | Helburua da lan-sozietateei buruzko legea araudi-esparru berrira egokitzea.<br>Gizarte Ekonomiari buruzko Legearen (martxoaren 29ko 5/2011) zazpigarren xedapen gehigarriak Gobernuari agintzen zion Gorteei bidaltzeko aurreko Lan Sozietateei buruzko Legea (martxoaren 24ko 4/1997) eguneratzen duen lege-proiektua. | Araubide juridikoa aldatzen du, langileen parte-hartzea enpresan sustatzeko eta, horrela, bazkide-izaerari bide emateko; eta langileen kontrol-neurri berriak jasotzen ditu. |
| 47/2015 Legea, urriaren 21ekoa, Itsas eta arrantza-sektoreko langileen babes soziala arautzen duena. | Itsasoko langileen erregimen berezia eta Itsasoko Gizarte Institutuak kudeatutako gainerako prestazio eta zerbitzuak arautzen ditu. | |

*Iturria: Geuk egina, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanen Kontseiluaren "EAEko egoera ekonomikoa eta lan-harremanak, 2015" txostena oinarri hartuta.*

***Lan-merkatua Nafarroan***

2015ean areagotu egin da hazkunde ekonomikoa Nafarroan zein Estatu osoan, eta, horren ondorioz, hedatu egin da enplegua eta jaitsi egin da langabe kopurua bi geografia-eremuetan.

2015ean, Nafarroan 306,7 mila pertsona egon dira aktibo; horrek esan nahi du, urtetik urtera -% 1,5 murriztu dela kopurua; izan ere, 264,3 mila landun daude; hau da, % 0,7 igo da kopurua, eta 42,4 mila langabe daude; hau da -% 13,3 jaitsi da kopurua.

Datu erlatiboetan, Estatu osoan Nafarroan baino gutxiago egin du behera biztanleria aktiboak (-% 0,1), enpleguak gehiago egin du gora (% 3) eta langabeen kopuruaren beherakada antzekoa izan da (-% 9,9).

Hala, Nafarroako jarduera tasa % 58,8ra murriztu da 2015ean (2014an % 59,8), eta gizonen tasak zein emakumeen tasak behera egin du pixka bat (gizonena % 65,6 zen 2014an, eta % 64,1 2015ean, eta emakumeena % 54,1 zen 2014an, eta % 53,6 2015ean). Hau da, bi sexuen arteko aldea murriztu egin da (ehuneko 10,5 puntukoa zen aldea 2015ean eta ehuneko 11,5 puntukoa 2014an).

Bestalde, Estatuko jarduera-tasa ez da ia aldatu (% 59,5 zen 2015ean, eta % 59,6 2014an); izan ere, gizonei dagokien jarduera-tasa ia bera izan da bi urteetan (2015ean % 65,7 eta 2014an % 65,8), eta emakumeen jarduera-tasa ez da batere aldatu (% 53,7 2014an zein 2015ean). Hori dela eta, tasen arteko aldea ere ez da ia aldatu (ehuneko 12 puntu 2015ean; hau da, 2014an baino ehuneko dezima bat gutxiago).

Langabeziari dagokionez, Nafarroan zein Estatuan ikusitako atzerakadak (-% 13,3 Nafarroan eta -% 9,9 Estatuan), hala gizon langabeen beherakadak (-% 19,9 eta -% 12,2, hurrenez hurren) nola emakume langabeen beherakadak (-% 5,7 eta -% 7,3, hurrenez hurren) eragindakoak dira, eta oro har atzera egin du langabezia-tasak. Alde horretatik, Nafarroako gizonen langabezia-tasa % 15,5 zen 2014an, eta % 12,7 2015ean (Estatuan % 23,6tik % 20,8ra igaro da), eta emakumeena % 16 zen 2014an eta % 15,2 2015ean (Estatuan % 25,4tik % 23,5era igaro da). Hori kontuan hartuta, tasa orokorra % 13,8 izan da Nafarroan 2015ean (2014an % 15,7) eta Estatuan % 22,1 (2014an % 24,4). Estatuko erregistroa EBren esparruko altuenetan bigarrena da, Greziari dagokionaren atzetik.

**38. koadroa Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia**

*(urteko batezbestekoak milakotan)*

| Eremua | | 2014 | | | 2015 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Gizonak | Emakumeak | Guztizkoa | Gizonak | Emakumeak | Guztizkoa |
| Nafarroa | Aktiboak izan daitezkeenak | 257,6 | 263,6 | 521,2 | 257,6 | 264,0 | 521,5 |
| | Aktiboak | 168,9 | 142,6 | 311,5 | 165,0 | 141,6 | 306,7 |
| | Landunak | 142,7 | 119,8 | 262,5 | 144,1 | 120,2 | 264,3 |
| | Langabeak | 26,1 | 22,8 | 48,9 | 20,9 | 21,5 | 42,4 |
| | Jarduera-tasa | 65,6 | 54,1 | 59,8 | 64,1 | 53,6 | 58,8 |
| | Langabezia-tasa | 15,5 | 16,0 | 15,7 | 12,7 | 15,2 | 13,8 |
| | Erregistratutako langabezia* | 23,0 | 24,8 | 47,8 | 20,1 | 23,1 | 43,1 |
| Espainia | Aktiboak izan daitezkeenak | 18.774,5 | 19.740,1 | 38.514,6 | 18.753,2 | 19.744,3 | 38.497,6 |
| | Aktiboak | 12.359,1 | 10.595,4 | 22.954,6 | 12.319,6 | 10.602,4 | 22.922,0 |
| | Landunak | 9.442,7 | 7.901,5 | 17.344,2 | 9.760,3 | 8.105,7 | 17.866,0 |
| | Langabeak | 2.916,5 | 2.693,9 | 5.610,4 | 2.559,3 | 2.496,7 | 5.056,0 |
| | Jarduera-tasa | 65,8 | 53,7 | 59,6 | 65,7 | 53,7 | 59,5 |
| | Langabezia-tasa | 23,6 | 25,4 | 24,4 | 20,8 | 23,5 | 22,1 |
| | Erregistratutako langabezia* | 2.112,5 | 2.335,2 | 4.447,7 | 1.875,2 | 2.218,3 | 4.093,5 |

*(*): Abendua.*
*Iturria: EIN (BAI, 2011ko biztanleria-oinarria. 2016ko maitatzeko datuak) eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa (EEZP).*

Puntu honetara iritsita, gogorarazi behar da EEZPn erregistratutako langabeziaren alderdiari erreparatuz ere aztertu daitekeela langabezia. Hori bai, kontuan izan behar da kasu jakin honetan eskainitako informazioa abenduari dagokiola eta ez ekitaldi osoari. Alde horretatik, iturri horrekin bat etorriz, 2015eko abenduan Nafarroako EEZPren bulegoetan erregistratutako langabezia 43,1 mila pertsonakoa da, aurreko ekitaldikoa baino -% 9,8 txikiagoa. Estatuari dagokionez, 2015eko abenduan erregistratutako langabezia 4.093,5 mila pertsonakoa da; horrek esan nahi du urtetik urtera -% 8 egin duela behera.

Arreta berriro ere Biztanleria Aktiboaren Inkestan (urteko batez besteko datuak) jarriz gero, adin-geruzaren araberako langabezia-tasaren azterketak agerian uzten ditu taldeen arteko alde handiak. Tasarik altuena gazteenei dagokie. Hala, 2015ean, 16 eta 19 urte arteko pertsonen langabezia-tasa % 51,9koa da Nafarroan, 20-24 urte artekoena % 35,2koa, 25-54 urte artekoena % 13,2koa eta, azkenik, 55 urte eta hortik gorakoena % 8,2koa.

**39. koadroa Langabezia-tasa adin-tarteen arabera. Urte bakoitzeko batezbestekoak**

(% )

| Eremua | Urtea | 16-19 | 20-24 | 25-54 | 55 edo gehiago | Guztizkoa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Nafarroa | 2013 | 68,2 | 45,5 | 17,3 | 8,7 | 17,9 |
| | 2014 | 75,0 | 39,1 | 14,5 | 9,6 | 15,7 |
| | 2015 | 51,9 | 35,2 | 13,2 | 8,2 | 13,8 |
| Espainia | 2013 | 74,0 | 51,8 | 24,5 | 19,4 | 26,1 |
| | 2014 | 68,6 | 50,3 | 22,8 | 19,3 | 24,4 |
| | 2015 | 67,2 | 44,6 | 20,6 | 17,9 | 22,1 |

*Iturria: EIN (BAI, 2011ko biztanleria-oinarria. 2016ko maiatzeko datuak).*

Aurreko ekitaldiarekin alderatuz, Nafarroako langabezia-tasak behera egin du adin-talde guztietan: gazteenen adin-taldean % 75 zen langabezia-tasa 2014an, eta 2015ean % 51,9; 20-24 bitarteko adin-taldean % 39,1etik % 35,2ra jaitsi da; 25 eta 54 urte bitartekoen taldean % 14,5etik % 13,2ra eta azkeneko adin-taldean % 9,6tik % 8,2ra.

Estatuan ere 2015eko langabezia-tasarik altuena adingabeei dagokiena izan da (% 67,2), eta Estatuan ere, langabezia-tasak behera egin du, oro har, urtetik urtera, adin-talde guztietan.

Nafarroako enplegu-sektoreen bilakaerari dagokionez, lehen sektorean zein industria-sektorean eutsi egin zaio 2015ean enplegu-mailari (-% 24,6 eta -% 3,7, hurrenez hurren), eta eraikuntza eta zerbitzuen sektoreek gora egin dute (% 20,7 eta % 2,7, hurrenez hurren). Estatuan, aldiz, sektore guztietan egin du gora enplegu-mailak, oro har: eraikuntzan % 8,1, industrian % 4,3, zerbitzuetan % 2,6 eta lehen sektorean % 0,1.

**40. koadroa Enpleguaren bilakaera, ekonomia-sektoreen arabera. Urte bakoitzeko batezbestekoak**

(m pertsona)

| Eremua | Urtea | Lehen sektorea | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
|---|---|---|---|---|---|
| Nafarroa | 2013 | 15,1 | 67,3 | 14,3 | 161,3 |
| | 2014 | 12,6 | 66,9 | 14,0 | 169,0 |
| | 2015 | 9,5 | 64,4 | 16,9 | 173,5 |
| Espainia | 2013 | 736,6 | 2.355,5 | 1.029,5 | 13.017,5 |
| | 2014 | 735,8 | 2.379,9 | 993,5 | 13.234,9 |
| | 2015 | 736,8 | 2.482,3 | 1.073,7 | 13.573,3 |

*Iturria: INE (BAI, 2011ko biztanleria-oinarria. 2016ko maiatzeko datuak). (EJSN-09).*

Arreta EEZPn erregistratutako kontratuetan jarriz gero, 2015ean gora egin dute bi geografia-eremuetan. Nafarroan 338.998 kontratu erregistratu dira; horrek esan nahi du urtetik urtera % 15,3 egin dutela gora. Estatuan, berriz, 18.576.280 kontratu erregistratu dira; hau da, % 11,1 areagotu da kopurua.

Kontratu mota dela eta, Nafarroan gehiago egin du gora aldi baterako kontratazioak kontratazio mugagabeak baino (% 15,8 eta % 6,9, hurrenez hurren). Estatuan, aldiz, guztiz aurkakoa gertatu da (kontratu mugagabeek % 11,8 egin dute gora, eta aldi baterako kontratuek % 11).

Dinamika honen arabera, kontratu mugagabeek eremuaren guztizkoan duten partaidetzak behera egin du Nafarroan (2015ean % 4,9 eta 2014an % 5,3); aldi baterako kontratuei dagokienak, ordea, gora egin du (2015ean % 95,1 eta 2014an % 94,7).

**41. koadroa EEZPren bulegoetan erregistratutako kontratuak**

| Eremua | Urtea | Mugagabeak | | | Aldi baterakoak | | | | KONTRATUAK, GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Hasierako mugagabea | Konber-tsioak | Guztizkoa | Obra eta Zerbitzua | Behin-behinekoak | Gainerakoak | Guztizkoa | |
| Nafarroa | 2013 | 7.697 | 4.759 | 12.456 | 61.870 | 101.556 | 80.063 | 243.489 | 255.945 |
| | 2014 | 10.581 | 5.078 | 15.659 | 68.085 | 124.113 | 86.122 | 278.320 | 293.979 |
| | 2015 | 10.777 | 5.962 | 16.739 | 76.452 | 144.796 | 101.011 | 322.259 | 338.998 |
| Espainia | 2013 | 735.048 | 399.901 | 1.134.949 | 5.932.482 | 6.078.973 | 1.646.210 | 13.657.665 | 14.792.614 |
| | 2014 | 935.822 | 414.509 | 1.350.331 | 6.680.679 | 6.883.223 | 1.812.856 | 15.376.758 | 16.727.089 |
| | 2015 | 1.030.460 | 478.705 | 1.509.165 | 7.334.750 | 7.722.400 | 2.009.965 | 17.067.115 | 18.576.280 |

*Iturria: EEZP.*

Gizarte- eta lan-giroa dela eta, 2015ean negoziazio kolektiboak garapen txikiagoa izan du aurreko ekitaldian baino, Nafarroan zein Estatuan, eta hitzarmen gutxiago negoziatu ziren, pertsona-kopuru txikiagoari eraginez. Hori horrela, 2015ean negoziatutako hitzarmen-kopuruan eta horien eragina jasan duten langileetan egon diren beherakadak -% 37,6koak eta -% 76koak izan dira, hurrenez hurren, Nafarroan, eta -% 37koak eta -% 29,4koak Estatuan.

**42. koadroa Hitzarmen kolektiboak eta grebak**

| Eremua | Urtea | Hitzarmen kolektiboak | | | Grebak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Kop. | Eraginpean dauden lang. | Hitzartutako soldataren gorakada | Kop. | Lang. parte-hartz. | Lang. greba bakoitzeko | Lan egin ez diren lanegunak |
| Nafarroa | 2013 | 150 | 72.793 | 0,89 | 104 | 24.262 | 233 | 48.753 |
| | 2014 | 181 | 113.933 | 0,44 | 52 | 2.977 | 57 | 12.269 |
| | 2015 | 113 | 27.346 | 0,53 | 38 | 1.930 | 51 | 10.721 |
| Espainia | 2013 | 4.589 | 10.265.402 | 0,53 | 994 | 448.024 | 451 | 1.098.480 |
| | 2014 | 5.048 | 10.191.438 | 0,50 | 777 | 217.047 | 279 | 620.568 |
| | 2015 | 3.180 | 7.190.717 | 0,82 | 615 | 170.528 | 277 | 497.483 |

*Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. 2016ko maiatzeko datuak.*

Era berean, 2015ean, lan-gatazkaren beherakada orokorra ikusi da; behera egin du bai greba-kopuruak bai eraginpean dauden langileek, baita lan egin ez diren lanegunen



LABORAL kutxa

kopuruak ere, aztertutako bi eremu geografikoetan. Zehazki, greba kopuruak -% 26,9 egin du behera Nafarroan eta -% 20,8 Estatuan. Eraginpean dauden langileak direla eta, beherakadak honakoak izan dira: -% 35,2 eta -% 21,4, hurrenez hurren; eta lan egin ez diren lanaldiak direla eta, -% 12,6 eta -% 19,8, hurrenez hurren.

**Biztanleria**

Urtetik urterako murrizketa txiki baten ondoren (-% 0,6koa), 2014an Nafarroako biztanleria 640.790 pertsonakoa izan da. Estatuan, oro har, biztanleriaren beherakada konparazioan handiagoa izan da (-% 0,8); 46.771.341 pertsona izan dira.

Nafarroako jaiotzak direla eta, 2014an 6.183 izan dira, aurreko ekitaldian baino % 1,8 gehiago. Heriotzak, bestalde, 5.511 izan dira, aurreko ekitaldian baino % 3,5 gehiago. Ondorioz, saldo begetatiboa positiboa izan da, 672 pertsonakoa (aurreko ekitaldian erregistratutako saldoa baino -% 10,6 txikiagoa, 752 pertsonakoa izan baitzen).

Estatuari dagokionez, jaiotzak direla-eta izandako dinamismoa (2014an 427.595) txikiagoa izan da datu erlatiboetan (% 0,4), heriotzei dagokienez bezala (395.830), azken horiek % 1,4 areagotu baitira. Hori dela eta, hazkunde begetatiboa 31.765 pertsonakoa izan da, eta horrek esan nahi du urtetik urtera -% 10eko beherakada gertatu dela.

**43. koadroa Biztanleriaren mugimendu naturala**

| Eremua | Urtea | Biztanleria | Ezkontzak | Jaiotzak | Jaiotza-tasa (‰) | Heriotzak | Heriotza-tasa (‰) | Hazkunde begetatiboa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Nafarroa | 2010 | 636.924 | 2.285 | 6.778 | 10,6 | 4.981 | 7,8 | 1.797 |
| | 2011 | 642.051 | 2.218 | 6.747 | 10,5 | 5.158 | 8,0 | 1.589 |
| | 2012 | 644.566 | 2.232 | 6.731 | 10,4 | 5.376 | 8,3 | 1.355 |
| | 2013 | 644.477 | 2.097 | 6.075 | 9,4 | 5.323 | 8,3 | 752 |
| | 2014 | 640.790 | 2.301 | 6.183 | 9,6 | 5.511 | 8,6 | 672 |
| Espainia | 2010 | 47.021.031 | 167.247 | 486.575 | 10,3 | 382.047 | 8,1 | 104.528 |
| | 2011 | 47.190.493 | 159.798 | 471.999 | 10,0 | 387.911 | 8,2 | 84.088 |
| | 2012 | 47.265.321 | 165.101 | 454.648 | 9,6 | 402.950 | 8,5 | 51.698 |
| | 2013 | 47.129.783 | 153.375 | 425.715 | 9,0 | 390.419 | 8,3 | 35.296 |
| | 2014 | 46.771.341 | 159.279 | 427.595 | 9,1 | 395.830 | 8,5 | 31.765 |

*Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). 2015eko abenduko datuak.*

Ezkontzei dagokienez, 2.301 egin dira, 2013an erregistratutako zifra baino % 9,7 gehiago, eta zifra horrek gora egin du estatu-mailan ere, baina intentsitate txikiagoarekin: % 3,8 (2014an 159.279 eta 2013an 153.375).

Azkenik, nabarmendu behar da 2014an Nafarroak migrazio-saldo positiboa erregistratu duela, 662 pertsonakoa; hau da, 2013an lortutako saldo negatiboaren (-223) ondoren, kopuru positiboetara itzuli da. Horri dagokionez, azpimarratzekoa da adineko pertsonek

bakarrik (64 urtetik gorakoek) izan dutela migrazio-saldo negatiboa (-5 pertsona), eta gazteenek (16 urtetik beherakoak) eta 16 eta 64 urte bitartekoek saldo positiboak izan dituztela (311 eta 356, hurrenez hurren).

**44. koadroa Nafarroako migrazio-saldoak, adinen arabera**

| Urtea | Adin-tarteak -16 | Adin-tarteak 16-64 | Adin-tarteak + 64 | Guztizkoa |
|---|---|---|---|---|
| 2007 | 193 | 1.859 | 42 | 2.094 |
| 2008 | 160 | 1.777 | 82 | 2.019 |
| 2009 | 176 | 1.376 | 122 | 1.674 |
| 2010 | 289 | 1.300 | 136 | 1.725 |
| 2011 | 172 | 768 | -18 | 922 |
| 2012 | 107 | 706 | -25 | 788 |
| 2013 | 15 | -243 | 5 | -223 |
| 2014 | 311 | 356 | -5 | 662 |

*Iturria: Migrazio-mugimenduak (EIN). 2015eko abenduko datuak.*

## 3.5 FINANTZA-SEKTOREA

### Egoera orokorra

2015ean % 3,1eko mundu-mailako hazkundea egon zen, eta hiru dezima jaitsi zen 2014an erregistratutakoarekin; izan ere, ekonomia sortu berrien jarduerak behera egin zuen (% 4, eta aurreko urtean % 4,6) eta ekonomia jarduerek, berriz, emaitza hobeak izan zituzten (% 1,9). 2015ean funtsezko adierazleetan erregistratutako bilakaerak (BPG, inflazioa...) ekonomia gehienen hobekuntza eta joera positiboa berresten du; alabaina, 2016 eta 2017rako kalkuluen arabera, hazkundeak lasaiagoak izango dira urte horietan. Hazkunde hori moteltzen duten faktore nagusiak dira Euroguneko barne-eskariaren ahultasuna[1] eta ekonomia narriatuenek enplegua berreskuratzeko dituzten zailtasunak. Bi kasuetan, faktore horiek funtsezkoak izango dira hazkunde ekonomikoaren sekuentzia finkatzeko eta etxeetako errentak berreskura daitezen sustatzeko, baita haietako gastu- eta aurrezte-ahalmena eta inbertsio-erabakiak ere.

[1] Greziako krisialdi ekonomia horretarako hirugarren likidezia-plan baten bidez konpondu da, baina britainiarrei eginiko kontsultaren emaitza ikusita, berriz ere ziurgabetasuna sortu da.

**4. grafikoa Kanbio-tasa: Euroa versus dolarra***




*(*): Eguneko batez besteko balioen batezbestekoa.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

Urte amaieran, ez dago aipamen berezirik behar duen gertakaririk, aurreko urtekoetan erregistratutakoen antzekorik, finantza-merkatuetan. Hori dela eta, jardueraren berreskurapenak hobera egin du, diru-agintaritzek (FED, EBZ) beren jarduketekin jarraitu dutelako. Jarduketa horien bereizgarria izan da, hain zuzen ere, sistemaren likidezia bermatzeari emandako garrantzia. Zehatzago esanda, EBZren diru-politikak helburu nagusi hau izan du: lehentasuna ematea merkatuen likideziari eta egonkortasunari, 2014. urtearen erdialdean abian jarritako diru-pizgarriak sendotuz[1], aktiboak erosteko programa zabalduz eta TLTRO eraginketen sail berri bat abian jarriz. Horri guztiari gehitu behar zaio egungo egoerak ez duela erreferentziazko tasen igoerarik aurreikusten, bat etorriz inflazio-gorakadak ekartzetik edo aurreikustetik urrun geratzen den egoera batekin.

Egoera horretan[2], finantza-erakundeek pixkana arindu egin dituzte kreditua eskuratzeko baldintzak[3]. Horrek eta jarduera[4] eta enplegua hobetzeak inbertsioa berreskuratzeko aukera eman dute (etxebizitza, enpresa-jarduera), baita kontsumo handia ere

[1] 2014. urtearen erdialdean jarri ziren abian, eta 2015eko udan finantza-merkatuetan erregistratutako hegazkortasunaren gorakadaren ondorioz, 2015eko abenduan eta 2016ko martxoan neurri gehigarriak hartu ziren, "gordailu-baliabide" deiturikoaren tasa murriztuz, -% 0,40ra arte.
[2] Euro/dolar arteko erlazioaren parekotasuna lortzeko doikuntzak eginda eta Europako esportazio-posizioak hobetuta.
[3] Banku-maileguei buruzko inkesta (etxeak) eta ETEentzako kreditua lortzeko aukerei buruzko inkesta (Espainiako Bankua).
[4] Petrolioaren eta beste lehengai batzuen prezioak hobetzearen ondorioz (balio oso baxuetara iritsi dira).

(automobila). Dena den, Estatu osoan gailentzen ari da agenteen desapalankatze-prozesua (etxeak eta ekoizpen-jarduerak), eta kreditu-saldo bizia murrizten ari da.

**5. grafikoa Ibex-35aren bilakaera. Hileko itxiera-balioaren gaineko urtetik urterako aldakuntza-tasa**




*Iturria: Espainiako Bankua eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala.*

Ildo horretan, 2015. urtearen amaierako datuek dagoeneko adierazten dute enpresek eta etxeek erabilgarri duten gastu-bolumena[1] (finantzatua) areagotu egin dela. Alabaina, magnitudearen joera (kreditu-saldo bizia) oraindik beheranzkoa[2] da, zor pribatuaren desapalankatze-prozesuarekin bat etorriz. Finantzaketaren helburuen arabera[3], behera egin du ekoizpen-jarduerei, etxebizitza erosteari eta bidaiatzeari, eta kontsumo iraunkorreko ondasunei loturiko saldo biziak (-% 4,2, -% 4,8 eta -% 4,8, hurrenez hurren). Era berean, sistemaren berankortasun-ratioak agerian uzten du eginiko doikuntza eta pixkanaka hobetzen jarraitzen du. Dena den, altua izaten jarraitzen du (% 10,2) eta segmentu jakin batzuetan pilatuta dago: eraikuntza (% 30,9) edo higiezinen enpresak (% 27,4), esaterako. Zordun partikularren edo familien portaerak, aldiz, hobera egin du (% 5,5).

Azkenik, agenteen aurrezki-posizioak ere honako hauen baldintzapean daude: kaudimena eta jarduera berreskuratzeko bermea, aukera desberdinen ordainketa eta agente bakoitzak bere gain hartzen dituen arrisku-erabakiak. Hala, eta figuraren

[1] Hori erakusten dute beste zenbait adierazlek, besteak beste: hipoteken emakidak (% 20 eta % 24, kopuruari eta zenbatekoari dagokionez) edo ibilgailuen erosketak.
[2] BSEentzako (beste sektore egoiliar pribatu batzuk; esaterako, familiak eta enpresak) kredituari dagokion saldo biziaren urtetik urterako tasa negatiboa da Estatu osoan (-% 4) eta Nafarroan (-% 6,3), baina ez EAEn (+% 0,4).
[3] Estatu osorako.

erakargarritasun txikiarekin bat etorriz (ordainketa baxua delako), kreditu-erakundeen gordailuen saldoak behera egiten jarraitzen du 2015ean (-% 2,8). Horrez gain, bigarren urtez jarraian, banku-gordailuetako aurrezkia 2 bilioi euroko mugaren azpitik dago. Bestalde, inbertsio-funtsek kudeatutako ondarea nabarmen berreskuratu da (% 11,8) eta akzioen bigarren mailako merkatuetako kontratazio-bolumena hobetu egin da (% 8,6), ez, ordea, burtsa-balorazioa (Ibex). Azken horrek atzera egin du eta 9.500 puntutik beherako balioa erregistratu du urtearen amaieran.

**Kredituaren bilakaera Nafarroan**

*Esparru orokorra*

Espainiako kreditu-erakundeen aktiboen bilakaerak beheranzko joera izan du 2013tik. Urte hori izan zen atzerapen handienekoa (-% 11,6), eta txikienekoak, berriz, 2014a (-% 3,7) eta 2015a (-% 5,2). Kredituak dira aktiboaren osagai nagusiak (% 64) eta 2015 ekitaldian lehen aldiz egin du gora kuota horrek; hain zuzen ere, % 78tik % 62ra jaitsi zen 2008. eta 2014. urteen artean. Kreditu-masaren doikuntza handia izan da, eta 2013an erregistratu zen urtetik urterako atzerapen handiena (-% 13,6); azken bi ekitaldietan datu horiek negatiboak izaten jarraitu dute, baina beherakadaren intentsitatea moteldu egin da, batez ere 2015ean (-% 2,1). Zifra horiek agerian uzten dute partikularren eta enpresen balantzeak mugitzen hasi direla.

Kreditu-erakundeen gainerako aktiboa hauek osatzen dute: akzioak eta partaidetzak (% 8,9), beste balio batzuk (% 15,1) eta sektorizatu gabeko aktiboak (% 12). Hiru aktibo motek irabazi dituzte kuotak eta kopuruak krisiaren hasieratik; alabaina, 2015ean, ordutik lehen aldiz, hirurek behera egin dute (-% 5,8, -% 15,6 eta -% 6,4, hurrenez hurren), bai kopuruari bai aktibo guztien gaineko kuotari dagokionez.

2015ean aurrera jarraitu du sistema desapalankatzeko prozesuak; horretarako, zor pribatuari lotutako saldo bizia murriztu da. Kredituen kapituluaren barnean, kontuan izan behar da zati garrantzitsu bat, epe luzekoa, krisia baino lehen sortu zela, eta pixkanaka murrizten ari dela, mailegu-hartzaileek beren ordainketa-konpromisoak betetzen dituzten heinean. Aitzitik, 2009az geroztik emandako zorroak (eskatzaileen finantzaketa-premiak eta emakida-baldintzetako eskakizunak aldatu zirenean) kredituak berriz dimentsionatu direla iradokitzen du (zenbateko txikiagoak). Hala, argi geratzen da horren ondoriozko desapalankatze-efektua; izan ere, ordaintzeke dagoen zorraren amortizazio-erritmoak gainditu egiten du kreditu berrien emakidaren bolumena. Hori dela eta, saldoa (itzultzeke dagoen kredituaren stock gisa) jaitsi egin da.

**45. koadroa Kreditu-erakundeen aktiboaren osaera**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztizkoa** | **3.251.535** | **3.400.435** | **3.422.612** | **3.025.756** | **2.912.796** | **2.760.239** |
| Kredituak | 2.386.643 | 2.357.167 | 2.229.670 | 1.926.174 | 1.805.239 | 1.767.591 |
| Akzioak eta partaidetzak | 180.477 | 250.831 | 257.501 | 280.357 | 261.536 | 246.261 |
| Balioak, akz. eta part. izan ezik | 383.761 | 405.582 | 508.991 | 492.801 | 492.346 | 415.508 |
| Sektorizatu gabeko aktiboak | 300.652 | 386.854 | 426.449 | 326.424 | 353.676 | 330.879 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Norakoen edo agenteen arabera, etxeetarako eta enpresetarako kredituak ("beste sektore egoiliar batzuk") guztizkoaren hiru laurden baino gehiago hartzen du (% 75,1). Portzentaje horrek bere horretan jarraitu du azken urteotan, ia aldatu gabe. Bestalde, 2014an kreditu-sistemaren kuota krisi osoko baxuena izan zen (% 8,6), eta 2015ean igo egin zen berriz ere (% 9,3). 2015ean, ez-egoiliarren segmentuari loturiko zenbatekoa 2007tik aurrerako handiena izan da (% 10,5), eta administrazio publikoak % 5,1 hartzen du (2014an % 5,6).

Beste sektore egoiliar batzuen kredituaren bilakaerak baldintzatu egiten du kreditu-saldo osoaren bilakaera: 2008tik, metatutako doikuntza % 27,5ekoa da, eta gehiengoa 2011-2015 laurtekoan gauzatu zen (-% 25,9). Hala, urtetik urterako beherakada handienak 2012. eta 2013. urteetakoak izan ziren (-% 10 eta -% 9,8); beherakada txikiagoa izan zen 2014an (-% 4,7) eta, batez ere, 2015ean (-% 3,8).

Beraz, 2015ean bere horretan jarraitu du aurreko ekitaldietako desapalankatze-joerak, baina erritmo lasaiagoan, bat etorriz ekonomia-jardueraren berpiztearekin eta eragileen finantzaketa-beharrekin, baita erakundeek finantzaketarako sarbidea hobetzeko duten ahalmenarekin ere (haien balantzeetan egin beharreko doikuntzak egin ostean).

**46. koadroa Kreditu-erakundeak. Kreditua eragileen arabera**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztizkoa** | **2.386.643** | **2.357.167** | **2.228.670** | **1.926.174** | **1.805.615** | **1.767.591** |
| Kreditu-sistema | 234.095 | 250.867 | 278.914 | 210.536 | 155.097 | 164.206 |
| Administrazio publikoak | 78.971 | 89.687 | 114.275 | 87.140 | 101.313 | 89.972 |
| Beste sektore egoiliar batzuk | 1.843.950 | 1.782.554 | 1.604.934 | 1.448.244 | 1.380.101 | 1.327.062 |
| Beste ez-egoiliar batzuk | 229.627 | 234.059 | 231.546 | 180.254 | 169.104 | 186.351 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Kanpoko sektoreari emandako kredituak (ez-egoiliarrak), epe motzera dituen aukera hobeekiko menpekotasunarekin eta tamaina txikiagoarekin bat etorriz, profil irregularragoa utzi du agerian, nahiz eta beheranzko joera duen. Guztira, bere balioaren heren bat galdu zuen 2007. eta 2014. urteen artean; 2015ean hasi da hori berreskuratzen, aipatutako gorakadari esker.



LABORAL kutxa

Administrazio publikoen kredituak urtetik urterako portaera desberdina du, eta 2015ean behera egin du (-% 11,2), 2014an erregistratutako gorakadaren ondoren (% 16,3). Azkenik, sistemaren barneko kreditua (banku artekoa) % 6,1 areagotu da 2015ean, baina oso maila baxutik zetorren, beherakada handia izan baitzuen 2013an eta 2014an (-% 44,5).

**47. koadroa Kreditu-erakundeak. Kredituak motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztizkoa** | **1.843.950** | **1.782.554** | **1.604.934** | **1.448.244** | **1.380.101** | **1.327.062** |
| Merkataritza-kreditua | 54.219 | 49.937 | 40.523 | 34.570 | 36.606 | 42.640 |
| Berme erreala duten zordunak | 1.101.064 | 1.032.823 | 900.991 | 790.398 | 741.237 | 711.483 |
| Eperako beste zordun batzuk | 509.396 | 490.485 | 434.521 | 368.969 | 376.262 | 386.474 |
| Beste mailegu batzuk | 179.271 | 209.309 | 228.899 | 254.307 | 225.996 | 186.465 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Eperako beste zordun batzuei buruzko atalean sartzen da kontsumorako kreditua, eta beheranzko joera agertzen du 2011tik aurrera; hain zuzen ere, beherakada metatua izan zuen 2011-2013 aldian (% 27,4), eta joera positiboa 2014an (% 2) eta 2015ean (% 2,7). Bestalde, beste maileguen atalak urtetik urterako bi beherakada nabarmen erregistratu ditu, elkarren segidan (-% 11,1 eta -% 17,5, hurrenez hurren). Azkenik, merkataritza-kredituari dagokion saldoak nabarmen egin du aurrera 2015ean (% 16,5).

**6. grafikoa Kreditu-erakundeak. Kredituak motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk (BSE)**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Gordailu-erakundeek kudeatzen dute Espainiako kreditu pribatuaren zatirik handiena (% 96,1); horren osagarri gisa, kredituan bakarrik espezializatutako azpisektore txiki bat

dago. 2015ean, kreditu horren helburuen arabera, ekoizpen-jarduerek gordailu-erakundeek kudeatutako kredituaren % 48,6 hartu zuten; gainerakoa honela banatuta dago: etxebizitzak erosteko eta birgaitzeko kreditua (% 42,4), kontsumo iraunkorreko ondasunak (% 1,6) eta beste helburu batzuk (% 7,3).

**48. koadroa Gordailu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztizkoa** | **1.782.291** | **1.715.037** | **1.537.748** | **1.392.384** | **1.328.189** | **1.274.656** |
| Ekoizpen-jarduerak | 975.510 | 929.832 | 788.412 | 690.631 | 647.426 | 619.953 |
| Etxebizitzak erostea eta birg. | 654.253 | 643.556 | 620.580 | 592.278 | 568.212 | 541.032 |
| Kontsumo iraunkorreko ondasunak | 33.796 | 29.798 | 26.038 | 19.869 | 21.615 | 20.576 |
| Beste kreditu batzuk | 118.732 | 111.851 | 102.718 | 89.606 | 90.936 | 93.095 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

2015ean, gordailu-erakundeek kudeatutako kreditu osoak % 4 egin du behera. Atzerapen hori gertatu da ekoizpen-jardueretara bideratutako kreditu-saldoan (-% 4,2), eta etxebizitzetara eta kontsumo iraunkorrera bideratutakoan (kasu bakoitzean -% 4,8). Aitzitik, beste kredituen partida izan da azken bi urteetan pixka bat hazten hasi den bakarra (% 1,5 eta % 2,4, 2014an eta 2015ean).

**7. grafikoa Kreditu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

### *Kredituaren bilakaera Nafarroan*

2015. urtean, gordailu-erakundeek administrazio publikoei eta agente pribatu egoiliarrei (BSE) emandako kredituak beheranzko joerarekin jarraitu du Nafarroan eta Estatuan

(-% 6,3 eta -% 4). Bi kasuetan beherakada lasaiagoa izan da 2014koa baino (urte horretan -% 10,3koa eta -% 4,6koa izan ziren).

**8. grafikoa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuei emandako kredituaren bilakaera**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Administrazio publikoei emandako kredituak, berriz, portaera aldakorragoa izan du. Hala, nabarmendu behar da 2015ean agente horiei esleitutako kreditu-saldo biziak gorakada handia izan duela Nafarroan (% 40,1), eta lasaiagoa EAEn (% 10,5). Espainian , berriz, behera egin du (-% 9,5). Datu horiek ez dute zerikusirik aurreko urteko aldakuntzekin: -% 4,3ko beherakada Nafarroan, eta % 23,6ko gorakadak bai EAEn bai Estatuan.

**49. koadroa Gordailu-erakundeak. Eragileen eta esparruaren arabera**

*(M eurotan)*

| Lurraldea | Urtea | Administrazio publikoak | BSE | GUZTIZKOA |
|---|---|---|---|---|
| EAE | 2013 | 4.862 | 68.376 | 73.238 |
| | 2014 | 6.008 | 63.168 | 69.176 |
| | 2015 | 6.637 | 63.400 | 70.037 |
| Nafarroa | 2013 | 751 | 18.589 | 19.340 |
| | 2014 | 719 | 16.678 | 17.397 |
| | 2015 | 1.007 | 15.631 | 16.638 |
| Euskal Herria | 2013 | 5.613 | 86.965 | 92.578 |
| | 2014 | 6.727 | 79.846 | 86.573 |
| | 2015 | 7.644 | 79.031 | 86.675 |
| Espainia | 2013 | 76.627 | 1.392.838 | 1.469.010 |
| | 2014 | 94.697 | 1.328.193 | 1.422.887 |
| | 2015 | 85.708 | 1.274.523 | 1.360.361 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

### *Beste adierazle batzuk: hipoteken eraketa eta ibilgailuen matrikulazioa*

Arestian adierazi dugunez, etxeen finantzaketa-helburu nagusiak etxebizitza eta kontsumo iraunkorreko ondasunak dira (eta, horien artean, automobila). 2015eko kreditu-stockaren bilakaeraren egoera osatzeko, hipoteken eraketari[1] buruzko datuak jaso dira hemen, ibilgailuen matrikulazioari buruzko datuekin batera. Bi kasuetan, datuok Estatukoak, EAEkoak eta Nafarroakoak dira.

Azken bost urteak kontuan hartuta, 2015ean gertatu dira Espainian eratutako hipoteketako urtetik urterako hazkunde handienak, bai kopuruari (% 20,1) bai balio osoari (% 24,5) eta batez besteko zenbatekoari (% 3,7) dagokienez. EAEko zifrak antzekoak izan dira (% 22, % 29,1 eta % 5,8), baina ez Nafarroakoak, dinamismo txikiagoa izan baitute (% 2,5, % 1,8 eta -% 0,7).

Aztergai dugun bosturtekoan Nafarroan erregistratutako beheranzko joera ez da horren drastikoa izan, eta gorakada aztertutako beste esparruetan baino handiagoa izan da. Krisialdiaren lehen bost urteetan (2008-2013), emakiden kopurua % 59,2 murriztu zen. Hipoteka berrien Estatuko guztizkoan Nafarroak izan zuen kuota % 1,5ekoa izan zen, aurreko urtean baino 3 dezima gutxiago. Hipotekako batez besteko zenbatekoak goranzko joera hartu zuen Espainian 2014an, eta Nafarroan behera egiten jarraitzen du 2015ean. Sei urtean zenbateko hori % 18,9 jaitsi da. Aztergai dugun aldian, berritasun gisa, batez besteko balioa baxuagoa izan da Nafarroan (102.790 euro) Estatuan baino (106.020 euro). 2015ean Nafarroan emandako hipoteken balioak Estatu osokoen % 1,5 hartzen du.

[1] Iturria: EIN. Estatu osoko jabetza-erregistroek emandako informazioa; hemen sartzen dira xede guztietarako hipoteka-kredituak, ez ohikoena bakarrik (etxebizitza hipotekatua erostea). Fluxu-estatistika bat da (urteko hipoteka-jarduera), Espainiako Bankuak jasotako kreditu-informazioa ez bezala; azken horrek, posizio zordunen stocka jasotzen du.

**50. koadroa Etxebizitzen gaineko hipoteka berrien eraketa**

| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Espainia** | | | | | | |
| Hipoteka kop. | 607.535 | 408.461 | 273.873 | 199.703 | 204.302 | 245.382 |
| Zenbatekoa guztira (milioi €) | 71.041 | 45.716 | 28.329 | 19.973 | 20.891 | 26.015 |
| *Batez besteko zenbatekoa (mila €)* | 116,93 | 111,92 | 103,44 | 100,01 | 102,25 | 106,02 |
| **EAE** | | | | | | |
| Hipoteka kop. | 30.230 | 23.065 | 16.920 | 12.146 | 11.469 | 13.991 |
| Zenbatekoa guztira (milioi €) | 4.421 | 3.355 | 2.251 | 1.464 | 1.380 | 1.781 |
| *Batez besteko zenbatekoa (mila €)* | 146,26 | 145,45 | 133,01 | 120,53 | 120,29 | 127,33 |
| **Nafarroa** | | | | | | |
| Hipoteka kop. | 7.076 | 5.520 | 4.095 | 3.170 | 3.710 | 3.804 |
| Zenbatekoa guztira (milioi €) | 845 | 666 | 459 | 345 | 384 | 391 |
| *Batez besteko zenbatekoa (mila €)* | 119,37 | 120,62 | 112,00 | 108,88 | 103,37 | 102,91 |

*Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.*

Estatu osoan, ibilgailuen matrikulazioak % 20,9ko igoera izan zuen 2015ean, eta aurreko urtekoa baino % 18,4 handiagoa izan zen. Adierazle horren berreskurapenak gora egiten daramatza hiru urte, Estatuan, Foru Erkidegoan eta EAEn. 2015eko datuen arteko alderaketak eta krisiaren unerik baxuenekoarekiko (2012) alderaketak adierazten du Nafarroako matrikulazioa % 52 altuagoa izan zela 2015ean. Antzeko zifrak lortu dira Estatuan (% 47,8) eta EAEn ere (% 46,8).

**51. koadroa Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera**

*(Unitate kop.)*

| Lurraldea | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| Nafarroa | 8.081 | 7.034 | 7.737 | 9.170 | 10.690 |
| EAE | 29.610 | 25.616 | 27.321 | 32.300 | 37.601 |
| Espainia | 808.059 | 699.589 | 722.689 | 855.308 | 1.034.232 |

*Iturria: Anfac.*

### *Berankortasunaren bilakaera*[1]

Berankortasun-tasa areagotu egin da 2009tik, eta 2013an iritsi zen bere gehieneko baliora (% 13,8). Dena den, 2014tik hobekuntza erregistratzen ari da (% 12,6), eta hori berretsi egin da 2015ean (% 10,2), nahiz eta balioek oraindik oso altuak izaten jarraitzen duten.

[1] Ez dugu autonomia-erkidegoen arabera bereizitako informaziorik.

**52. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzazkoen edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | Urtea | Zalantzazko kr. | Kredituak* | (Zalantz./Kred.) x 100 |
|---|---|---|---|---|
| **Guztizkoa** | 2010 | 102.520 | 1.782.291 | 5,7 |
| | 2011 | 135.505 | 1.715.748 | 7,9 |
| | 2012 | 162.601 | 1.537.748 | 10,6 |
| | 2013 | 191.748 | 1.392.384 | 13,8 |
| | 2014 | 167.743 | 1.328.189 | 12,6 |
| | 2015 | 129.979 | 1.274.652 | 10,2 |

*(*): Beste sektore egoiliar batzuei lagatako funtsak.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

Ekoizpenaren esparruan berankortasun-tasa % 6,2tik % 20,9ra igo zen aldi kritikoan (2009-2013), eta ondoren jaitsi egin da pixkanaka: 2015ean % 14,9koa izan da. Berankortasun-tasa handiena izan duten enpresa-jarduerak izan dira higiezinak eta eraikuntza; oraindik ere balio oso altuak izan dituzte 2015ean (% 27,4 eta % 30,9). Bestalde, industria-jardueren berankortasun-tasak baxuagoak izan dira eta hobekuntza hori agerian utzi dute (% 13,9tik % 11,2ra); portaera hori izan dute, halaber, garraioaren eta biltegiratzearen sektoreak (% 13,1) eta merkataritza- eta konponketa-sektoreak (% 12,9).

Etxebizitzak erosteko eta birgaitzeko kredituak eta familien beste helburu batzuetarako denak berankortasun-tasa askoz ere baxuagoa dute enpresa-jarduerek baino. Alabaina, tasa horiek ere bikoiztu arte hazi ziren, gutxi gorabehera, 2009 eta 2013 artean, eta horiek ere jaisten hasi dira 2013tik 2015era. Aipatutako lehenengo helburua % 5,7tik % 4,7ra igaro da, eta bigarrena % 12,2tik % 10era.

**53. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzakoen edo berankortasunaren tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Zalantzazkoak guztira** | **5,8** | **7,9** | **10,6** | **13,8** | **12,6** | **10,2** |
| **Ekoizpen-jarduerak** | **8,0** | **11,6** | **16,0** | **20,9** | **18,9** | **14,9** |
| Nekazaritza eta arrantza | 4,3 | 6,5 | 9,1 | 13,6 | 12,2 | 10,2 |
| Industria | 4,4 | 5,7 | 9,4 | 13,8 | 13,9 | 11,2 |
| Eraikuntza | 12,3 | 18,7 | 26,6 | 35,3 | 33,7 | 30,9 |
| Zerbitzuak | 8,1 | 12,0 | 16,3 | 21,0 | 18,9 | 14,4 |
| *Higiezinak* | *14,0* | *21,5* | *29,1* | *38,0* | *36,2* | 27,4 |
| *Finantzak (ez banka)* | *0,8* | *1,4* | *2,2* | *3,3* | *2,4* | 2,1 |
| *Merk. eta konp.* | *5,6* | *7,2* | *10,7* | *15,2* | *15,6* | 12,9 |
| *Garraioa eta bilt.* | *3,3* | *4,3* | *8,6* | *13,7* | *17,3* | 13,1 |
| *Ostalaritza* | *5,2* | *8,2* | *16,8* | *23,2* | *20,4* | 17,2 |
| *Beste zerbitzu batzuk* | *4,0* | *5,4* | *8,9* | *13,3* | *12,2* | 9,9 |
| **Beste helburu batzuk/etxeak** | **2,9** | **3,4** | **4,7** | **6,7** | **6,6** | **5,5** |
| Etxebizitzak erostea eta birg. | 2,3 | 2,8 | 3,8 | 5,8 | 5,7 | 4,7 |
| Beste batzuk | 5,9 | 6,8 | 9,8 | 12,7 | 12,2 | 10,0 |
| **Gainerakoak** | **8,2** | **6,6** | **10,4** | **12,2** | **6,3** | **16,6** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Etxebizitzak erostera bideratutako kredituetan dago alderik handiena kreditu osoaren barnean duen garrantziaren (% 42,4) eta zalantzazko kredituaren barnean duen garrantziaren (% 19,4) artean. Alde handia dago, halaber, higiezinen jardueran, baina kasu honetan aldea alderantzizkoa da (% 10,5 bakarrik kreditu osoari dagokionez, baina % 28,2 zalantzazko kredituari dagokionez). Horien atzetik daude gainerako zerbitzuak (% 22,3), eraikuntza (% 10) eta industria (% 9,1), besteak beste.

**54. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzazko kredituaren bilakaera, helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Zalantzazkoak guztira** | **102.520** | **135.505** | **162.601** | **191.748** | **167.473** | **129.980** |
| **Ekoizpen-jarduerak** | **77.831** | **108.096** | **126.032** | **143.511** | **122.314** | **92.164** |
| Nekazaritza eta arrantza | 980 | 1.395 | 1.830 | 2.477 | 2.145 | 1.824 |
| Industria | 6.364 | 7.659 | 11.628 | 14.846 | 14.802 | 11.773 |
| Eraikuntza | 13.683 | 17.814 | 19.521 | 20.315 | 15.960 | 12.947 |
| Zerbitzuak | 56.803 | 81.228 | 93.055 | 105.874 | 90.127 | 65.619 |
| *Higiezinak* | *43.450* | *63.223* | *64.202* | *66.265* | *53.795* | 36.665 |
| *Finantzak (ez banka)* | 850 | 1.576 | 2.005 | 2.871 | 2.385 | 2.067 |
| *Merk. eta konp.* | 4.329 | 5.461 | 7.840 | 10.438 | 10.432 | 8.659 |
| *Garraioa eta bilt.* | 1.349 | 1.730 | 3.431 | 4.761 | 4.968 | 3.635 |
| *Ostalaritza* | 1.875 | 2.843 | 5.608 | 7.094 | 5.686 | 4.612 |
| *Beste zerbitzu batzuk* | 4.950 | 6.394 | 9.969 | 14.534 | 12.861 | 9.981 |
| **Beste helburu batzuk/etxeak** | **23.232** | **26.200** | **34.544** | **46.530** | **44.197** | **34.736** |
| Etxebizitzak erostea eta birg. | 15.255 | 17.799 | 23.807 | 34.080 | 32.313 | 25.204 |
| Beste batzuk | 7.977 | 8.401 | 10.737 | 12.450 | 11.884 | 9.532 |
| **Gainerakoak** | **1.457** | **1.209** | **2.025** | **1.707** | **962** | **3.080** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

## Gordailuen bilakaera Nafarroan

### *Esparru orokorra*

Kreditu-erakundeetako gordailuen saldoaren bilakaerak agenteen erabilgarri-posizioaren (likideziaren) eta aurrezki-posizioaren zati bat islatzen du. Lortutako emaitza hainbat faktoreren ondorioa da. Horien artean, agenteen prestasuna (segurtasuna versus arriskua), finantza-figuren ordainketa eta/edo une bakoitzean eskuragarri dauden aurrezki- edo inbertsio-produktuen eskaintzen baldintzak aipa daitezke. Halaber, krisiaren faktorea erabakigarria izan da, errenten narriadura-egoera batean (familietan zein enpresetan) aurrezpen-marjina txikiagoa sortzen baita (eta metatutako aurrezkiak ere murriztu egiten dira).

Egoera horretan, eta Estatu osoa kontuan hartuta, kreditu-erakundeen gordailuen saldoa 1,94 bilioi eurokoa da; zifra hori jaisten ari da 2009tik eta jaitsi egin da, halaber, 2015ean (-% 2,8). Bigarren urtez jarraian, banku-gordailuetako aurrezkia 2 bilioi euroko mugaren azpitik geratu da.

**55. koadroa Kreditu-erakundeak. Kreditu-erakundeetako gordailuak, agenteen arabera**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztizkoa** | **2.300.219** | **2.307.138** | **2.297.865** | **2.065.401** | **1.997.368** | **1.940.673** |
| • Kreditu-sistema | 269.668 | 372.668 | 572.928 | 381.293 | 311.533 | 302.834 |
| • Administrazio publikoak | 79.080 | 69.717 | 69.183 | 63.485 | 76.150 | 77.063 |
| • Beste sektore egoiliar batzuk | 1.440.425 | 1.373.079 | 1.316.735 | 1.314.129 | 1.289.280 | 1.261.715 |
| • Beste ez-egoiliar batzuk | 511.046 | 491.675 | 339.019 | 306.493 | 320.404 | 299.061 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Sektore pribatuko gordailuen (beste sektore egoiliar batzuk) saldoa 1,26 bilioi izan da. Hortaz, behera egin du aurreko ekitaldiarekin alderatuta (-% 2,1), eta pixka bat gehiago urrundu da aurreko urteetan erregistratutako balioetatik (2008ko zifra baino % 16,6 gutxiago). Gordailu horiek kreditu-erakundeetako gordailu guztien % 65 dira, eta portzentaje horrek gora egin du azken sei urteotan. Bestalde, beste sektore ez-egoiliar batzuen gordailuek (% 15,4 hartzen dute) ere behera egin dute (-% 6,7), eta iaz lortutako berreskuratze-marjina galdu dute.

Gordailuen posizioen osagaietako hirugarrena kreditu-sistema da; horrek ere aldakuntza negatiboa izan du 2015ean (-% 2,8) eta gordailu osoen % 15,6koa da. Azkenik, administrazio publikoen gordailuen saldoaren portaera (guztizkoaren % 4) pixka bat hazi da urtetik urtera (2015ean % 1,2).

**56. koadroa Gordailu-erakundeak. Gordailuak moten arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztizkoa** | **1.216.702** | **1.170.396** | **1.147.690** | **1.155.977** | **1.138.434** | **1.137.827** |
| • Agerikoa | 261.766 | 269.711 | 265.027 | 281.967 | 328.852 | 384.450 |
| • Aurrezkia | 211.287 | 202.949 | 199.073 | 206.485 | 221.934 | 254.227 |
| • Eperakoa | 743.649 | 697.736 | 683.589 | 667.525 | 587.648 | 499.150 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Etxeen eta erakunde pribatu ez-finantzarioen segmentuko gordailuen saldoa 1,14 bilioi eurokoa izan da 2015 ekitaldiaren itxieran; ia 2014ko berbera (-% 0,1). Gordailu-modalitateetan, epe finkoaren ordez erabilgarritasunik berehalakoenaren eta ageriko gordailuen goranzko joera indartu egin da 2015ean. Erabaki horretan, gainera, eragina izan dezakete interes-tasa baxuek, ordainketan sortzen duten diferentziala oso txikia baita beste epe batzuen aldean. Epe finkoko posizioak ez dira nagusi 2015ean (% 43,8); horien lekua hartu dute ageriko posizioek (% 56,1), eta horiei gehitu behar zaizkie aurrezki-kontuak (% 22,3) edo ageriko kontu korronteak (% 33,8).

### *Gordailuen bilakaera Nafarroan*

Aurrezki pribatuaren portaera[1] antzekoa da aintzat hartutako esparru geografikoetan. Nafarroan behera egiten jarraitzen du, lasaiago bada ere (-% 0,7, eta aurreko urtean -% 5,1), eta Espainian pixka bat gora egitetik (% 0,4) pixka bat behera egitera igaro da (-% 0,4). Administrazio publikoetako gordailuen saldoak beherakada handia jasan du Foru Erkidegoan 2015ean (-% 20); aurreko urtean gora egin zuen (% 20,5). Espainiako gordailu publikoek guztizko gordailuen % 6,7 hartu dituzte; parte-hartze hori handiagoa da Nafarroan (% 2,8) erregistratutakoa baino. Nafarroak honako garrantzia izan du Estatuan gordailu publikoei, pribatuei eta guztizkoei dagokienez: % 0,6, % 1,3 eta % 1,3, hurrenez hurren. Garrantzi horiek baxuagoak izan dira Erkidegoak biztanleriari (% 1,4) eta BPGari (% 1,7) dagokionez erregistratutakoak baino.

[1] Kontuan hartu behar da ez dagoela aurrezkiaren neurri osorik; izan ere, pasibo-erabakiak, gordailu-figuretarantz orientatzeaz gain, baliteke inbertsio-norakoetara lekualdatzea, esaterako, funtsetara, balioetara edo higiezinen-jarduketa bezalako beste batzuetara.

**57. koadroa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta administrazio publikoen gordailua.**

*(M eurotan)*

| Lurraldea | Urtea | Administrazio publikoak | BSE | GUZTIZKOA |
|---|---|---|---|---|
| EAE | 2013 | 2.660 | 71.068 | 73.728 |
| | 2014 | 2.822 | 69.448 | 72.270 |
| | 2015 | 2.907 | 71.770 | 74.677 |
| Nafarroa | 2013 | 440 | 16.078 | 16.518 |
| | 2014 | 530 | 15.257 | 15.787 |
| | 2015 | 424 | 15.144 | 15.568 |
| Euskal Herria | 2013 | 3.100 | 87.146 | 90.246 |
| | 2014 | 3.352 | 84.705 | 88.057 |
| | 2015 | 3.331 | 86.914 | 90.245 |
| Espainia | 2013 | 61.796 | 1.134.914 | 1.196.710 |
| | 2014 | 73.448 | 1.139.756 | 1.213.204 |
| | 2015 | 76.097 | 1.135.720 | 1.211.817 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

## *Aurrezpenaren beste adierazle batzuk*[1]

Familien eta negozioen errenta eta aurrezteko ahalmena funtsezkoak dira aurrezki-posizioetan. Eremu horretan, kontabilitate nazionaleko datuek (EIN) erakusten dutenez, krisialdian familien eta enpresen diru-sarrerak murriztu egin dira Estatu osoan; edonola ere, gastuen eta inbertsioen neurrian murriztu dira, eta eutsi egin zaio aurrezki-tasari, aurreikuspen-planteamendu bati jarraiki seguruenik. Hori horrela, ikus daiteke 2015eko datuek aurreko urteko joera-aldaketa berresten dutela.

**58. koadroa Errenta gordin erabilgarria, BEG eta aurrezki gordina**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Etxeak** | | | | | | |
| • Errenta gordin erabilgarria | 816.053 | 819.649 | 788.983 | 781.049 | 787.429 | 807.243 |
| • Aurrezki gordina | 69.462 | 74.674 | 58.768 | 66.214 | 64.635 | 64.428 |
| • Aurrezki-tasa (% ) | 8,5 | 9,1 | 7,4 | 8,5 | 8,2 | 8,0 |
| **Soz. ez-finantzarioak** | | | | | | |
| • BEG | 581.786 | 573.008 | 557.406 | 546.035 | 550.911 | 575.653 |
| • Aurrezki gordina | 161.795 | 137.857 | 146.373 | 166.207 | 161.879 | 181.101 |
| • Aurrezki-tasa (% ) | 27,8 | 24,1 | 26,3 | 30,4 | 29,4 | 31,5 |

*Iturria: Espainiako Kontabilitate Nazionala. Kontu ez-finantzarioak. Geuk egina.*

2009tik 2013ra bitartean, familien errenta gordin erabilgarriak urteko % 1,5eko beherakada izan zuen, baina 2014an eta 2015ean berreskuratu egin da (% 0,8 eta % 2,5). Aurrezki-tasak gorabeherak izan ditu, baina 2015ean (% 8) askoz ere baxuagoa izan da 2009an baino (% 13), eta pixka bat jaitsi da azken bi ekitaldietan.

[1] Informazio hau ez dago eskuragarri autonomia-erkidegoen arabera.

**Interes-tasaren, kostuaren eta ordainketaren bilakaera**

Europako Banku Zentralak ezarritako erreferentziazko interes-tasa % 0,05ekoa izan da 2015ean, eta % 0n geratu da 2016ko maiatzean. Ondorioz, iaz bezala, aintzat hartutako interes-tasak beherantz doitu dira, bereziki etxeetarako eta enpresetarako eperako gordailuen ordainketak (horiek guztiak % 0,5en azpitik geratu dira). Salbuespenak dira 2 urte baino gehiagoko gordailuak; horiek % 0,5etik % 0,66ra igaro dira.

Eta neurri txikian bada ere, enpresen ageriko gordailuen ordainketa familiena baino handiagoa da, ohikoa den moduan. Eperako gordailuen kasuan, berriz, alderantziz gertatzen da. Hain zuzen ere, epe luzerako familia-gordailuak dira sustagarri gehien kendu zaizkienak; % 0,83tik % 0,24ra igaro dira.

Finantzaketa-kostua ere murriztu egin da; nabarmendu behar da kontsumoaren finantzaketari % 7,5etik gora eutsi zaiola eta gainditu egiten duela etxebizitzari dagokion tasa (% 2), baita enpresei bideratutakoa ere (% 2 eta % 3 artean, mailegatutako zenbatekoaren arabera). Enpresen zorpekoengatik kobratutakoak ere murriztu egin dira (% 2,3ra arte). Nolanahi ere, aurrezkiaren ordainketa-balioetatik oso urrun geratzen dira kasu guztietan.

**9. grafikoa Birfinantzaketa-interesaren tasaren bilakaera. Europako Banku Zentrala**

*(% )*




*Iturria: Europako Banku Zentrala.*

**59. koadroa Kreditu-erakundeak. Etxeetarako[2] eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berriei aplikatutako interes-tasak (TEDR)**

*(% )*

| | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|
| ETXEETARAKO[2] MAILEGUAK ETA KREDITUAK | | | | |
| – Etxebizitza[1] | 2,81 | 2,99 | 2,56 | 1,98 |
| – Kontsumoa[1][3] | 7,76 | 8,90 | 7,74 | 7,56 |
| – Beste helburu batzuk[1] | 5,81 | 5,58 | 4,64 | 3,77 |
| SOZIETATE EZ-FINANTZARIOETARAKO MAILEGUAK ETA KREDITUAK | | | | |
| – Zorpekoak | 3,52 | 3,38 | 3,14 | 2,34 |
| – 1.000.000 €-ra[1] arteko kredituak | 4,93 | 4,83 | 3,86 | 3,01 |
| – 1.000.000 €[1] baino gehiagoko kredituak | 2,72 | 2,73 | 1,99 | 1,96 |
| ETXEEN GORDAILUAK[2] | | | | |
| – Agerikoa | 0,21 | 0,22 | 0,17 | 0,12 |
| – Eperakoa[1] | 2,83 | 1,50 | 0,66 | 0,39 |
| • 1 urte arte | 2,97 | 1,23 | 0,59 | 0,35 |
| • 2 urte baino gehiago | 1,96 | 1,85 | 0,83 | 0,24 |
| SOZIETATE EZ-FINANTZARIOEN GORDAILUAK | | | | |
| – Agerikoa | 0,37 | 0,35 | 0,31 | 0,24 |
| – Eperakoa[1] | 2,08 | 1,30 | 0,51 | 0,31 |
| • 1 urte arte | 2,05 | 1,30 | 0,51 | 0,31 |
| • 2 urte baino gehiago | 2,24 | 1,37 | 0,50 | 0,66 |

*(1): Batez besteko tasa haztatua, produktu desberdinei dagokienez, epearen arabera. Abenduaren 31n.*
*(2): Etxeak eta etxeen zerbitzura dauden irabazi asmorik gabeko erakundeak.*
*(3): 2010eko maiatzetik, zutabe honek kreditu-txartelen bidez emandako kreditua ere barne hartzen du.*
*TEDR: Definizio mugatuko tasa efektiboa, hau da, UTB komisiorik gabe.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

# 4. NAFARROAKO ENPRESEN AZTERKETA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Jarraian, Nafarroako enpresen bilakaera ekonomiko-finantzarioa nolakoa izan den aztertuko dugu, baita enpleguaren produktibitateari buruzko zenbait alderdi ere. Azterketa hori egiteko erabili dugun informazioa Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralari eskatutako Nafarroako enpresei buruzko ustiapen espezifiko batetik atera dugu; izan ere, enpresa nafarrek urtero-urtero bidaltzen diote informazioa Zentralari. Kasu honetan, eta 2013 eta 2014[1] ekitaldietan, guztira 145 enpresari buruzkoak jaso ditugu.

## 4.1 JARDUERA: DIRU-SARRERAK, KOSTUAK ETA EMAITZAK

Aintzat hartuta aztertutako Nafarroako 145 enpresen emaitzen kontua, jarraian enpresen magnitude garrantzitsuenen bilakaera ikus dezakegu, 2013. eta 2014. urteetakoa, kostuei eta emaitzei dagokienez. Zehazki, enpresa horien guztizko fakturazioa 10.943.844 milako euro izan zen 2014. urtean, hau da, 2013an baino % 6,8 gutxiago.

**60. koadroa Nafarroako enpresen emaitzen kontu erantsia**

*(M eurotan)*

| Aldagaia | 2013 | | 2014 | | Aldakuntza-tasa |
|---|---|---|---|---|---|
| | m euro | % | m euro | % | % ∆ 14/13 |
| Ustiapeneko diru-sarrerak | 10.248.520 | 100,0 | 10.943.844 | 100,0 | 6,8 |
| Bitarteko kontsumoak | 7.718.803 | 75,3 | 8.374.423 | 76,5 | 8,5 |
| Balio erantsi gordina | 2.529.717 | 24,7 | 2.569.421 | 23,5 | 1,6 |
| Langile-gastuak | 1.470.171 | 14,3 | 1.494.247 | 13,7 | 1,6 |
| Ustiap. emaitza ekon. gordina | 1.059.546 | 10,3 | 1.075.174 | 9,8 | 1,5 |
| Amortizazioak eta hornidurak | 464.752 | 4,5 | 422.053 | 3,9 | -9,2 |
| Ustiap. emaitza ekon. garbia | 594.794 | 5,8 | 653.121 | 6,0 | 9,8 |
| Finantza-karga garbia | -73.094 | -0,7 | -6.146 | -0,1 | -91,6 |
| Ohiko jardueren emaitza | 667.888 | 6,5 | 659.267 | 6,0 | -1,3 |
| Ezohiko jardueren emaitza | -814.798 | -8,0 | -70.469 | -0,6 | -91,4 |
| Zerga aurreko emaitza | -146.910 | -1,4 | 588.798 | 5,4 | -500,8 |
| Zergak | 122.696 | 1,2 | 116.498 | 1,1 | -5,1 |
| Ekitaldiko emaitza garbia | -269.606 | -2,6 | 472.300 | 4,3 | -275,2 |
| Cash-flow | 195.146 | 1,9 | 894.353 | 8,2 | 358,3 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.*

Kostuen egituraren (kostu-partida desberdinen partaidetza, fakturazioari dagokionez) bilakaeraren azterketak agerian uzten du nabarmen areagotu dela bitarteko

[1] Urte horretako datuak dira azkenak.

kontsumoetako partaidetza; hain zuzen ere, 2014ko fakturazioaren % 76,5 hartzen dute (2013an, % 75,6). Areagotze nabarmena erregistratu da, halaber, termino absolutuetan (% 8,5). Beraz, fakturazioko balio erantsi gordinaren partaidetza % 23,5era arte jaitsi da 2014an (2013an, % 24,7); kasu honetan, hazkuntza txiki bat egon da termino absolutuetan (% 1,6).

Langileen gastuei dagokienez (% 1,6ko igoera txiki bat erregistratu da termino nominaletan 2014an), horiek diru-sarreretan duten partaidetza pixka bat murriztu da (2014an % 13,7 eta 2013an % 14,3), eta gauza bera gertatu da amortizazioen garrantziarekin (2014an % 3,9 eta 2013an % 4,5). Bestalde, nabarmendu behar da 2014an areagotu egin dela finantza-karga; hain zuzen ere, diru-sarrera finantzarioak gastu finantzarioak baino 6.146 milako euro altuagoak bakarrik izan dira (dena den, horiek 2014ko fakturazioan duten garrantzia -% 0,1 murriztu da, eta 2013an -% 0,7 erregistratu zen). Areagotu egin dira, halaber, kontabilizatutako ezohiko emaitzak (-70.469 milioi euro 2014an); horiek, 2013tik pixka bat gora egin badute ere (-814.798 milioi euro), saldo negatiboa edukitzen jarraitzen dute (2014ko fakturazioaren -% 0,6ko garrantzia dute, eta 2013koan -% 8,0koa izan zuten).

Lehen aipatu ditugun kostu-partiden bilakaeraren ondorioz, enpresen emaitzek gorantz egin dute aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Ildo horretan, zergen aurreko emaitzak (% 500,8ko hobekuntza erregistratu du termino nominaletan) 2014ko fakturazioaren % 5,4 hartzen du (2013an -% 1,4).

Azken finean, fakturazioa handitzen ari den testuinguru honetan, Nafarroako enpresen emaitzek hobera egin dute 2014an, nagusiki, langileen kostuei eta amortizazioei eutsi dietelako, eta, bereziki, ezohiko jardueren emaitzak hobetu egin direlako aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

## 4.2 INBERTSIOA-FINANTZAKETA

2013-2014 aldian aztertutako Nafarroako enpresen laginaren balantze erantsia aztertuz gero, enpresen magnitude adierazgarrienen bilakaera zer-nolakoa izan den jakingo dugu egindako inbertsioei eta finantzaketari dagokienez. Inbertsioen kapituluari helduta, honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

– 2014. urtean aktibo finkoak guztizko aktiboan duen partaidetza nabarmen igo da (2014an % 60,1 da, eta 2013an % 56,5 zen), termino nominaletan % 12,3ko gorakada izanik.

- Aktibo finkoaren garrantzia areagotzearen arrazoietako bat da ibilgetu materialean kontabilizatutako gorakada; magnitude horrek nahiko ondo neurtzen du inbertsioen bilakaera (bere ohiko adieran: ondasun finko eta ukigaiak), eta guztizko aktiboan duen garrantzi erlatiboa nabarmen hazi da (2014an % 20,5 eta 2013an % 17,8). Bestalde, ibilgetu immaterialean ere gorakada ikusi da, hain zuzen, ere % 39,0koa termino nominaletan; zehazki, aktibo finkoaren % 14,6 hartzen zuen 2014an, eta % 10,1 2013an. Bi aldagai horiek konpentsatu egin dute ibilgetu finantzarioan egon den beherakada (-% 13,2 termino nominaletan); hain zuzen ere, aktibo finkoaren % 25,9koa izan da 2014an, eta % 28,6koa izan zen 2013an.
- Aktibo zirkulatzaileari dagokionez, aktiboaren guztizkoan duen partaidetzak pixka bat behera egin du (2014an % 39,0 eta 2013an % 43,5); termino nominaletan % 13,9ko beherakada izan du.
- Zirkulatzaileak aktiboaren guztizkoan duen garrantziaren beherakada testuinguru honetan gertatu da: zordunen garrantziak ere nabarmen egin du behera (2014an % 27,0 eta 2013an % 32,0; % 18,9ko beherakada termino nominaletan); izakinen partaidetzak bere horretan jarraitu du (% 7,4 bai 2014an bai 2013an); eta diruzaintzaren garrantzi erlatiboak gora egin du pixka bat (2014an % 4,5 eta 2013an % 4,1; % 7,1eko gorakada egon da termino nominaletan).

Finantzaketari buruzko alderdi garrantzitsuenei dagokienez, honako hauek nabarmenduko ditugu:

- Epe motzeko finantzaketaren (epe motzeko hartzekodunak) garrantzi erlatiboak behera egin du pixka bat eta hornidurek, aldiz, gora, finantzaketa iraunkorraren (pasibo finkoa) garrantziak pixka bat gora egin duen testuinguru batean. Zehazki, epe motzeko finantzaketak pasiboaren guztizkoaren gainean duen garrantzia % 40,3koa izan da 2014an (2013an % 40,8koa), eta finantzaketa iraunkorraren garrantzia, aldiz, % 57,8ra areagotu da (2013an % 57,3), nahiz eta termino nominaletan murriztu egin den (2014an -% 3,2). Bestalde, horniduren garrantzia % 1,9koa izan da (2013an % 1,8koa).
- Pasibo finkoaren garrantzi erlatiboaren gorakada txikiaren arrazoia ondare garbiaren partaidetzek nabarmen gora egin izana da (2014an, pasiboaren guztizkoaren % 41,7, eta 2013an % 38,9); hain zuzen ere, epe luzeko besteren baliabideen partaidetza nabarmen murriztu da (2014an % 16,0 eta aurreko ekitaldian % 18,5).
- Halaber, epe motzeko finantzaketaren garrantzi erlatiboak behera egin du, kostua duten baliabideen partaidetzak gora egin duela (2013an % 17,9 eta 2014an % 18,8) eta kosturik gabeko baliabideen partaidetzak behera egin duela (% 22,9tik % 21,7ra 2013-2014 aldian).

– Azkenik, maniobra-funtsak (aktibo zirkulatzailea ken epe motzeko hartzekodunak) % 148,2ko jaitsiera nabarmena izan du termino nominaletan 2014. urtean; saldo negatiboa du orain (2014an pasiboaren guztizkoan % 1,3, eta 2013an % 2,7).

**61. koadroa Nafarroako enpresen balantze erantsia**

*(m eurotan)*

| Aldagaia | 2013 | | 2014 | | Aldakuntza-tasa % ∆ 14/13 |
|---|---|---|---|---|---|
| | m euro | % | m euro | % | |
| AKTIBOA GUZTIRA | 14.419.602 | 100,0 | 13.852.422 | 100,0 | -3,9 |
| AKTIBO FINKOA | 8.150.123 | 56,5 | 8.453.090 | 61,0 | 3,7 |
| Ibilgetu immateriala | 1.459.417 | 10,1 | 2.028.093 | 14,6 | 39,0 |
| Ibilgetu materiala | 2.562.530 | 17,8 | 2.841.005 | 20,5 | 10,9 |
| Ibilgetu finantzarioa | 4.128.176 | 28,6 | 3.583.992 | 25,9 | -13,2 |
| ZIRKULATZAILEA | 6.269.479 | 43,5 | 5.399.332 | 39,0 | -13,9 |
| Izakinak | 1.067.520 | 7,4 | 1.029.231 | 7,4 | -3,6 |
| Zordunak | 4.617.241 | 32,0 | 3.743.654 | 27,0 | -18,9 |
| Diruzaintza | 584.718 | 4,1 | 626.447 | 4,5 | 7,1 |
| PASIBOA GUZTIRA | 14.419.602 | 100,0 | 13.852.422 | 100,0 | -3,9 |
| PASIBO FINKOA | 8.269.114 | 57,3 | 8.003.320 | 57,8 | -3,2 |
| Ondare garbia | 5.607.972 | 38,9 | 5.780.215 | 41,7 | 3,1 |
| Epe luzeko besteren baliabideak | 2.661.142 | 18,5 | 2.223.105 | 16,0 | -16,5 |
| EPE MOTZEKO HARTZEKODUNAK | 5.887.063 | 40,8 | 5.583.780 | 40,3 | -5,2 |
| - Kostua dutenak | 2.585.907 | 17,9 | 2.583.974 | 18,7 | -0,1 |
| - Kosturik gabekoak | 3.301.156 | 22,9 | 2.999.806 | 21,7 | -9,1 |
| HORNIDURAK | 263.425 | 1,8 | 265.322 | 1,9 | 0,7 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.*

## 4.3 ERRENTAGARRITASUNA ETA LOTUTAKO MAGNITUDEAK

2014an, Nafarroako enpresen gure laginaren errentagarritasun ekonomikoak (zergen aurretik kalkulatuta) gora egin du nabarmen, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Zehazki, errentagarritasun hori % 7,1ekoa izan da 2014an, eta aurreko ekitaldian % 0,2koa izan zen.

**62. koadroa Nafarroako enpresen errentagarritasuna**

| Ratioak (% ) | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| AKTIBO GARBIAREN ERRENT. (zergen aurretik) | 7,1 | 6,6 | 8,5 | 0,2 | 7,1 |
| Jasotako finant. interesak/Kostua duten besteren baliabideak | 3,6 | 3,5 | 3,2 | 3,3 | 3,9 |
| BALIABIDE PROPIOEN ERRENT. (zergen aurretik) | 9,9 | 9,0 | 12,1 | -2,6 | 10,2 |
| Zorpetze-ratioa | 50,9 | 46,3 | 40,9 | 61,5 | 58,1 |
| Apalankamendu finantzarioa* | 3,5 | 3,1 | 5,3 | -3,0 | 3,3 |

*(*): Errentagarritasun ekonomikoa – besteren finantziazioaren kostua*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.*

Era berean, finantza-errentagarritasunak (zergen aurretik kalkulatuta) ere gora egin du 2014an, % 10,2koa izan baita (2013an, -% 2,6).

Hori horrela izanik, finantza-errentagarritasunaren gorakada errentagarritasun ekonomikoaren gorakadaren ondorio izan da nagusiki, zorraren kostuak zertxobait behera egin duelako (apalankamendu finantzarioak 2014an gorakada nabarmena izan du).

**10. grafikoa  Nafarroako enpresen errentagarritasuna**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.*

## 4.4 ENPLEGUAREN PRODUKTIBITATEA

Aurreko ataletan egindako azterketa ekonomiko-finantzarioaren osagarri, jarraian, Nafarroako enpresetatik aztertu dugun laginean enpleguak izan duen produktibitatearekin lotutako zenbait alderdiri buruz mintzatuko gara.

**63. koadroa  Enpleguaren produktibitatea**

*(m eurotan)*

| Ratioak | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| BEG/langile | 77,2 | 77,1 | 78,2 | 73,8 | 76,0 |
| Enpleguaren batez besteko kostua | 42,2 | 43,0 | 43,5 | 42,9 | 44,2 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.*

Zehazki, langile bakoitzeko balio erantsia 76,0 milako euro izan da 2014an, aurreko ekitaldiarekin alderatuta % 3,6ko gorakada izan duela; enpleguaren batez besteko kostua, aldiz, 44,2 milako euro izan da, iazkoa baino % 3,0 handiagoa.

## 4.5 NAFARROAKO ENPRESEN DIAGNOSTIKO EKONOMIKO-FINANTZARIOA. SINTESIA.

Aurreko atalean aipatutako informazioaren sintesi moduan, jarraian, Nafarroako enpresen 2014ko egoera ekonomiko-finantzarioarekin lotutako alderdi positiboak eta negatiboak aipatuko ditugu.

Alderdi positiboei dagokienez, honako hauek nabarmenduko ditugu:

- Ustiapeneko diru-sarrerak nabarmen areagotu dira.
- Langileen kostuei eta amortizazioei beren horretan eutsi zaie.
- Ezohiko jardueren emaitzak nabarmen hobetu dira.
- Ibilgetu materialaren garrantzi erlatiboa pixka bat areagotu da, eta nabarmen jaitsi da zordunen partida.
- Ondare garbiaren garrantzi erlatiboa areagotu egin da.
- Bai errentagarritasun ekonomikoa bai finantza-errentagarritasuna nabarmen hazi dira.

Alderdi ez hain positiboei dagokienez, honako hauek aipatuko ditugu:

- Bitarteko kontsumoen portzentajezko garrantziak gora egin du, eta, beraz, sortutako balio erantsiaren garrantziak behera.
- Finantza-karga garbiak behera egin du pixka bat.
- Epe motzeko kostua duten hartzekodunen garrantzi erlatiboa areagotu egin da.
- Zorraren kostua handitu egin da pixka bat.
- Maniobra-funtsak nabarmen egin du behera (aktibo zirkulatzailea ken epe motzeko hartzekodunak); 2014an saldo negatiboa izan du.

## 4.6 ESPAINIAKO ENPRESA EZ-FINANTZARIOEN ENPRESA-EMAITZAK.

Jarraian, Espainiako enpresa ez-finantzarioek 2015ean izandako emaitzen alderdi garrantzitsuenak azalduko ditugu labur-labur; horretarako, Espainiako Bankuaren Hiruhilekoko Balantzeen Zentralaren informazioa baliatuko dugu[1], eta informazio hori Estatu osokoa den arren, Nafarroako enpresek 2015eko ekitaldi honetan izan dituzten joeren gutxi gorabeherako egoera zein den jakin ahal izango dugu.

**64. koadroa Emaitzen kontua. Urtetik urterako bilakaera (enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko)**

| OINARRIAK | Hiruhilekoko Balantzeen Zentrala(*) | | |
|---|---|---|---|
| | I-IV 13/ I-IV 12 | I-IV 14/ I-IV 13 | I-IV 15/ I-IV 14 |
| **Enpresa kopurua/Nazioko guztizko estaldura** | **839/% 11,8** | **880/% 13,4** | **896/% 13,4** |
| 1. Produkzioaren balioa (diru-laguntzak sartuta) | -3,9 | -0,1 | -2,6 |
| Negozio-zifraren zenbateko garbia eta ustiapenaren bestelako diru-sarrerak | -3,3 | 1,8 | -2,4 |
| 2. Bitarteko kontsumoak (tributuak sartuta) | -3,7 | -0,2 | -6,1 |
| Erosketa garbiak | -7,0 | 0,1 | -9,2 |
| Beste ustiapen-gastu batzuk | 1,4 | 0,8 | 0,9 |
| S.1. BALIO ERANTSI GORDINA FAKTOREEN KOSTUAREKIKO (1-2) | -4,3 | -0,0 | 5,6 |
| 3. Langile-gastuak | -1,7 | 0,9 | 2,3 |
| S.2. USTIAPENAREN EMAITZA EKONOMIKO GORDINA (S.1.-3) | -6,7 | -1,0 | 9,3 |
| 4. Diru-sarrera finantzarioak | 14,5 | -24,7 | -11,0 |
| 5. Finantza-gastuak | -0,7 | -7,7 | -9,4 |
| 6. Amortizazioak eta ustiapen-hornidurak | -1,5 | -2,4 | -0,3 |
| S.3. OHIKO EMAITZA GARBIA (S.2 + 4 –5 –6) | 0,2 | -14,4 | 14,9 |
| 7. Besterentzeen eta narriaduraren ondoriozko emaitzak | 35,1 | 96,6 | -- |
| 8. Arrazoizko balioaren aldakuntzak eta gainerako emaitzak | -0,5 | 43,7 | -88,1 |
| 9. Mozkinen gaineko zergak | -- | -- | 74,8 |
| S.4. EKITALDIAREN EMAITZA (S.3 + 7 + 8 -9) | 192,9 | 137,1 | -41,3 |
| EKITALDIAREN EMAITZA / BEG (S.4 / S.1) | 11,1 | 24,1 | 14,4 |
| ERRENTAGARRITASUNAK | | | |
| R.1. Aktibo garbiaren ohiko errentagarritasuna (zerga aurretik) | 5,6 | 5,2 | 5,1 |
| R.2. Jasotako finantz. interesak, kostua duten besteren baliabideei dagokienez | 3,5 | 3,3 | 3,0 |
| R.3. Baliabide propioen ohiko errentagarritasuna (zergen aurretik) | 7,5 | 6,8 | 6,6 |
| R.4. Errentagarritasuna – finantza-kostua aldea (R.1. - R.2.) | 2,1 | 1,9 | 2,1 |

*(*): Zutabe horietako datu guztiak hiruhilekoko datuen batezbesteko haztatu moduan kalkulatu dira.*
*Iturria: Espainiako Bankua.*

Hiruhilekoko Balantzeen Zentralaren 2015erako informazioak agerian uzten du enpresen jarduera ekonomikoa berreskuratzeko joera finkatzen ari dela; izan ere, lagin horien guztien balio erantsi gordinak (BEG) % 5,6ko gorakada izan du urtetik urtera (aurreko

[1] Espainiako 896 enpresa ez-finantzariok 2015eko lau hiruhilekoei buruzko datuak bidali dituzte eta lagin horren emaitzak erabili ditugu (lagina aldatu egiten da urtero, eta manufaktura-industriak du ordezkaritza txikiena bertan); enpresa ez-finantzarioen sektorearen balio erantsi gordinaren % 13,4 osatzen dute enpresa horiek.

urtean soberakin horrek ez zuen ia aldakuntzarik izan). BEG gehiago handitu da enpresa txikienetan, 2013an berreskuratze-aldia hasi zenetik gertatzen den moduan. Jarduera-fluxuaren hazkuntza hau barneko eskaria berraktibatzen ari zen testuinguru batean geratu da, esportazioen dinamismoa handia zela.

Langileen gastuek % 2,3 egin dute gora 2015ean, aurreko urtean baino gehiago (% 0,9). 2015ean partida horretan ikusitako dinamismo handiagoaren arrazoia izan daiteke, nagusiki, enpleguak bilakaera positiboa izan duela, % 1,7 hazi baita.

Testuinguru horretan, ohiko emaitza garbia % 14,9 hazi da 2015ean. Ohiko soberakinak areagotu badira ere, errentagarritasun-maila erantsiek pixka bat behera egin dute aurreko urtearekin alderatuta; emaitza horrek, alabaina, enpresa handi batzuen bilakaeraren eragin garbia du, izan ere, diru-sarrera finantzarioen beherakadak enpresa horiek kaltetu ditu. Azterketa zehatzagoa egiten badugu, ikus dezakegu errentagarritasun-mailak hobetu egin direla gero eta enpresa gehiagotan, baita sektore gehienetan ere. Edonola ere, aktiboaren errentagarritasunaren eta batez besteko finantzaketa-kostuaren arteko aldea bi hamarren handitu da (% 2,1era arte), interes-tasen beherakadari esker.

Azkenik, ezohiko diru-sarrerek eta gastuek eragin negatiboa dute ekitaldiko emaitzetan. Zehazki, iaz, gure lagineko enpresek finantza-aktiboak saltzeko eragiketetan sortutako minusbalioak izan zituzten; hori aipagarria da, 2014an erregistratu ziren plusbalio garrantzitsuarekin alderatuta. Gainera, langileen doikuntzen ondoriozko gastuek ere eragin zieten lagin honetako konpainia handietako batzuei. Horren guztiaren ondorioz, azken emaitzak kontrakzio esanguratsua erakusten du (% 41,3koa); izan ere, 2014an balio erantsiaren % 24,1 hartzen zuen, eta 2015ean % 14,4 besterik ez.



# 2. LEHEN SEKTOREA

# 1. IKUSPEGI OROKORRA

## 1.1 BILAKAERA ESTATU EREMUAN

Estatuko nekazaritza-sektoreak azken hiru ekitaldiotan gainditu egin ditu krisiaren aurretik (2007) lortutako oinarrizko prezioetako ekoizpen mailak, eta 2013an beste maximo bat lortu zen. 2015ean, berreskuratu egin zen berriro ere 2014. urteko atzerapen txikiaren zati handi bat. Nekazaritza-ekoizpena –gaur egun 2000. urteko zifrak baino % 20 gehiago da, landare-ekoizpenaren % 59,6k, animalia-ekoizpenaren % 36,5ek eta zerbitzu eta lotutako beste ekoizpen batzuen % 3,9k osatzen dute. Horien guztien joera izan da zertxobait gora egitea azken urteotan, ohiko urte arteko gorabeherekin, ohikoak landa-adarrean, ekoizpen-egitura dela eta.

Azken urteotan, urte arteko konpentsazio-gorabeherak ohiko joera izan dute kategoria guztietan eta urte arteko aldakuntzaren adierazleetan, bai fisikoetan, bai prezioei eta balio osoari dagozkienetan. Oro har, argiagoa izan da prezioen goranzko joera, eta lauagoa ekoizpen fisikoaren adierazleena.

Horrela, nekazaritza-ekoizpen osoak % 2,5 egin du gora 2015ean, eta zati batean konpentsatu egin du aurreko urteko % 3,3ko atzerapena; era berean, prezioen aurrerakuntza orokorrak (% 4,4) konpentsatu egiten du zati batean aurreko beherakada (-% 6,8), eta, ekoizpen fisikoaren adierazlean, ordea, 2015eko beherakada (-% 1,8) 2014an erregistratutako aurrerapenetik (% 2,8) urruntzen da.

Azaldutakoarekin bat etorriz, adar nagusiak, hau da, landare-ekoizpenak baldintzatzen ditu guztizko horiek, eta adierazleek urte arteko aldakuntza zabalagoak dituzte. Balio osoak % 6,1 egiten du aurrera, % 13,3 prezioek, eta, termino fisikoetan, % 6,3ko atzerapena egon da. Animaliaren adarrak kontrako bilakaera du; atzerapenak ditu balio osoan (-% 2,4), nahiz eta % 4,8 gehiago dagoen kopuruari dagokionez; izan ere, prezioak gehiago jaitsi dira (-% 6,8).

Nekazaritza-sektoreak, arrantza edo erauzketa-jarduerak baztertzen dituen lehen mailako azpimultzo gisa, behera egiten jarraitzen du enpleguari dagokionez, batez ere, nekazaritza-lanak teknifikatu direlako. Hori Nekazaritzako Lan Unitateen (NLU) kontaketan islatzen da; murriztu egiten dira oso erritmo konstantean azken hamarkadotan. Krisiaren 8 urteotan, esate baterako, adierazle horren murrizketa ia % 20koa izan da, baina hori epe luzeagoko beherakada baten jarraipen zuzena baino ez da.



LABORAL kutxa

Nekazaritza-errentak edo sektoreak soldatak ordaintzeko eta onurak eskuratzeko duen marjinak 2003an maximoa lortu zuen eta ia berdindu egin zuen 2007an, beheranzko joerarekin; urte horretatik gorabeherak izan ditu. NLUen araberako errentaren gorakada konstantea izan da eta NLUen guztizkoaren beherakada baino nabarmenagoa, nahiz eta prezio konstanteetan NLUen araberako errentaren balantzea mende-hasierako zifren antzekoetan mantentzen den. Nekazaritza-errenta osoak % 15,6 egin du behera 2007tik, baina 2015ean % 1,2ko aurrerapena izan du.

Nekazaritza-ekoizpen osoaren eta nekazaritza-errentaren hobekuntza txikia 2015ean Espainiako fruta eta barazkien balioaren gorakadarekin lotu daiteke. Guztizko balioaren % 63,7 lortu dute, eta azken 13 urteotako ekoizpenik onena izan dute, nahiz eta prezioek oro har goranzko joera izan duten. Bestalde, animalia-adarrean egon den beherakada txikia esne-ekoizpenari lotzen zaio; izan ere, animalien-osagai nagusiek (ganadua eta haragia) gora egin dute balioari dagokionez, baina oso gutxi. Azken bosturtekoko nekazaritza-bilakaeran, argia da txerri-haragiaren eragina; produktu batzuk atzerrian bereziki baloratzen dira, azpisektorea haztea eragin duen faktore gisa.

**65. koadroa Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2014 | 2015* | % ∆ 2015/2014 | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Ekoizlearen prezioak | Ekoizlearen prezioak | Monetarioa | Erreala | Prezioak |
| A.- Nekazaritza-adarreko ekoizpena | 42.600,00 | 43.667,70 | 2,5 | -1,8 | 4,4 |
| • Landare-ekoizpena | 24.521,10 | 26.023,90 | 6,1 | -6,3 | 13,3 |
| • Animalia-ekoizpena | 16.325,60 | 15.938,30 | -2,4 | 4,8 | -6,8 |
| • Zerbitzu-ekoizpena | 496,60 | 482,70 | -2,8 | -1,7 | -1,1 |
| • Bigarren mailako jarduerak, ez-nekazaritzakoak, ez-bereizgarriak | 1.256,70 | 1.219,80 | -2,9 | 0,2 | -3,1 |
| B.- Bitarteko kontsumoak | 21.172,30 | 21.754,90 | 2,8 | 2,9 | -0,1 |
| C.- (A-B) Balio Erantsi Gordina | 21.427,70 | 21.909,80 | 2,3 | -6,5 | 9,3 |
| D.- Amortizazioak | 5.178,00 | 5.194,90 | 0,3 | -0,6 | 0,9 |
| E.- Beste diru-laguntza batzuk | 5.886,90 | 5.700,50 | -3,2 | - | - |
| F.- Beste zerga batzuk | 327,80 | 351,80 | 7,3 | - | - |
| G.- (C-D+E-F) Nekazaritza-errenta | 21.808,80 | 22.063,60 | 1,2 | - | - |

*(*): 2016ko urtarrileko 2. estimazioa.*
*Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.*

Landare-kategorien barruan, nabarmenak dira barazki eta fruten balioen gorakadak (% 16,3 eta % 11,7), eta olioak, ordea, berriro ere gorabeherak izan ditu, oraingoan negatiboak (-% 52,4 kopuruari dagokionez, % 49,8ko garestitzea eta % 28,7ko balio-galera). Kategoria guztiak garestitu dira, eta aurreko urteko kopuru oso antzekoei eutsi zaie, olioaren, ardoaren (-% 8,9) edo patataren (-% 11,8) beherakadak izan ezik).

Abeltzaintzan, ohikoa den bezala, gorabeherak txikiagoak dira; kopuruari dagokionez gorakadak nagusitu dira, besteak beste, behi-aziendan (% 10) edo txerri-aziendan (% 7),

eta prezioen beherakadak izan dira, besteak beste, esnearena (-% 15) edo txerriarena (-% 10).

## 1.2 BILAKAERA NAFARROAN

### Sektoreko makromagnitudeak

Nafarroako lehen sektoreak aurten % 3ko kuotari eutsi dio erkidegoko ekonomiaren balio erantsi gordinaren gainean, zeinek 2005etik handiena izaten jarraitzen duen. Sektorea ez zen bigarren edo hirugarren mailakoa bezain azkar hazi oparoaldiko urteetan, eta krisiarekin izandako beherakada ere ez zen hain bat-batekoa izan -geldialdia izan zen, batez ere-. 2011n igoera nabarmena eduki ondoren (% 4,7), moteltzen joan da, 2015ean nekazaritzako balio erantsi gordinaren urte arteko % 1,4ra iritsi arte.

Sektoreko balio erantsi gordinak gainditu egiten ditu 558 milioi euro; eta horrek, aurreko 4 urteetan bezala, ordura arte lortutako zifrarik altuena dakar. Baina zifra hori zehaztu egin behar da urteetan zehar izan den prezioaren gorakadaren joera orokorraren bidez. Ekonomiak ordea, ez du oraindik 2008ko BPGaren zifra lortu. Hala ere, lehen aldiz 2010etik, urte arteko aldakuntza BPG osoa (% 2,9) baino txikiagoa da. Espainian, 2015ean, nekazaritzako balio erantsi gordinak eta guztizkoak gora egin dute (% 3,2 eta % 3,5, hurrenez hurren).

**11. grafikoa Nekazaritza-ekoizleek jasotako prezioen indizeak**

*(Indizea: 2005 eko urtarrila= 100)*




*Oharra: Urte bakoitzeko prezioen hileko indizeen batezbestekoa.*
*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.*

Prezio arrunten araberako ekoizpenak (952 milioi) aurrera egiten du, eta epe luzera nahiko joera argia du, baina inflazioaren eragina du; eta 2015eko gorakada (% 2,8) azken batean azken hamarkadako urteko hazkundearen batezbestekoa izan da (% 2,7).

Hala ere, 2015eko aurrerapena ez da izan nekazaritzako prezioen gorakadaren ondorioz. Horiek atzera egin dute (-% 16,7) 2009-10eko antzeko mailetan, urte batzuez etengabeko hazkunde izan ondoren, atzerapena pixkanaka hasi zen 2014an. Horrek eragina du bai animalia-produktuetan (-% 8,5), bai landare-produktuetan (-% 24,8); ez, ordea, guztiz kontrakoa izan den baso-produktuen bilakaeran, prezioek % 53,5 egin baitute gora.

Landare-kategorien arabera, antzematen da ardogintza dela atzerapen horren erantzule (-% 23,3); izan ere, gainerako tipologia nagusiak oso gutxi garestitu dira (zerealak % 2,6; barazkiak % 1,9), eta atzerapenak oso urriak dira (-% 6,6 lekadunetan eta -% 3,8 bazketan). Beste produktu batzuk ordea, nabarmen garestitu dira (industrialak % 42,8, frutak % 37,6, fruitu lehorrak % 30,2, patatak % 14,5).

Abeltzainen artean, beherakada horren arrazoia da, jaitsiera handiena duen kategoria nagusietako bat dela, txerri-haragia (-% 12,3), untxiarena ondoren (-% 11,2), ganadu biziaren salmenta (-% 6,3) eta behiarena (-% 3); baina kategoria ekoitziena, hegaztiena, edo haragizkoa ez den produktu nagusia, esnea, pixka bat garestitu dira (% 2,5 eta % 3,6).

Kopuruari dagokionez, aurrerapen handiak izan dira olibondoan (% 57,2) eta bazketan (% 32,8), baina azken kasu horretan, kontabilizazioak eragina izan du aurretik sartzen ez zen belar ondu mota baten ondorioz. Horrela, bazkek tonetan zerealak gainditu dituzte, kontuan hartuta % 10,5 egin dutela behera; frutek ere behera egin dute (-% 20,1), bai eta industrialek, erremolatxak (-% 11,3) eta tuberkuluek (-% 9,3) ere. Lekadunek aurrera egin dute (% 10,9), bai eta barazkiek (% 11), mahastiek (% 8,4) eta tona-kopuru osoak ere (% 8,2).

**Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza**

Nafarroako balantza komertziala nekazaritzaren eta nekazaritzako elikagaien sektorean funtsean hobetu den aldagai ekonomikoetako bat da, krisia gorabehera. Zati batean, estatuko merkatuaren ahultasuna dela eta, ekoizleek biziago zabaldi dira atzerriko merkatuetara, beren ekoizpenak horietan kokatzeko.

**66. koadroa Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Nafarroa**

*(M euro)*

| Muga-zerga atala | Esportazioak | | Inportazioak | |
|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 |
| Animalia biziak eta animalia-erreinuko produktuak | 137,6 | 124,2 | 148,6 | 134,9 |
| Landare-erreinuko produktuak, gantzak eta olioak | 318,1 | 323,9 | 181,7 | 141,8 |
| Elikagaigintzako produktuak | 512,9 | 532,1 | 203,5 | 214,0 |
| Nekazaritzako elikagaien sektorea | 968,6 | 980,2 | 533,8 | 518,0 |
| Nekazaritzako elikagaien sektorearen partaidetzaren % esportazio-inportazioen guztizkoetan | 11,9 | 11,6 | 12,8 | 11,4 |

*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Nagusiaren datuen gainean.*

Aurreko urteetako joerek jarraitutasuna dute, eta sektore agregatu horren balantza komertzial positiboak berriro ere egin du aurrera, % 6,3 2015ean. Superabit komertziala % 89,2koa izan da; izan ere, esportazioek inportazioak gainditu dituzte ehuneko horretan. Elikagaigintzan dago aldeko desberdintasun handiena, baina, 2015ean, landare-adarrean dago marjina positibo esportatzailearen zabalkuntzarik handiena (% 13,5). Animalia-adarrean azken urteotako balantze negatibo txikiari eusten zaio. Oro har, jarraitzen da esportazioetan aurrera egiten (animaliak salbu, aurten), eta inportazioetan gutxitzen (industrialak salbu); salbuespen horiek, nolanahi ere, txikiak dira.

Bai esportazioetan, bai inportazioetan, industria-adarrak du bolumen handiena azken urteotan, eta landare- eta animalia-adarrak ondoren. Inportazioetan, ordea, hiru sektoreak daude antzeko magnitude-hurrenkeran, eta, esportazioetan, industria-adarra besteen oso gainetik dago –eta bere azpisektoreko inportazioen gainetik ere bai–; animalia-adarra, ordea, nabarmen beherago dago, gainera balantza komertziala pixka bat negatiboa da.

### Herritar okupatua

Nekazaritza-sektoreko enpleguak gorabehera handiak ditu, eta, Nafarroaren kasuan, urte bakoitzeko bigarren seihilekoko datuak kontuan hartuta, beherakada handia egon zen krisiaren lehen urteetan, gorakada handia 2013an, eta igoera hori amaitu egin da 2015ean. Tokiko datu horiek ez daukate zerikusi handirik Espainiako joera globalarekin; bertan, sektorearen tamaina askoz ere handiago da, bilakaera ez da horren gorabeheratsua, eta krisian etengabeko atzerapena izan du; 2013an igoera izan zuen, baina askoz ere txikiagoa, eta 2014an konpentsatu egin zen eta 2015ean geldi geratu zen (igoera txikia).

Bilakaera-mota horretan eragina du Nafarroan sektorearen egituran nekazaritza-ustiategi ugari egoteak eta horien titularrak, enplegatu gisa erregistratuta egon beharrean, jabe gisa erregistratuta egoteak; izan ere, beste jarduera batzuk izaten

dituzte eta, nolanahi ere, nekazaritza-lanak sasoi batzuetan baino ez dituzte egiten. Kasu askotan, aldi berean, aldi baterako langileak kontratatzen dituzte, bereziki nekazaritza-kanpainetarako, eta horiek aurreratu edo atzeratu egin daitezke, hainbat alderdi tarteko. Beraz, urtearen arabera, urte bakoitzeko ekaineko Biztanleria Aktiboaren Inkestak eskaintzen duen adierazle horretan islatuta geratuko dira batzuetan eta beste batzuetan ez.

Nafarroako Gobernuaren datuek egiaztatzen dute 2015. urte-amaieran 12.000 okupatu baino pixka bat gutxiago kontabilizatzen direla, eta, horietatik, 4.500 baino gehiago soldatakoak direla (% 38); beraz, autonomoak gailentzen dira. Azken horiek, oro har, beheranzko joera izan dute azken hamarkadan, baina soldatakoen zifra konstante mantendu da aldi horretan.

**67. koadroa Enplegua lehen sektorean. Urteko batez bestekoa***

*(m pertsona)*

| Urtea | Nafarroa | Espainia |
|---|---|---|
| 2006 | 13,5 | 944,3 |
| 2007 | 12,9 | 925,5 |
| 2008 | 14,0 | 830,6 |
| 2009 | 13,3 | 790,8 |
| 2010 | 11,3 | 772,8 |
| 2011 | 7,1 | 735,9 |
| 2012 | 8,6 | 722,3 |
| 2013 | 15,5 | 753,1 |
| 2014 | 13,4 | 739,3 |
| 2015 | 9,4 | 740,4 |

*(*): Ekaineko datuak aurkezten dira, uste baita adierazgarriagoak direla sektoreko enpleguaren urtaro-bilakaeraren barruan.*
*Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta. BAI.*

# 2. NEKAZARITZAKO AZPISEKTOREA

Nafarroako nekazaritzak bere dinamismoari eutsi dio, ekonomiak izandako asaldaketak gorabehera. Krisiaren hasieran behera egin zuten prezioek, baina berehala eman zitzaion buelta. Sektoreak ez ditu urtetik urtera gorabeherak izan ekoizpenean eta prezioan; aitzitik, indartsuagoak dira urteek aurrera egin ahala, eta, zalantzarik gabe, altuagoak dira sektorea eskulanean oinarritzen zenean baino. Nekazaritza-produktu mota nagusiek, ordea, bere horretan diraute, eta batzuek, besteak beste, industria-produktuek, gora egiten jarraitzen badute ere, beste tradizional batzuk ez dira alde batera uzten.

Txandaketek, negozio globalaren ikuspegiak, lehiaketa eta irismen handiko beste kanpo-faktore batzuek, bai eta gora doan egokigarritasun teknikoak eta beti eragiten duen klimatologiak ere azaldu dezakete adierazleak urtetik urtera asko aldatzea, nahiz eta gero epe ertainera edo are laburrera konpentsatzen diren. Gorabehera mota horiez gain, gaineratu beharra dago, 2015ean egoera oso desberdina eta askotarikoa zela produktu-kategoria bakoitzeko.

## 2.1 EKOIZPENAK ETA AZALERAK

Nekazaritza-mota eta -modalitate handien analisian ikusten da urtetik urterako aldaketak txikiak izan ohi direla. Lehorreko zein ureztatutako lursailen aldaketek edo zur-laboreen eta belarki-laboreen artekoek oso ehuneko txikian eragiten diote Nafarroako baratzeari, eta helburu berean denbora luzez lan egin ondoren ekoizten dira. Txandaketak askoz ere gehiago gertatzen dira kategoria bereko produktuetan, aipatutakoen barruan.

2015ean,ordea, azken urteetan ikusi gabeko joera-aldaketa bat gertatu da: ureztatutako sailen laborantzan erabilitako azaleraren beherakada (nahiz eta ez den asko izan: -% 0,6). Halaber, horrek ekarri du ehuneko berean behera egitea (-% 0,6) landatutako guztizkoaren barruan modalitate honek duen pisuak (% 34,9tik % 34,3ra).

Hala ere, badu jarraipena zur-laboren atzerakadaren joera motelak, haren pisuak % 10,4tik % 10,3ra egin baitu behera. Belarki-laboreen nagusitasuna handiagoa da lehorreko laborantzan (% 93,2), ureztatutakoan baino (% 82,9); izan ere, zur-laboreek ureztatutako sailean dute euren azaleraren zati handiena (% 56,7). Zur-labore nagusiak olibondoak, fruta-arbolak eta mahatsondoak dira; oro har, intentsiboagoak dira eskulanean, eta horietako bakoitzean mundu-mailan gailentzen den eskualde bat dago

Estatuan. Lehia hori izan daiteke laborantza horretarako azalera txikiagoa erabiltzeko joeraren arrazoia, nahiz eta arlo honetako ekoizpenaren eta prezioen datuek (gorabeheratsuak izan dira azken urteotan) erakusten duten sektore lehiakorrak eta dinamikoak direla Nafarroan.

Landutako azalera osoak hazten jarraitzen du, kasu honetan, % 1,1, 2014an baino hamarren bat gehiago. Hortaz, Foru Erkidegoko lurralde osoaren % 27,6 hartzen du.

**68. koadroa Lur landuen erabilera**

*(m Ha)*

| Kontzeptua | 2014 | | | 2015 | | | % ∆ 15/14 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Lehorreko laborantza | Laborantza ureztatua | Guztira | Lehorreko laborantza | Laborantza ureztatua | Guztira | Lehorreko laborantza | Laborantza ureztatua | Guztira |
| Belarki-laboreak | 172,3 | 82,4 | 254,7 | 176,0 | 81,8 | 257,8 | 2,2 | -0,7 | 0,8 |
| Zur-laboreak | 12,9 | 16,8 | 29,7 | 12,8 | 16,8 | 29,6 | -1,1 | 0,2 | -0,4 |
| **Laboreak, guztira** | **185,2** | **99,2** | **284,4** | **188,8** | **98,6** | **287,4** | **2,0** | **-0,6** | **1,1** |

*Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2016ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua. Kategoria bakoitzeko guztizkoetan ez dira sartzen hainbat laborantza txiki. 2015ean 6 produktu txiki berri sartu dira estatistikan, 2014arekin alderatuz.*

2015eko ekoizpenei dagokienez, kontrastea da nagusi, 2014an ez bezala; izan ere, 2014an, lortutako tonajea hazi egin zen produktu-kategoria handi guztietan, olibondoetan izan ezik. Are gehiago, olibondoak izan du aurten ekoizpen-ehunekorik handiena (% 57,2; oso atzean geratu da aurreko urteko % 13,8ko galera). Horrekin ikus daiteke sektore honetan askotan urte bateko datuak hurrengo urtekoekin konpentsatzen direla. Zalantzarik gabe, egiturazko gaitasun batzuek (eta ikusi denez gutxi samar alda daitezkeen azalerek) izugarri baldintzatzen dituzte produktu bakoitzaren luzera begirako batezbestekoak. Gorabehera handiak badaude, baina kategoriaka erabiltzen den azaleraren egiturazko ezaugarriaren ondorioz, ekoizpenak batez besteko balio berberetan egoten dira beti, eta aldatzekotan, luzera begira aldatzen dira. Olibondoak, esaterako, egoera bera izan zuen 2013an; azpimultzo guztien artean aurrerapen handiena izan zuen.

Azken 4 ekitaldiekin alderatuz, ikus daiteke, kategoria ezberdinen ekoizpen-mailak, oro har, 2011ko euren balioen gainetik daudela eta ia kasu guztietan, lau urte hauetan gorabeheraren bat egon bada, geroago konpentsatu egin direla.

Bazka-laboreak dira 2015eko salbuespena; azken urteetako goranzko joera argia izan dute, eta aurten % 32,8 egin dute gora; funtsezko gorakada da hori bi kategoria masiboenetako bat dela kontuan hartuta (azken urteetan lehen aldiz gainditu dituzte zerealak). Alabaina, honen jatorria estatistiketan dago; izan ere, 2015ean lehen aldiz hasi dira bazka-mota berri bat kontabilizatzen. Ray-grass izenekoa (penintsulan asko

erabiltzen den belar ondu mota bat) kenduz gero, gorakada bat dator gutxi gorabehera aurreko urteetako joerarekin.

Nolanahi ere, nabarmentzekoa da "belardi naturalaren" (hau da, horretarako erabiltzen diren lursailetan hazten uzten den biomasa belarkararen uzta, baina erein gabe) tonajeak % 28,2 egin duela gora, eta azalerari dagokionez, lehen aldiz gainditu duela azken urteotan alpapa, bazka nagusia.

2015ean, erabilitako estatistiketan dauden produktuak berrikusi dira, eta orain agertu diren edo zalantzagatik kategorizatu gabe zeudenak –hori izango zen ray-grassen kasua, ziur asko– kontabilizatu dira. Horrez gain, batzuk kendu egin dira, eta beste batzuk multzokatu egin dira, ezaugarri antzekoak izateagatik. Kategorietan eta azpikategorietan ez dago "gainerakoak" edo "beste batzuk" atalik; hortaz, guztizkoak aukeratutako produktu panelen mendekoak dira eta 2014ko eta 2015eko kategoria bakoitzeko guztizkoak elkarren artean konparagarriak dira. Kategoria guztietan egin dira horrelako aldaketak, lekaleetan, mahastietan eta olibondoetan izan ezik.

Guzti hori kontuan hartuta, emaitzak adierazten du aurrerapen handienak honako hauenak direla: olibondondoak (% 57,2) eta bazkak (% 32,8), eta horien ondoren, oso urruti, barazkiak (% 11), lekaleak (% 10,9) eta mahastiak (% 8,4). Beherakada izan dutenen artean honako hauek nabarmendu daitezke: fruten ekoizpena (-% 20,1), industrialena (-% 11,3), zerealena (-% 10,5) eta tuberkuluena (-% 9,3).

.

**69. koadroa Nafarroako nekazaritzako ekoizpen nagusiak**

*(Tm)*

| Kontzeptua | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|
| Zerealak | 981.519 | 878.358 | -10,5 |
| Lekaleak | 12.049 | 13.365 | 10,9 |
| Tuberkuluak (patatak) | 13.826 | 12.541 | -9,3 |
| Industria-laboreak | 60.636 | 53.771 | -11,3 |
| Bazka-laboreak | 796.762 | 1.058.237 | 32,8 |
| Barazkiak | 414.068 | 459.504 | 11,0 |
| Zur-laboreak | 207.754 | 215.027 | 3,5 |
| – Fruta-arbolak | 67.582 | 53.979 | -20,1 |
| – Mahastiak | 121.563 | 131.786 | 8,4 |
| – Olio olibadiak | 18.610 | 29.262 | 57,2 |

*Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2016ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.*

2015eko beste berritasun bat da industria-laboreak (2010 eta 2014 bitartean laukoiztu egin ziren) beheranzko fasean sartu direla. Fruta-arbolen beherakadak, berriz, aurreko bi urteetako gorakada konpentsatu du, eta maila berria 2011koaren antzekoa da.

Zerealen beherakadarekin eta ray-grass bazken artean sartuta, aipatu bezala, aldatu egin da kategoria bakoitzak landatutako tonaje osoan duen pisua: zerealak % 39,5etik % 32,6 erori dira, eta alderantziz, bazkak % 32tik % 39,3ra igaro dira. Barazkiak daude hirugarren taldean % 17,1ekin, eta zur-laboreen multzoa % 8an dago.

**12. grafikoa Nekazaritza-ekoizpen nagusien bolumenaren banaketa,ehunekotan, 2015**




*Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2016ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.*

Zereal-nekazaritzaren barruan, garia eta garagarra dira produktu nagusiak, alde handiarekin, eta txandakatu egiten dira (eta lursailean ordezkatu) ekoizpen handieneko gisa. 2015ean, tonaje antzekoak izan dituzte. Azaleran, garagarrak hedadura handiagoa hartu du azken urteotan; hala ere, 2015ean txikitu egin da aldea.

Artoa da garrantzi handia duenen artean hirugarrena, eta bere bi adierazleek garagarraren kasuan baino indar handiagoarekin egin dute atzera. Nolanahi ere, oloa eta zekalea azaleraren eta ekoizpenaren arteko harremana oso mugatua dela frogatzen duen aurkako adibideak dira. Arrozaren ekoizpena, minoritarioa izanik, heren bat baino gehiago igo da haren ekoizpena. Oloaren kasuan, nabarmendu beharra dago geldiarazi egin dela aurreko biurtekoko ekoizpenaren goranzko joera argia. 2015ean tritikalearen (gariaren eta zekalearen arteko hibrido minoritario bat) datuak sartu dira.

**70. koadroa Zereal-aleen azalera eta ekoizpena**

| Kontzeptua | 2014 | | 2015 | | % ∆ 15/14 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Aza. (ha) | Ekoiz. (Tm) | Aza. (ha) | Ekoiz. (Tm) | Aza. (ha) | Ekoiz. (Tm) |
| Garia | 72.229 | 341.082 | 73.525 | 314.278 | 1,8 | -7,9 |
| Garagarra | 94.508 | 349.684 | 85.501 | 314.121 | -9,5 | -10,2 |
| Oloa | 9.136 | 38.925 | 9.066 | 31.093 | -0,8 | -20,1 |
| Arroza | 1.829 | 12.364 | 2.183 | 16.750 | 19,4 | 35,5 |
| Artoa | 20.996 | 238.885 | 18.235 | 197.606 | -13,2 | -17,3 |
| Zekalea | 237 | 579 | 145 | 521 | -38,8 | -9,9 |
| Tritikalea | - | - | 1.338 | 3.989 | - | - |

*Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2016ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.*

Lekaleen kategorian ilar lehorra eta baba lehorra dira ekoizpen handiena duten txandakatzen diren produktuak. Lehenengoak zuen azalera handiena, baina aurten baba lehorraren hedadurak gorakada handia izan du; hortaz, lekaleek dute aurten landatutako hedadurarik handiena. Antzeko eragina ikusi da produktuetan, gorabeheretan eta aldaketetan, eta bereziki nabarmendu dira nahiko minoritarioak diren kategorietan, esaterako, honetan. Horrez gain, aurkako joerak ere izan dira azaleraren ekoizpenaren artean. 2015ean argi ikusi da hori baba lehorraren kasuan; izan ere, haren azalera bikoiztu egin da ia, eta, datuen arabera, ekoizpena ez da ia igo. Ez da gauza bera gertatu babarrun lehorrarekin eta zalkearekin ( % 40ko eta % 46ko beherakada izan dute hektareetan eta tonajeetan) ezta ilar lehorrarekin ere (ekoizpenaren gorakada azalerarenaren berdina da ia).

**71. koadroa Lekaleen azalera eta ekoizpena**

| Kontzeptua | 2014 | | 2015 | | % ∆ 15/14 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Aza. (ha) | Ekoiz. ™ | Aza. (ha) | Ekoiz. ™ | Aza. (ha) | Ekoiz. ™ |
| Babarrun lehorra | 436 | 1.207 | 251 | 682 | -42,4 | -43,5 |
| Baba lehorra | 2.284 | 5.882 | 4.425 | 5.887 | 93,7 | 0,1 |
| Ilar lehorra | 2.137 | 4.184 | 3.235 | 6.375 | 51,4 | 52,4 |
| Zalkea | 1.256 | 776 | 749 | 421 | -40,4 | -45,7 |

*Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2016ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.*

Patataren laborantzak beheranzko datuak izan ditu krisiaren urte gehienetan, eta 2015ean gauza bera gertatu da. Hala ere, hobekuntza egon da errendimenduan; izan ere, gehiago murriztu da azalera (-% 14,5) tonajea baino (-% 9,3). 2015ean, patata berantiarraren eta hazitarako patataren datua agregatua edo bakarra izan da. Sasoi erdiko patatarekin alderatuta, kategoria bateratu berri honen atzerakadak handiagoak dira, argi eta garbi. Azken honek azalera handiagoa hartzen du, baina ekoizpen txikiagoa. Hori bai, 2015ean ikusi da errendimenduen aldea murriztu egin dela.

**72. koadroa  Tuberkuluen azalera eta ekoizpena**

| Kontzeptua | 2014 | | 2015 | | % ∆ 15/14 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Aza. (ha) | Ekoiz. ™ | Aza. (ha) | Ekoiz. ™ | Aza. (ha) | Ekoiz. ™ |
| Sasoi erdiko patata | 216 | 7.433 | 206 | 7.063 | -4,6 | -5,0 |
| P. berantiarra eta hazitarakoa | 321 | 6.393 | 253 | 5.478 | -21,2 | -14,3 |
| Patata (guztira) | 537 | 13.826 | 459 | 12.541 | -14,5 | -9,3 |

*Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2016ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.*

Industria-laboreen artean aldaketak ez dira aurreko urtekoetakoak bezain agerikoak izan. Nolanahi ere, ekoizpenaren-beherakada nabarmena da hala erremolatxan nola ekilorean eta koltzan. Kategoria honetako ekoizpen handiena bada ere, erremolatxarako erabiltzen den azalera beste laboreena baino askoz ere txikiagoa da, produktu intentsiboa delako eta egitura eta aprobetxamendu oso desberdinak dituelako. Erremolatxaren ekoizpenak behera egin du 2015ean, eta haren errendimendua okertu egin da, era berean azalera handiagoa erabili baita ekoizteko. Antzeko zerbait gertatu da koltzaren kasuan. Landare loredun horretarako (olio bat ateratzen da hortik) erabiltzen den azalera eta ekoizpena hirukoiztu egin da gutxi gorabehera azken hiru urteotan. Ekilorea (hirugarren industria-laborea pisuari dagokionez) gehiago egin du behera tonajean, azaleran baino eta azken lau urteetako bilakaera beheranzkoa izan da pixka bat.

**73. koadroa  Industria-laboreen azalera eta ekoizpena**

| Kontzeptua | 2014 | | 2015 | | % ∆ 15/14 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Aza. (ha) | Ekoiz. (Tm) | Aza. (ha) | Ekoiz. (Tm) | Aza. (ha) | Ekoiz. (Tm) |
| Azukre-erremolatxa | 289 | 31.146 | 332 | 28.492 | 14,9 | -8,5 |
| Ekilorea | 4.359 | 9.754 | 4.028 | 8.562 | -7,6 | -12,2 |
| Soja | 15 | 33 | - | - | - | - |
| Tabakoa | 9 | 29 | - | - | - | - |
| Koltza | 6.428 | 19.736 | 7.075 | 16.717 | 10,1 | -15,3 |

*Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2016ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.*

Bazken kasuan, esan bezala, belardi naturala (aldi baterakoa ere esaten zaio) izan da hedadura handieneko laborea 2015ean, alpaparen gainetik, eta ekoizpenaren datuek ere bat egiten dute. Hala ere, ekoizpenean ez du alpapa gainditzen. Garrantzi handiena duen hirugarren bazka, artoa da, eta goranzko joerarekin jarraitzen du. 2015ean deigarria izan den beste aldaketa bat bazka-zalkearen gorakada handia izan da. Horrek eragin du, hain zuzen ere, bazka-ilarrak beheranzko joera hartzea (azken urteetako datuak ia berberak ziren). Aurtengo hirugarren aldaketa deigarriena ray-grassa kontatzea izan da, lehen esan bezala.

**74. koadroa Bazka-laboreen azalera eta ekoizpena**

| Kontzeptua | 2014 | | 2015 | | % ∆ 15/14 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Aza. (ha) | Ekoiz. (Tm) | Aza. (ha) | Ekoiz. (Tm) | Aza. (ha) | Ekoiz. (Tm) |
| Bazka-artoa | 4.180 | 191.259 | 4.417 | 207.287 | 5,7 | 8,4 |
| Ray-Grass | - | - | 4.620 | 170.245 | - | - |
| Alpapa | 6.856 | 327.631 | 6.271 | 324.453 | -8,5 | -1,0 |
| Bazka-zalkea | 1.389 | 25.236 | 4.389 | 79.586 | 216,0 | 215,4 |
| Bazka-ilarra | 1.336 | 25.193 | 375 | 7.306 | -71,9 | -71,0 |
| Aldi bateko belardia | 5.220 | 227.445 | 6.691 | 269.360 | 28,2 | 18,4 |

*Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2016ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.*

Barazkien azpisektoreak aurreko urteko ekoizpen-hobekuntzarekin jarraitu du, eta gorakada nabarmenak izan ditu produktu nagusietan. Azalera handiena duten laboreak honako hauek dira, hurrenkera honetan: brokolia (haren ezaugarriak direla eta hektareako tonaje-ratioa askoz ere txikiagoa da), ilar berdea, tomatea, baba berdea, azalorea eta zainzuria. Horiek guztiek hedadura handiagoa dute aurten. Ez da gauza bera gertatu horien ondoren dauden hauekin: orburua, arto gozoa, piperra, leka eta espinaka.

Paraleloki, tonajeari dagokionez, antzeko zerbait gertatu da hauekin: tomatea, brokolia, azalorea eta piperra. Horiek guztiek aurrera egin dute ekoitzitako pisuan, eta horiek izan dute, hain justu, ehuneko gorakadarik handiena, kuiatxoa eta baba berdeak salbuetsita (horiek ere ehuneko gorakada nabarmena dute). Hala, tomateak 2011ko ekoizpen-maila berreskuratu du hainbat urtez behera egin eta bitan berreskuratu ondoren. Orain, Nafarroako barazkien pisu osoaren heren bat baino gehiago da. Hektareako duen errendimendua oso nabarmena da, landare honen berezko altuera-egituragatik. Horrenbestez, badirudi 2015ean kategoria honetan labore nagusien alde egin dela bereziki. Brokoliak ere modu iraunkorrean egin du gora bigarren postuan, eta azalorearen eta piperren kasuan azken urteotako bilakaera dela-eta, nabarmendu egin dira masiboak ez diren laboreen artean.

2014an, ekoizpen-aurrerapen handiak egon ziren produktu gehienetan, eta beherakada gutxi. 2015ean, beherakada nabarmen batzuk egon dira (zerba, eskarola, borraja, alberjinia), baina gehienek gora egin dute.

Barazkietan ere sarrera eta irteera batzuk egon dira aztertutako estatistikan. Kalonjeak eta errukula gehitu dira, baina ez dira zenbatu berakatza, romaneskoa eta mahai-erremolatxa. Iaz, produktu horiek izan zituzten beherakadarik handienak, baita porruek ere.

**75. koadroa Barazkien azalera eta ekoizpena**

| Kontzeptua | 2014 | | 2015 | | % ∆ 15/14 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Aza. (ha) | Ekoiz. (Tm) | Aza. (ha) | Ekoiz. (Tm) | Aza. (ha) | Ekoiz. (Tm) |
| Azak | 109 | 2.924 | 118 | 2.796 | 8,3 | -4,4 |
| Zainzuria | 1.047 | 4.042 | 1.173 | 4.538 | 12,0 | 12,3 |
| Uraza | 587 | 15.873 | 676 | 15.944 | 15,2 | 0,4 |
| Eskarola | 249 | 7.352 | 152 | 4.766 | -39,0 | -35,2 |
| Espinaka | 759 | 16.170 | 681 | 14.511 | -10,3 | -10,3 |
| Zerba | 192 | 9.771 | 200 | 4.738 | 4,2 | -51,5 |
| Kalonjea | - | - | 194 | 1.473 | - | - |
| Errukula | - | - | 121 | 1.238 | - | - |
| Kardua | 310 | 13.855 | 281 | 12.508 | -9,4 | -9,7 |
| Borraja | 65 | 3.842 | 52 | 2.664 | -20,0 | -30,7 |
| Endibia | 60 | 1.706 | 66 | 1.906 | 10,0 | 11,7 |
| Kuiatxoa | 104 | 7.105 | 109 | 9.301 | 4,8 | 30,9 |
| Alberjinia | 127 | 7.447 | 107 | 5.449 | -15,7 | -26,8 |
| Tomatea | 1.815 | 136.944 | 2.056 | 163.305 | 13,3 | 19,2 |
| Piperra | 844 | 23.645 | 838 | 29.628 | 7 | 25,3 |
| Orburua | 968 | 14.325 | 968 | 14.898 | 0,0 | 4,0 |
| Azalorea | 1.182 | 21.808 | 1572 | 35.326 | 33,0 | 62,0 |
| Brokolia | 5.077 | 63.477 | 5.147 | 71.615 | 1,4 | 12,8 |
| Romaneskoa | 84 | 1.027 | - | - | - | - |
| Berakatza | 21 | 218 | - | - | - | - |
| Kipula | 314 | 18.456 | 283 | 17.122 | -9,9 | -7,2 |
| Porrua | 56 | 1.838 | - | - | - | - |
| Mahai-erremolatxa | 33 | 2.079 | - | - | - | - |
| Leka | 742 | 9.192 | 678 | 9.767 | -8,6 | 6,3 |
| Ilar berdea | 2.076 | 13.468 | 2.467 | 15.145 | 18,8 | 12,5 |
| Baba berdea | 1.466 | 4.019 | 1.611 | 4.659 | 9,9 | 15,9 |
| Arto gozoa | 943 | 18.648 | 853 | 16.207 | -9,5 | -13,1 |

*Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2016ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.*

2015ean, oraindik ere gorabehera handiak egon dira zur-laborantzetan. Horiek, logikoki, gehiago eragiten diote ekoizpenari azalerari baino; izan ere, labore horien zikloak luzeagoak dira, bizitza erabilgarri luzeagoa duten landareak dituzte eta motelagoa da lursaila erabiltzeko kudeaketa. Fruta-arbol nagusien kasuan, beherakada argiak egon dira ekoizpenean. Esaterako, udarearen kasuan. Nafarroan tonaje gehien ekoitzi duen fruta izan da hirugarren urtez, baita sagarra eta mertxika ere. Bi horiek ekoizpen ia berbera izan dute azken hiru ekitaldietan. Tonaje txikiagoko gainerako fruta-arboletan, azpimarratzekoa da arbendolondoek azken bi ekitaldietan izandako aurrerapena. Arbendolondoak bereziki nabarmentzen dira azalera handia behar dutelako (begi-bistakoa da frutaren ezaugarriak direla eta). Elorri beltza, berriz, suspertzen ari da indarrez. Intxaurrondoa da aurten estatistikara gehitu den barietatea.

Mahastiari dagokionez, beheranzko joera hartu du berriro Nafarroa Sor Markarentzan erabiltzen den azaleran (hedaduraren heren bat baino gehiago galdu zuen 2008 eta 2013 bitartean; orduz geroztik, ordea, pixkanaka ari da atzeraka egiten). Gaur egun,

egonkorragoa da Errioxa Sor Markaren laborearen hedadura, nahiz eta behera egiten jarraitu; kasu honetan, % 1,3.Errioxa etiketarentzako mahastiak % 38 du azaleran eta % 35,8 bolumen likidoan. Olibondoari dagokionez, azaleran izan duen joera goranzkoa izan da, eta ekoizpenak irregularragoak izan dira. Hala ere, ekoizpenean ere, oro har, goranzko joera izan du, eta % 57,2ko jauzia eman du 2015ean.

**76. koadroa Zur-laborantzen azalera eta ekoizpena**

| Kontzeptua | 2014 | | 2015 | | % ∆ 15/14 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Aza. (ha) | Ekoiz. (Tm) | Aza. (ha) | Ekoiz. (Tm) | Aza. (ha) | Ekoiz. (Tm) |
| Sagarrondoa | 572 | 17.602 | 537 | 14.101 | -6,1 | -19,9 |
| Madariondoa | 1.043 | 24.724 | 1.067 | 18.820 | 2,3 | -23,9 |
| Gereziondoa | 321 | 1.428 | 309 | 889 | -3,7 | -37,7 |
| Mertxikondoa / nektario | 585 | 19.592 | 521 | 14.522 | -10,9 | -25,9 |
| Aranondoa | 97 | 373 | 92 | 516 | - | - |
| Elorri beltza | 131 | 453 | 130 | 632 | -5,2 | 38,3 |
| Almendrondoa | 3.429 | 3.409 | 3.240 | 4.062 | -0,8 | 39,5 |
| Intxaurrondoa | - | - | 238 | 437 | -5,5 | 19,2 |
| Errioxa Sor Markako mahastia | 6.726 | 45.986 | 6.637 | 47.126 | -1,3 | 2,5 |
| Nafarroa Sor Markako mahastia | 11.094 | 75.573 | 10.843 | 84.233 | -2,3 | 11,5 |
| Olio olibadiak | 5.711 | 18.610 | 5.921 | 29.262 | 3,7 | 57,2 |

*Oharra: Ez dira sartu zuhaitz sakabanatuak.*
*Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2016ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.*

## 2.2 NEKAZARITZAKO PREZIOAK ETA EKOIZPENAREN BALIOA

Ekoizpenetan eta hedaduretan aldaketa handiak izaten dira urterik urtera, baina, oro har, handiagoak izaten dira prezioen gorabeherak, eta 2015a ez da salbuespena izan. 2011n eta 2012an, oro har, balio-aldaketak positiboak izan ziren zerealetan eta negatiboak barazkietan; 2013an eta 2014an, berriz, joerak alderantzikatu egin ziren. 2015ean, bi kategoria horiek ez dituzte joera horren markatuak izan; hori bai, frutak nabarmen garestitu dira. Zerealen kasuan, prezioak gutxi jaitsi dira, eta garagarra garestitu egin da, baina guztizko balioa galdu gabe. Artoaren kasuan, 2015eko ekoizpenaren balioa aurreko duela bi urtekoaren ia % 30 txikiagoa da.

Beraz, aipatzeko modukoak dira frutan izandako gorabeherak: udareak eta sagarrak gaindika berreskuratu dute aurreko urtean % 77,4ko eta % 54,2ko garestitzeekin galdutako lursaila; ia 2013an izandako garestitze bera izan zen (% 76,7 eta % 56,3). Mertxika ez da horrenbeste garestitu (% 23,8). Guztizko balioari dagokionez, ekoizpenak txikiagoak izan direnez, gorakadak moteldu egin dira eta mertxikak behera egin du.

Patatan, nabarmentzekoa da patata berantiarra sasoi-erdiko patataren mailetara gerturatu dela, prezioari zein balioari dagokionez. Laginean hautatutako barazkien artean, azpimarratzekoak dira zainzuriaren prezioak: haren ezaugarriak direla eta, prezio altuagoa du pisuari dagokionez, eta 2015ean % 17,7 garestitu da, eta ia heren bat irabazi du guztizko balioan 2014. urtearekin alderatuta. Orburua % 46,5 garestitu da, eta % 52,4 aurreratu du bere balioa. Tomatea eta piperrak ere nabarmentzekoak dira, % 15 inguruko gorakada izan baitute guztizko balioan, produktuaren kilogramoa pixka bat merkatu bada ere.

Ardoaren kasuan, jauzi metodologiko bat dago erabilitako iturrian, eta horrek zaildu egiten du 2014. urtearekin alderatzea; izan ere, sinplifikatu egiten dira neurri-unitateak. Ardo beltzaren eta gorriaren batez besteko graduazioari erreparatuta, ikus daiteke garestitze edo merkatze garbia ezin izan dela intentsitate handikoa izan, 2014an ardo gorriaren prezio gorakada izan zen bezala.

**77. koadroa Nekazaritza-produktu nagusien prezio eta balioak, guztira**

| Produktua | Nekazariek jasotako prezioak (euroak/100 kg.) | | | Ekoizpenaren balio zenbatetsia (m euro) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
| Garia | 18,36 | 18,04 | -1,7 | 62.625,96 | 56.695,75 | -9,5 |
| Garagarra | 16,33 | 17,05 | 4,4 | 57.101,44 | 53.557,63 | -6,2 |
| Artoa | 17,58 | 17,26 | -1,8 | 41.998,44 | 34.106,80 | -18,8 |
| Sasoi erdiko patata | 32,40 | 26,59 | -17,9 | 2.408,34 | 1.878,05 | -22,0 |
| Patata berantiarra | 8,99 | 19,00 | 111,3 | 574,71 | 1.040,82 | 81,1 |
| Zainzuria | 229,94 | 270,55 | 17,7 | 9.291,88 | 12.277,56 | 32,1 |
| Uraza | 49,30 | 49,66 | 0,7 | 7.824,90 | 7.917,79 | 1,2 |
| Espinaka | 48,72 | 49,15 | 0,9 | 7.878,02 | 7.132,16 | -9,5 |
| Tomatea | 11,03 | 10,69 | -3,1 | 15.105,47 | 16.892,87 | 15,6 |
| Piperra | 82,04 | 75,19 | -8,3 | 19.398,36 | 22.277,29 | 14,8 |
| Orburua | 46,61 | 68,28 | 46,5 | 6.676,42 | 10.172,35 | 52,4 |
| Ilar berdea | 25,48 | 23,07 | -9,5 | 3.431,65 | 3.556,24 | 3,6 |
| Sagarra | 22,53 | 34,74 | 54,2 | 3.965,96 | 4.898,69 | 23,5 |
| Madaria | 30,69 | 54,43 | 77,4 | 7.587,80 | 10.243,73 | 35,0 |
| Mertxikondoa / nektario | 25,20 | 31,21 | 23,8 | 4.937,32 | 4.532,32 | -8,2 |
| Ardo beltz berria | 5,33 | 56,46 | -(*) | -- | -- | -- |
| Ardo gorri berria* | 9,21 | 70,33 | -(*) | -- | -- | -- |

*(*): 2014ra arte, prezioa eurotan/ Hgdo (ardo-hektolitro eta alkohol-graduko). 2015etik aurrera, prezioa hektolitroko Ardo beltzaren batez besteko graduazioa 13 gradukoa da eta ardo gorriarena 10ekoa.*

*Iturria: Nekazaritza-koiunturaren aldizkaria (2015ko abendua). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.*

## 2.3 NEKAZARITZA MAKINETAKO INBERTSIOA

Sektore honetako inbertsio-adierazle gisa, Nafarroako nekazaritza-makinen erosketa aztertu da. Ekitaldi bakoitzean eginiko inbertsio berrien goranzko joerak hiru urte iraun du traktore eta arrasteetan, eta bi autopropultsatuetan; aurreko horiek baino kategoria baxuagokoetan, atoien kategorian, dinamismo txikiagoa egon da 2015ean. Traktoreek urte honetan egindako erosketen ia erdia osatzen dute, aurreko bi urteetan gertatu bezala.

**78. koadroa Nafarroan inskribatutako nekazaritzako makinen balioespena**

*(m eurotan)*

| Kontzeptua | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|
| Traktoreak | 15.112 | 15.633 | 3,4 |
| Motokultoreak eta autopropultsatuak | 5.318 | 7.101 | 33,5 |
| Atoiak | 1.240 | 893 | -28,0 |
| Arrastaka ateratzeko nekazaritzako makinak | 5.692 | 6.074 | 6,7 |
| **Makinak, guztira** | **27.362** | **29.701** | **8,5** |

*Oharra: Makinen balioan ez dago BEZa barne.*

*Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2015ko abendua). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.*

# 3. ABELTZAINTZAREN AZPISEKTOREA

## 3.1 AZIENDA-ERROLDA

Nafarroako abeltzaintzaren stockaren sektorea, espezieen arabera, Estatukoaren antzekoa da; ardi- eta txerri-azienda dira nagusi abelburu-kopuruari dagokionez. Hala ere, Espainian 1,7 txerri dago ardi bakoitzeko, eta azienden zenbatekoak oso antzekoak dira (baina bigarren urtez, txerri-azienda izan da ugaritsuena).

Nafarroan, ardi-aziendak beheranzko joera eutsia zuen bitartean –Espainiakoaren paralelo, azken ekitaldi honetan izan ezik–, txerri-aziendaren erroldak gorabeherak izan ditu azken urteotan, eta gaur egun krisiaren aurreko zifratik pixka bat gora dago (behi- eta ahuntz-aziendak bezala). Ordea, Estatuan txerri-azienda maila egonkorretan mantendu da, harik eta igoera nabarmena izan arte azken bi ekitaldietan, beste azienda batzuetara zabaldu baita; ardi-aziendarenaren beherakada eten egin da 2015ean, eta % 7,1 berreskuratu du.

**79. koadroa Azienda-errolda (urte bakoitzeko azaroa)**

*(unitateak)*

| Eremua | Urtea | Behi-azienda | Ardi-azienda | Ahuntz-azienda | Txerri-azienda |
|---|---|---|---|---|---|
| Nafarroa | 2011 | 111.403 | 562.400 | 10.859 | 478.781 |
| | 2012 | 110.361 | 551.753 | 12.442 | 469.758 |
| | 2013 | 110.425 | 542.319 | 12.435 | 447.849 |
| | 2014 | 114.030 | 527.890 | 12.708 | 546.356 |
| | 2015 | 116.223 | 516.469 | 12.968 | 528.763 |
| Espainia | 2011 | 5.923.112 | 17.002.721 | 2.692.898 | 25.634.869 |
| | 2012 | 5.812.606 | 16.339.373 | 2.637.336 | 25.250.377 |
| | 2013 | 5.696.907 | 16.118.586 | 2.609.989 | 25.494.715 |
| | 2014 | 6.078.733 | 15.431.804 | 2.704.229 | 26.567.578 |
| | 2015 | 6.182.908 | 16.522.956 | 3.009.582 | 28.367.335 |
| % Nafarroa/Espainia | 2015 | 1,9 | 3,1 | 0,4 | 1,9 |

*Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.*

**13. grafikoa Nafarroako abeltzaintzako azienden banaketaren bilakaera, ehunekotan**




*Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.*

Nafarroan, txerri-aziendak % 3,2 egin du atzera, baina hori zati txiki bat baino ez da, aurreko urteko % 22ko aurrerapenaren aldean. Ardi-aziendak behera egiten jarraitu (-% 2,2), behiarenak % 1,9 egin du gora eta ahuntzarenak % 2. Espainian espezie horietan guztietan % 6,8ko, % 7,1eko, % 1,7ko eta % 11,3ko hazkundea egon da txerri-, ardi-, behi- eta ahuntz-aziendetan, hurrenez hurren. Nafarroak bere Espainiako ehunekoaren kuotari eutsi dio behi-aziendan, eta hiru, bi eta bat hamarren galdu ditu ardi-, txerri- eta ahuntz-aziendetan, hurrenez hurren. Ardi-aziendan, urteko batez besteko beherakada, krisi-garaian, pixka bat handiagoa izan da Nafarroan (-% 4,3) Espainian (-% 3,5) baino.

## 3.2 ABELTZAINTZAKO EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK

### Esnearen ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

Esnearen ekoizpena dela eta, nabarmentzekoa da 2011tik Nafarroak ekoitzitako bolumenean gainditu egin duela EAE; gaur egun ia % 40ko aldea dago eta, gainera, kontrako joerak nabarmentzen ari dira. Ekoizpen-hazkunde nabarmenenak azken bi ekitaldietan ikusi dira; % 6,9ko eta % 11,6ko igoerak erregistratu dira. Beraz, badirudi oro har bizkortzen ari dela esnearen ekoizpenaren hazkundea. 2015ean, ekoizpen nagusiak, behiarenak -guztizkoaren % 94,8-, % 11,8ko hazkundea izan du, eta aldagai gutxiengodunek ere gorakadak izan dituzte, % 7,7 ardiarenean (pisu bereziaren % 5) eta % 1,5 ahuntzarenean (kuotaren % 0,1).

**80. koadroa  Esnearen ekoizpena**

*(m litro)*

| Urtea | Behia | Ardia | Ahuntza | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| 2006 | 172.052 | 8.783 | 170 | 181.005 |
| 2007 | 164.573 | 8.675 | 28 | 173.275 |
| 2008 | 175.423 | 8.786 | 318 | 184.527 |
| 2009 | 181.619 | 8.204 | 398 | 190.221 |
| 2010 | 182.096 | 8.820 | 407 | 191.323 |
| 2011 | 186.301 | 7.534 | 411 | 194.246 |
| 2012 | 191.507 | 10.365 | 399 | 202.271 |
| 2013 | 194.382 | 11.281 | 361 | 206.024 |
| 2014 | 208.408 | 11.570 | 343 | 220.321 |
| 2015 | 233.074 | 12.460 | 348 | 245.882 |

*Iturria: Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.*

Analisiarekin jarraitzeko eta Nafarroako esnetarako behi- eta ardi-ustiategien lagin baten egiteko ekonomikoa neurtzen duen INTIA-ITG erakundeak argitaratutako datuen arabera, 2015a aurreko urteak baino urte hobea izan da esnetarako ardi-aziendarentzat, baina pixka bat okerragoa behi-aziendarentzat.

Esnetarako ardi-aziendan batez besteko marjina garbiak % 59,7 egin du gora, eta % 72,8ra heldu da ardiko marjinari dagokionez. Gakoak izan dira % 9,3ko hobekuntza ardiko litroetan, % 2,9ko gorakada prezioan, % 9,6 gastu gutxiago elikagaietan eta % 4 inguruko aurrezpena gainerako gastuetan. Gainera, ia laukoiztu egin dira batez besteko diru-laguntzak.

Esnetarako behi-aziendan marjina garbiak ordea,  % 27,1 egin du behera batez beste, nahiz eta diru-laguntzak bikoiztu egin diren, ustiategi horiek esnea saldu ahal izan duten prezioa % 10 inguru jaitsi delako.

Aipatutako aldagaietan urte batean zein bestean izan diren datu positiboen eta negatiboen konbinazioa kontuan hartuta, azken urteotan ohikoa da horrelako kontrasteak ikustea; esaterako, 2014a urte hobea izan zen behi-aziendarako ardi-aziendarako baino.

**81. koadroa INTIA-ITGk kudeatutako esnetarako behi- eta ardi-ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak**

| Kontzeptua | Esnetarako behiak | | Esnetarako ardiak | |
|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 |
| **DATU TEKNIKO-EKONOMIKOAK** | | | | |
| Ustiategien lagina | 60 | 58 | 28 | 30 |
| Eskulana (GLU) | 2,46 | 2,46 | 1,74 | 1,68 |
| Behiak/Ardiak ustiategiko | 102 | 105 | 403 | 372 |
| Azalera (ha) | 47,23 | 46,22 | 25,82 | 24,79 |
| Behi-/ardi-esnearen ekoizpena | 9.272 | 9422 | 129 | 141 |
| Esnearen prezioa (euroak/1.000 litro) | 371,96 | 333,10 | 1.482,76 | 1,526,00 |
| **EKOIZP. ETA EMAITZAK (euroak)** | | | | |
| Produktu gordina(*) | 400.231 | 383.359 | 92.709 | 100.696 |
| - Gastuak elikagaietan | 159.670 | 160.384 | 28.296 | 25.590 |
| - Gastu aldakorrak | 61.568 | 61.887 | 9.271 | 8.898 |
| = Marjina gordina | 178.992 | 161.088 | 55.143 | 66.207 |
| + Diru-laguntzak | 6.157 | 12.710 | 1.483 | 5.703 |
| - Gastu finkoak(*) | 114.865 | 114.319 | 34.362 | 33.010 |
| = Marjina garbia | 64.127 | 46.769 | 20.780 | 33.197 |
| **EMAITZA UNITARIOAK (euroak)** | | | | |
| Marjina garbia behia/ardia | 628,72 | 444.40 | 51,60 | 89.18 |
| Marjina garbia / GLU | 37.031,96 | 26.215,02 | 13.680,82 | 23.226,18 |

*(*): Zerbitzuen edo beste kontzeptu batzuen araberako diru-sarrerak produktu gordinean jasotzen dira, eta eskulanaren gastuak, berriz, gastu finkoetan.*
*Iturria: INTIA-ITG, Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Nafarroako Institutua, BTK Saila (Berrikuntza, Teknologia eta Kudeaketa).*

## Haragiaren ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

2015ean, Nafarroako haragi-ekoizpenak jarraipena eman die azken urteotan ikusitako joerei: haragiaren ekoizpenaren bolumen orokorra oso egonkorra izan da, eta txerriaren haragia hegaztiaren haragiarekin ordezkatu da, etengabe. Hegaztien azpisektorean hildako tona kopurua haragi guztien % 62,1 da, gorantz ari den espezie baten ekoizpen eraginkorrari esker: broiler oilaskoa. Hala ere, nahiz eta hazten jarraitu, elkarren segidako hiru ekitalditan aurrerapena txikiagoa izan da, eta horrek esan nahi izan dezake sektorearen ahalmena bere gehieneko mailara iritsi dela.

Hegaztien tona kopuruak % 0,1 bakarrik egin du aurrera, untxienak % 1,9, eta zaldi-aziendaren haragiak % 23. Atzerapenen aldean, nabarmena da txerriarena, -% 8,1ekin, eta ahuntz-aziendarena (-% 5,8), behiarena (-% 5,7) eta ardiarena (-% 4,6) ondoren. Haragiaren tona kopuru osoak % 2,1 egin du behera Nafarroan, 2014aren aldean.

Hegaztien ekoizpenaren atzetik, pisu gehien duena txerriarena da (% 25,9), ondoren, oso urrun, behiarena (% 4,7), ardiarena (% 2,7) eta zaldiarena (% 2,4); azken horrek untxiarena gainditzen du aurten (% 2,1). Ahuntz-azienda, ordea, % 0,03an mantendu da.



LABORAL kutxa

**82. koadroa Nafarroan hildako ganaduaren kanaleko pisua**

*(Tm)*

| Urtea | Behi-azienda | Ardi-azienda | Ahuntz-azienda | Txerri-azienda | Zaldi-azienda | Hegazti-azienda | Untxi-azienda | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2011 | 9.523,1 | 3.809,2 | 26,0 | 39.927,3 | 2.184,9 | 71.741,2 | 2.596,7 | 129.808,5 |
| 2012 | 7.467,5 | 3.388,4 | 24,5 | 39.781,1 | 2.649,5 | 76.740,4 | 2.684,7 | 132.736,2 |
| 2013 | 7.326,9 | 3.819,3 | 24,6 | 36.610,5 | 2.500,3 | 79.155,6 | 2.641,8 | 132.078,9 |
| 2014 | 6.435,4 | 3.681,9 | 37,0 | 36.720,5 | 2.574,1 | 80.687,0 | 2.763,8 | 132.899,7 |
| 2015 | 6.067,1 | 3.512,7 | 34,9 | 33.745,1 | 3.165,1 | 80.767,7 | 2.817,4 | 130.110,0 |
| % Nafarroa/Espainia | 1,0 | 3,0 | 0,4 | 0,9 | 25,1 | 5,6 | 4,5 | 2,1 |

*Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.*

Nafarroaren pisua Estatuaren barruan handiagoa da zaldi-haragian (% 25,1), zehazki, 2014koa baino ia hiru puntu handiagoa; atzetik ditu hegaztia (% 5,6), untxia (% 4,5), ardia (% 3), behia (% 1) eta ahuntza (% 0,4). Guztira, 7 espezieen kuota % 2,1ekoa da, aurreko urtean baino ehuneko bi puntu gutxiago.

**14. grafikoa Abeltzaintzako ekoizpena Nafarroan**

*(Indizea: 1999=100)*




*Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.*

INTIA-ITGk behi- eta ardi-haragiaren ekoizle diren eliteko ustiategien datu ekonomikoak ere jasotzen ditu, eta 2015erako espezieen araberako balantzea esnekien negozioarenaren antzekoa da: urte txarra behi-aziendarentzat eta ona ardi-aziendarentzat, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Azken lau ekitaldietako emaitzarik txarrenak eta onenak dira, hurrenez hurren.

Behiaren kasuan, nahiz eta animalia hil bakoitzeko % 11,6 tona gehiago lortu zen eta nahiz eta batez besteko prezioak % 4,9 bakarrik egin zuen behera, diru-sarreren beherakada % 7,9koa izan zen, diru-laguntzak erdira baino gutxiagora jaitsi zirelako. Horrekin batera, gastuen gorakada txiki bat ere egon da. Marjina gordinak laurden bat egin zuen behera, eta marjina garbia galeretan hasi zen, duela bi urte izandako galerak baino handiagoak izanik.

Ardi-aziendan, kontrakoa gertatu zen diru-sarrerei dagokienez; izan ere, % 5,1 haragi-pisu gehiago lortu zen animaliako, prezioa aurreko urtekoa baino % 1,3 txikiagoa izanik; baina, hala ere, salmentek % 8,5 egin zuten gora, diru-laguntzak 2014an baino ugariagoak izan zirelako, bikoitza baino gehiago.

**83. koadroa INTIA/ITGk kudeatutako haragitarako behi- eta ardi-ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak**

| Kontzeptua | Haragitarako behiak | | Haragitarako ardiak | |
|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 |
| **EZAUGARRIAK** | | | | |
| Ustiategien lagina | 36 | 34 | 30 | 31 |
| Eskulana (GLU) | 1,3 | 1,2 | 1,1 | 1,2 |
| Behiak/Ardiak ustiategiko | 67,6 | 71,6 | 684,0 | 677 |
| Azalera (ha) | 35,1 | 35,7 | 41,7 | 43,0 |
| Ekoiz. kg txahal/arkume sal. behi/ardiko(1) | 189,0 | 211 | 18,9 | 19,9 |
| Salmenta-prezioa txahal/arkume kg-ko | 4,10 | 3,90 | 3,97 | 3,92 |
| **EKOIZP. ETA EMAITZAK (euroak)** | | | | |
| Produktu gordina diru-laguntzak barne(2) | 82.523 | 76,021 | 60.073 | 65.163 |
| *Diru-laguntzak(2)* | *18.304* | *8.348* | *4.314* | *9.543* |
| - Gastuak elikagaietan | 38.385 | 39.661 | 30.507 | 30.467 |
| - Gastu aldakorrak | 12.101 | 12.644 | 7.891 | 8.628 |
| = Marjina gordina | 32.037 | 23.716 | 21.675 | 26.067 |
| | | | | |
| - Gastu finkoak | 31261 | 31.050 | 20.183 | 19.362 |
| = Marjina garbia. | 776 | -7.334 | 1.493 | 6.705 |
| **EMAITZA UNITARIOAK (euroak)** | | | | |
| Marjina garbia behia/ardia | 11,50 | -102,39 | 2,18 | 9.90 |
| Marjina garbia / GLU | 659 | -6,248 | 1.433 | 6.305 |

*(1): Haragi kiloak: behi-aziendan, kanaleko kilo. Ardi-aziendan, kiloak bizirik.*
*(2): INTIA-ITGren kasuan, diru-laguntzak eta zenbait diru-sarrera (zerbitzuengatik edo beste batzuengatik) produktu gordinean jasota daude.*
*Iturria: INTIA-ITGren memoria, Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Nafarroako Institutua, BTK Saila (Berrikuntza, Teknologia eta Kudeaketa).*

Nafarroako txerri-ustiategietan, azken urteotan, emaitzak desberdinak izan dira, bai ekitaldien arteko erkaketari dagokionez bai modalitateei dagokienez. 2015ean, balantzea negatiboa izan da aurreko urtearen aldean, baina kontuan hartu behar da 2014. urtea bereziki ona izan zela. Esne-txerrien ekoizpenen ustiategietan –negozio-ildo askoz ere txikiagoa–, batez besteko emaitza 2014an baino askoz ere txarragoa izan da, baina 2013koa baino hobea. Ziklo itxikoetan, hobekuntzarako joera eten da –3



LABORAL kutxa

ekitalditan jarraian izan da–. Lehen kasuan, eskuratutako marjina garbia 2014koa baino heren bat txikiagoa da, eta, bigarrenean, bosten bat baino pixka bat handiagoa.

**84. koadroa INTIA/ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-ustiategien emaitzak**

| Kontzeptua | Esne-txerrien ekoizpena(1) | | Ziklo itxia(2) | |
|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 |
| **EZAUGARRI TEKNIKO-EKONOMIKOAK** | | | | |
| Aztertutako ustiategi-kop. | 12 | 12 | 19 | 18 |
| Ustiategiko txerri eme kop. | 169,59 | 165,95 | 377,4 | 399,84 |
| Txerri eme bakoitzeko saldutako esne-txerriak | 23,53 | 22,65 | 1,1 | 1,02 |
| Txerri eme bakoitzeko saldutako txerri gizenduak | 0,21 | 0,20 | 20,7 | 20,84 |
| Txerri eme bakoitzeko saldutako txerri kopurua | 23,7 | 22,85 | 21,9 | 21,86 |
| Esne-txerriaren salmentaren batez besteko pisua (kg) | 17,6 | 17,53 | 11,5 | 9,34 |
| Gizentzeko aziendaren salmentaren batez besteko pisua (kg) | 110,0 | 108,75 | 109,1 | 109,92 |
| Saldutako esne-txerri kop. + gizentzekoak | 4.027 | 3.792 | 8.247 | 8.742 |
| Esne-txerriaren salmentarako batez besteko prezioa (euroak) | 40,7 | 37,25 | 34,0 | 26,69 |
| Txerriaren kg-ko salmentarako batez besteko prezioa (txerria) | 1,21 | 1,072 | 1,2 | 1,071 |
| GLU guztira | 0,9 | 0,9 | 2,8 | 3,0 |
| **EMAITZA EKONOMIKOAK (euroak)** | | | | |
| Produktu gordina | 182.168 | 155.027 | 1.089.470 | 1.036.954 |
| - Gastu aldakorrak | 112.536 | 104.847 | 761.161 | 783.265 |
| Marjina gordina | 69.632 | 50.180 | 328.309 | 253.689 |
| - Gastu finkoak | 39.425 | 40.270 | 224.455 | 231.327 |
| Marjina garbia | 30.206 | 9.910 | 103.855 | 22.361 |

*(1): 2015an 3 ustiategik 24,88 kg-ko esne-txerriak ekoitzi dituzte eta 9k titia kenduta saltzen dituzte (6,90 kg/esne-txerri).*
*(2): Ekoizpenaren % 80 baino gehiago gizendutako txerri gisa saltzen duten ustiategiak.*
*Iturria: INTIA-ITGren memoria, Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Nafarroako Institutua, BTK Saila (Berrikuntza, Teknologia eta Kudeaketa).*

Hazkuntza-ustiategietan, aurreko urteko emaitza positiboa gastuak murriztuz salmentak areagotu izanaren ondorioz gertatu zen. Ekitaldi honetan, salmentek eten egin dute urte batzuetako goranzko joera, eta gastu aldakorrek behera egiten jarraitu dute aurreko urteko erritmo berean, baina neurri txikiagoan diru-sarreretan. Ondorioz, emaitza okerragoa izan da.

Ustiategi integraletan, amaitu egin da hainbat ekitalditan diru-sarreretan izandako goranzko joera eta, hala ere, kostuen gorakadak, bai finkoenak bai aldakorrenak, bere horretan jarraitu du. Bi eragin horiek txikiak izan dira, baina biak batera nahikoa izan dira erabat murrizteko onura-marjina.

## 3.3 ABELTZAINTZAKO PRODUKTUEN PREZIOAK

Abeltzaintzako prezioetan, 2011n eta 2012an igoerak izan ziren nagusi, eta, hurrengo bi urteetan, beherakadak. 2015ean, igoerak itzuli dira, baina aztertutako produktuen aldakuntzarik sendoenak beheranzkoak izan dira (txerria eta untxia merkatu egin dira, % 11 inguru), ardi-esnearen kasuan izan ezik, % 12,1 garestitu baita. Txahalaren, arkumearen, antxumearen, oilaskoaren, behi-esnearen eta arrautzen gorakadak lasaiak izan dira, eta behi-azienda zaharra pixka bat merkatu da. Artilearen kasua berezia da; izan ere, aurten, estatistika bereizi eta desberdin batean neurtzen hasi da, baina Nafarroako Gobernuaren mende oraindik ere. Oro har, azken laurtekoan amaierako prezioak egonkorrak izan dira produktu nagusietan.

**85. koadroa Animalia-produktuen prezioak. Urteko batezbestekoak**

*(euroak)*

| Produktua | 2013 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| **Gizentzeko azienda (100 kg/bizirik):** | | | | |
| – Urtebeteko behi-azienda | 209,59 | 209,61 | 216,88 | 3,5 |
| – Behi-azienda zaharra | 121,70 | 117,67 | 116,10 | -1,3 |
| – Esneko arkumea | 387,94 | 380,14 | 394,28 | 3,7 |
| – Esneko antxumea | 539,23 | 505,52 | 534,87 | 5,8 |
| – Txerri gizendua | 137,92 | 127,40 | 113,33 | -11,0 |
| – Granjako oilaskoak | 114,78 | 108,92 | 111,75 | 2,6 |
| – Untxiak | 191,62 | 178,89 | 158,67 | -11,3 |
| **Abeltzaintzako produktuak:** | | | | |
| – Behi-esnea (100 litro) | 32,03 | 33,25 | 34,17 | 2,8 |
| – Ardi-esnea (100 litro) | 95,08 | 94,08 | 105,42 | 12,1 |
| – Oilo-arrautzak (100 dozena) | 115,29 | 116,98 | 123,26 | 5,4 |
| – Artilea (100 kg) | 6,86 | 6,86 | 9,00 | 31,2 |

*Iturria: Urte bakoitzeko abenduko Coyuntura Agraria aldizkaria. Nafarroako Gobernua.*



LABORAL kutxa



# 3. INDUSTRIA

# 1. EGOERA OROKORRA

## 1.1 JARDUERAREN BILAKAERA

Testuinguru orokorra hobeagoa den honetan, 2015ean Nafarroako industria-sektoreak bere jarduera zabaldu egin du, eta eutsi egin dio aurreko ekitaldian hasitako goranzko dinamikari.

Zehazki, Nafarroako industriako balio erantsi gordinak % 2,9ko gorakada erregistratu zuen 2015ean, eta % 3,0koa aurreko ekitaldian. Era berean, industriak etengabeko goranzko profila izan du urte osoan, nahiz eta pixka bat moteldu den azken hiruhilekoan (% 2,4, % 3,1, % 3,3 eta % 2,9 lehen hiruhilekotik laugarrenera, hurrenez hurren). Ildo horretan, nabarmendu behar da Nafarroako industria-jarduera Estatu osoan erregistratutakoa (% 3,4) baino pixka bat baxuagoa izan dela 2015ean.

**86. koadroa Industriako ekoizpen-jardueraren bilakaera**

*(% )*

| Urtea | IPI*- Nafarroa | IPI*- Estatua |
|---|---|---|
| 2006 | 4,6 | 3,9 |
| 2007 | 0,3 | 2,0 |
| 2008 | 0,4 | -7,3 |
| 2009 | -20,3 | -15,8 |
| 2010 | 6,4 | 0,8 |
| 2011 | -2,1 | -1,6 |
| 2012 | -8,0 | -6,7 |
| 2013 | -1,6 | -1,6 |
| 2014 | 3,9 | 1,3 |
| 2015 | 2,2 | 3,4 |

*(*): Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.*
*Iturria: Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Saila (NEE) eta EIN.*

Industria-jardueraren beste adierazle batzuk kontuan hartuta, Nafarroako Estatistika Erakundeak eginiko Industria Produkzioaren Indizeak (IPI) % 2,2ko gorakada izan du 2015ean, eta % 3,9koa izan zuen 2014an. Indize hori % 3,4 areagotu da, halaber, Estatu osorako (2014an % 1,3).



LABORAL kutxa

**87. koadroa Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen norako ekonomikoaren arabera**

*(%)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Bitarteko ondasunak | -4,6 | 10,0 | -0,8 |
| Ekipo-ondasunak | 3,3 | 3,4 | 4,9 |
| Kontsumo-ondasunak | -0,2 | 3,2 | 2,4 |
| Energia | -6,8 | -6,0 | 6,9 |

*Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea (NEE).*

Ondasun mota desberdinen arabera, 2015ean datu positiboak ikusi dira oro har, bitarteko ondasunen sektorean izan ezik. Nabarmendu egin behar da energiaren ekoizpenaren indizean jasotako gorakada, % 6,9koa izan baita 2015ean (% 6ko beherakada izan zuen aurreko ekitaldian). Halaber, ekipo-ondasunen ekoizpenak % 4,9ko gorakada izan du 2015ean (2014an % 3,4koa). Gorakada hori % 2,4koa izan da kontsumo-ondasunen kasuan (2014an % 3,2). Bestalde, bitarteko ondasunen EGIpeak ere % 0,8ko beherakada txiki bat izan du, 2014ko % 10,0ko gorakadaren ostean.

**88. koadroa Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-arloaren arabera**

*(%)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Nekazaritzako elikagaien industria | -2,2 | 0,4 | 0,3 |
| Metalurgia eta produktu metalikoak | 0,6 | 11,1 | 3,8 |
| Papera, zura eta altzariak | -4,4 | -12,5 | 4,3 |
| Garraio-materiala | 2,0 | 6,1 | 1,5 |
| Beste manufaktura-industria batzuk | -3,4 | 6,1 | -0,4 |

*Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea (NEE).*

Industria Produkzioaren Indizearen bilakaera jarduera-arloaren arabera aztertzen badugu, paper, zur eta altzarien arloak areagotu du bere jarduera gehien 2015ean (% 4,3 eta 2014an -% 12,5). Gainerako sektoreei dagokienez, oro har beren jarduera areagotzen jarraitzen dute, baina aurreko ekitaldian baino lasaiago: % 0,3 nekazaritzako elikagaien industrian (2014an % 0,4), % 3,8 metalurgia eta produktu metalikoetan (2014an % 11,1) eta % 1,5 garraio-materialean (2014an % 6,1). Bestalde, beste industria-manufaktura batzuen arloa izan da bere jarduera murriztu duen bakarra 2015ean (-% 0,4), 2014an nabarmen hobetu ondoren (% 6,1).

## 1.2 ENPRESAK ETA ENPLEGUA

Gizarte Segurantzaren datuen arabera, 2015ean Nafarroan erregistratutako industria-jardueraren hedapena sektorekako enpleguaren portaeran ere ikusi da. Hala, sektorean erregistratutako enpresen kopuruak pixka bat behera egin badu ere, langileen kopuruak gora egin du aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

**89. koadroa Industria-sektoreko langileen eta enpresen kopuruaren bilakaera**

| Urtea | Enpresak | % Δ | Enplegua | % Δ |
|---|---|---|---|---|
| 2006 | 2.761 | -1,1 | 65.593 | 0,3 |
| 2007 | 2.854 | 3,4 | 69.265 | 5,6 |
| 2008 | 2.861 | 0,2 | 69.704 | 0,6 |
| 2009 | 2.728 | -4,6 | 64.440 | -7,5 |
| 2010 | 2.654 | -2,7 | 62.760 | -2,6 |
| 2011 | 2.617 | -1,4 | 62.824 | 0,1 |
| 2012 | 2.539 | -3,0 | 59.026 | -6,0 |
| 2013 | 2.456 | -3,3 | 56.545 | -4,2 |
| 2014 | 2.460 | 0,2 | 57.348 | 1,4 |
| 2015 | 2.447 | -0,5 | 58.601 | 2,2 |

*Iturria: Nafarroako Ganbera, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren batez besteko datuak oinarri hartuta.*

Zehazki, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako informazioaren arabera, industriako enpresen batez besteko kopurua 2.447koa izan da 2015ean, 2014an jasotakoa baino % 0,5 baxuagoa. Alabaina, enpresa horiek sortutako enplegua 58.601 pertsonakoa izan da 2015ean; alegia, aurreko ekitaldian baino % 2,2 gehiago. Dena den, adierazi behar da, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestan Nafarroarako bildutako datuen arabera, industria-enpleguak % 3,7ko beherakada izan duela 2015ean.



LABORAL kutxa

# 2. INDUSTRIA-EGITURA

Datozen lerroetan Nafarroako industria-sektorearen analisia egingo dugu, Foru Erkidegoan esanguratsuenak izan diren industria-sektoreak zehazteko. Horretarako, lehenik enplegua eta balio erantsia aztertuko ditugu, jarduera-azpisektoreen arabera, kontuan hartuta EINen industria-inkestan eskuragarri dagoen informazioa (eskuragarri ditugun datu berrienak 2014koak dira). Analisi horren osagarri gisa, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak emandako informazioa erabili dugu, enpresa kopuruari eta industriako langileei buruzkoa, enpresaren tamainaren arabera (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia iturri gisa erabilita), eta Nafarroako industria-enpresa nagusiei buruzkoa (informazio hori 2015 ekitaldikoa da).

## 2.1 JARDUERA-AZPISEKTORE NAGUSIEN IDENTIFIKAZIOA

EINen industria-inkestako datuen arabera, Nafarroako industriak 61.883 langile barne hartzen zituen 2014an, eta 4.241,5 milioi euroko balio erantsia sortzen zuen (17.329,6 milioi euroko fakturaziora iritsi zen, eta bitarteko kontsumoak 13.087,6 milioi eurokoak izan ziren). Nafarroako industrian lanean ari diren pertsonek Estatuko industria-enpleguaren guztizkoaren % 2,6 hartzen dute; partaidetza hori % 3,1 areagotzen da fakturazioari dagokionez.

Nafarroako industriako enpleguaren sektorekako banaketa aztertzen badugu (JESN-2009ren arabera), ikus dezakegu hauek direla jarduera nagusiak: ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioa (guztizkoaren % 17,8); elikagaien industria (% 17,3); produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoena izan ezik (% 10,6); makineriaren eta ekipoen fabrikazioa (% 8,7); eta material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa (% 6,3). Sektore horietan biltzen da Nafarroako industria-enpleguaren guztizkoaren % 60,8.

Partaidetza esanguratsua dute, halaber, hauek ere: kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa (% 5,5); metalurgia (% 4,3); papergintza (% 3,6); makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 3,1); produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa (% 3,0); edarien fabrikazioa (% 2,5); eta hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena (% 2,2). Gainerako jardueren garrantzia % 2tik beherakoa da.

**90. koadroa Nafarroako industriako enplegua eta sortutako balio erantsia, jarduera-azpisektoreen arabera (2014)**

*(m eurotan)*

| Sektorea (JESN-2009) | Enplegua | Diru-sarrerak | Kontsumoak | Balio erantsia |
|---|---|---|---|---|
| Elikagaien industria | 10.703 | 2.607.157 | 2.031.741 | 575.416 |
| Edarien fabrikazioa | 1.542 | 476.835 | 398.264 | 78.571 |
| Ehungintza | 283 | 46.259 | 34.713 | 11.546 |
| Jantzigintza | 280 | 42.345 | 25.790 | 16.555 |
| Larrugintza eta oinetakogintza | 174 | 33.845 | 27.348 | 6.497 |
| Zuraren eta kortxoaren industria | 958 | 124.989 | 85.745 | 39.244 |
| Papergintza | 2.198 | 643.766 | 525.033 | 118.733 |
| Arte grafikoak eta euskarri grabatuen aldakiak | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Industria kimikoa | 974 | 319.151 | 242.431 | 76.720 |
| Farmazia-produktuen fabrikazioa | 1.051 | 377.845 | 239.169 | 138.676 |
| Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa | 3.373 | 627.569 | 425.303 | 202.266 |
| Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa | 1.845 | 449.296 | 346.673 | 102.623 |
| Metalurgia | 2.640 | 862.996 | 580.339 | 282.657 |
| Produktu metalikoen fabrikazioa, makin. eta ekip. izan ezik | 6.574 | 1.222.874 | 852.721 | 370.153 |
| Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa | 654 | 90.526 | 49.488 | 41.038 |
| Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa | 3.918 | 1.079.439 | 818.958 | 260.481 |
| Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa | 5.405 | 1.288.464 | 832.866 | 455.598 |
| Ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioa | 11.010 | 4.960.838 | 4.112.941 | 847.897 |
| Bestelako garraio-materialen fabrikazioa | 180 | 36.127 | 20.221 | 15.906 |
| Altzarien fabrikazioa | 902 | 105.538 | 78.463 | 27.075 |
| Beste manufaktura-industria batzuk | 315 | 30.769 | 17.092 | 13.677 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 1.888 | 147.955 | 70.062 | 77.893 |
| Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornikuntza | 600 | 1.208.053 | 942.226 | 265.827 |
| Uraren bilketa, arazketa eta banaketa | 548 | 83.760 | 44.018 | 39.742 |
| Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena | 1386 | 192105 | 116.508 | 75.597 |
| Gainerako jarduerak | 2.482 | 270.856 | 169.445 | 101.411 |
| **Industria, guztira** | **61.883** | **17.329.357** | **13.087.558** | **4.241.799** |

*Iturria: EIN, Industria Inkesta.*

Industriako balio erantsiaren jarduera-sektorekako banaketari dagokionez, kasu honetan ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioa da nagusi (guztizkoaren % 20,0), eta hauek ditu atzetik: elikagaien industria (% 13,6); makineriaren eta ekipoen fabrikazioa (% 10,7); produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoena izan ezik (% 8,7); eta metalurgia (% 6,7). Sektore horiek guztiek, batuta, Nafarroako industriak sortutako balio erantsiaren guztizkoaren % 59,7 hartzen dute.

Balio erantsiari dagokion analisiarekin jarraituz, partaidetza esanguratsua dute hauek ere: energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornikuntza (% 6,3); material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa (% 6,1); kautxuzko produktuen eta plastikoen produktuen fabrikazioa (% 4,8); farmazia-produktuen fabrikazioa (% 3,3); papergintza (% 2,8); eta produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa (% 2,4). Gainerako jardueren garrantzia % 2tik beherakoa da.



LABORAL kutxa

**91. koadroa Jarduera-adar desberdinek industriako enpleguaren eta balio erantsiaren guztizkoan duten partaidetza (2014)**

| Sektorea (JESN-2009) | Enpleguar en % | Sektorea (JESN-2009) | Balio erantsia ren % |
|---|---|---|---|
| Ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioa | 17,8 | Ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioa | 20,0 |
| Elikagaien industria | 17,3 | Elikagaien industria | 13,6 |
| Produktu metalikoen fabrikazioa, makin. eta ekip. izan ezik | 10,6 | Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa | 10,7 |
| Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa | 8,7 | Produktu metalikoen fabrikazioa, makin. eta ekip. izan ezik | 8,7 |
| Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa | 6,3 | Metalurgia | 6,7 |
| Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa | 5,5 | Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornikuntza | 6,3 |
| Metalurgia | 4,3 | Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa | 6,1 |
| Gainerako jarduerak | 4,0 | Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa | 4,8 |
| Papergintza | 3,6 | Farmazia-produktuen fabrikazioa | 3,3 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 3,1 | Papergintza | 2,8 |
| Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa | 3,0 | Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa | 2,4 |
| Edarien fabrikazioa | 2,5 | Gainerako jarduerak | 2,4 |
| Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena | 2,2 | Edarien fabrikazioa | 1,9 |
| Farmazia-produktuen fabrikazioa | 1,7 | Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 1,8 |
| Industria kimikoa | 1,6 | Industria kimikoa | 1,8 |
| Zuraren eta kortxoaren industria | 1,5 | Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena | 1,8 |
| Altzarien fabrikazioa | 1,5 | Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa | 1,0 |
| Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa | 1,1 | Uraren bilketa, arazketa eta banaketa | 0,9 |
| Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornikuntza | 1,0 | Zuraren eta kortxoaren industria | 0,9 |
| Uraren bilketa, arazketa eta banaketa | 0,9 | Altzarien fabrikazioa | 0,6 |
| Beste manufaktura-industria batzuk | 0,5 | Jantzigintza | 0,4 |
| Ehungintza | 0,5 | Bestelako garraio-materialen fabrikazioa | 0,4 |
| Jantzigintza | 0,5 | Beste manufaktura-industria batzuk | 0,3 |
| Bestelako garraio-materialen fabrikazioa | 0,3 | Ehungintza | 0,3 |
| Larruaren eta oinetakoen industria | 0,3 | Larruaren eta oinetakoen industria | 0,2 |
| Arte grafikoak eta euskarri grabatuen aldakiak | 0,0 | Arte grafikoak eta euskarri grabatuen aldakiak | 0,0 |
| **Industria, guztira** | **100,0** | **Industria, guztira** | **100,0** |

*Iturria: EIN, Inkesta Industria eta geuk egina.*

Enpleguaren eta balio erantsiaren sektorekako banaketaren analisiari esker, Nafarroako industriako jarduera esanguratsuenak identifikatzen jarrai dezakegu. Ildo horretan, hauek agertzen dira Nafarroako industria-jarduera guztiei ekarpen handiena egiten dieten jarduera gisa: ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioa; produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoena izan ezik; eta makineriaren eta ekipoen fabrikazioa.

Garrantzi gutxiago badute ere, hauek ere nabarmentzekoak dira: material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa; kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa; eta metalurgia.

**15. grafikoa Jarduera-azpisektore desberdinek Nafarroako industriako enpleguaren eta balio erantsiaren guztizkoan duten partaidetza (2014)**

*(balio erantsiaren % )*




1 Elikagaien industria
2 Edarien fabrikazioa
3 Ehungintza
4 Jantzigintza
5 Larruaren eta oinetakoen industria
6 Zuraren eta kortxoaren industria
7 Papergintza
8 Arte grafikoak eta euskarri grabatuen aldakiak
9 Industria kimikoa
10 Farmazia-produktuen fabrikazioa
11 Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa
12 Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa
13 Metalurgia
14 Produktu metalikoen fabrikazioa, makin. eta ekip. izan ezik
15 Prod. informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa
16 Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa
17 Beste lekutan sailkatu gabeko maki. eta ekipoen fabrikazioa
18 Ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioa
19 Bestelako garraio-materialen fabrikazioa
20 Altzarien fabrikazioa
21 Beste manufaktura-industria batzuk
22 Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa
23 Energia elek., gasaren, lurrunaren eta airearen hornikuntza
24 Uraren bilketa, arazketa eta banaketa
25 Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena
26 Gainerako jarduerak

*Iturria: EIN, Inkesta Industria eta geuk egina.*

## 2.2 ENPRESEN TAMAINA, AZPISEKTOREEN ARABERA

Nafarroako industriaren jarduera nagusiak identifikatu ondoren, jarraian enpresen eta langileen kopurua aztertuko dugu, enpresaren neurriaren arabera. Azterketa horrek jarduera-sektore desberdinetako enpresa-sarearen ezaugarriak sakonago ezagutzen lagunduko digu. Hain zuzen ere, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak emandako informazioaren arabera, 2015ean 2.447 enpresa egon dira martxan Nafarroan, eta guztira 58.601 langileri eman diete lana.

Industria-enpresa horietatik, gehienek azpisektore hauetan gauzatzen duten beren jarduera: elikagaiak, edariak eta tabakoa (guztizkoaren % 22,6); eta produktu metalikoen lehenengo eraldaketa eta fabrikazioa (% 22,2). Bi sektore horiek barne hartzen dituzte Nafarroako industria-enpresa guztien % 44,8.

Sailkapen horretan pixka bat beherago, enpresen kopuruari dagokionez, honako azpisektore hauek ditugu: makineria eta ekipo mekanikoa (% 6,4); papera eta arte grafikoak (% 5,4); makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 5,0); zura eta kortxoa, altzariak izan ezik (% 4,8); mineralen erauzketa eta horien eraldatuak (% 4,7); garraio-materiala (% 4,3); altzarien fabrikazioa eta beste manufaktura-industria batzuk (% 4,1); kautxu- eta plastiko-manufakturak (% 4,1); eta industria kimikoa (% 3,8). Gainerako jardueren partaidetza % 3 baino gutxiagokoa da.

**92. koadroa Industria-enpresen kopurua, neurriaren eta jarduera-sektorearen arabera (2015)**

| Sektorea (JESN-2009) | 1-5 lang. | 6-50 lang. | 51-100 lang. | 101-500 lang. | >500 lang. | Guztizkoa | Industria osoaren % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Elikagaiak, edariak eta tabakoa | 285 | 214 | 24 | 27 | 2 | 552 | 22,6 |
| Produktu metalikoak (1. eraldaketa eta fabrikazioa) | 272 | 236 | 24 | 12 | 0 | 544 | 22,2 |
| Makineria eta ekipo mekanikoa | 67 | 67 | 13 | 9 | 0 | 156 | 6,4 |
| Papera eta arte grafikoak | 80 | 42 | 3 | 8 | 0 | 133 | 5,4 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 82 | 37 | 2 | 1 | 1 | 123 | 5,0 |
| Zura eta kortxoa, altzariak izan ezik | 73 | 43 | 1 | 0 | 0 | 117 | 4,8 |
| Mineralen erauzketa eta horien eraldatuak | 51 | 57 | 1 | 6 | 0 | 115 | 4,7 |
| Garraio-materiala | 31 | 38 | 12 | 21 | 3 | 105 | 4,3 |
| Altzarien fabrikazioa; beste manufaktura-industria batzuk | 68 | 30 | 2 | 1 | 0 | 101 | 4,1 |
| Kautxu- eta plastiko-manufakturak | 36 | 46 | 7 | 11 | 0 | 100 | 4,1 |
| Industria kimikoa | 54 | 30 | 4 | 3 | 1 | 92 | 3,8 |
| Jantzi, larrugintza eta oinetakogintza | 45 | 22 | 2 | 1 | 0 | 70 | 2,9 |
| Uraren bilketa, arazketa eta banaketa | 48 | 15 | 1 | 2 | 0 | 66 | 2,7 |
| Birziklapena | 27 | 28 | 2 | 2 | 0 | 59 | 2,4 |
| Makineria eta ekipo elektrikoa | 22 | 19 | 5 | 6 | 1 | 53 | 2,2 |
| Energia elektrikoaren ekoizpena eta banaketa | 32 | 14 | 1 | 1 | 0 | 48 | 2,0 |
| Saneamendu publikoko jarduerak | 7 | 7 | 0 | 0 | 0 | 14 | 0,6 |
| **Guztizkoa** | **1.279** | **945** | **102** | **112** | **9** | **2.447** | **100,0** |

*Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: erregimen orokorrean afiliatutako enpresen batez besteko kopurua, 2014an) eta geuk egina.*

Nafarroako industria-enpresen neurriari dagokionez, enplegua kontuan hartuta, nabarmendu behar da enpresa horien guztien % 52,3k 6 langile baino gutxiago izan dituztela 2015ean, % 38,6k 6 eta 50 langile bitartean, % 4,2k 51 eta 100 langile bitartean, % 4,6k 101 eta 500 langile bitartean, eta % 0,4k bakarrik (9 enpresa) dituzte 500 langile baino gehiago. Zifra horiek argi erakusten dute oraindik ere ETEak nagusi direla Nafarroako industria-sarean.

Jarduera-sektoreen araberako enpresen neurrien azterketak erakusten du enpresa handienak (500 langile baino gehiagokoak) sektore hauetan aritzen direla: garraio-materiala; elikagaiak, edariak eta tabakoa; makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa; industria kimikoa; eta makineria eta ekipo elektrikoa. Bereziki nabarmendu behar da garraio-materialaren sektorea; izan ere, enpresa asko barne hartzen ez baditu ere (enpresa guztien % 4,3ko kuota besterik ez du), garrantzi berezia du Nafarroako industria-jardueran, neurri handiko enpresak baitira.

Alderdi horiek argi ikusten dira jarduera desberdinek enpleguaren guztizkoan duten partaidetza eta enpleguak enpresaren neurriaren arabera duen banaketa aztertzean. Informazio horrek, alde batetik, aurreko atalean jarduera-azpisektore nagusiak identifikatzeko asmoz zehaztutakoa (EINek emandakoa) egiaztatzen eta berresten du; eta, bestetik, enpresa-sarearen ezaugarriak hobeto ezagutzen laguntzen du.

Zehazki, enpleguari ekarpen handia egiten dioten eta, aldi berean, enpresa-sare garrantzitsua duten (enpresa-kopurua handia) jardueren artean, hauek nabarmendu behar ditugu: elikagaiak, edariak eta tabakoa; eta produktu metalikoak (lehenengo eraldaketa eta fabrikazioa).

**93. koadroa Industriako langileen kopurua, enpresaren neurriaren eta jarduera-sektorearen arabera (2015)**

| Sektorea (JESN-2009) | 1-5 lang. | 6-50 lang. | 51-100 lang. | 101-500 lang. | >500 lang. | Total | Industria osoaren % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Elikagaiak, edariak eta tabakoa | 667 | 3.679 | 1.623 | 4.966 | 1.522 | 12.457 | 21,3 |
| Garraio-materiala | 62 | 907 | 825 | 4.137 | 6.011 | 11.942 | 20,4 |
| Produktu metalikoak (1. eraldaketa eta fabrikazioa) | 654 | 4.197 | 1.711 | 2.596 | 218 | 8.940 | 15,3 |
| Makineria eta ekipo mekanikoa | 151 | 1.246 | 966 | 2.140 | 0 | 4.503 | 7,7 |
| Kautxu- eta plastiko-manufakturak | 83 | 1.029 | 448 | 2.010 | 0 | 3.570 | 6,1 |
| Papera eta arte grafikoak | 180 | 709 | 228 | 1.754 | 0 | 2.871 | 4,9 |
| Makineria eta ekipo elektrikoa | 48 | 335 | 316 | 1.042 | 761 | 2.502 | 4,3 |
| Industria kimikoa | 99 | 530 | 228 | 585 | 649 | 2.091 | 3,6 |
| Mineralen erauzketa eta horien eraldatuak | 103 | 800 | 86 | 1.044 | 0 | 2.033 | 3,5 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 185 | 501 | 133 | 159 | 624 | 1.602 | 2,7 |
| Birziklapena | 68 | 436 | 146 | 523 | 84 | 1.089 | 1,9 |
| Altzarien fabrikazioa; beste manufaktura-industria batzuk | 135 | 454 | 151 | 238 | 56 | 1.034 | 1,8 |
| Uraren bilketa, arazketa eta banaketa | 88 | 220 | 72 | 465 | 0 | 845 | 1,4 |
| Zura eta kortxoa, altzariak izan ezik | 179 | 673 | 32 | 0 | 0 | 820 | 1,4 |
| Energia elektrikoaren ekoizpena eta banaketa | 53 | 212 | 95 | 353 | 0 | 713 | 1,2 |
| Jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza | 98 | 432 | 145 | 140 | 0 | 535 | 0,9 |
| Saneamendu publikoko jarduerak | 15 | 97 | 0 | 0 | 0 | 112 | 0,2 |
| **Guztizkoa** | **2.867** | **16.455** | **7.202** | **22.151** | **9.926** | **58.601** | **100,0** |

*Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: erregimen orokorrean afiliatutako langileen batez besteko kopurua, 2014an) eta geuk egina.*

Bestalde, industria-enplegu osoan partaidetza handia dute honako jarduera hauek, nahiz eta tamaina handiko enpresa gutxi batzuetan besterik gauzatzen ez diren: garraio-materiala, makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa, eta, neurri txikiagoan, industria kimikoa eta makineria eta ekipo elektrikoa.

Azkenik, enpleguari dagokionez partaidetza txikiagoa dute honako sektore hauek: jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza; uraren bilketa, arazketa eta banaketa; birziklapena; energia elektrikoaren ekoizpena eta banaketa; eta saneamendu publikoko jarduerak.

## 2.3 ENPRESA NAGUSIAK ETA ATZERRIKO KAPITALAREN PARTAIDETZA

Nafarroako industria-egitura aztertzea xede duen kapitulu honi amaiera emateko, labur-labur aztertuko ditugu, lehenik, Foru Erkidegoko industria-enpresa nagusiak eta, ondoren, multinazionalek Nafarroako enpresetan sartzen duten kapitala.

Enpresa nagusiei dagokienez, eta Camerdataren (Espainiako merkataritza-ganberek osatutako elkartea) datu-basetik hartutako informazioaren arabera, jarraian erantsitako

koadroan ikus daitezke 2015ean 250 enplegu baino gehiago izan dituzten Nafarroako industria-enpresak (31 enpresa). Koadroan adierazita dago, halaber, enpresak zein udalerritan dauden, zenbateko enplegu-estratua duten eta zer jarduera gauzatzen duten (JESN-2009ren arabera).

Azkenik, Nafarroako enpresan sartutako kapital multinazionalari dagokionez, hasteko aipatu behar da atzerriko inbertsioak garrantzitsuak izan direla Nafarroan azken urteotan, industria-sektorea dinamizatzeko eta modernizatzeko (nahiz eta horrek Erkidegotik kanpoko erabaki-zentroekiko menpekotasun handiagoa izatea dakarren). Hori horrela, gaur egun, Nafarroan kokatutako ehun industria-enpresak baino gehiagok kapital multinazionala dute, batez ere tamaina erdiko edo handiko enpresek, eta esportaziorako joera handia dute. Enpresa horiek honako azpisektore hauetakoak dira: garraio-materiala eta nekazaritzako elikagaien industria; baita beste azpisektore hauetakoak ere: kautxua eta plastikoa, metalurgia eta produktu metalikoak, makineria eta ekipamendu mekanikoa, industria kimikoa, papera eta arte grafikoak, makineria eta ekipamendu elektrikoa, eta produktu mineral ez-metalikoak.

Ildo horretan, eta Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak emandako informazioaren arabera, 2015 ekitaldian Nafarroako industriako atzerriko inbertsioa 9.537,48 mila eurotara iritsi da (2014an 16.917,3 mila eurokoa izan zen). Kapital horren zatirik handiena leku hauetatik etorri da: Herbehereak, Hego Korea, Italia, Hong Kong eta Amerikako Estatu Batuak; eta ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien sektorera bideratu da nagusiki.

**94. koadroa Nafarroako industria-enpresa nagusiak (2015)**

| Enpresa | Udalerria | Enplegu-estratua | Jarduera |
|---|---|---|---|
| Fagor Ederlan Tafalla SC | Tafalla | 500 baino gehiago | Burdina eta altzairuzko piezen galdaketa |
| TRW Automotive España SL | Iruñea | 500 baino gehiago | Turismo erako automobilak |
| Vega Mayor SL | Milagro | 500 baino gehiago | Frutak eta beste landare-produktu batzuk garbitzea, sailkatzea eta ontziratzea |
| Gamesa Innovation and Technology SL | Egues | 500 baino gehiago | Beste makina eta ekipo mekaniko batzuen eraikuntza |
| Gamesa Eolica SL | Egues | 500 baino gehiago | Beste makina eta ekipo mekaniko batzuen eraikuntza |
| Jangarria SL | Antsoain | 500 baino gehiago | Beste ezein lekutan sailkatu gabeko elikagaien ekoizpena |
| Delphi Packard España SL | Iruñea | 500 baino gehiago | Erabiltzeko material elektrikoaren eta ekipamenduaren fabrikazioa |
| Editorial Aranzadi SA | Zizur Txikia | 500 baino gehiago | Liburuen argitalpena |
| Acciona Energia SA | Egues | 500 baino gehiago | Aurreko epigrafeetan zehaztu gabeko energia-ekoizpena, mareetatik datorrena, eguzki-energia eta halakoak barne. |
| Volkswagen Navarra SA | Aratzuri | 500 baino gehiago | Automobilen eta horien motorren eraikuntza eta muntaia |
| SAS Autosystemtechnik SA | Aratzuri | 500 baino gehiago | Automobilen eta horien motorren eraikuntza eta muntaia |
| Laboratorios Cinfa SA | Uharte | 500 baino gehiago | Farmaziako espezialitateen eta beste produktu batzuen fabrikazioa |
| Viscofan Industria Navarra de Envolturas | Iruñea | 500 baino gehiago | Beste ezein lekutan sailkatu gabeko elikagaien ekoizpena |
| KYB Suspensions Europe SA | Asiain | 500 baino gehiago | Turismo erako automobilak |
| Cementos Portland Valderrivas SA | Iruñea | 500 baino gehiago | Zementu artifizialen fabrikazioa |
| Dana Automoción SA | Iruñea | 500 baino gehiago | Automobilentzako osagaiak |
| Manufacturas del Aluminio Pamplona Sector Automoción SCL | Orkoien | 251- 500 | Burdina ez den metalezko piezen eta horien aleazioen galdaketa |
| Ultracongelados de la Ribera SL | Martzilla | 251- 500 | Arrain-kontserben eta itsasoko beste produktu batzuen fabrikazioa |
| Zalain Transformados SL | Zalain Zoko | 251- 500 | Altzairuzko hodien fabrikazioa |
| AN Avicola Melida SL | Mélida | 251- 500 | Ganaduaren hilketa eta zatiketa, oro har |
| Gelagri Industrial SLU | Milagro | 251- 500 | Landare-uren eta -kontserben fabrikazioa |
| Acciona Windpower SA | Egues | 251- 500 | Motor eta turbinen eraikuntza (garraiorako direnak izan ezik) |
| Acciona Energia internacional SA | Sarriguren | 251- 500 | Aurreko epigrafeetan zehaztu gabeko energia-ekoizpena, mareetatik datorrena, eguzki-energia eta halakoak barne. |
| Industrias Alimentarias de Navarra SA | Villafranca | 251- 500 | Landare-kontserbak |
| Piher Sensors & Controls SA | Tutera | 251- 500 | Kontagailuen eta neurtzeko, kontrolatzeko eta egiaztatzeko aparatu elektrikoen fabrikazioa |
| KYB Steering Spain SA | Orkoien | 251- 500 | Automobilen ekipoen, osagaien, osagarrien eta ordezko piezen fabrikazioa. |
| Iberfruta Muerza SA | Azagra | 251- 500 | Landare-uren eta -kontserben fabrikazioa |
| Timac agro España SA | Orkoien | 251- 500 | Ongarrien fabrikazioa |
| Dynamobel SA | Aizoain | 251- 500 | Metalezko altzarien fabrikazioa |
| Tecnoconfort SA | Iruñea | 251- 500 | Automobilen beste ekipo, osagai, osagarri eta ordezko pieza batzuen fabrikazioa (ekipo elektrikoa izan ezik) |
| M. Torres Diseños Industriales SA | Elortz | 251- 500 | Metalak lantzeko makinen eraikuntza |

*Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera. Camerdata datu-basea.*

# 3. SIDERURGIA

## 3.1 EGOERA OROKORRA

Munduko ekonomia garai zailetan badago ere, etorkizunean altzairuaren industria haztea espero da; izan ere, material hori beharrezkoa da egungo gizarterako, erresistentzia, egokitzeko gaitasun, malgutasun eta iraunkortasun handia dituelako. Horrez gain, kontuan hartu behar da munduko biztanleriak gora egitea aurreikusten dela, altzairuarentzako aplikazio berriak sortuko direla eta merkatu berriak garatuko direla.

Orain arte, siderurgiaren sektorearen erronka nagusienetako bat altzairua egitean ahalik eta karbono-emisio gutxien sortzea izan da; alabaina, etorkizunera begira beste erronka bat sortu da: altzairuak aplikazioetan duen balioa hobetzea. Horrenbestez, produktuen diseinuak eta fabrikazioak ahalbidetu behar du horiek konpontzea, aurrefabrikatzea, berrerabiltzea eta birziklatzea.

Aipatu behar da azken urteetan kezka sortzen duela gehiegizko ahalmenak eta, ildo horretan, World Steel Associationek dioen moduan, "gehiegizko ahalmena mundu-mailako arazoa denez, mundu-mailako konponbidea behar du; egitura-doikuntzak egin behar dira. *Egiturak berregiteko prozesua industria bera bezain zaharra da, eta gobernuek industria-politika egoki bat garatzea eskatzen du, industriarekin lankidetzan".*

Hori guztia kontutan hartuta, eta nazioartean bizi dugun testuinguru ekonomiko zail honetan, gero eta garrantzitsuagotzat jotzen da politikak ezartzea, baldintzen berdintasuna bermatzeko. Hartara, eskualde jakin batzuetako altzairu-enpresak ez dira desabantailan egongo beste eskualde batzuetatik datozen altzairu-fabrikatzaileen edo lehia gisa dituzten gainerako materialen ondoan.

Horri horrela, eta World Steel Associationek argitaratutako azken datuen arabera, altzairuaren mundu-mailako ekoizpen gordina 1.621 milioi tonatara iritsi zen 2015ean, eta altzairu-kontsumoa 1.500,1 milioi tonatara; alegia, bi datuek behera egin zuten 2014. urtearekin alderatuta (% 2,9 eta % 3, hurrenez hurren).

Nazioarteko merkatu nagusien bilakaerak kontuan hartuta, aipatu behar da herrialde gehienek behera egin dutela altzairuaren ekoizpenari dagokionez. Hala, garatutako herrialdeetako altzairuaren guztizko ekoizpena 376 milioi tonakoa izan da urte amaieran; hortaz, urtetik urterako % 5,3ko beherakada izan du, herrialde hauetako merkatuen beherakadaren ondorioz: AEB (-% 10,5), Kanada (-% 2,2), Japonia (-% 5) eta EB-28 (-% 1,8). Garapen bidean dauden Latinoamerikako eta Asiako herrialdeetako

beherakadak % 2 baino pixka bat gehiagokoak izan dira, Txinako merkatuan gertatu den moduan. Azken hori, Txina, munduko altzairu ekoizle nagusia da (guztizkoaren % 49,6).

Europako merkatuetan, Espainia izan da ekoizpena berreskuratu duen herrialde bakarretakoa (+% 4,2); herrialde hauetan, aldiz, altzairu-ekoizpenak behera egin du: Alemania (-% 0,5), Italia (-% 7,2), Frantzia (-% 6,8) eta Erresuma Batua (-% 9,9), besteak beste.

**95. koadroa Altzairu gordinaren ekoizpena**

| Herrialdea | 2014 | | | 2015 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | m Tm | ∆ % | % | m Tm | ∆ % | % |
| AEB eta Kanada | 100,9 | 1,6 | 6,0 | 91,3 | -9,5 | 5,6 |
| Japonia | 110,7 | 0,1 | 6,6 | 105,2 | -5,0 | 6,5 |
| Txina | 822,8 | 0,1 | 49,3 | 803,8 | -2,3 | 49,6 |
| India | 87,3 | 7,4 | 5,2 | 89,4 | 2,4 | 5,5 |
| Alemania | 42,9 | 0,7 | 2,6 | 42,7 | -0,5 | 2,6 |
| Italia | 23,7 | -1,7 | 1,4 | 22 | -7,2 | 1,4 |
| Frantzia | 16,1 | 2,5 | 1,0 | 15 | -6,8 | 0,9 |
| Erresuma Batua | 12,1 | 1,7 | 0,7 | 10,9 | -9,9 | 0,7 |
| Espainia | 14,2 | -0,7 | 0,9 | 14,8 | 4,2 | 0,9 |
| EB-28 | 169,3 | 1,8 | 10,1 | 166,2 | -1,8 | 10,3 |
| **Mundu osoa** | **1.669,9** | **1,3** | **100,0** | **1.620,9** | **-2,9** | **100,0** |

*Iturria: World Steel Association (lehen IISI).*

Jardueraren bilakaeraren ondorio gisa, Ipar Amerikak, Japoniak eta EB-28k osatutako ekonomia aurreratuen multzoak munduko ekoizpenaren laurden bat baino gutxixeago hartzen du (% 23,1), eta Mendebaldeko Europako agregatua ez da hamarrenera ere iristen (% 7,6). Garapen bidean dauden ekonomiek, aldiz, munduko altzairu-ekoizpen osoaren % 69,3 hartzen dute.

**16. grafikoa Altzairuaren mundu-mailako ekoizpena**




*Iturria: World Steel Association.*

Munduko altzairu-kontsumoak askotariko bilakaerak izan ditu 2015ean; guztira 1.500 milioi tona kontsumitu dira, alegia, urtetik urterako datuek % 3 egin dute atzera. Hazkunde nabarmenenak herrialde hauei dagozkie: Espainia (% 9,5), Italia (% 8,6) eta India (% 4,5). Beste hauek, aldiz, behera egin dute altzairu-kontsumoari dagokionez: AEB eta Kanada (-% 11,1), Japonia (-% 7,1) eta Txina (-% 5,4).

**96. koadroa Siderurgia-produktuen kontsumoa**

| | 2014 | | | 2015 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | m Tm | ∆ % | % | m Tm | ∆ % | % |
| AEB eta Kanada | 123,9 | 12,8 | 8,0 | 110,2 | -11,1 | 7,3 |
| Japonia | 67,7 | 3,8 | 4,4 | 62,9 | -7,1 | 4,2 |
| Txina | 710,8 | -3,3 | 45,9 | 672,3 | -5,4 | 44,8 |
| India | 76,1 | 3,3 | 4,9 | 79,5 | 4,5 | 5,3 |
| Alemania | 39,6 | 4,2 | 2,6 | 39,0 | -1,5 | 2,6 |
| Italia | 22,0 | 0,0 | 1,4 | 23,9 | 8,6 | 1,6 |
| Frantzia | 12,5 | -0,8 | 0,8 | 12,5 | 0,0 | 0,8 |
| Erresuma Batua | 10,7 | 11,5 | 0,7 | 10,5 | -1,9 | 0,7 |
| Espainia | 11,6 | 8,4 | 0,7 | 12,7 | 9,5 | 0,8 |
| EB-28 | 149,1 | 5,0 | 9,6 | 153,3 | 2,8 | 10,2 |
| **Mundu osoa** | **1.546,9** | **0,8** | **100,0** | **1.500,1** | **-3,0** | **100,0** |

*Iturria: World Steel Association.*

## 3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA

Siderurgia-produktuen prezioen beherakadaren ondorioz (petrolioarena eta burdin mearena nabarmendu behar dira), 2015. urtea zaila izan da Espainiako siderurgiarentzat. Txinako eta garapen bidean dauden beste herrialde batzuetako ekonomiak hozteak ere eragina izan dute sektorean, inbertsioak murriztu egin baitira.

Dena dela, emaitzak krisialdiaren aurreko urteetakoak baino nabarmen okerragoak izan badira ere, azken urtean hobera egin dute aztertutako sektoreko magnitude ia guztiek. Zehazki, altzairuaren ageriko kontsumoak % 8,5eko gorakada izan du 2014ko zifrekin alderatuta, eta altzairu-ekoizpena % 4,3 hazi da aldi berean. Kanpo-merkataritzari dagokionez, Espainiako siderurgia enpresen inportazioak % 8,1 hazi dira azken urtean, eta esportazioak % 3,4 murriztu dira.

**97. koadroa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak***

*(mila Tm)*

| Urtea | Ekoizpena | Esportazioa | Inportazioa | Ageriko kontsumoa |
|---|---|---|---|---|
| 2008 | 18.640 | 9.249 | 11.649 | 18.095 |
| 2009 | 14.362 | 8.115 | 6.921 | 11.945 |
| 2010 | 16.342 | 9.696 | 8.689 | 13.344 |
| 2011 | 15.556 | 9.875 | 8.870 | 11.211 |
| 2012 | 13.639 | 9.803 | 7.802 | 9.048 |
| 2013 | 14.252 | 9.875 | 7.605 | 9.540 |
| 2014 | 14.249 | 9.969 | 8.307 | 9.860 |
| 2015 | 14.857 | 9.630 | 8.976 | 10.702 |

*(*): Ekoizpena eta ageriko kontsumoa altzairu gordinari dagozkio, eta kanpo-merkataritza siderurgia-produktu guztiei.*

*Iturria: Unesid.*

Datu absolutuetan, altzairuaren ageriko kontsumoa 10.000 mila tonatik igaro da (ez du halakorik lortu 2011tik), 2015ean 10.702 mila tonara arte iritsiz. Bestalde, altzairu-ekoizpena 14.857 mila tonakoa izan da azken urtean. 2014. urtearekin alderatuta gora egin badu ere, emaitza urrun dago oraindik 2008an lortutako zifretatik; urte hartan, bai altzairuaren ekoizpena bai kontsumoa 18.000 mila tonatik gorakoak izan ziren. Esportazioek, berriz, 9.630 mila tona egin dute gora, eta inportazioek 8.976 mila tona.

**17. grafikoa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak**




*Iturria: Unesid.*

Enpleguari dagokionez, 2015ean Espainiako siderurgia-sektoreak enplegua galdu du berriz ere, baina beherakada aurreko urteetan baino arinagoa izan da. Aipatu behar da azken urteetan sektoreko enpresek zenbait doikuntza egin behar izan dituztela, eta horrek eragina izan duela enpleguan, aldi baterako erregulazioak egin behar izan baitituzte. Hala ere, siderurgia-sektoreak 22.364 langileri eman die lana zuzenean; horrek esan nahi du % 2,2ko beherakada egon dela azken urtean (495 enplegu gutxiago datu absolutuetan).

Amaitzeko, inportatutako lehengai nagusien bilakaerari dagokionez, aztertutako hiruren kontsumoa areagotu egin da azken urtean. Hala, burdin mearen eta pelleten kontsumoak izan du gorakada handiena (% 11,9), eta, atzetik, koke bihur daitekeen harrikatzak (% 5,4) eta txatarrak (% 3,9). Kontsumoak gora egin badu ere, prezioak behera egin du hiru kasuetan. Zehazki, burdin meak eta pelletak % 31,5 egin dute behera, 51 euro/Tm-ra arte; txatarraren prezioak % 11,1 egin du behera eta 293 euro/Tm-n geratu da; eta koke bihur daitekeen harrikatzak % 2 egin du behera (103 euro/Tm).

**98. koadroa Inportatutako lehengaiak**

| Urtea | Koke bihur daitekeen harrikatza | | Burdin mea | | Txatarra | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kontsumoa (m Tm) | Prezioa (euro/Tm) | Kontsumoa (m Tm) | Prezioa (euro/Tm) | Kontsumoa (m Tm) | Prezioa (euro/Tm) |
| 2006 | 3.623 | 107 | 5.511 | 45 | 7.437 | 274 |
| 2007 | 3.682 | 91 | 5.719 | 48 | 6.317 | 344 |
| 2008 | 3.371 | 147 | 6.328 | 69 | 7.408 | 342 |
| 2009 | 2.058 | 133 | 3.951 | 62 | 4.654 | 211 |
| 2010 | 2.984 | 161 | 6.707 | 87 | 6.186 | 311 |
| 2011 | 2.610 | 215 | 5.373 | 129 | 5.271 | 390 |
| 2012 | 2.492 | 176 | 5.220 | 100 | 4.747 | 375 |
| 2013 | 2.528 | 129 | 6.259 | 103 | 4.925 | 318 |
| 2014 | 1.632 | 105 | 5.699 | 75 | 4.928 | 330 |
| 2015 | 1.720 | 103 | 6.377 | 51 | 5.120 | 293 |
| Hazk. % 14-15 | 5,4 | -2,0 | 11,9 | -31,5 | 3,9 | -11,1 |

*Iturria: Unesid.*

Etorkizunera begira, UNESIDek siderurgia-sektorearentzat erronka garrantzitsuak diren zenbait zeregin ezarri ditu. Ildo horretan, enpleguaren eta ekonomiaren garapenaren alde lan egiten jarraitzen du; horretarako, I+G jarduerak jarri ditu martxan, PLATEAn (Altzairuaren Plataforma Teknologikoa). Horrez gain, ekonomia-zirkulazioaren erregulazio berriak siderurgia-industriari ahalbidetzen dion potentzial guztia emateko eta baliatzeko prestatzen jarraitzen du. Era berean, sektorea oso konprometituta dago pertsonen segurtasuna eta osasuna hobetzearekin. Hori dela eta, laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko lanean jarraituko du. Ahalegin hori ikus daiteke 11,8ko maiztasun-indize baxuan (aurreko urtean erregistratutakoa baino bi puntu gutxiago, eta Ministerioak gure industria barne hartzen duen industria-sektorearentzat argitaratutako azken datuaren erdia baino gutxiago: 27,8).

# 4. NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIA

## 4.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Europar Batasuneko Nekazaritzako Elikagaien Industriaren Konfederazioaren azken informazioaren arabera, esparru honetako ekoizpenak beheranzko joera izan du 2015ean, eta hiruhilekoen arteko hazkundeak negatiboak izan dira ekitaldian zehar (hirugarren hiruhilekoko jarduera-gorakada kenduta).

**99. koadroa Europar Batasuneko nekazaritzako elikagaien industriako ekoizpenaren bilakaera**

| Urtea | Aldia | % Δ |
|---|---|---|
| 2014 | I. hiruhilekoa | 0,6 |
| | II. hiruhilekoa | 1,0 |
| | III. hiruhilekoa | -0,2 |
| | IV. hiruhilekoa | 0.5 |
| 2015 | I. hiruhilekoa | -0,3 |
| | II. hiruhilekoa | -0.3 |
| | III. hiruhilekoa | 1.3 |
| | IV. hiruhilekoa | -0.6 |

*Iturria: CIAA.*

Egiturari dagokion ikuspegitik, nekazaritzako elikaduraren industriak garrantzi handia du, aspalditik, Europar Batasunean eta bertako kide diren herrialde gehienetan. Hain zuzen ere, EBko industria-sektore nagusia da une honetan. Ildo horretan, sektoreak EB-25ean eginiko fakturazioa 1.244 bilioi eurokoa izan zen 2013an; zifra horrek erkidegoko manufaktura-industriaren guztizkoaren % 15,0 hartzen du (eta % 15,0 eta % 12,8 enpleguari eta sortutako balio erantsiari dagokienez, hurrenez hurren). Ekoizpen hori 289.000 enpresaren artean sortzen da, eta horiek guztiek 4,22 milioi pertsona dituzte lanean (2013an enplegua % 0,6 jaitsi zen, aurreko urtearekin alderatuta). Sektore tradizionala da, enpresa txiki eta ertainak nagusi dituena: 2013an, 250 langile baino gutxiagoko enpresen artean banatuta zegoen guztizkoaren % 99,1, sektoreko fakturazioaren % 49,6 eta enpleguaren % 63,3. Herrialdeen arabera, Frantzia, Italia, Erresuma Batua eta Espainia dira ekoizle nagusiak, eta fakturazio osoaren % 66,0 hartzen zuten 2013an.



LABORAL kutxa

## 4.2 SEKTOREA ESPAINIAN

Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) egindako Industria Produkzioaren Indizea (IPI) begiratzen badugu, Espainiako elikagaien industriaren jarduera pixka bat areagotu da 2015ean, baina industria espainiarreko gainerako jardueretakoa baino txikiagoa izan da gorakada hori. Zehazki, elikagaien sektoreko IPIak % 0,1eko gorakada izan du 2015ean (2014an % 3,7koa), eta, Estatuko industria-sektore osoak, berriz % 3,4koa (2014an % 1,3koa).

**100. koadroa Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera**

*(% Δ)*

| Urtea | Elikagaiak* | Industria, guztira* |
|---|---|---|
| 2011 | 0,7 | -1,6 |
| 2012 | -3,1 | -6,6 |
| 2013 | -0,9 | -1,6 |
| 2014 | 3,7 | 1,3 |
| 2015 | 1,0 | 3,4 |

*(*): Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.*
*Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala.*

Ildo horretan, eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioak 2014rako emandako informazioaren arabera, nekazaritzako elikagaien sektorea nagusi da oraindik ere Estatuko industria-jarduera osoan. Zehazki, 93.396 milioi euro fakturatzen ditu (industria osoaren fakturazioaren % 20,5), eta 353.965 pertsonari lana ematen dieten (industria osoaren % 18,3) 28.278 enpresa barne hartzen ditu. Sektorearen ezaugarri nagusia da, EB osoan bezala, atomizazio-maila handia duela (2014an, enpresen % 96,4k 50 langile baino gutxiago zituzten); alabaina, sektoreko enpresa handiek ekoizpenaren % 70 hartzen dute, teknologikoki aurreratuenak dira eta mundu-mailan egiten dute lan (atzerriko kapitalaren presentzia handia dute). Enpresa txiki eta ertainek, berriz, geografikoki txikiagoak diren eskaletan egiten dute lan. Elikagaien eta edarien industriak industria osoaren balio erantsiaren % 15,4 hartu zuen 2014an.

2015ean sektorean egondako enpresa-mugimendu nagusiei dagokienez, nabarmendu behar dira, alde batetik, Dcoop-ek sinatutako hitzarmena (lehengo Hojiblanca edo Grupo Hojiblanca): horren bidez, aliantza handi bat ezarri da Estatu Batuetako Pompeian enpresarekin, akzioen trukearen bitartez. Bestetik, Deoleo-k sinatutako hitzarmena aipatu behar da. Elikagaien industriako multinazional espainiar honek oliba-olioa eta olioarekin lotura duten produktuak (haziak, olibak, ozpinak eta saltsak) ekoizten ditu. Hitzarmen horren bidez, Latinoamerikako merkatuan aurrera egingo du, La Fabril enpresarekin sortutako aliantzari esker.

Aipatu behar da, halaber, Murtziako Agromarketing eta China In Crowd enpresek IFresh Information enpresa txinatarrarekin sinatutako esklusibotasun-hitzarmena. Enpresa txinatar hori iFresh China Fruit & Vegetable Expo azokaren antolatzailea da, eta hitzarmen horrek merkatu txinatarrerako ateak irekiko dizkio Espainiako nekazaritzaren sektoreari. Hitzarmen honen bidez, Agromarketing eta China In Crowd aholkularitza-enpresek Espainiako baratze-produktuen eta fruten enpresei aholkularitza eman ahal izango diete Txinako merkatu kontinentalera sartzeko, leku pribilegiatu eta seguruago batetik.

Azkenik, Haribok adierazi zuen Espainian duen egitura sinplifikatzeko asmoa zuela, eta bere produktuen ekoizpen- eta merkaturatze-jarduera sozietate bakar batean biltzekoa. Eragiketa horrek ez dio inola ere eragingo lanari, ezta gozokien sektoreko talde alemaniarreko bi filialek aurreikusitako inbertsio-planei ere.

## 4.3 SEKTOREA NAFARROAN

Tradizionalki, nekazaritzako elikagaien industriak garrantzi handia izan du Nafarroako ekonomian; Foru Erkidegoko industriako azpisektore nagusienetakoa izan da, hain zuzen. Zehazki, EINek 2014rako emandako datuen arabera, nekazaritzako elikagaien industriak (elikagaiak eta edariak) industriako enplegu osoaren % 17,3 sorrarazten du (rankingean bigarrena da, ibilgailu motordunen sektorearen atzetik: % 17,8) eta industriako balio erantsi gordinaren guztizkoaren % 13,6 (kasu honetan ere bigarren dago rankingean, ibilgailu motordunen sektorearen atzetik: % 20,0).

**101. koadroa Nafarroako nekazaritzako elikagaien industria (2015)**

| Tamaina | Enpresen % | Enpleguaren % |
|---|---|---|
| 1-5 lang. | 51,6 | 5,4 |
| 6-50 lang. | 38,8 | 29,5 |
| 51-100 lang. | 4,3 | 13,0 |
| >100 lang. | 5,3 | 52,1 |
| **Guztizkoa** | **100,0** | **100,0** |

*Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.*

Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak emandako informazioaren arabera, 2015ean nekazaritzako elikagaien sektoreko 552 enpresa egon dira martxan Nafarroan, eta guztira 12.457 langileri eman diete lana. Enpresa horiek dituzten langileen kopuruaren araberako analisia begiratzen badugu, ETEek nagusi izaten jarraitzen dutela ikusiko dugu. Hala, enpresen % 51,6k 6 langile baino gutxiago dituzte (sektoreko

enpleguaren % 5,4), % 38,3k 6-50 langile dituzte (enpleguaren % 29,5) eta gainerako % 9,6k bakarrik dituzte 50 langile baino gehiago (sektoreko enpleguaren % 65,1).

Sektoreko enpresa nagusiei dagokienez, jarraian datorren koadroan jaso dira 100 langile baino gehiagoko enpresak (guztira 15). Horrez gain, zer udalerritan dauden, zer jarduera gauzatzen duten eta zenbateko enplegu-estratua duten zehaztu da. Enpresa horietatik 2k besterik ez dituzte 500 langile baino gehiago, eta jarduera nagusia landare-kontserben fabrikazioa da.

**102. koadroa Nafarroako nekazaritzako elikagaien enpresa nagusiak (2015)**

| Enpresa | Udalerria | Enplegu-estratua | Jarduera nagusia |
|---|---|---|---|
| Vega mayor SL | Milagro | 500 baino gehiago | Frutak eta beste landare-produktu batzuk garbitzea, sailkatzea eta ontziratzea |
| Viscofan Industria Navarra de Envolturas | Iruñea | 500 baino gehiago | Beste ezein lekutan sailkatu gabeko elikagaien ekoizpena |
| Ultracongelados de la Ribera SL | Martzilla | 251- 500 | Arrain-kontserben eta itsasoko beste produktu batzuen fabrikazioa |
| Gelagri Industrial SLU | Milagro | 251- 500 | Landare-uren eta -kontserben fabrikazioa |
| Industrias Alimentarias de Navarra SA | Villafranca | 251- 500 | Landare-kontserbak |
| Iberfruta Muerza SA | Azagra | 251- 500 | Landare-uren eta -kontserben fabrikazioa |
| Industrias Carnicas Navarras SA | Irunberri | 251- 500 | Mota guztietako haragi-produktuen fabrikazioa |
| Agrozumos SA | Lekunberri | 251- 500 | Landareen estraktuak, zukuak eta beste prestakin batzuk |
| Producciones Vegetales Diferenciadas SL | Valtierra | 251- 500 | Frutak eta beste landare-produktu batzuk garbitzea, sailkatzea eta ontziratzea |
| Ultracongelados Virto SA | Azagra | 251- 500 | Landare-kontserbak |
| Congelados de Navarra SA | Arguedas | 251- 500 | Landare-kontserbak |
| Alimenco SA | Milagro | 251- 500 | Landare-kontserbak |
| Conservas Hijos de Manuel Sanchez Basarte SA | Villafranca | 251- 500 | Landare-kontserbak |
| B. S. Cocinados SL | Corella | 251- 500 | Landare-kontserbak |
| Bodegas Julian Chivite SL | Cintruénigo | 251- 500 | Ardoak egitea eta ontzea |

*Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera. Camerdata datu-basea.*

Kapital multinazionalaren sarrerari dagokionez, hasteko gogorarazi behar da atzerriko inbertsioak garrantzitsuak izan direla Nafarroan, industria-sektorea dinamizatzeko eta modernizatzeko (nahiz eta horrek Erkidegotik kanpoko erabaki-zentroekiko menpekotasun handiagoa izatea dakarren). Nafarroako Industria eta Merkataritza Ganberaren informazioaren arabera, nabarmendu behar da ekitaldi honetan ez dela nekazaritzako elikaduraren industriara bideratutako atzerriko inbertsiorik egon (2012an 3.100 bideratu ziren, eta 2011n 9.000).

Sektorearen industria-egituraren ezaugarri nagusiak aztertu ondoren, jarraian Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako jardueraren aldagai nagusien azken urteetako bilakaera aztertuko dugu.

Enpresen kopuruari eta haiek sortutako enpleguari dagokienez, 2015ean % 1,4ko gorakada txiki bat erregistratu da sektorean lan egiten duten enpresen kopuruan (2014an, -% 1,1). Enpleguak, berriz, % 3,8ko gorakada izan du aurreko ekitaldiarekin alderatuta (2014an % 51); beraz, enpresa horien batez besteko enplegua 22,6 langilekoa izan da 2015ean (aurreko urtean 21,4koa izan zen).

**103. koadroa Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako enpresen kopuruaren eta enpleguaren bilakaera**

| Urtea | Enpresak | % Δ | Enplegua | % Δ | Batez besteko enplegua |
|---|---|---|---|---|---|
| 2006 | 586 | -0,8 | 11.515 | 3,2 | 19,7 |
| 2007 | 582 | -0,7 | 12.412 | 7,8 | 21,3 |
| 2008 | 587 | 0,9 | 12.424 | 0,1 | 21,2 |
| 2009 | 596 | 1,5 | 11.979 | -3,6 | 20,1 |
| 2010 | 585 | -1,8 | 11.896 | -0,7 | 20,3 |
| 2011 | 577 | -1,4 | 11.897 | 0,0 | 20,6 |
| 2012 | 579 | 0,3 | 11.773 | -1,0 | 20,3 |
| 2013 | 566 | -2,2 | 11.419 | -3,0 | 20,2 |
| 2014 | 560 | -1,1 | 11.999 | 5,1 | 21.4 |
| 2015 | 552 | -1,4 | 12.457 | 3,8 | 22.6 |

*Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.*

Era berean, Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriaren Industria Produkzioaren Indizeak (IPI; hori erabili da jardueraren bilakaeraren adierazle gisa) % 0,3ko gorakada izan du 2015ean (aurreko urtean % 0,4). Alabaina, hazkunde hori nabarmen txikiagoa izan da Nafarroako industria osoan jasotakoa baino; bertan, IPIak % 2,2ko gorakada izan du.

**104. koadroa Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera**

*(% Δ)*

| Urtea | Nekazaritzako elikagaiak | Industria, guztira* |
|---|---|---|
| 2008 | 6,8 | 0,4 |
| 2009 | -0,3 | -20,3 |
| 2010 | -6,3 | 6,4 |
| 2011 | 4,1 | -2,1 |
| 2012 | -5,8 | -8,0 |
| 2013 | -2,2 | -1,6 |
| 2014 | 0,4 | 3,9 |
| 2015 | 0,3 | 2,2 |

*(*): Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.*
*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.*

Sektorearen Nafarroako kanpo-merkataritzaren bilakaerari dagokionez, esportazioek % 3,7 egin dute gora (2014an % 4), eta 532,1 milioi eurora iritsi dira 2015ean. Bestalde, inportazioek % 5,2 egin dute gora (2014an -% 3,8), eta 214,0 milioi eurora iritsi dira 2015ean. Kanpo-merkataritzaren bilakaera horrek superabita egotea ekarri du, 2015ean, sektoreko merkataritzako balantzan; hain zuzen ere, 318,1 milioi eurokoa. Saldo hori aurreko urtean erregistratukoa baino pixka bat altuagoa da (309,4 milioi euro). Era berean, estaldura-tasa pixka bat jaitsi da, % 248,6ra arte (2014an, % 252)

**105. koadroa Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan**

*(m eurotan)*

| Urtea | Esportazioak | % Δ | Inportazioak | % Δ | Merkataritzako balantza | Estaldura-tasa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2006 | 250,0 | 13,5 | 166,7 | -1,4 | 83,3 | 150,0 |
| 2007 | 283,6 | 13,4 | 183,6 | 10,1 | 100,0 | 154,4 |
| 2008 | 327,1 | 15,3 | 174,1 | -5,2 | 153,0 | 187,9 |
| 2009 | 303,0 | -7,4 | 147,0 | -15,6 | 156,0 | 206,1 |
| 2010 | 334,1 | 10,3 | 140,1 | -4,7 | 194,0 | 238,5 |
| 2011 | 395,3 | 18,3 | 142,4 | 1,6 | 252,9 | 277,6 |
| 2012 | 402,6 | 1,8 | 163,1 | 14,5 | 239,5 | 246,8 |
| 2013 | 493,1 | 22,5 | 211,6 | 29,8 | 281,5 | 233,0 |
| 2014 | 512,9 | 4,0 | 203,5 | -3,8 | 309,4 | 252,0 |
| 2015 | 532,1 | 3,7 | 214,0 | 5,2 | 318,1 | 248,6 |

*Iturria: Aduanen Zuzendaritza Nagusia.*

Azkenik, Nafarroako sektorekako jardueraren analisiari amaiera emateko, eta aurreko txostenetan egin bezala, 16 enpresatako lagin batean jasotako jardueraren emaitzak ikus daitezke jarraian, Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak emandako informazioa erabiliz bildutakoak. Enpresa horiek, denak batera, 762.057 milioi euro fakturatu zituzten 2014an, aurreko ekitaldian baino % 31,7 gehiago.

**106. koadroa Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako 16 enpresatako lagin baten emaitzen kontu agregatua**

| Kontzeptua | 2013 | | 2014 | | % ∆ 14/13 |
|---|---|---|---|---|---|
| | m euro | % | m euro | % | |
| Ustiapeneko diru-sarrerak | 578.506 | 100,0 | 762.057 | 100,0 | 31,7 |
| Bitarteko kontsumoak | 446.385 | 77,2 | 620.241 | 81,4 | 38,9 |
| Balio erantsi gordina | 132.121 | 22,8 | 141.816 | 18,6 | 7,3 |
| Langile-gastuak | 71.014 | 12,3 | 76.804 | 10,1 | 8,2 |
| Ustiap. emaitza ekon. gordina | 61.107 | 10,6 | 65.012 | 8,5 | 6,4 |
| Amortizazioak eta hornidurak | 32.995 | 5,7 | 28.961 | 3,8 | -12,2 |
| Ustiap. emaitza ekon. garbia | 28.112 | 4,9 | 36.051 | 4,7 | 28,2 |
| Finantza-karga | -6.814 | -1,2 | -12.645 | -1,7 | 85,6 |
| Ohiko jardueren emaitza | 34.926 | 6,0 | 48.696 | 6,4 | 39,4 |
| Ezohiko jardueren emaitza | -1.870 | -0,3 | 3.058 | 0,4 | -263,5 |
| Zerga aurreko emaitza | 33.056 | 5,7 | 51.754 | 6,8 | 56,6 |
| Zergak | 4.162 | 0,7 | 7.852 | 1,0 | 88,7 |
| Ekitaldiko emaitza garbia | 28.894 | 5,0 | 43.902 | 5,8 | 51,9 |
| Cash-flow | 61.889 | 10,7 | 72.863 | 9,6 | 17,7 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.*

Kostuen egituraren bilakaera aztertuz gero (kostu-partida desberdinek fakturazioan duten partaidetza), ikus daiteke pixka bat areagotu dela bitarteko kontsumoen partaidetza; zehazki, % 81,4 hartzen dute 2014an (2013an % 77,2). Bilakaera horrek berekin dakar balio erantsiaren partaidetzak behera egitea, % 18,6ra arte (2013an % 22,8).

Langile-gastuei dagokienez, horiek diru-sarrerekiko duten garrantzia % 10,1era arte jaitsi da 2014an (% 12,3koa zen 2013an), eta amortizazioen eta horniduren partaidetzak ere behera egin du pixka bat (2014an % 3,8 eta 2013an % 5,7). Bestalde, finantza-kargaren beherakada nabarmena erregistratu da, 2014ko fakturazioaren -% 1,7 hartzen baitu (2013an -% 1,2).

Aipatutako aldagaien bilakaera horrek emaitzak pixka bat hobetzea ahalbidetu du. Zehazki, ohiko jardueren emaitzak fakturazioaren % 6,4 hartu du 2014an (2013an % 6,0). Gauza bera gertatzen da zergen aurreko emaitzaren garrantziarekin, % 6,8koa baita (2013an % 5,7). Cash-flowak diru-sarreretan duen partaidetzak, aldiz, behera egin du pixka bat (2014an % 9,6 eta 2013an % 10,7).



LABORAL kutxa

**107. koadroa Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako 16 enpresatako laginaren errentagarritasuna**

| RATIOAK | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|
| AKTIBO GARBIAREN ERRENT. (zergen aurretik) | 9,4 | 7,9 | 10,9 |
| Jasotako finant. interesak/Kostua duten besteren baliabideak | 3,4 | 3,4 | 2,8 |
| BALIABIDE PROPIOEN ERRENT. (zergen aurretik) | 13,0 | 10,3 | 15,7 |
| Zorpetze-ratioa | 37,2 | 34,6 | 36,5 |
| Apalankamendu finantzarioa* | 6,0 | 4,5 | 8,2 |

*(*): Errentagarritasun ekonomikoa - besteren finantzaketaren kostua.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.*

Jarduerak hobera egin duen testuinguru horretan, ikus daiteke gora egin duela aintzat hartutako enpresen laginaren errentagarritasun ekonomikoak, baita errentagarritasun finantzarioak ere (zergen aurretik kalkulatuta). Ildo horretan, errentagarritasun ekonomikoa % 10,9koa izan da 2014an (% 7,9koa 2013an), eta errentagarritasun finantzarioa % 15,7koa (% 10,3koa 2013an). Kontuan hartu behar da, halaber, zorraren kostua pixka bat murriztu dela (2014an % 2,8koa zen eta 2013an % 3,4koa).

# 5. AUTOMOBILGINTZA

2015ean, datu positiboekin itxi da munduko ekoizpena orokorrean, baina urte arteko bilakaera aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino baxuagoa izan da. Urte arteko hazkundea % 1ekoa izan da (% 2,6koa 2014an), eta munduko ekoizpenak urte batean ekoitzitako 90 milioi ibilgailuen kopurua gainditzen du, herrialdeen arabera ekoizpen-jarreran desberdintasun esanguratsuak ezarri diren urte batean. Herrialde batzuetan argi ikus daiteke sektorea berreskuratzen ari dela, eta fabrikatzaile askorentzat urterik onena da krisia hasi zenetik; beste batzuentzat, ordea, errealitatea askoz ere negatiboagoa izan da.

Hala ere, industriaren portaera onaren ondoriozko nolabaiteko testuinguru optimista honetan, 2015aren ezaugarri nagusia Volkswagenen motorrek sorrarazitako zalaparta izango da. Munduan gehien saldu den bigarren marka da (9,93 milioi 2015ean); 12 marka ditu, 106 ekoizpen-planta, ibilgailuak 153 herrialdetan merkaturatzen ditu, eta nazioarte-mailako zalapartan murgilduta egon da, ordura arte automobilgintzaren historian sekula ezagutu ez den bezala. Irailaren 18an jakin zen 11 milioi ibilgailu baino gehiagotan iruzurrez ezarri zela software bat, isuri kutsakorren kontrol teknikoen emaitzak aldatzeko (isuriak muga baino 40 aldiz handiagoak ziren). Harrezkeroztik, enpresak krisi historikoa bizi du, eta horrek, era berean, herrialde ugaritako gobernuak, EB, EPA (AEBko Ingurumen Babeseko Agentzia), kontsumitzaileen erakundeak eta abar barne hartzen dituen eskala handiko eztabaida sakona eragin du. Enpresaren etorkizuna ilun-iluna da; zalantza ugari dago Volkswagenek nola egingo ote dion aurre egoerari: hainbat arazo ditu, burtsan behera egin du, milioi batzuetako isuna du, eraginpean dauden ibilgailuak "konpontzeko" kostuak, kaleratzeak, prestigio-galera, salmenten jaitsierak eta abar.

## 5.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Aurretik esan dugun bezala, 2015ak aldaketa gutxi dakar ekoizpen-atal globalean, eta ekoitzitako ibilgailu kopurua pixka bat hazi da (% 1), 2014ko balioen aldean. Hala ere, azken ekitaldian herrialde ugarik, besteak beste Espainiak, beren kokapena hobetu edo indartu dute munduko rankingean. Zehatzago esateko, eta Asia-Ozeaniari dagokion jarduerarekin hasteko, eremu horrek 47.786.156 unitateko gutxi gorabeherako ekoizpena du (ekoizpen osoaren % 53), batez ere Txinari esker, jardueran % 3,3ko igoera izan baitu (ekoizpen osoaren % 27 hartzen du; beraz, oso urrun geratu da duela hamarkada bateko % 9tik). Ekoizpen-eremuan erreferentea den Asiako beste herrialde bat Japonia da; 2015ean indarra galdu bazuen ere eta ekitaldia ekoitzitako unitateak murriztuz itxi bazuen ere (-% 5,1), eutsi egiten dio bere lekuari, 9 milioi baino pixka bat gehiagoko

ekoizpenarekin. Indiak eta Hego Koreak, halaber, postu esanguratsuak lortu dituzte munduko rankingean, izan ere, 4.125.744ko eta 4.555.957ko ekoizpenak izan dituzte, hurrenez hurren; hazkunde-urtea izan da lehenarentzat (% 7,3) eta nolabaiteko egonkortasunekoa bigarrenarentzat (% 0,7).

Amerikari dagokionez (bertako fabriketatik dator munduan fabrikatutako ibilgailuen % 23), AEB ekoizpenaren buru da, 12,1 milioi unitaterekin, eta hori % 3,8ko gorakadaren emaitza da bere jardueran; horrenbestez bigarren postuan jarraitzen du mundu-mailan. Horretan aktiboki laguntzen dute Amerikako ekoizpen-mapan presentzia handiena duten hiru markek; alegia: General Motors, Ford eta Fiat-Chrysler. Mexikok, ibilgailuen 3,5 milioi inguruko ekoizpenarekin, ekitaldia oso bilakaera positiboarekin itxi du (% 5,9), ez, ordea, Kanadak, zeinek % 4,6ko jaitsiera izan duen ekoizpen-mailetan eta 2.283.474 unitatera iritsi den. Hego Amerikan, ekoizpen-erreferente gisa Brasil nabarmendu behar da; hala ere, uzkurdura nabarmena izan du ibilgailuen ekoizpenean (-% 22,8), jarduera 2,5 milioien mugatik behera murriztuz.

Afrikako herrialdeen blokearekin jarraitzeko, ekoizpen-mapan presentzia txikiagoa izanik (milioi bat ibilgailutik behera), ekoizpena bost herrialderen artean banatuta dago. Hegoafrika (615.658 unitate) eta Maroko (288.329) nabarmenak dira, eremuaren ekoizpenari laguntzen baitiote, baita Aljeria ere, azken urteko hazkundeagatik (+% 1.507; 20.000 unitatera iritsi da). Egiptok –36.000 ibilgailu– eta Tunisiak –540 eskas– osatzen dute ekoizpen-mapa.

Europari dagokionez, ekitaldia 18.177.481 ibilgailuren ekoizpenarekin itxi da EB-27rentzat (2014an baino % 6,1 gehiago), eta 14.441.935 ibilgailurekin (% 7,1 gehiago) EB-15eko datua aintzat hartuta. Herrialdeen araberako analisiak, hala ere, ez ditu jarrera oso homogeneoak erakusten. Ekoizpen-eremuan pisu gehien duten herrialdeekin hasteko, Alemania da zerrendaburu, ekoitzitako 6 milioi unitaterekin, eta % 2,1 hobetu ditu zifrak aurreko ekitaldiaren aldean. Bigarrenik, jardueraren % 13,7ko igoera nabarmenarekin, Espainia dago, une garrantzitsua erakutsiz ekoizpen-bolumenetan, urtean 2.733.201 ibilgailu ekoitzita. Frantziak egoki egiten du aurrera, baina pixka bat geldoago, eta % 8,2ko igoera esleitzen zaio aurreko ekitaldiko zifretan, 1.970.000 unitatera iritsiz. Antzeko jarrera du Erresuma Batuak; % 5,2ko ekoizpen-igoera izan du 2015ean, eta 1.682.156 unitatetara iristen den industria-jarduera izan du. Italiak ematen duen ekoizpen-jauzi garrantzitsua nabarmendu behar da; jarduerak gorakada izan du, % 45,3koa, eta milioi bat ibilgailuko barrera gainditu du. Nabarmendu behar da, halaber, Belgikak izan duen beherakada, beren fabriketan ekoitzitako ibilgailuak % 20,8 gutxiago izan baitira, ekoizpena 409.340 unitatetara murriztuz.

Herrialdeen araberako datuetan are gehiago zehaztuz, aurreko urteetan gertatu bezala, Txinak jarraitzen du nazioarteko taulako buru izaten, kontuan hartuta munduan fabrikatutako ibilgailuen % 30 inguru Txinakoak direla (24.503.326). Pisu gehien duen hurrengoak, AEBk, asiar erraldoiari dagokion ekoizpenaren erdia du, eta horrek are gehiago nabarmentzen du Asiako herrialdeak ekoizpen-mapan duen presentzia izugarria. Nabarmendu behar da Asiako lau herrialdetan baino ez dela batzen munduko ekoizpenaren erdia, aintzat hartuta Txinaren ekarpena (ekoitzitako guztizkoaren % 27), Japoniarena (% 10,2), Hego Korearena (% 5) eta Indiarena (% 4,5) % 47ra iristen dela. Europan, Alemania Europako lehen ekoizle gisa finkatzen da; % 6,7ko partaidetza du guztizkoan. Espainiak hartu du bigarren lekua (% 3), munduko rankingean postu bat irabazten duela, batetik, bere jarduera egokiagatik, eta, bestetik, Brasilek (-% 22,8) eta Kanadak (-% 4,6) izandako beherakada garrantzitsuagatik.

Matrikulazioak oro har aztertzean, esan daiteke, 2015 ekitaldiak baieztatzen duela 2014an antzematen zen joera positiboa. Urtean 89.677.983 matrikulazio izan ziren, 2014an baino % 2 gehiago, eta adierazleek hobera egin dute, baina kasu batzuetan oraindik krisi aurreko balioen azpitik daude. AEBren kasuan ez da berdina gertatzen. Izan ere, 2015ean une historikoa izan zuen salmenten bolumenean; 17.470.659 unitatera iritsi zen, 2014an baino % 5,7 gehiago eta, horrela, bere erregistrorik onena gainditu zuen, 2000. urtekoa –17.402.486 matrikulazio–; sei urtez gora egin du, elkarren segidan. Amerika kontinentearekin jarraitzeko, Mexikon ibilgailuen salmentek nabarmen egin dute gora (% 19); joera bera izan du Kanadak, baina intentsitatea txikiagoa da (% 2,6). Guzti hori kontuan hartuta, hiru NAFTA herrialdeek ibilgailuen salmenten % 23,2 hartzen dute, eta AEB da, logikoa den bezala, ekarpen handiena egiten diona, merkatu globalean % 19,5eko ekarpena egin baitu.

Europan, hazkundea nagusi den testuinguru batean, 5 merkatu nagusiek hazkunde esanguratsuak izan dituzte, baina Italiak eta Espainiak baino ez dituzte erregistratu bi digituko hazkundeak. Zehatzago esateko, Frantziak –2.345.092 matrikulazio–, Erresuma Batuak –3.061.406– eta Alemaniak –3.539.825– 2015ean gora egin dute matrikulazio kopuruan –% 6,1, % 7,7 eta % 5,5, hurrenez hurren–, eta Italiak –1.725.387 matrikulazio (% 15,8)– eta Espainiak –1.214.059 (% 23)– askoz ere hazkunde-erritmo handiagoa izan dute. Tamaina txikiagoko merkatuak, besteak beste, Belgikak (571.524 ibilgailu), Holandak (521.168), Poloniak (432.439), Suediak (396.693) edo Austriak (349.597) ere oso bilakaera positiboa izan dute (% 4,8, % 15,7, % 10,2, % 12,5 eta % 2,2, hurrenez hurren). Laburbilduz, EB-28ko herrialde guztiek, Luxenburgok izan ezik, 2014an erregistratutako balioetatik gorakoekin itxi dute ekitaldia, eta 16.446.203 dira guztizkoaren matrikulazioak (2014an baino % 10 gehiago); horrenbestez, % 18ko merkatu-kuota izan dute.

Asiari dagokionez, beste urtebetez, Txina da munduko ibilgailuen kontsumitzaile nagusia –baita fabrikatzaile nagusia ere–, kontuan hartuta salmenta guztien % 27,4k zigilu txinatarra daramatela, alegia, 24,6 milioi unitatek. Japoniak –5 milioi matrikulazio ditu– hirugarren postuan jarraitzen du (Txinaren eta AEBren ondoren), nahiz eta bere salmentak % 9,3 gutxitu diren. Indiak, berriz, salmentetan laugarren herrialdea izanik, % 7,8ko hazkundea izan du.

Herrialde batzuen berreskurapen ekonomiko txikiari lotuta, aurreikuspenek erakusten dute pare bat urtean autoen ekoizpenak 100 milioi unitateren muga gaindi dezakeela. Alabaina, adituak hasi dira sektorearen hazkundeari buruzko aurreikuspenak murrizten, batez ere gorantz ari diren herrialde batzuetako "ezusteko" dezelerazio ekonomikoarengatik, besteak beste Txinakoa edo Brasilekoa, baita Japoniakoa ere. Horrenbestez, hazkunde-aukerak berriro ere Amerikako merkatuan eta Mendebaldeko Europako merkatuan bilatzen dira.

### 108. koadroa Ibilgailuen ekoizpena eta matrikulazioa

*(unitateak)*

| HERRIALDEA | Kontzeptua | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| Alemania | Ekoizpena | 5.907.548 | 6.033.164 | 2,1 |
| | Matrikulazioa | 3.356.718 | 3.539.825 | 5,5 |
| Frantzia | Ekoizpena | 1.821.464 | 1.970.000 | 8,2 |
| | Matrikulazioa | 2.210.927 | 2.345.092 | 6,1 |
| Espainia | Ekoizpena | 2.402.978 | 2.733.201 | 13,7 |
| | Matrikulazioa | 987.281 | 1.214.212 | 23,0 |
| Erresuma Batua | Ekoizpena | 1.598.879 | 1.682.156 | 5,2 |
| | Matrikulazioa | 2.843.025 | 3.061.406 | 7,7 |
| Italia | Ekoizpena | 697.864 | 1.014.223 | 45,3 |
| | Matrikulazioa | 1.493.008 | 1.725.387 | 15,6 |
| Belgika | Ekoizpena | 516.831 | 409.340 | -20,8 |
| | Matrikulazioa | 545.255 | 571.524 | 4,8 |
| EB-15 | Ekoizpena | 13.483.961 | 14.441.935 | 7,1 |
| | Matrikulazioa (1) | 13.913.204 | 15.223.297 | 9,4 |
| Txekiar Errepublika | Ekoizpena | 1.251.220 | 1.303.603 | 4,2 |
| | Matrikulazioa | 215.594 | 260.070 | 20,6 |
| EB-27 | Ekoizpena | 17.127.469 | 18.177.481 | 6,1 |
| | Matrikulazioa (2) | 14.998.211 | 16.466.203 | 9,8 |
| Errusia | Ekoizpena | 1.887.193 | 1.384.399 | -26,6 |
| | Matrikulazioa | 2.592.396 | 1.437.930 | -44,5 |
| Estatu Batuak | Ekoizpena | 11.660.702 | 12.100.095 | 3,8 |
| | Matrikulazioa | 16.522.663 | 17.470.659 | 5,7 |
| Mexiko | Ekoizpena | 3.368.010 | 3.565.469 | 5,9 |
| | Matrikulazioa | 1.135.409 | 1.351.648 | 19,0 |
| Brasil | Ekoizpena | 3.146.386 | 2.429.463 | -22,8 |
| | Matrikulazioa | 3.498.012 | 2.568.976 | -26,6 |
| Kanada | Ekoizpena | 2.394.154 | 2.283.474 | -4,6 |
| | Matrikulazioa | 1.890.387 | 1.939.949 | 2,6 |
| Japonia | Ekoizpena | 9.774.665 | 9.278.238 | -5,1 |
| | Matrikulazioa | 5.562.888 | 5.046.511 | -9,3 |
| India | Ekoizpena | 3.844.857 | 4.125.744 | 7,3 |
| | Matrikulazioa | 3.177.005 | 3.425.336 | 7,8 |
| Thailandia | Ekoizpena | 1.880.587 | 1.915.420 | 1,9 |
| | Matrikulazioa | 881.810 | 797.579 | -9,6 |
| Hego Korea | Ekoizpena | 4.524.932 | 4.555.957 | 0,7 |
| | Matrikulazioa | 1.661.868 | 1.833.786 | 10,3 |
| Txina | Ekoizpena | 23.731.600 | 24.503.326 | 3,3 |
| | Matrikulazioa | 23.499.001 | 24.597.583 | 4,7 |

(1): EB-15 + EFTA

(2): EB-28 + EFTA

Iturria: ANFAC eta OICA.

## 5.2 SEKTOREA ESPAINIAN

Automobilgintzaren sektorea, zalantzarik gabe, sektore estrategikoa da nazio-mailan. 17 dira lurralde osoan dauden fabrikak; bertan, 9 eraikitzailek dihardute eta 44 modelo fabrikatzen dira, 20 esklusiba mundialean. 2015ean, automobilen marken fakturazioa 60.855 milioi eurokoa izan da, 2014an baino % 11,2 gehiago. Kopuru horri osagaien sektorearen ekarpena gehitzen badiogu (32.011 milioi euro) fakturazioa 92.000 milioi eurotik gorakoa da. Guzti hori kontuan hartuta, automobilgintzako industriak Espainiako KPIaren % 8,7 hartzen du, 2014an baino 9 hamarren gehiago, eta enplegua ematen dio zuzenean edo zeharka biztanleria aktiboaren % 9ri. 2015a, halaber, marka historikoarekin itxi da, superabit komertzialarekin, 17.000 milioi eurotik gorakoa. Ohikoa den bezala, ustiapenak, alegia, guztizko nazionalaren % 18k –bigarren sektore esportatzailea, ekipo-ondasunen sektorearen atzetik– gogor esku hartu du adierazle sektorialen igoeran. Egoera horrek nazio mailako fabrikatzaileak –guztira, 2.733.201 ibilgailu ekoitzita urtean– Europako buru bilakatzen ditu; Espainia da Europan ibilgailuen bigarren ekoizlerik nagusiena, Alemaniaren ondoren, eta zortzigarrena mundu-mailan; gainera, postu bat gehiago lortu du 2014aren aldean.

Zehatzago esateko, automobilgintzako industria nazionalaren ekoizpena 2015ean amaitzen da, oso emaitza positiboekin, batez ere, autoen bilakaera bikainaren ondorioz; segmentu horren ekoizpena % 17,6 hazi da eta ekoitzitako guztizkoaren % 81 hartzen du. Horren erakusgarri da, zalantzarik gabe, industria nazionalari dagokiola munduko fabrikatzaileetako lehen 10en taldearen bilakaera-portaera onena –ekoizpenari dagokionez– (% 13,7). Autoek ekoitzitako 2,2 milioi unitate gainditzen dituzten testuinguruan, komertzial arinek eta furgoiek –pisu gehieneko hurrengo segmentua (% 17)– % 2,1eko hazkundea izan dute. Industria-ibilgailuek, ordea, oso garrantzi espezifiko baxuarekin (% 2), aldaketa gutxi izan dituzte beren ekoizpen-mailetan (% 0,6). Lur orotakoek, berriz, atzerakada esanguratsua izan dute (-% 36,9).

**109. koadroa Automobilgintzaren Espainiako industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpo-merkataritza**

*(unitateak)*

| Azpisektorea | Ekoizpena | | | Esportazioak | | | Matrikulazioak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | % ∆ | 2014 | 2015 | % ∆ | 2014 | 2015 | % ∆ |
| Autoak | 1.871.985 | 2.202.348 | 17,6 | 1.631.744 | 1.893.724 | 16,1 | 855.308 | 1.034.232(*) | 20,9 |
| Lur orotakoak | 26.357 | 16.632 | -36,9 | 25.509 | 16.181 | -36,6 | -- | --(*) | |
| Komer. arinak eta furgoiak | 446.847 | 456.093 | 2,1 | 331.672 | 331.478 | -0,1 | 113.782 | 154.765 | 36,0 |
| Industria-ibilgailuak | 57.789 | 58.128 | 0,6 | 50.968 | 32.349 | -36,5 | 16.214 | 22.435 | 38,4 |
| Autobusak | 0 | 0 | | 0 | | | 1.977 | 2.780 | 40,6 |
| **Guztira** | **2.402.978** | **2.733.201** | **13,7** | **2.039.893** | **2.273.732** | **11,5** | **987.281** | **1.214.212** | **23,0** |

*(*): Turismoen matrikulazioen zifrak lur orotakoen matrikulazioak ere jasotzen ditu.*
*Iturria: ANFAC.*

Aurretik esan den bezala, esportazioek nabarmen lagundu dute autoen salmenten maila igotzen, baina ez intentsitate desberdineko murrizketak jasan dituzten gainerako ibilgailuena. Zehatzago esateko, urtarriletik abendura, turismoen esportazioen % 16,1eko gorakada erregistratu da, eta gainerakoek, berriz, beheranzko aldakuntzak izan dituzte. Lur orotakoen eta industria-ibilgailuen esportazio-jarduerak behera egin du 2014aren aldean, % 37 inguru, eta komertzial arinek eta furgoiek beherakada txikia izan dute, % 0,1ekoa. Guzti hori kontuan hartuta, esportatutako ibilgailu kopurua 2.273.732 da, aurreko ekitaldian baino % 11,5 gehiago, eta, beraz, ekoizpenaren % 83 xurgatzen du.

Matrikulazioei dagokienez, 2015a 1.214.212 ibilgailu matrikulaturekin itxi da, eta bikoiztu egin du merkatu nazionalak EBren batez besteko hazkuntza, azpisektore guztiek urte arteko aldakuntza-tasa oso positiboak izan dituztela. Horren ondorioz, matrikulazioen guztizkoak % 23ko guztizko hazkundea dakar. Autoen atalean, salmenten mailak berriro ere gainditu du milioi bat unitateren zifra sinbolikoa; egoera hori ez zen errepikatzen 2008tik. Bilakaera positibo horren oinarrian hainbat eragile daude, besteak beste: finantzaketarako sarbide hobea, langabezia-tasa baxuagoa, PIVE planaren zortzigarren belaunaldia, ekonomia-klima positiboagoa, etab. Horrela, kontsumitzailearen konfiantza hobetu eta erosketarako motibatzen da. Sustapen horren arduradunetako bat da, zalantzarik gabe, PIVE 8 Plana; kontsumoaren dinamizazioan lagundu du, 2015ean 300.000 ibilgailutik gora izan direla laguntza horri heldu dioten ibilgailuak.

Komertzial arinen eta furgoien azpisektorean, igoera, aurreko ekitaldiaren aldean, esanguratsua da; % 36 gehiago. Horrela, 154.765 unitate matrikulatu lortu dira; zifra hori ez zen lortzen 2008tik. Industria-ibilgailuei dagokienez –2015ean 22.435 matrikulazio, horietatik 19.151 ibilgailu astunenak direla–, % 38,4ko gorakada izan dute; joera bera izan dute autobusek (% 40,6), baina askoz ere balio txikiagoekin (2.780 matrikulazio).

**110. koadroa Autoen matrikulazioa, marken arabera**

*(unitateak)*

| Marka nagusiak | 2014 | 2015 | % Δ |
|---|---|---|---|
| Volkswagen | 76.958 | 88.300 | 14,7 |
| Seat | 67.894 | 77.529 | 14,2 |
| ***Seat-Volkswagen taldea*** | ***144.883*** | ***165.829*** | ***14,5*** |
| Peugeot | 62.570 | 76.314 | 22,0 |
| Citroën | 54.614 | 58.855 | 7,8 |
| ***PSA taldea***(*) | ***117.197*** | ***135.169*** | ***15,3*** |
| Renault | 65.043 | 77.087 | 18,5 |
| Opel | 66.700 | 76.470 | 14,6 |
| Ford | 58.818 | 64.327 | 9,4 |
| Nissan | 39.858 | 55.313 | 38,8 |
| Toyota | 41.242 | 49.120 | 19,1 |
| Dacia | 36.485 | 45.241 | 24,0 |
| KIA | 31.452 | 45.028 | 43.2 |
| Hyundai | 35.054 | 44.154 | 26,0 |
| Audi | 37.658 | 44.062 | 17,0 |
| Mercedes | 30.782 | 39.058 | 26,9 |
| Fiat | 29.357 | 37.764 | 28,6 |
| B.M.W | 30.157 | 35.927 | 19,1 |
| Gainerako markak | 90.622 | 119.683 | 32,1 |
| **Guztira** | **855.308** | **1.034.232** | **20,9** |

*(*): Peugeot eta Citroën.*
*Iturria: DGT eta ANFAC.*

2015ean, matrikulazioen gorakada esanguratsua izan da; ekitaldia positiboan itxi dute marka nagusiek. Volkswagen taldeko motorren iruzurraren inguruko eztabaidak, irailaren 18an sortu zenak, badirudi ez duela eraginik izan –oraingoz– bere salmenten bilakaeran. Zehatzago esateko, Volkswagenek eta Seatek parean egin dute aurrera (% 14 inguruko hazkundea), eta merkatuaren % 16 hartu dute; ondoren Grupo PSA dago, % 13,1eko partaidetza izan duena. Tandem frantsesak, Peugeotek eta Citroënek osatzen dutenak, ordea, izandako portaerak ez dira hain homogeneoak; Peugeot askoz ere dinamikoagoa da (% 22) Citroën baino (% 7,8). % 7,5 inguruko merkatu-kuotekin, zerrendako buru da Renault marka frantsesa (% 18,5eko igoera), gero Opel (% 14,6) eta Ford, partaidetza- eta aldakuntza-tasa txikiagoarekin (% 6,2 eta % 9,4, hurrenez hurren). Nissan, Toyota eta Daciak osatzen dute 10 marka salduenen rankinga, eta hirurek izan dituzte hazkunde nabarmenak (% 38,8, % 19,1 eta % 24, hurrenez hurren). Baina nabarmendu behar da bilakaera onena KIAk izan duela (% 43,2), eta, beraz, hamaikagarren postuan geratzen dela (hamahirugarrena 2014an).

**111. koadroa Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak**

*(unitateak)*

| Herrialdea | 2014 | 2015 | % ∆ |
|---|---|---|---|
| Frantzia | 546.083 | 392.143 | -28,2 |
| Alemania | 299.855 | 383.242 | 27,8 |
| Erresuma Batua | 277.885 | 363.499 | 30,8 |
| Italia | 158.368 | 202.107 | 27,6 |
| Turkia | 77.872 | 114.546 | 47,1 |
| Belgika | 59.059 | 76.205 | 29,0 |
| Herbehereak | 41.840 | 69.876 | 67,0 |
| Austria | 36.075 | 51.397 | 42,5 |
| AEB | 52.113 | 42.433 | -18,6 |
| Aljeria | 52.644 | 31.291 | -40,6 |
| **10 herrialde nagusiak, guztira** | **1.601.794** | **1.726.739** | **7,8** |
| Gainerakoak | 438.339 | 546.999 | 24,8 |
| **Esportazioak, guztira** | **2.040.133** | **2.273.738** | **11,5** |

*Iturria: ANFAC.*

Esportazioei dagokienez, garrantzitsua da nabarmentzea sektorean duten eta izan duten funtsezko zeregina. Esportazioak, krisi handieneko uneetan, jasangarritasun-iturri izan dira eta, une arrakastatsuenetan, salmentak sustatzen lagundu dute. Hori horrela, industria nazionalak ahalegina egin du beti maila esportatuak areagotzeko; horretarako, batetik, merkatu tradizionalenen leialtasuna bilatzen zuen eta, bestetik, ahalegina egin du bere salmentak ibilbide txikiagoa duten merkatuetan finkatzeko, besteak beste, Asiako herrialdeetan, Txinan edo Hego Korean. Salmenten banaketa geografikoa dela eta, produktu nazionalaren % 50en helburua Frantzia da (% 17,2), baita Alemania (% 16,9) eta Erresuma Batua (% 16) ere, Frantzia izanik ekitaldi honetan portaera okerrenekoa (-% 28,2); beste bi herrialdeek oso bilakaera positiboa izan dute (% 27,8 eta % 30,8, hurrenez hurren). Erritmo horretan mugitzen da Italia (% 27,6), baina askoz ere ordezkaritza txikiagoarekin (ordezkaritzaren % 9). Hain zuzen ere, Turkiak (% 47,1), Herbehereek (% 67) eta Austriak (% 42,5) izan dute hazkunderik handiena 2015ean.

**112. koadroa Automobilgintzaren sektorearen esportazioa eta inportazioa**

*(M euro)*

| Ibilgailuak | Europar Batasunaren barruko esportazioak eta entregak | | | Europar Batasunaren barruko inportazioak eta erosketak | | | Esportazio-inportazioen saldoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | % ∆ | 2014 | 2015 | % ∆ | 2014 | 2015 | % ∆ |
| Turismoak | 23.249 | 29.071 | 25,0 | 11.185 | 14.504 | 29,7 | 12.064 | 14.566 | 20,7 |
| Kamioiak | 5.387 | 4.931 | -8,5 | 1.593 | 2.385 | 49,7 | 3.794 | 2.545 | -32.9 |
| Ibilgailu bereziak | 127 | 77 | -38,9 | 40 | 56 | 39,8 | 87 | 22 | -75,1 |
| Autobusak | 212 | 233 | 9,9 | 94 | 170 | 81,1 | 118 | 63 | -46,9 |
| **Guztira** | **28.974** | **34.312** | **18,4** | **12.912** | **17.116** | **32,6** | **16.063** | **17.196** | **7,1** |

*Iturria: Aduanen Zuzendaritza Nagusia.*



LABORAL kutxa

Aurretik esan den bezala, sektoreak 2015ean marka historikoa lortu zuen superabit komertzialean; 17.000 milioi euro gainditu zituen, eta esportazioen balioa 34.000 milioi eurotik gorakoa izan zen. Gainera, ekitaldia inportazioetarako aproposa dela ikusi da; izan ere, inportazioak 17.196 milioi eurokoak izan dira, beraz, balioak handitu dituzte (% 32,6). Informazioa ibilgailu-moten arabera banatuta, eta turismoekin hasita, esportazioen ia % 85en arduradun izanik, nabarmendu behar da gorakada garrantzitsua egon dela atal horretan (% 25), eta hazkunde-erritmoa indartu egin dela 2014aren aldean, % 10,3ko igoera egon zenean. Inportazioek ere gora egin dute nabarmen (% 29,7), baina aurreko ekitaldian baino motelago (% 32,6). Guzti hori kontuan hartuta, urtea saldo positiboarekin itxi da autoentzat, 14.566 milioi eurorekin (aurreko urtean baino % 20,7 gehiago). Beste magnitude-ordena batean mugitzen dira gainerako ibilgailuak; horietan, kanpo-merkataritzarekiko trafiko komertzialaren bilakaera oso bestelakoa izan da. Esportazioek behera egin dute bai kamioientzat (-% 8,5) bai ibilgailu berezientzat (-% 38,9); autobusek baino ez dute izan igoera esportazio-jardueran (% 9,9). Inportazioei dagokienez, hiru ibilgailu-motetan gora egin dute nabarmen kanpo-merkataritzarekiko fluxu komertzialek (% 49,7, % 39,8 eta % 81,1); horiek guztiek ekitaldia saldo komertzial positiboarekin itxi dute, baina 2014ko adierazleen oso azpitik.

Industria eraikitzailearen adierazle nagusiak aztertu ondoren, jarraian industria hornitzailearen magnitude handiak aurkezten dira; horietako enpresek funtsezko garrantzia dute balio-katean, kontuan hartuta ibilgailuaren balioaren % 75 baino gehiagoko ekarpena egiten dutela. Balio-igoera hori alde batera utzita, nabarmendu beharra dago, halaber, sektore osagarriaren industria-jarduerak BEGd-aren 6.600 milioi euro sortzen dituela, automobilgintzaren sektorearen erdia baino gehiago. Hori esanda, 2015a, zalantzarik gabe, urte ona izan da ekipo eta osagaien sektorerako, eta adierazleetako askok krisi aurreko adierazleak lortu dituzte.

Sernautok[(1)] argitaratutako informazioaren arabera, Europako herrialde batzuetako berreskurapen ekonomikoa, kredituirako sarbide handiagoarekin batera eta petrolioaren eta lehengaien prezioaren beherakadarekin batera, erabakigarria izan da berreskurapen horretan. Fakturazioak % 7,7 egin du gora, eta 32.000 milioi euroko muga gainditu du; hori kanpo-merkatuetan antzemandako jarduketa baten emaitza da (% 7,5), eta horri ere etxeko merkataritzako jarduera positiboa gehitu behar zaio (% 8,2). Esportazioen atalean 18.898 milioi eurorekin, guztira, kanpoko salmentek jarraitzen dute etxeko salmentak gainditzen, guztizko fakturazioaren % 60ra helduz. Enpresa nazionalen ezaugarria da izaera esportatzaile handia, 35 herrialdetan daudela presente, hurbiltasuna bilatuz bezeroen ekoizpen-zentroekin. Etxeko merkatuari dagokionez, 2015 ekitaldian, antzeko hazkundea izan genuen merkatuko bi segmentuetan, alegia, % 8,3 jatorrizko ekipoari

[1]Asociación Española de Fabricantes de Equipos y Componentes para Automoción

bideratutako salmentetan, guztizkoaren % 65en ordezkaritzarekin, eta % 8 ordezko piezari bideratutakoetan.

**113. koadroa Automobilgintzarako ekipo eta osagaien Espainiako industriaren zifra nagusiak**

*(M euro)*

| KONTZEPTUA | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|
| Fakturazioa | 29.723 | 32.011 | 7,7 |
| Merkatu nazionaleko salmentak | 12.121 | 13.114 | 8,2 |
| - Jatorrizko ekipoa | 7.834 | 8.482 | 8,3 |
| - Ordezko pieza | 4.287 | 4.632 | 8,0 |
| Esportazioak | 17.602 | 18.898 | 7,5 |
| Inbertsioak | 1.811 | 1.833 | 1,2 |
| Inbertsioak I+G+Bn | 905 | 1.207 | 33,5 |
| Enplegua (langile-kop.) | 196.600 | 204.200 | 3,9 |

*Iturria: Sernauto.*

Gainerako adierazleei dagokienez, sektoreak argi egiten du apustu berrikuntzaren alde, eta 1.207 milioi euro inbertitu ditu partida horretan; horrela, zabal gainditzen dira (% 33,5) aurreko ekitaldiko balioak. Kopuru horri 1.800 milioi euro gehitu behar zaizkio, ekoizpen-gaitasunak hazteko eta hobetzeko. Enpleguaren ildotik, 2015ean 7.600 lanpostu berri sortu dira, % 3,9ko igoeraren ondorioz, eta 204.200 enplegu zuzenetara iritsi da; kalkulatzen da 330.000 dela enplegu-kopurua, guztira, zuzenak eta zeharkakoak kontuan hartzen badira.

Guzti hori kontuan hartuta, etorkizuneko ikuspegiak positiboak dira gorantz ari den eta berrikuntzaren, nazioartekotzearen eta, batez ere, urterik urtera erronka berriei aurre egiteko kalitatezko enpleguaren alde egiten duen sektore honentzat. Sernautoren hitzetan, kalkulatzen da 2016an sektoreak % 7 egin dezakeela gora fakturazioan eta % 3 enpleguan.

## 5.3 SEKTOREA NAFARROAN

Nafarroaren ezaugarri bat da industriak bertan duen garrantzia, eta automobilgintzaren sektorea, zalantzarik gabe, sektore estrategikoa da. Sektore horrek KPI industrialaren % 20 hartzen du bere gain, eta horrek Foru Erkidegoko KPI orokorraren % 27 inguru hartzen du. Nafarroak, gainera, automobilgintzaren sektorean tradizio luzea du, 1965ean automobilen lehen enpresa fabrikatzailea sortu zenetik, Authi; gero Seat bilakatu zen eta, azkenik, gaur egun Volkswagen Navarra da, sektorearen bandera-ontzia. 50 urteotan, horien inguruko enpresa-egitura hazten joan da, eta ehun enpresa baino gehiago dira; gainera, lehen mailako hornitzaileak eta nazioartean prestigioa dutenak ere badaude, besteak beste, Faurecia, TRW, KYB edo Delphi. 2015ean, Volkswagen Navarrak argitaratutako datuak kontuan hartuta (bere jarduerak nolabait sektoreko jardueraren pultsua neurtzeko aukera ematen du), urtea ekoizpenaren beherakada txiki batekin itxi da (-% 2,4), baina nabarmendu behar da oraindik ekoizpen-balio oso altuak daudela.

**114. koadroa Enpleguaren bilakaera eta enpresa-kopurua(*)**

| Kontzeptua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| Automobilgintzako enpresa-kopurua | 104 | 105 | 103 | 108 | 105 |
| Automobilgintzako enplegua | 13.160 | 11.752 | 11.604 | 11.929 | 11.988 |
| **Industriako enplegua, guztira** | **66.702** | **62.817** | **60.264** | **61.086** | **62.429** |
| automobilgintzako enpleguaren %, industria-enpleguaren gainean | 19,7 | 18,7 | 19,3 | 19,5 | 19,2 |

*(*): Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren datuak. Garraioko Materialeko Enpresak.*
*Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera.*

Datu sektorialetan sakontzeko, eta enpresa-kopuruaren harira, 2015ean sektoreak 12.000 pertsona inguruari enplegu zuzena ematen dieten 150 enpresa izan ditu. Koadroan agertzen diren datuetan egiazta daitekeenez, nahiz eta 3 unitatetan murrizten den automobilgintzako enpresen errolda, pixka bat egin du gora enpleguak (% 0,5), eta ekitaldia 2014an baino 59 langile gehiagorekin itxi da. Gorakada hori, ordea, industriaren guztizkoak izandakoaren azpitik dago, hark hazkunde-erritmo handiagoa baitu (% 2,2). Horren emaitza da automobilgintzako sektoreko enpleguak industria osoan duen partaidetzak behera egiten duela 3 hamarren (2015ean % 19,2 eta 2014an % 19,5).

**115. koadroa Ibilgailu automobilak eta ordezko piezak eraikitzea: enpresa-egitura eta enpresa-kopurua (1)**

| Enplegu-estratuak | Enpresa kop. | Enplegua |
|---|---|---|
| ≤ 5 | 31 | 62 |
| 6-50 | 38 | 907 |
| 51-100 | 12 | 825 |
| 101-500 | 21 | 4.137 |
| >500 | 3 | 6.011 |
| **GUZTIRA** | 105 | 11.988 (2) |

*(1): Informazioa Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean afiliatutako enpresen eta langileen batez bestekoari dagokio. Garraioko materialeko enpresak.*

*(2): 11.988 landunen enplegu osoaren zifra langile autonomoekin osatzen da; horien kopurua 46koa da.*

*Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera.*

Analisiarekin jarraitzeko eta enpresa-egituraren bilakaerari dagokionez, azken biurteko honetan enplegu-estratuen araberako enpresa-banaketa ez da ia batere mugitu. Beraz, 5 enplegutik beherako enpresa txikiak aurreko ekitaldian baino 31,2 gutxiago dira, 38 izanik 6 eta 50 enplegu arteko estratuan daudenak, 2014 ekitaldiaren aldean aldaketarik izan gabe. Era berean, aldaketarik gabe, hurrengo tartearen, 51 eta 100 enplegu bitartekoaren, enpresen errolda dago, eta 12 enpresa gehiago erregistratu dira. Goragoko tarteetan, 101-500 enplegatuenean, 21 enpresa daude, 2014an baino bat gutxiago, eta handienek, 500 langiletik gorakoek, partaidetzari eusten diote, 3 enplegurekin.

**116. koadroa Automobilgintzaren sektoreko Nafarroako enpresa nagusiak, 2015**

| Enpresa | Enplegua | Udalerria |
|---|---|---|
| Volkswagen Navarra SA | 4.402(*) | Iruñea |
| Dana Automoción SA | 500 baino gehiago | Iruñea |
| SAS Autosystemtechnik SA | 500 baino gehiago | Aratzuri |
| TRW Automotive España SL | 500 baino gehiago | Iruñea |
| KYB Suspensions Europe SA | 500 baino gehiago | Asiain |
| Delphi Packard España SL | 500 baino gehiago | Iruñea |
| Tecnoconfort SA | 251 eta 500 artean | Iruñea |
| KYB Steering Spain SA | 251 eta 500 artean | Orkoien |
| Manufacturas de Aluminio Pamplona | 251 eta 500 artean | Orkoien |
| Faurecia Emcon Technologies Spain SL | 101 eta 250 artean | Orkoien |
| Industrias Cousin Frères SL | 101 eta 250 artean | Burlata |
| Asientos Esteban SL | 101 eta 250 artean | Iruñea |
| Grupo Antolin Navarra SA | 101 eta 250 artean | Aratzuri |
| Mecanizados Industria Auxiliar SA | 101 eta 250 artean | Iruñea |
| TI Automotive Pamplona SA | 101 eta 250 artean | Aitzoain |
| Alcala Industrial SA | 101 eta 250 artean | Ezkirotz |
| Sigma Brakes SA | 101 eta 250 artean | Tutera |
| Ibérica de Suspensiones SL | 101 eta 250 artean | Altsasu |
| HBPO Automotive Spain SLU | 101 eta 250 artean | Orkoien |
| Trelleborga Inepsa SA | 101 eta 250 artean | Iruñea |
| Maier Navarra SL | 101 eta 250 artean | Iraizotz |
| Karosseriewerke Dresden España SA | 101 eta 250 artean | Orkoien |

*(*): Volkswagen Navarra-ren 2015eko memoriako datuak.*
*Iturria: Geuk egina, Nafarroako Enpresen Enpresa Direktorioaren eta Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberaren informazioan oinarrituta.*

Enpresa-egiturari dagokionez, Nafarroak kalitatezko produktuak eskaintzen dituzten eta, elementu dinamizatzaile bati esker (besteak beste, Volkswagen Navarra) pixkanaka hazten joan diren lehen eta bigarren mailako enpresa hornitzaileen ordezkaritza sendoa du. Enpresa horiek nazioarte-mailan lehiatzen dira eta horien ezaugarri dira malgutasuna eta eraikitzaileen eskarira egokitzeko gaitasuna. Osagaien enpresek gero eta zeregin garrantzitsuagoa dute balio-katean, automobilgintzako fabrikatzaileen ezaugarri den ekoizpenen kanporatze-maila altuaren ondorioz. Zalantzarik gabe, datuak kontuan hartuta, funtsezko zeregina dute enpleguaren sorkuntzan, Landaben enpresa dela buru; hain zuzen ere, 2015ean 4.402 langile izan ditu.

**117. koadroa Kanpo-merkataritzaren bilakaera. Ibilgailu automobilak, zatiak eta osagarriak***

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015** |
|---|---|---|---|---|---|
| Automobilgintzako esportazioak (1) | 3.819,5 | 3.274,4 | 3.369,8 | 3.617,7 | 3.698,7 |
| Esportazioak guztira (2) | 8.302,4 | 7.237,0 | 7.448,1 | 8.141,1 | 8.460,0 |
| (1)/(2) | 46,0 | 45,2 | 45,2 | 44,4 | 43,7 |
| Automobilgintzako inportazioak | 1.764,7 | 1.159,1 | 900,1 | 1.183,9 | 1.016,1 |

*(*): Zergaren 87. kapitulua: Ibilgailu automobilak, traktoreak, zikloak eta gainerako lurreko ibilgailuak, horien zatiak eta osagarriak.*
*(**): Aurrerapen-datuak.*
*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.*

Kanpo-merkataritzarekiko fluxu komertzialei arreta eskainiz, nabarmendu behar da esportazio sektorialek Nafarroako kanpo-merkataritzan duten garrantzi ekonomikoa. Horiek, "makina eta aparatuak, material elektrikoa" eta "metal komun eta metal horien eskulanarekin" batera, partida garrantzitsuak dira, eta horien portaerak nabarmen baldintzatzen du Nafarroako kanpo-saldoa. Hala, bada, 2015ean 3,7 bilioi euro inguruko balio esportatua izan dela kontuan hartuta, Nafarroako esportazioen guztizkoaren % 43,7 hartzen du arlo horrek. Adierazle hori nabarmen murriztu da, aurreko urteekin alderatuta, sektoreko esportazioek gora egiten dutenean (% 2,2), Nafarroako esportazioen azpitik (% 4,4). Hala ere, hazkunde-erritmo txikiagoa kontuan hartuta, automobilgintzako esportazioek hiru urtez jarraian izan dituzte hazkundeak. Inportazioak berriz (1.016 milioi euroan baloratu dira) pixka bat murriztu dira 2014aren aldean (-% 14,2), eta "makinak eta aparatuak, material elektrikoak" arloaren jarraian kokatzen dira, Nafarroako inportazioen mapako bigarren postuan. Ekitaldi honetan, inportazio sektorialek garrantzi handia izan dute, % 22,5ekoa (2014an % 28,7); beraz, 2014an izan zuten lider-baldintza galdu dute.

Kanpoko salmenten banaketei dagokienez, Frantzia Nafarroako ekoizpen-hartzaile nagusia da (ordezkaritzaren % 18), eta, jarraian, Alemania (% 17) eta Europako beste bi herrialde: Italia (hazkunde handia izan du, % 29,2koa) eta Erresuma Batua. Biei % 7 inguru dagokie. Esportazioen mapa hori oso antzekoa da joera sektoriala ezartzen denean, Erresuma Batuaren kasuan izan ezik, zeina bosgarren postura igaro baita, Turkiak gaindituta. Kategoria-aldaketa horren arrazoia da Erresuma Batuko zifren beherakada (-% 6,7), Turkiaren % 4,4ko gorakadaren aurrean. Guzti hori kontuan hartuta, 5 herrialde horiek esportazioen % 70 hartzen dute, "Autoak eta batez ere pertsonak garraiatzeko proiektatutako ibilgailu automobilak" zerga-kapituluaren barruan. Zati eta osagarrien azpisektorea dela eta, nahiz eta Alemania-Frantzia dagoen buruan, Hegoafrikak gora egin du eta hirugarren postura iritsi da. Garrantziari dagokionez, Erresuma Batua eta Italia datoz ondoren, eta bosten artean esportazioen % 63 hartzen dute.

Nafarroako automobilgintza kapituluarekin amaitzeko, jarraian Volkswagen Navarraren magnitude nagusien bilakaera zehazten da, enpresak 50. urteurrena eta Polo modeloaren lau hamarkada ospatzen dituen urtean. Ekoizpenaren arloarekin amaitzeko, 2015ean beheranzko aldakuntza txiki bat gertatu da (-% 2,4), eta ekoizpena 300.000 unitateen mugaren azpitik kokatu da; balio hori 2014an gainditu zen. Hala ere, Poloa –298.358 unitate fabrikatu– modelorik ekoitziena eta esportatuena izan da Espainian 2015ean. Gainera, nabarmendu behar da ekoizpenaren arloaren urte arteko aldakuntza dela salbuespen bakarra, gainerako adierazleek aldeko bilakaera-portaerak izan baitituzte.

**118. koadroa Volkswagen Navarra SAren jarduera-magnitude nagusiak**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| **Ekoizpen-jarduera** | | | | |
| Ekoizpena (ibilgailuak) | 289.589 | 305.700 | 298.358 | -2,4 |
| Plantilla (abenduaren 31n) | 4.491 | 4.274 | 4.402 | 3,0 |
| **Diru-sarrerak** | 2.654,2 | 2.931,9 | 2.996,7 | 2,2 |
| **Emaitzak zergen ondoren** | 50,2 | 52,9 | 60,8 | 14,9 |
| **Cash-flow gordina** | 117,9 | 119,7 | 124,9 | 4,3 |
| **Inbertsioak** | 74,1 | 33,7 | 129,4 | 284,0 |

*Iturria: Volkswagen Navarra SA.*

Zehatzago esateko, Landabenen instalazioak 2.996,7 milioi euroko diru-sarrerak lortu ditu 2015ean, 2014an baino % 2,2 gehiago. Zergen ondoko emaitzak –60,8 milioi euro– % 14,9ko igoera izan du, eta cash-flow gordinak 124,9 milioi euro sortu ditu. Era berean, 2015ean, 129,4 milioi euroan baloratutako inbertsioek hazkunde esponentziala erakusten dute (% 284), batez ere Landabeneko fabrika prestatzen aritu direlako, 2017an merkatura aterako den Polo berria egiteko. Enpleguari dagokionez, gainerako adierazleen bilakaeraren ildo berean, oso portaera positiboa ikusten da, 128 pertsona gehiago gehitu direla plantillan; ekitaldi honetan 4.402 enplegatu izan ditu.

Salmentak, berriz, 2.976,20 milioi eurora iritsi dira, 2014an baino % 2,3 gehiago; diru-sarreren % 96 ibilgailuen salmentatik dator eta % 4 karrozeria, osagai eta ordezko piezen salmentatik. Nabarmendu beharra dago enpresak duen profil esportatzaile handia, kontuan hartuta Nafarroan fabrikatutako Polo modeloko 10 autotik 9 kanpo-merkatuetara bideratzen direla.

Etorkizuneko ikuspegiak direla eta, azken gertakariek eragindako “krisia” gorabehera, Volkswagen taldeak aurreikusten du eskariak gora egingo duela, baina beheranzko zuzenketa egin du aurreko aurreikuspenei dagokienez. Joera hori 2017an merkatura aterako den Polo modelo berriaren inguruan dauden itxaropenetara estrapola daiteke. Landabeneko fabrikak aurreikusten du 1.000 milioi euro inguruko inbertsioa jasotzea 2019ra arte, Poloaren belaunaldi berria fabrikatzeko, bai eta beste modelo berri baterako ere; horrek urteko ekoizpena 350.000 unitatetara igoaraziko luke, eta plantillak ere gora egingo luke aldi berean, % 10 inguru.

# 6. PAPERA

## 6.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Asociación Nacional de Fabricantes de Papel y Pasta (ASPAPEL) elkartearen informazioa kontuan hartuta eta aldi berean, Confederation of European Paper Industries-en (CEPI) datuetatik, esan daiteke 2015ean eremu horretan paperaren eta kartoiaren ekoizpena 90.700 mila tonakoa izan dela; bolumen hori -% 0,3 baxuagoa da aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino. Horrela, 2011n hasitako beheranzko joerari ematen zaio jarraipena.

**119. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena (CEPIko kideak)**

| Urtea | m Tm | % Δ |
|---|---|---|
| 2010 | 96.614 | 9,1 |
| 2011 | 93.557 | -3,2 |
| 2012 | 92.081 | -1,6 |
| 2013 | 91.128 | -1,0 |
| 2014 | 90.949 | -0,2 |
| 2015 | 90.700 | -0,3 |

*Iturria: Asociación Nacional de Fabricantes de Papel y Pasta, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.*

Paperaren ekoizpenaren eskualde-banaketa aintzat hartuta, eta, kasu honetan, informazioa 2014 ekitaldiari buruzkoa dela kontuan hartuta, CEPI osatzen duten herrialdeen multzoari paperaren munduko ekoizpenaren % 22,4 dagokio; kuota hori Asiari dagokiona baino askoz ere baxuagoa da (% 45,9), kontuan hartuta Asia munduko lehen ekoizlea dela. Bestalde, Ipar Amerikari dagokiona baino altuagoa da (munduko ekoizpen guztiaren % 20,7).

Analisia 2015ean zentratuz gero, CEPIren esparruan, paperaren esportazioek behera egin dute (-% 1,1), eta inportazioek eta kontsumoak gora egin dute (% 6,3 eta % 0,5, hurrenez hurren). Zehazki, paperaren esportazioak 18.915 mila tona izan dira, eta Europako gainerako herrialdeetara eta Asiara bideratutakoek behera egin dute (-% 2,5 eta -% 4, hurrenez hurren), eta gora egin dute Ipar Amerikara (% 6), Latinoamerikara (% 2,1) eta munduko gainerako lekuetara (% 0,8) bideratutakoek. Kontsumoaren kasuan, bestalde, 77.416 mila tona izan dira; inportazioek 5.459 mila tona gora egin dute, oro har, Asiatik eta munduko gainerako lekuetatik datozen kasuetan salbu (-% 2,1 eta -% 11,6, hurrenez hurren).

Horrela, bada, CEPI osatzen duten herrialdeetako paperari buruzko balantza komertzialak saldo positiboa izan du, 13.456 mila tonakoa, 2015ean; maila hori aurreko ekitaldian lortutakoa baino -% 3,8 baxuagoa izan da (2014an, 13.990 mila tonako superabita).

**120. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena, herrialdeka**

*(m tona)*

| Herrialdea | 2014* | Guztizkoaren % |
|---|---|---|
| Alemania | 22.540 | 5,5 |
| Austria | 4.865 | 1,2 |
| Belgika | 2.044 | 0,5 |
| Bulgaria | 258 | 0,1 |
| Danimarka | 63 | 0,0 |
| Espainia | 6.036 | 1,5 |
| Finlandia | 10.409 | 2,6 |
| Frantzia | 8.191 | 2,0 |
| Grezia | 295 | 0,1 |
| Hungaria | 713 | 0,2 |
| Italia | 8.818 | 2,2 |
| Holanda | 2.773 | 0,7 |
| Polonia | 4.223 | 1,0 |
| Portugal | 2.201 | 0,5 |
| Erresuma Batua | 4.397 | 1,1 |
| Txekiar Errepublika | 703 | 0,2 |
| Eslovakia | 752 | 0,2 |
| Suedia | 10.419 | 2,6 |
| Norvegia | 1.023 | 0,3 |
| Suitza | 1.258 | 0,3 |
| Brasil | 10.397 | 2,6 |
| Kanada | 11.076 | 2,7 |
| Txina | 107.579 | 26,5 |
| Estatu Batuak | 73.188 | 18,0 |
| India | 10.866 | 2,7 |
| Japonia | 26.471 | 6,5 |
| Errusia | 8.012 | 2,0 |
| **Mundua osorik**** | **406.335** | **100,0** |

*(*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2014. urterako informazioa baino ez dugu.*

*(**): Geuk egina, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.*

*Iturria: Asociación Nacional de Fabricantes de Papel y Pasta.*

Ore-ekoizpena dela eta, CEPIn bertan, 2015ean, 36.265 mila tona izan dira; bolumen horrek gainditu egiten du -% 0,8ko urte arteko murrizketa. Ore-ekoizpenaren eskualdeko banaketa dela eta, kontuan hartuta kasu honetan informazioa 2014 ekitaldikoa dela, adierazi behar da CEPIko herrialdeek orearen munduko ekoizpenaren % 20,5 dutela; partaidetza hori Ipar Amerikakoa (% 36,6) baino askoz ere txikiagoa da, eta Asiari dagokionaren nahiko antzekoa (munduko ekoizpen guztiaren % 22,6).

**121. koadroa Ore-ekoizpena, herrialdeen arabera**

*(m tona)*

| Herrialdea | 2014* | Guztizkoaren % |
|---|---|---|
| Alemania | 2.604 | 1,5 |
| Austria | 1.496 | 0,8 |
| Belgika | 502 | 0,3 |
| Bulgaria | 208 | 0,1 |
| Danimarka | 0 | 0,0 |
| Espainia | 1.863 | 1,0 |
| Finlandia | 10.197 | 5,7 |
| Frantzia | 1.654 | 0,9 |
| Grezia | 0 | 0,0 |
| Hungaria | 0 | 0,0 |
| Italia | 391 | 0,2 |
| Holanda | 94 | 0,1 |
| Polonia | 1.065 | 0,6 |
| Portugal | 2.557 | 1,4 |
| Erresuma Batua | 200 | 0,1 |
| Txekiar Errepublika | 442 | 0,2 |
| Eslovakia | 610 | 0,3 |
| Suedia | 11.009 | 6,2 |
| Norvegia | 763 | 0,4 |
| Suitza | 135 | 0,1 |
| Brasil | 16.461 | 9,2 |
| Kanada | 16.961 | 9,5 |
| Txina | 9.707 | 5,4 |
| Estatu Batuak | 48.408 | 27,2 |
| India | 1.736 | 1,0 |
| Japonia | 8.958 | 5,0 |
| Errusia | 7.175 | 4,0 |
| **Mundua osorik**** | **178.298** | **100,0** |

*(*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2014. urterako informazioa baino ez dugu.*
*(**): Geuk egina, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.*
*Iturria: Asociación Nacional de Fabricantes de Papel y Pasta.*

## 6.2 SEKTOREA ESPAINIAN

Asociación Nacional de Fabricantes de Papel y Pasta (ASPAPEL) elkartearekin bat etorriz, 2015ean, Espainiako paperaren eta kartoiaren ekoizpena 6.195,2 mila tonakoa izan da; bolumen hori aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino % 2,6 handiagoa izan da, eta dinamika hori CEPI osatzen duten herrialdeetan ikusi den atzerakada txikiaren kontrakoa izan da.

Antzera, ageriko kontsumoak eta paper-inportazioek (6.607,3 eta 3.208,3 mila tona, hurrenez hurren) gora egin dute (% 5,6 eta % 2,3, hurrenez hurren), eta esportazioek (2.796,2 mila tona), ordea, behera (-% 4,1). Horrela, paperaren estatuko balantza

komertzialak saldo negatiboa izan du, -412,1 mila tonakoa, 2015ean (-221,6 mila tonako defizita 2014an).

**122. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa. Espainiakoa, guztira.**

*(m Tm)*

| Urtea | Ekoizpena | Inportazioa | Esportazioa | Ageriko kontsumoa |
|---|---|---|---|---|
| 2006 | 6.353,3 | 4.312,2 | 2.797,5 | 7.868,0 |
| 2007 | 6.713,3 | 3.763,3 | 2.769,6 | 7.707,1 |
| 2008 | 6.414,3 | 3.815,9 | 2.964,6 | 7.265,6 |
| 2009 | 5.679,2 | 3.323,2 | 2.809,8 | 6.192,4 |
| 2010 | 6.193,4 | 3.316,9 | 3.062,4 | 6.447,9 |
| 2011 | 6.202,6 | 3.180,4 | 2.955,3 | 6.427,7 |
| 2012 | 6.176,7 | 2.938,2 | 2.957,0 | 6.157,9 |
| 2013 | 6.181,5 | 2.950,8 | 3.047,4 | 6.084,9 |
| 2014 | 6.035,7 | 3.136,7 | 2.915,1 | 6.257,4 |
| 2015 | 6.195,2 | 3.208,3 | 2.796,2 | 6.607,3 |

*Iturria: Asociación Nacional de Fabricantes de Papel y Pasta.*

**18. grafikoa Paperaren sektoreko aldagai nagusien bilakaera Espainian**

*(Indizea: 1985=100)*




*Iturria: Asociación Nacional de Fabricantes de Papel y Pasta.*

Aurreko urteetan bezala, EBk jarraitzen du izaten Estatuko bazkide komertzial nagusiena; inportazioen % 86,7 eta esportazioen % 60,2 hartzen ditu. Zehazki, Frantziak eta Finlandiak kanpo-erosketen % 17,5 eta % 17,4 hartzen dituzte, hurrenez hurren, eta Portugalek eta Frantziak kanporako salmenten % 20 eta % 19, hurrenez hurren.

Paper motak direla eta, prentsarako eta inpresiorako eta idazketarako ekoizpenak, eta kartoi iztukaturakoak behera egin du (-% 1,6 eta -% 1,7, hurrenez hurren), eta beste paper batzuei dagokienak, higienikoak eta sanitarioak, uhin-kartoiak eta beste ontzi eta enbalaje batzuek gora egin dute (% 15,3, % 9,2, % 2,2 eta % 1, hurrenez hurren).

**123. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa, paper motaren arabera**

*(m Tm)*

| Mota | Ekoizpena | | Inportazioa | | Esportazioa | | Ageriko kontsumoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2015 | % ∆ 15/14 | 2015 | % ∆ 15/14 | 2015 | % ∆ 15/14 | 2015 | % ∆ 15/14 |
| Prentsa eta inpresioa eta idazketa | 1.386,7 | -1,6 | 1.281,2 | -1,7 | 1.188,8 | -3,5 | 1.479,1 | -0,1 |
| Higienikoak eta sanitarioak | 741,3 | 9,2 | 135,1 | -9,0 | 189,5 | 8,1 | 686,9 | 5,3 |
| Uhin-kartoirako | 2.897,3 | 2,2 | 961,8 | 8,7 | 881,6 | -8,7 | 2.977,4 | 8,2 |
| – Uhinetarako | 1.244,2 | 2,4 | 330,9 | 10,8 | 342,5 | -15,1 | 1.232,6 | 11,1 |
| – Test Liner eta Kraft Liner | 1.221,3 | 2,4 | 587,0 | 5,9 | 470,7 | -3,4 | 1.337,6 | 6,2 |
| – Bikoak eta larruak | 431,8 | 1,2 | 43,8 | 37,2 | 68,5 | -8,8 | 407,1 | 6,1 |
| Kartoi iztukatua | 274,4 | -1,7 | 503,7 | 7,4 | 131,7 | -7,6 | 646,4 | 6,8 |
| Beste ontzi eta enbalaje batzuk | 466,8 | 1,0 | 271,1 | 3,0 | 318,9 | -6,8 | 419,1 | 9,3 |
| Beste paper batzuk | 428,7 | 15,3 | 55,4 | -18,7 | 85,7 | 51,1 | 398,3 | 3,9 |
| **Papera eta kartoia, guztira** | **6.195,2** | **2,6** | **3.208,3** | **2,3** | **2.796,2** | **-4,1** | **6.607,3** | **5,6** |

*Iturria: Asociación Nacional de Fabricantes de Papel y Pasta.*

Paperaren eta kartoiaren kasuan, aipatutako gorakadarekin kontrajarrita, ekoizpenak -% 11,9 egin du atzera 2015ean; zehazki, 1.640,9 mila tona izan dira. Era berean, paper-orearen esportazioek (724,8 mila tona) ere behera egin dute (-% 34) eta, ordea, ageriko kontsumoak eta inportazioek (2.074,6 eta 1.158,5 mila tona, hurrenez hurren) gora egin dute (% 14,4 eta % 10,6, hurrenez hurren).

Testuinguru honetan, paper-orearen balantza komertziala defizitarioa izan da 2015ean; saldo negatiboa izan du, -433,7 mila tonakoa (50,2 mila tonako superabit-saldoa 2014an); eta % 62,6ko estaldura-tasa izan du (2014an % 104,8).

Ore motaren arabera bereizitako analisiak erakusten du ore mekanikoa eta kimikoa direla nagusi, bai ekoizpenari dagokionez (guztizkoaren % 98,5) bai esportazioari/inportazioari dagokionez, bai eta ageriko kontsumokoak ere; ekoizpenak beheranzko joera izan du (1.616,2 mila tona, -% 12,1eko murrizketa), bai eta esportazioek ere (707,5 mila tona, -% 34,5eko beherakada), eta goranzkoa ageriko kontsumoak (2.014,5 mila tona, % 14,8ko aurrerapena) eta inportazioek (1.105,7 mila tona, % 11,1eko gorakada).

Berreskuratutako papera dela eta, 2015ean kontsumoa 5.181,2 mila tonakoa izan zen; bolumen horrek urte arteko % 2,5eko gorakada dakar.

**124. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa ore motaren arabera**

*(m Tm)*

| Mota | Ekoizpena | | Inportazioa | | Esportazioa | | Ageriko kontsumoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2015 | % ∆ 15/14 | 2015 | % ∆ 15/14 | 2015 | % ∆ 15/14 | 2015 | % ∆ 15/14 |
| Ore mekanikoa eta kimikoa | 1.616,2 | -12,1 | 1.105,7 | 11,1 | 707,5 | -34,5 | 2.014,5 | 14,8 |
| Erdikimikoa eta beste batzuk | 24,7 | -1,7 | 52,8 | 1,6 | 17,4 | -5,5 | 60,2 | 2,5 |
| Ore birjinak, guztira | 1.640,9 | -11,9 | 1.158,5 | 10,6 | 724,8 | -34,0 | 2.074,6 | 14,4 |
| Paper zaharra (ageriko bilketa) | 4.567,5 | 2,9 | 1.627,5 | 8,1 | 1.013,8 | 13,7 | 5.181,2 | 2,5 |

*Iturria: Asociación Nacional de Fabricantes de Papel y Pasta.*

Aurreko txostenetan eginiko lanarekin jarraitzeko, jarraian berreskuratutako paperaren erabilera aztertzen da, honako adierazle hauek kontuan hartuta: ageriko bilketa-tasa (paper zaharraren ekoizpena/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): % 69,1 2015ean eta % 70,9 2014an; erabilera-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren ekoizpena): % 83,6 2015ean eta % 83,7 2014an; birziklapen-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): % 78,4 2015ean eta % 80,8 2014an.

Estatuko datuak CEPIren datuekin erkatuta, nabarmendu behar da Espainiako paperaren sektoreak joera positiboagoa izan duela, erkatuz gero, paperaren eta kartoiaren ekoizpenari dagokionez (% 2,6ko gorakada, nazio-mailan, eta -% 0,3ko beherakada CEPIren esparruan), eta negatiboagoa esportazioei dagokienez (-% 4,1eko beherakada nazio-mailan, eta -% 1,1ekoa CEPI barruan).

## 6.3 SEKTOREA NAFARROAN

Estatu-mailan ikusi den paperaren eta kartoiaren ekoizpenaren gorakadarekin (% 2,6) bat etorriz, 2015ean, paperaren sektoreak Nafarroan gora egin du pixka bat paperaren eta kartoiaren ekoizpen-bolumenean (% 1); 499,2 mila tona izan ditu. Horrela, bada, nazio-mailako erkaketa-hazkunde handiena izanik, Nafarroako paperaren sektoreak partaidetza-kuota jaitsi egin du pixka bat Estatuko guztizkoaren aldean (guztizkoaren % 8,1 2015ean eta % 8,2 2014an).

**125. koadroa Paperaren eta orearen ekoizpena Nafarroan**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| Papera eta kartoia, guztira | 503,3 | 494,3 | 499,2 | 1,0 |
| Orea, guztira | 80,9 | 84,0 | --* | -- |

**Informazioa ez dago eskuragarri, datuak isilpekoak direlako.*
*Iturria: Asociación Nacional de Fabricantes de Papel y Pasta.*

Kanpo-merkataritzari dagokionez, kontuan hartuta kasu honetan analisia diru terminoetan egiten dela, aipatu behar da 2015ean Nafarroako paperaren eta orearen esportazioek % 4,4 egin dutela gora, eta inportazioek % 58,1. Zehazki, sektorearen kanpo-salmentak 249.300 mila eurokoak izan dira, eta kanpotik etorritako erosketenak 130.600 mila eurokoak. Horrela, superabit komertzialak behera egin du 118.700 mila eurora arte (156.100 mila euro 2014an), eta estaldura-tasa % 190,9koa da (% 289 2014an).

**126. koadroa Paperaren eta orearen kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan**

*(m euro)*

| Urtea | Esportazioak | % ∆ | Inportazioak | % ∆ | Balantza komertziala | % ∆ | Estaldura-tasa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2011 | 227.990 | 43,3 | 142.770 | 15,5 | 85.220 | 139,9 | 159,7 |
| 2012 | 256.760 | 12,6 | 127.530 | -10,7 | 129.230 | 51,6 | 201,3 |
| 2013 | 236.450 | -7,9 | 132.220 | 3,7 | 104.230 | -19,3 | 178,8 |
| 2014 | 238.700 | 1,0 | 82.600 | -37,5 | 156.100 | 49,8 | 289,0 |
| 2015* | 249.300 | 4,4 | 130.600 | 58,1 | 118.700 | -24,0 | 190,9 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Nagusiaren datuak oinarri hartuta.*

Magnitude sektorial nagusiak aztertu ondoren, jarraian Nafarroan sektoreak bizi duen enpresa-panoramaren gaineko ohar laburra egingo dugu, txosten hau egitean eskuragarri izan dugun informazioa kontuan hartuta.

Horrela, bada, gogorarazi behar da, lehenengo eta behin, Foru Erkidegoan hiru paper-enpresa nagusi daudela: Sarriopapel y Celulosa SA, Smurfit Kappa Navarra SA eta Sca Hygiene Spain. Enpresa handi horiez gain, beste txikiago batzuek ere beren jarduera gauzatzen dute, besteak beste, honako hauek: Papelera del Ebro, Newark San Andrés, Bertako, Papertech, Papeles el Carmen, Ibertissue eta Videcart.

**127. koadroa Paperaren sektoreko enpresa nagusiak Nafarroan**

| Enpresak | Kokapena | Jarduera |
|---|---|---|
| Sarriopapel y Celulosa SA | Leitza, Zornotza, Uranga | Inpresiorako eta idazketarako p. eta orea |
| Smurfit Kappa Navarra | Zangoza, Cordovilla | Orea, Kraft papera, uhin-kartoia eta zakuak |
| Sca Hygiene Spain | Allo | Tisu papera |
| Papelera del Ebro | Viana | Paperaren fabrikazioa eta enbalajeak |
| Newark San Andrés | Atarrabia | Paperaren eta kartoiaren fabrikazioa |
| Bertako, S.L. | Uharte | Paperaren eta uhin-kartoiaren fabrikazioa |
| Papertech, S.L | Tutera | Orearen, paperaren eta kartoiaren fabrikazioa |
| Papeles el Carmen, S.A. | Altzuza | Paperezko eta kartoizko artikuluen fabrikazioa |
| Ibertissue, S.L. | Buñuel | Paperezko eta kartoizko artikuluen fabrikazioa |
| Videcart, S.A. | Ibiriku | Paperaren eta kartoiaren fabrikazioa |

*Iturria: Memoriak eta Nafarroako Ganbera.*



LABORAL kutxa

Lehenengo eta behin, Sarriopapel y Celulosa SA kontuan hartuta, komeni da gogoraraztea 2014an Lecta taldean sartu zela, eta, zehatzago esateko, Torraspapel SAn; konpainia horrek 2015ean % 5,8 egin du gora urtetik urterako fakturazioan, 785,9 milioi eurora iritsi arte, baina galera batzuk izan ditu (zergen aurretik), -11,3 milioi eurokoak, urtebete lehenago zenbatutakoak baino pixka bat handiagoak (-10,5 milioi euro 2014an).

Smurfit Kappa Navarrari dagokionez (orea fabrikatzen du eta Kraft-liner, Test-liner, zakuetarako Kraft eta Kraft eraldatzen du eta uhin-kartoia fabrikatzen du eta enbalaje-kutxa bihurtzen du), nabarmendu behar da 2015ean Cordovillako fabrikak 35 milioi euro inguruko fakturazioa izan duela; horrela, % 7 gainditu du aurreko ekitaldiko bolumena.

Azkenik, etxeko paperen eta higienikoen azpisektoreari dagokionez, 2015. urtearen amaieran Nafarroako Allo udalerrian ireki zen SCAren nazioarteko banaketarako zentro berriaren inaugurazioa nabarmendu behar da; 18,5 milioi euro inbertitu dira bertan. Gainera, kontuan hartu behar da fabrika horretan bertan zeudenei gehitutako ekoizpen-lerro berrien bidez bikoiztu ahal izan dela haren ekoizpen-gaitasuna; gaur egun 400 pertsona baino gehiago daude bertan lanean, 2012an baino (Georgia Pacific-ek hartu zuenean) % 50 gehiago.

# 7. ERAIKUNTZA

Zazpi urteko atzeraldi argiaren ondoren, badirudi Nafarroan eraikuntzaren sektorea gora egiten hasi dela pixkanaka. Hala ere, urrun dago oraindik krisi aurreko adierazleetatik. 2006an, hasitako etxebizitzen kopurua maximoetara iristen zen, eta Nafarroak hasitako 10.000 etxebizitza izatea lortu zuen. Neurriz kanpoko hazkunde horren ondoren, ordea, etengabeko beherakadak etorri ziren; 2013an, adibidez, balioak izugarri jaitsi ziren, eta etxebizitza berrien sustapena hasitako 619 etxebizitzetaraino jaitsi zen. 2014ak berreskuratze-adierazle txiki batzuk erakutsi zituen, eta joera horri jarraitu zion 2015ak, nabarmenago, gainera. Orain etorkizun hobe bat ikus daiteke, bizitakoa kontuan hartuta. Hori bai, Nafarroak sektoreko adierazle gehienetan estatuaren batez bestekoa gainditu arren, sektoreak BPGari egiten dion ekarpena % 7tik behera dago, krisiaren aurreko balioetatik urrun (% 10 inguru izan ohi zen).

**128. koadroa Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera**

*(% Δ)*

| Kontzeptua | Nafarroa | | Espainia | |
|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 |
| Enplegua | -2,8 | 20,5 | -3,5 | 8,1 |
| Zementuaren barne-salmentak (*) | 11,8 | -4,9 | 0,4 | 5,5 |
| Amaitutako etxebizitzak | -24,4 | -43,9 | -16,6 | -4,9 |
| Hasitako etxebizitzak | 68,3 | 34,1 | 0,2 | -- (**) |
| Lizitazio ofiziala | 8,8 | 98,2 | 42,6 | -28,2 |

*(*): Oficemeneko enpresa elkartuek Ipar Eremuan (Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) egindako zementu grisaren barne-salmentak dira.*
*(**): Txostena egin den unean, ez dago hasitako etxebizitza libreei buruzko daturik.*
*Iturria: INE, Seopan eta Oficemen.*

Nafarroako eraikuntza-sektoreko zenbateko handiei dagokienez, datuek argi erakusten dute hobekuntza bat izan dela; izan ere, urtetik urterako aldakuntzen adierazle batzuk oso onak dira. Alabaina, nabarmendu beharra dago hasierako datuak apalak direla oraindik. Hain da horrela, ezen erabilitako bi adierazle nabarmen hobetu baitira 2014. urtearekin alderatuta eta, gainera, estatuko batez bestekoaren oso gainetik. Horietako lehen adierazleak enpleguarekin du zerikusia, eta egiaztatu da enplegua sortzeko erritmoa estatukoa baino askoz ere handiagoa izan dela (% 20,5 eta % 8,1, hurrenez hurren). Gainera, nabarmen hobetu da 2014ko Nafarroako datua (-% 2,8). Bigarrena, lizitazio ofizialari dagokiona, nabarmen igo da (% 98,2), eta erraz gainditu du 2014ko adierazlea (% 8,8). Gainera, urrundu egin da Estatuak emandako ordena negatibotik (-% 28,2). Hasitako etxebizitzei dagokienez, errepikatu egin da 2014an erregistratutako joera, baina pixka bat apalago: etxebizitzen kopuruak % 34,1 egin du gora (aurreko ekitaldian, % 68,3). Kontrara, bi adierazle joera positibo horretatik kanpo gelditu dira,

estatuko balioen azpiko bilakaera izan baitute. Hau da, batetik, zementuaren barne-salmentak -adierazle honek Iparraldeari egiten dio erreferentzia, ez Nafarroari soilik- % 4,9 uzkurtu dira, eta amaitutako etxebizitzen kopuruak % 43,9 urritu dira Nafarroan, estatuarentzat erregistratutako % 4,9ko uzkurduraren oso gainetik.

**129. koadroa Administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren arteko lizitazio ofizialaren banaketa**

*(M eurotan)*

| Eremua | 2014 | | | | 2015 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zentrala | Autonomikoa | Tokikoa | Guztira | Zentrala | Autonomikoa | Tokikoa | Guztira |
| Nafarroa | 12,6 | 30,3 | 58,5 | 101,3 | 58,7 | 118,8 | 23,2 | 200,8 |
| Espainia | 6.274,4 | 2.760,7 | 4.042,5 | 13.077,7 | 4.296,1 | 2.539,6 | 2.559,4 | 9.395,1 |

*Iturria: Seopan.*

Lizitazio ofizialaren jokabidea aztertzen badugu, 2015ean gora egin du jarduerak Nafarroan: bikoiztu egin dira 2014ko balioak. Jokabide on hori, baina, ezin da Estatura estrapolatu; izan ere, murriztu egin zuen partida aurreko ekitaldian. Zehatzago, 2015eko urtarriletik abendura, Foru Erkidegoan lizitazio ofizialerako jarritako zenbatekoak 200,8 milioi eurora egin du gora, aurreko ekitaldian baino % 98,2 gehiago, eta Estatuan 9.395,1 milioi eurora, 2014ko balioak baino % 28,2 beherago. 2015ean, estatuan joera aldaketa bat gertatu da, kontuan hartuta aurreko biurtekoan lizitatutako bolumenak areagotu zituztela (% 23,2 eta % 42,6), eta ekitaldi honetan aurkako jokabide bat ezarri da. Administrazio guztiek parte hartu dute, neurri handiago edo txikiagoan, joera-aldaketa horretan. Zehatzago, Administrazio Zentralak % 31,5 murriztu du parte-hartzea, autonomikoak % 8 eta tokikoak % 36,7. Horrekin guztiarekin, organo lizitatzaile bakoitzeko banaketa nahiko egonkor mantendu da 2014 ekitaldiarekin alderatuta: % 45,7 lehenengoarentzat, % 27 bigarrenarentzat eta % 27,3 azkenarentzat.

Nafarroako datuak soilik aztertuta, oso errealitate desberdinak nabari daitezke. Administrazio zentralak eta autonomikoak parte hartu dute % 98,2ko gorakadan, baina tokikoak ez; haren partida % 60,3 txikitu da 2014arekin alderatuta. Hala ere, tokikoak izan zuen bilakaerarik onena urte hartan. Agente inbertsoreen araberako banaketari dagokionez, 2015ean alderantzikatu egin dira agente bakoitzaren rolak. Garrantzitsua da nabarmentzea Administrazio Autonomikoak eta Administrazio Zentralak izandako lizitazio-sustapena (% 292,1 eta % 365, hurrenez hurren), lehen eta bigarren indar inbertsore gisa kokatu baititu. 2015ean Tokiko Administrazioak izan du bilakaera okerrena (-% 60,3). Horrenbestez, honela gelditu da banatuta lizitazioa Nafarroan: Tokiko Administrazioak % 11,6ko ekarpena egin dio lizitatutako guztizkoari, Administrazio

Zentralak % 29,2koa eta Autonomikoak, azkenik, % 59,2koa (2014an, % 57,7, % 12,4 eta % 29,9, hurrenez hurren).

Behin administrazio bakoitzak lizitazio-jardueran izan duen rola aztertuta (hau da, funtsen jatorria), jarraian helmugaren ikuspuntuko analisia ezarri da. Estatutik hasita, banaketa bidezkoagoa da bi azpiepigrafeen arteko funtsen zuzkiduran, esaterako: Eraikuntza 2.981,1 milioi euro lizitaturekin (% 31,7) eta Obra Zibila, 6.414,1 milioi eurorekin (% 68,3). Konparazio horretan Nafarroa bakarrik aintzat hartzen badugu, distantzia handiagoa dago Eraikuntzari lotutako lizitazio-jardueraren eta Obra Zibilari dagokionaren artean: lehenengoa 29,1 milioi eurokoa da (% 14,5) eta bigarrena 171,7 milioi eurokoa (% 85,5). Bilakaerari dagokionez, jokabideak ez dira oso homogeneoak agente inbertsoreen eta lurraldeen artean; Nafarroan, esaterako, hazkundeak dira nagusi, argi eta garbi, eta Estatuan, berriz, guztiz aurkakoa da egoera.

Zehatzago, obra motari dagokionez, Nafarroan gutxi dira beheranzko mugimenduak; Eraikuntza atalean, Gainerako Etxegintzan baino ez da gertatu aldaketaren bat (-% 40,2). Hala Etxebizitzak (% 6,3ko pisu espezifikoarekin) nola Gizarte Ekipamenduak (% 5,5eko parte-hartzearekin) aurreko ekitaldiko balioak gainditu dituzte: esponentziala izan da Etxebizitzei dagokien hazkundea (% 2.016,7) eta askoz ere txikiagoa Gizarte Ekipamenduari dagokiona (% 7,8). Guztira, Eraikuntzari dagokion zenbateko osoak, 29,1 milioi euroko aurrekontu-partidarekin, gehikuntza sortu du 2014ko % 48,5ekin alderatuta, lizitatutako balio osoaren % 14,5 esleituta. Obra Zibilari dagokionez, pisu espezifiko askoz ere handiagoarekin (% 85,5), beheranzko mugimendu bakarra ezarri da, Obra Hidraulikoei dagokienez (-% 55,3). Gainerakoak bilakaera ona izan du, eta aurrekontu-gehikuntza handia izan dute Garraioak eta Urbanizazioak atalek (% 260); gainera, inbertsioaren hartzaile nagusitzat egonkortu dira (pisu osoaren % 42,2 eta % 32,2, hurrenez hurren). Ingurumenari dagokionez, egia da hazkunde handia izan duela (% 542,9), baina oso urrun dago gainerakoek lizitatutako bolumenetatik, % 2,2ko parte-hartze urriarekin.

**130. koadroa Lizitazio ofiziala, obra moten arabera (2015)**

| Obra mota | Nafarroa | | | Espainia | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | M euro | ∆ % 15/14 | % | M euro | ∆ % 15/14 | % |
| Etxebizitzak | 12,7 | 2016,7 | 6,3 | 211,6 | -35,4 | 2,3 |
| Gizarte Ekipamendua | 11,1 | 7,8 | 5,5 | 1.340,9 | -23,6 | 14,3 |
| Gainerako Etxegintza | 5,2 | -40,2 | 2,6 | 1.428,5 | 18,0 | 15,2 |
| **Eraikuntza, guztira** | **29,1** | **48,5** | **14,5** | **2.981,1** | **-9,4** | **31,7** |
| Garraioak | 84,8 | 260,9 | 42,2 | 3.854,9 | -39,5 | 41,0 |
| Urbanizazioak | 64,8 | 258,0 | 32,3 | 1.096,0 | -29,1 | 11,7 |
| Hidraulikoak | 17,6 | -55,3 | 8,8 | 1.222,9 | -24,2 | 13,0 |
| Ingurumena | 4,5 | 542,9 | 2,2 | 240,2 | -5,7 | 2,6 |
| **Obra Zibila, guztira** | **171,7** | **110,2** | **85,5** | **6.414,1** | **-34,5** | **68,3** |
| **GUZTIRA** | **200,8** | **98,2** | **100,0** | **9.395,1** | **-28,2** | **100,0** |

*Iturria: Seopan.*

Estatuan analisi bera eginda, egoera oso bestelakoa da. Adierazle gehienek emaitza okerragoak eman dituzte oro har, Gainerako Etxegintza atalean izan ezik; arlo horretan baino ez da lortu 2015ean hazkundea erregistratzea (% 18). Alabaina, beharrezkoa da azpimarratzea hazkunde hori ez dela izan nahikoa Eraikuntza azpisektorea osatzen duten beste bi ataletan erregistratutako aldakuntza-tasa negatiboak konpentsatzeko. Alde batetik, Etxebizitzek murriztu egin dute lizitazio-jarduera (-% 35,4), Gizarte Ekipamenduek bezala (-% 23,6): ekitaldia 2.981 milioiko lizitazio-bolumenarekin itxi da, 2014an baino % 9,4 gutxiago. Obra Zibilari dagokionez (lizitazio ofizialaren % 86,3), beherakada handia izan da Garraioetan (-% 39,5), eta, normalean, gutxi gorabehera lizitatutako guztiaren erdia esleitzen duten obrak % 41ra murriztu dute parte-hartzea. Halaber, murrizketa handiak izan dira atal hauetan: Urbanizazioak (-% 29,1) eta Hidraulikoak (-% 24,2). Txikiagoa izan da Ingurumena atalak izandako beherakada (-% 5,7). Azpimarratu beharra dago aurreko ekitaldian Hidraulikoak atalean izan zela beherakada bakarra; oraingoan, ordea, Obra Zibilak izan du kalte handiena hiru administrazio-organoen aurrekontu-mugen ondorioz.

**131. koadroa Hasitako eta amaitutako etxebizitzak**

*(etxebizitzen kopurua)*

| Arloa | Kontzeptua | Hasitako etxebizitzak | | | | Amaitutako etxebizitzak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2012 | 2013 | 2014 | 2015(*) | 2012 | 2013 | 2014 | 2015(*) |
| Nafarroa | Babestuak | 902 | 141 | 406 | 329 | 1.398 | 1.446 | 1.165 | 425 |
| | Libreak | 889 | 478 | 636 | 1.068 | 1.467 | 878 | 591 | 560 |
| Espainia | Babestuak | 17.480 | 6.489 | 5.898 | 5.306 | 53.332 | 17.059 | 15.046 | 7.931 |
| | Libreak | 34.580 | 29.232 | 29.883 | ---** | 80.083 | 43.230 | 35.226 | 39.891 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*(**): Txostena egin den unean, ez dago hasitako etxebizitza libreei buruzko daturik.*
*Iturria: Nafarroako Gobernuaren Sustapen Saila eta EIN.*

2015ean hasitako eta amaitutako etxebizitzei dagokienez, hutsuneak daude Estatuan hasitako etxebizitza libreei buruzko informazioan; hortaz, ezin da konparazio-analisi oso bat egin. Hori esanda, etxebizitza babestuekin hasita, hasitako 329 etxebizitza babestu daude Nafarroan; hau da, 2014an baino % 19 gutxiago. Estatuan, aurreko ekitaldiko joera berari eutsi zaio: % 10 murriztu dira hasitako etxebizitza babestuak (5.306 unitate dira denera). Hasitako etxebizitza libreek, berriz, nabarmen egin dute gora Foru Erkidegoan (% 67,9); bikoiztu egin da 2014ko hazkunde-erritmoa (% 33,1) eta, hala, gainditu egin da milako hesia.

Amaitutako etxebizitzak direla eta, 2015ean amaitutako etxebizitza guztien bolumen osoak % 5 egin du behera Estatuan, eta Nafarroan nabarmenagoa izan da beherakada: % 44 gutxiago. Foru Erkidegoan, etxebizitza libreek zein, bereziki, babestuek ekarpena egin dute amaitutako etxebizitzen errolda murrizten (-% 5,2 eta -% 63,5, hurrenez hurren). Analisi bera Estatuan eginez gero, etxebizitza babestuek eragin dute urtetik urterako beheranzko aldakuntza; izan ere, % 47,3ko beherakada izan dute, eta etxebizitza libreen bilakaera (% 13,2) ez da nahikoa izan beherakada konpentsatzeko. Horrenbestez, 2015ean, amaitutako 985 etxebizitza daude Nafarroan eta 47.822 Estatuan.

**132. koadroa Eraikuntzako langileak**

*(m pertsona)*

| Arloa | 2013 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| Nafarroa | 14,4 | 14,0 | 16,9 | 20,5 |
| Espainia | 1.029,48 | 993,5 | 1.073,7 | 8,1 |

*Iturria: EIN. Biztanleria aktiboaren inkesta (2005eko oinarria).*

Sektoreko analisia amaitzeko eta EINek Biztanleria Aktiboaren Inkestan (BAI) jasotako informazioan oinarrituz, badirudi eraikuntzako langile kopuruaren adierazleak hoberanzko joera hartu duela. Nafarroak bilakaera bikaina izan du; izan ere, nabarmen areagotu da eraikuntzari lotutako biztanleria aktiboa (% 20,5). Joera hori bera ikus daiteke Estatuan, baina modu apalagoan; izan ere, % 8,1eko hazkundea egon da: 1.073,7 landun.

Sektorearen berehalako etorkizunak, ordea, ez dirudi oso itxaropentsua. 2016ko lehen hiruhilekoko datuak ikusita, krisiaren itzala nabari da sektorean; izan ere, urtearen lehen zatian nabarmen txikitu da lizitatutako bolumena. Oficemen-en arabera, obra zibilerako zementu-eskaerak gutxieneko historikoa erregistratu zuen aldi horretan, kaltea jasan baitzuen obra publikoak Espainian izandako "geldialdiak", Gobernuaren osaera atzeratzeagatik. Hori kontuan harturik, badirudi 2016 ekitaldia zaila izango dela sektorearentzat.

# 8. NAFARROAKO ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA

## 8.1 SARRERA

Aurreko txostenetan egindako lanarekin bat, kapitulu honek Nafarroako eta estatuko enpresa-egituraren bilakaeraren analisia egiten du, denbora-ikuspegi zabala kontuan hartuta (2009-2015 aldia), eta sektore ekonomikoak eta soldatapeko estratuak aintzat hartuta. Horren harira, komeni da kontuan izatea, azterketaren homogeneotasuna handiagoa izateko, EINeko Enpresen Direktorio Nagusia (DIRCE) hartu dela informazio-iturri bakartzat.

## 8.2 BILAKAERA OROKORRA

Krisi ekonomikoaren eraginaren ondorioz, enpresa aktiboen bolumenak behera egin du azken urteotan, bai Nafarroan bai, oro har, Estatuan, baina igo egin dira 2014an eta 2015ean berreskuratze ekonomikoaren ildotik Nafarroaren kasuan, eta 2015ean Estatuaren kasuan.

Zehazki, Nafarroan dagoen enpresa aktiboen kopurua 43.282 zen 2009an, eta 43.131 2015ean; bilakaera horren beherakada metatua -% 0,3koa da. Estatuan, 3.355.830 ziren 2009an eta 3.186.878 2015ean. Dinamika horrek -% 5eko beherakada metatua dakar. Horrela, bada, ikusten dugu beherakada metatua, datu erlatiboetan, nabarmen baxuagoa dela Nafarroan.

Nolanahi ere, aipatu behar da, bi eremu geografiko horietan, urtetik urterako gorabeheren magnitudea desberdina izan dela aztertutako aldian zehar, eta, era berean, aldeak ikusi dira eremu bakoitzari dagozkion urtetik urterako aldakuntzen artean.

**19. grafikoa Enpresa kopuruaren bilakaera**




*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

Nafarroaren kasuan, urtetik urterako beherakadarik handiena enpresa kopuruan 2010ean erregistratu zen (-% 2,2), eta hazi egin da, urtetik urterako datuetan, bai 2014an bai, bereziki, 2015ean (% 1,8 eta % 3,7, hurrenez hurren). Estatu mailan, urtetik urterako beherakadarik handiena ere 2010ean izan zen (-% 1,9); nahiko igoera handia izan du 2015ean (% 2,2).

**20. grafikoa Enpresa kopuruaren urtetik urterako aldakuntza**




*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

Testuinguru honetan, Nafarroaren parte-hartzea, enpresa kopuruari dagokionez, Estatuko kopuru osoaren aldean, hazi egin da (2015ean % 1,35, eta 2009an % 1,29).

**21. grafikoa Estatuako guztizkoaren gaineko garrantziaren bilakaera (Estatua=100)**




*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

## 8.3 SEKTORE EKONOMIKOAK

Sektore ekonomikoak direla eta, lehenengo eta behin lau sektore handirekin (industria, eraikuntza, merkataritza eta gainerako zerbitzuak) lotutako azterketa kontuan hartuta, 2009-2015 aldian beherakada orokorra ikusten da horietan guztietan bai Nafarroan bai estatuan, gainerako zerbitzuen sektorean izan ezik, bi kasuetan.

Enpresa kopuruaren metatutako beherakadarik handiena, datu erlatiboetan eta oinarriko urteari dagokionez (2009), eraikuntzari dagokio bi kasuetan; -% 27,2koa da eremu

nazionalean (405.849 enpresa 2015ean eta 557.110 enpresa 2009an), eta -% 16,9 Nafarroan (6.122 enpresa 2015ean eta 7.364 enpresa 2009an).

Eraikuntzaren ondoren, industriak eta merkataritzak dute beherakadarik handienak, bai Nafarroan (-% 9,4 eta -% 0,4, hurrenez hurren) bai Estatuan (-% 19,2 eta -% 5,6, hurrenez hurren); eta gainerako zerbitzuen sektorea igo egin da bi eremu geografikoetan (% 7 eta % 4,3, hurrenez hurren).

**22. grafikoa Enpresen bilakaera, sektore ekonomikoaren arabera (indize kopurua 2009=100)**




*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

Azterketa 2009. eta 2015. urteetara mugatuta, eta Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren (CNAE-2009) banaketak kontuan hartuta, bai 2009an bai 2015ean, enpresa kopuru handiena bi eremu geografikoetan handizkako eta txikizkako merkataritzakoak dira, baita ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketan aritzen direnenak ere. Horrela, Nafarroan 2015ean jarduera horren inguruan diharduten 9.830 enpresak autonomia-erkidego osoko % 22,8 hartzen dute (2009ko proportzioaren antzekoa); kuota

hori Estatuari dagokion guztizkoa baino pixka bat baxuagoa da (nazio mailako guztizkoaren % 24; 2009an % 24,1 izan zen).

**133. koadroa Enpresak atal ekonomikoaren arabera. 2009. eta 2015. urteen arteko alderaketa**

| | Nafarroa | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|
| | 2009 | 2015 | 2009 | 2015 |
| **Guztira** | **43.282** | **43.131** | **3.355.830** | **3.186.878** |
| Erauzketa-industriak | 31 | 35 | 2.916 | 2.416 |
| Manufaktura-industria | 3.685 | 3.087 | 222.371 | 174.333 |
| Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura | 470 | 584 | 13.962 | 14.551 |
| Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa | 62 | 144 | 5.945 | 6.704 |
| Eraikuntza | 7.364 | 6.122 | 557.110 | 405.849 |
| Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa | 9.873 | 9.830 | 809.290 | 763.930 |
| Garraioa eta biltegiratzea | 3.731 | 3.295 | 234.798 | 194.201 |
| Ostalaritza | 3.378 | 3.563 | 290.676 | 276.412 |
| Informazioa eta jakinarazpenak | 455 | 590 | 51.110 | 58.858 |
| Finantza- eta aseguru-jarduerak | 779 | 781 | 68.306 | 71.672 |
| Higiezinen jarduerak | 1.093 | 1.307 | 119.673 | 148.826 |
| Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak | 5.264 | 5.234 | 409.641 | 379.415 |
| Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak | 1.905 | 2.324 | 137.654 | 184.967 |
| Hezkuntza | 911 | 1.099 | 72.729 | 92.689 |
| Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetakoak | 1.147 | 1.569 | 126.986 | 148.692 |
| Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak | 889 | 1.078 | 72.836 | 83.635 |
| Beste zerbitzu batzuk | 2.245 | 2.489 | 159.827 | 179.728 |

*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

Aztertutako bi eremu geografikoetan, jarraian agertzen dira (hurrenkera honetan) eraikuntza eta jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak. Nafarroaren kasuan, eraikuntzak 6.122 enpresa barne hartzen ditu 2015ean, autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 14,2 (2009an % 17); garrantzi hori Estatuan erregistratutakoa baino pixka bat altuagoa da (% 12,7; 2009an % 16,6). Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak direla eta, 5.234 enpresa dira Nafarroan 2015ean, autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 12,1 (2009an % 12,2), eta partaidetza hori arlo honek Estatuan izandakoa baino pixka bat altuagoa da (% 11,9; 2009an % 12,2).

## 8.4 SOLDATAPEKOEN ESTRATUAK

Soldatapekoen estratuak kontuan hartuta, adierazi behar da, aurreko azpiepigrafean bezala, lehenengo 2009-2015 aldia aztertzen dela, kontuan hartuta soldatapekoen estratuen eransketa handiagoa, eta, gero, arreta ekitaldi horietan baino ez dela fokalizatzen, enpleguaren bereizketa handiagoarekin.

2009-2015 aldia kontuan hartuta, soldatapekoak ez dituzten eta horietako bat edo bi dituzten Nafarroako enpresen kasuan izan ezik, enpresa kopuruak behera egin du oro har soldatapeko estratu guztietara, bai Nafarroan bai nazio-mailan.

Aztertutako bi eremu geografikoetan, 10 eta 19 soldatapeko bitartean dituzten enpresek dituzte beherakada handienak oinarriko urteari dagokionez (2009). Zehazki, 10 eta 19 soldatapeko bitartean dituzten enpresen bolumenak -% 29,8 egin du behera Nafarroan (2015ean 1.113, eta 2009an 1.585), eta -% 29,6 Estatuan (2015ean 71.518, eta 2009an 101.601).

Bai Nafarroan bai Estatuan, bigarren beherakadarik handiena hogei soldatapeko edo gehiago dituzten enpresetan gertatu da.

**23. grafikoa Enpresen bilakaera, soldatapekoen tarteen arabera (indize kopurua 2009=100)**




*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

Orain, arreta 2009 eta 2015 ekitaldietan bakarrik jarrita, eta soldatapekoen estratuen bereizketa handiagoa kontuan hartuta, bi ekitaldietan aztertutako bi eremu geografikoetako enpresa ugarienak soldatapekorik ez dutenak dira. Horrela, Nafarroan 2015ean dauden mota horretako 23.967 enpresak autonomia-erkidegoaren guztizkoaren % 55,6 hartzen dute (2009an, guztizko horren % 52,7), eta partaidetza hori Estatuko datua baino pixka bat handiagoa da (nazioko guztizkoaren % 55; 2009an % 52,7).

**134. koadroa Enpresak soldatapekoen estratuen arabera. 2009. eta 2015. urteen arteko alderaketa**

| | Nafarroa | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|
| | 2009 | 2015 | 2009 | 2015 |
| **Guztira** | **43.282** | **43.131** | **3.355.830** | **3.186.878** |
| Soldatapekorik gabe | 22.806 | 23.967 | 1.767.470 | 1.754.002 |
| 1 eta 2 soldatapeko artean | 11.156 | 11.395 | 919.092 | 899.802 |
| 3 eta 5 soldatapeko artean | 4.122 | 3.885 | 332.671 | 287.430 |
| 6 eta 9 soldatapeko artean | 2.069 | 1.634 | 151.233 | 112.527 |
| 10 eta 19 soldatapeko artean | 1.585 | 1.113 | 101.601 | 71.518 |
| 20 eta 49 soldatapeko artean | 982 | 708 | 55.641 | 39.101 |
| 50 eta 99 soldatapeko artean | 298 | 200 | 15.075 | 11.503 |
| 100 eta 199 soldatapeko artean | 156 | 131 | 7.672 | 5.928 |
| 200 eta 499 soldatapeko artean | 78 | 71 | 3.578 | 3.340 |
| 500 eta 999 soldatapeko artean | 20 | 16 | 1.008 | 937 |
| 1.000 eta 4.999 soldatapeko artean | 10 | 10 | 678 | 683 |
| 5.000 soldatapeko edo gehiago | 0 | 1 | 111 | 107 |

*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

Bai Nafarroan bai nazio-mailan, soldatapekorik gabeko enpresen atzetik daude, ordena honetan, bat edo bi soldatapeko dituzten enpresak eta hiru eta bost bitartean dituztenak. Nafarroan, soldatapeko bat edo bi dituzten 11.395 enpresek autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 26,4 hartzen dute (2009an % 25,8); kuota hori estratu horrek estatuan erregistratutakoa baino baxuagoa da (% 28,2; 2009an % 27,4). Bestalde, Nafarroan 2015ean hiru eta bost soldatapeko bitartean dituzten 3.885 enpresa daude, eta autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 9 hartzen dute (2009an % 9,5); 2015ean Estatuak antzeko garrantzi erlatiboa izan du (% 9; 2009an % 9,9).



# 4. ZERBITZUAK

# 1. IKUSPEGI OROKORRA

Aurretik aipatu den moduan, 2015ean munduko ekonomiaren hedapen-erritmoa geldotu egin da aurreko ekitaldiarekin alderatuta; izan ere, suspertze eta garapen bidean dauden merkatuen ekonomiak dezeleratzen ari dira eta ekonomia aurreratuak ez dira asko aurreratzen ari. Horrez gain, petrolioa merkatu egin da.

Testuinguru horretan, Espainiako ekonomiaren hazkunde-erritmoa % 3,2ra arte areagotu da 2015ean (2014an, % 1,4). Kanpo-sektoreak ehuneko bost hamarren kendu dizkio barne-eskariak hazkunde globalari eginiko ehuneko 3,7 puntuko ekarpen positiboari.

**135. koadroa Zerbitzuen sektorearen bilakaera**

*(aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2013 | | 2014 | | 2015 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia |
| Errepide bidezko garraioa (merkantziak) | -3,0 | -7,5 | -14,8 | 3,0 | 34,4 | 8,2 |
| Aireko garraioa (merkantziak) | -76,7 | -1,9 | 196,4 | 6,9 | -48,2 | 4,6 |
| Aireko garraioa (bidaiariak) | -16,2 | -3,5 | -12,7 | 4,6 | 7,2 | 6,0 |

*Iturria: Geuk egina, hainbat estatistika-iturri oinarri hartuta.*

Halaber, Nafarroan areagotu egin da aurrerapen-erritmoa aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Hala ere, dinamismoa pixka bat txikiagoa izan da Foru Erkidegoan (2015ean % 2,9; 2014an, berriz, % 1,5).

Hirugarren sektoreari dagokionez, oro har, % 3,2 egin du gora Nafarroan eta % 3,1 Estatuan. Hala, bi kasuetan hobetu egin dira aurreko ekitaldian lortutako erregistroak (% 1,5 eta % 1,9 2014an, hurrenez hurren).

Puntu horretara iritsita, adierazi beharra dago sektorearen heterogeneotasuna dela-eta zaila dela sektorearen azterketa agregatua egitea; hala ere, enplegua da adierazlerik egonkorrenetako bat. Alde horretatik, nabarmendu behar da hirugarren sektorean landunen kopuruak % 2,7 egin duela gora Nafarroan, eta % 2,6 Estatuan.

# 2. HEZKUNTZA

Nafarroako Foru Erkidegoan unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzan 107.900 matrikulazio erregistratu dira 2015/2016 ikasturtean. Hau da, % 1,9ko gorakada izan da; balio absolutuetan, aurreko ikasturtean baino 1.992 ikasle gehiago. Gorakada hori aztertutako 5 irakaskuntza-mailetako 4tan erregistratutako bilakaera positiboaren ondorioz gertatu da. Zehatzago esanda, Lehen Hezkuntzan % 1,1 egin du gora ikasle kopuruak, LOGSE batxilergoan % 3, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) % 2,2, eta Lanbide Heziketan % 10,6; azken eremu horretan izan da bilakaerarik onena. Haur Hezkuntzak ia hauteman ere egiten ez den murrizketa bat izan du ikasle kopuruan (6 ikasle gutxiago), eta, beraz, 2014/2015 ikasturteko ia balio berak lortu dira ikasturte honetan ere.

Unibertsitate-eremuan, murrizketa bat egon da ikasle kopuruan, baina ia hautemanezina izan da, eta ez da ia aldatu unibertsitate-ikasleen zentsua (35 gutxiago). Beheranzko desbideratze horren arrazoia Nafarroako Unibertsitate Publikoaren beherakada da (-% 1,7); hala ere, beherakada hori Nafarroako Unibertsitateak moteldu du, % 1,1eko aldakuntza positiboa izan baitu. Hala, 2015/2016 ikasturtean, Foru Erkidegoko unibertsitate-ikasleen kopuru osoa 14.724koa izan da, eta ia berdin banatu dira Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Nafarroako Unibertsitatearen artean (% 47,2 eta % 52,8, hurrenez hurren).

## 2.1 UNIBERTSITATETIK KANPOKO IKASLEEN BILAKAERA

**Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)**

Lehen Hezkuntzan, 2014/2015 ikasturtean behera egin zuen Nafarroako ikasle kopuruak (-% 1,9), eta amaitu egin zen ordura arte hainbat urtez egondako goranzko joera. 2015/2016 ikasturtean, egoera egonkortu egin da; murrizketa oso txiki bat egon da matrikulazioetan, baina urtetik urterako aldakuntzaren ehunekoa ia nulua izan da. Horrenbestez, Foru Erkidegoan Haur Hezkuntzan 24.628 ikasle matrikulatu dira, guztira.

Zentro motaren araberako ikasleen banaketari erreparatuz gero, aurreko urteetan erregistratutako joerarekin jarraituz, zentro publikoek eutsi egin diote euren hegemoniari eta ikasle kopuruaren gehiengoari (% 66,7). Hala eta guztiz ere, bilakaerari dagokionez, jokabide positiboago bat lortu da eremu pribatuan; izan ere, % 1,8 egin dute gora matrikulazioek. Horrek % 0,9ko beherakada ekarri dio publikoari. Hizkuntza-ereduak

direla eta, X eredua da nagusi (euskararekin harremanik ez duen hezkuntza) irakaskuntza-maila honetan: ikasleen % 40,7k aukeratu dute eredu hori, eta % 0,6ko gorakada txiki bat izan du. Horren ondoren daude, garrantziaren arabera, A eredua (gaztelaniaz, euskara beste irakasgai bat gehiago dela) eta D eredua (hezkuntza euskaraz, gaztelania beste irakasgai bat gehiago izanik). Biek antzeko pisua dute (% 30,9 eta % 26,5, hurrenez hurren). B eredua (irakaskuntza elebiduna) dago azkenik, partehartze oso txikiarekin (% 1,9); hortaz, Haur Hezkuntzako euskalduntze-tasa % 28,4koa da.

**136. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH.**

| Kontzeptua | 13/14 ikasturtea | 14/15 ikasturtea | 15/16 ikasturtea | ∆ % aurreko ikasturtea |
|---|---|---|---|---|
| HAUR HEZKUNTZA | 25.108 | 24.634 | 24.628 | 0,0 |
| – Publikoa | 16.958 | 16.575 | 16.424 | -0,9 |
| – Pribatua | 8.150 | 8.059 | 8.204 | 1,8 |
| LEHEN HEZKUNTZA | 39.831 | 40.468 | 40.908 | 1,1 |
| – Publikoa | 25.069 | 25.505 | 25.827 | 1,3 |
| – Pribatua | 14.762 | 14.963 | 15.081 | 0,8 |
| DBH | 25.250 | 25.536 | 26.108 | 2,2 |
| – Publikoa | 15.301 | 15.378 | 15.663 | 1,9 |
| – Pribatua | 9.949 | 10.158 | 10.445 | 2,8 |

*Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua.*

Lehen Hezkuntzako ikasleen bilakaerari dagokionez, % 1,1 egin du gora ikasle kopuruak; hau da, guztira, 40.908 matrikula egon dira. Horri ekarpena egin diote bi sareetan erregistratutako hazkundeek; hala ere, ekarpen handiagoa egin dute ikastetxe publikoetan matrikulatutako ikasleek (% 1,3) ikastetxe pribatuetan matrikulatutakoek baino (% 0,8). Hala ere, irakaskuntza publikorako sarrera handiagoa da pribatukoa baino (% 63ko eta % 37ko partaidetza, hurrenez hurren).

Hizkuntza-ereduei dagokienez, X ereduak % 52,5eko ordezkaritza eta urtetik urterako goranzko aldakuntza izan du (% 1). Eredu hau aukeratu dute ikasle gehienek. A eta D ereduek ikasle kopuru eta bilakaera antzekoa izan dute: ikasle kopurua % 20 eta % 26,9koa izan da, hurrenez hurren, eta bilakaera, kasu honetan negatiboa, -% 2,1 eta -% 0,6koa, hurrenez hurren. Haur Hezkuntzan bezala, B ereduak oso partaidetza txikia du (% 0,5), eta galtzeko arriskuan dagoela ikus daiteke. Horrenbestez, datu horiek kontuan hartuta, euskalduntze-tasa % 27,4koa da.

**137. koadroa Euskalduntze-maila. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH.**

*(% )*

| Kontzeptua | A | B | D | X | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| HAUR HEZKUNTZA | | | | | |
| – 15/16 ikasturtea | 30,9 | 1,9 | 26,5 | 40,7 | 100 |
| LEHEN HEZKUNTZA | | | | | |
| – 15/16 ikasturtea | 20,0 | 0,5 | 26,9 | 52,5 | 100 |
| DBH | | | | | |
| – 15/16 ikasturtea | 9,3 | 0,1 | 25,1 | 65,5 | 100 |

*A: Hezkuntza gaztelaniaz, euskara beste irakasgai bat gehiago izanik.*
*B: Irakaskuntza elebiduna.*
*D: Hezkuntza euskaraz, gaztelania beste irakasgai bat gehiago izanik.*
*X: Euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza.*
*Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua.*

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari (DBH) dagokionez, aurreko ikasturteetan bezala, goranzko joera errepikatu da (% 2,2). Ikasturte honetan, gainera, bikoiztu egin da aurreko ekitaldiaren hazkunde-erritmoa, eta, guztira, 26.108ko ikasle matrikulatu dira. Ikasturte honetan, hazkunde handiagoa izan du eremu pribatuak (% 2,8) publikoak baino (% 1,9). Hala ere, sare publikoko matrikulazio kopurua askoz ere handiagoa izan da (guztizkoaren % 60).

Datuak hizkuntza-ereduen arabera banatuz gero, ez da ia aldaketarik erregistratu hizkuntza-maparen osaeran. X eredua izan da berriro ere eskaera gehien izan duen eredua: % 65,5eko sarrera izan du. Horrez gain, % 0,7ko gorakada txiki bat izan du. X ereduaren atzetik daude, garrantziaren arabera ordenatuta, D eredua (% 25,1eko partaidetzarekin) eta A eta B ereduak, partaidetza txikiagoarekin (% 9,3 eta % 0,1, hurrenez hurren). Guzti hori kontuan hartuta, euskalduntze-mailak % 25,2ko tasa lortu du.

Laburbilduz, ikasturte honetan Lehen Hezkuntzak eta DBHk izan dute hazkunde handiena oinarrizko irakaskuntza-mailetan (% 1,1). Nafarroako Foru Erkidegoan 91.644 ikasle matrikulatu dira; alegia, 2014/2015 ikasturtean baino 1.006 ikasle gehiago.

24. grafikoa Unibertsitatetik kanpoko ikasleen matrikulazioaren bilakaera Nafarroan(1)




*(1): Ez dago 2006-2007 ikasturteari buruzko informaziorik.*
*(2): BBB-UBI eta IEE 98/99 ikasturtean desagertu ziren. LH 99/00 ikasturtean desagertu zen.*
*Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua.*

### Erdi-mailako irakaskuntzak

Erdi-mailako irakaskuntzak eta, zehatzago, Lanbide Heziketako irakaskuntzak, 2015/2016 ikasturtean egoera berria dute. Lehendik zegoen hezkuntza-proposamena erreformatzeko lege bat sartu da indarrean, eta Oinarrizko Lanbide Heziketako talde berri bat sortu da, eskola-uztearen kopurua murrizteko eta, horrela, DBH amaierako azterketa gainditzen ez dutenei irakaskuntza-maila honetan sartzeko aukera emateko. Gertaera hauen bitartez azaltzen da, hein batean, Lanbide Heziketako ikasle kopuruan izandako gorakada (% 10,6). Guzti hori kontuan hartuta, Nafarroan aurreko ikasturtean baino 734 ikasle gehiago zenbatu dira; guztira, 7.688 ikasle Heziketa Zikloetan.

Informazioa sare motaren arabera banatuta, bietan hazkundea egon da; hori bai, intentsitate ezberdinekoa. Sare publikoaren ikasle-zentsuak % 8,6 egin du gora, eta sare pribatuak, berriz, indar handiagoz egin du gora: % 17; hau da, ikasleen laurden bat inguru. Hizkuntza-ereduen banaketa aurreko ikasturtekoaren ia bera da. X ereduak balio maximoak lortu ditu ia (% 97,3), eta gainerakoa D ereduak lortu du (% 2,7). Ikasle batek ere ez du B ereduan izena eman; hortaz, D ereduak ordezkatzen du soilik euskalduntze-maila; hau da, % 2,7.

**138. koadroa. Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera.**
**Heziketa Zikloak eta LOGSE batxilergoa.**

| Kontzeptua | 13/14 ikasturtea | 14/15 ikasturtea | 15/16 ikasturtea | ∆ % aurreko ikasturtea |
|---|---|---|---|---|
| HEZIKETA ZIKLOAK | 8.004 | 6.954 | 7.688 | 10,6 |
| – Publikoa | 6.374 | 5.334 | 5.792 | 8,6 |
| – Pribatua | 1.630 | 1.620 | 1.896 | 17,0 |
| LOGSE BATXILERGOA | 8.260 | 8.316 | 8.568 | 3,0 |
| – Publikoa | 5.256 | 5.297 | 5.408 | 2,1 |
| – Pribatua | 3.004 | 3.019 | 3.160 | 4,7 |

*Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua.*

LOGSE batxilergoaren bilakaera aztertzen badugu, 2015/2016 ikasturtean % 3 egin du gora ikasle kopuruak; hau da, 8.568 matrikulatu dira irakaskuntza-maila honetan. Gorakada horretan eragina izan dute hala zentro pribatuek (% 4,7ko gorakada) nola zentro publikoek (% 2,1). Hala ere, azken horiek 10 ikasletik 6k aukeratu dituzte. Hizkuntza-maparen osaerari dagokionez, oso desberdintasun txikia dago aurreko ikasturtearekin alderatuta: X eredua da eskaera gehien izan dituena (% 71); D eredua ondoren, sarrera askoz ere txikiagoekin (% 24,3) eta, azkenik, A eredua, % 4,7ko partaidetzarekin. B ereduak ez du ordezkaritzarik izan; hortaz, euskalduntze-maila % 24,3koa izan da (hain zuzen ere, D ereduari dagokion balioa).

**139. koadroa Euskalduntze-maila. Heziketa Zikloak eta LOGSE batxilergoa.**

*(% )*

| Kontzeptua | A | B | D | X | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| HEZIKETA ZIKLOAK | | | | | |
| – 15/16 ikasturtea | 0,0 | 0,0 | 2,7 | 97,3 | 100,0 |
| LOGSE BATXILERGOA | | | | | |
| – 15/16 ikasturtea | 4,7 | 0,0 | 24,3 | 71,0 | 100,0 |

*Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua.*

Guztira, eta adierazitako datuen arabera, erdi-mailako irakaskuntzen zentsuan 986 ikasle gehiago egon dira; hau da, denera, 16.256 matrikulazio. % 6,5eko goranzko aldakuntza honen arrazoi nagusia da Lanbide Heziketako ikasle kopuruak % 10,6 egin duela gora. Horrez gain, Batxilergoko ikasle kopuruak ere lagundu du gorakada horretan, gutxiago bada ere (% 3 egin du gora).

## 2.2 UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA

Nafarroako hezkuntza-eskaintza Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Nafarroako Unibertsitateak (pribatua) osatzen dute. Biak kontuan hartuta 14.724 unibertsitate-

ikasle daude (6.948 publikoan eta 7.776 pribatuan): horrek esan nahi du % 0,2ko beherakada egon dela aurreko ikasturtearekin alderatuta; hau da, 35 ikasle gutxiago.

Irakasleei dagokienez, irakasle kopuruak % 1,4 egin du gora Nafarroako Unibertsitatean: guztira 787 irakasle egon dira 2015/2016 ikasturterako. Nafarroako Unibertsitate Publikoan, berriz, 7 gehiago egon dira; horrek esan nahi du % 0,8 igo dela irakasle kopurua eta, guztira 863 irakasle egon direla azken ikasturtean.

Nafarroako Unibertsitatearen datuak aztertuz, ikasturte honetan amaitu egin da aurreko ikasturteetako beheranzko joera; ikasleen zentsuak % 1,1eko gorakada izan du. Horrek esan nahi du 7.776 ikasle egon direla 2015/2016 ikasturtean (joan den ikasturtean baino 82 ikasle gehiago), Nafarroako (6.736) eta Gipuzkoako (1.040) campusen artean banatuta.

**140. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean**

| Lurralde historikoa | 14/15 ikasturtea | 15/16 ikasturtea(1) | % | ∆% aurreko urtea |
|---|---|---|---|---|
| **Nafarroa** | **6.622** | **6.736** | **100,0** | **1,7** |
| Zuzenbidea | 416 | 468 | 6,9 | 12,5 |
| Medikuntza | 1.243 | 1.271 | 18,9 | 2,3 |
| Filosofia eta Letrak | 335 | 341 | 5,1 | 1,8 |
| Informazio Zientziak | 770 | 723 | 10,7 | -6,1 |
| Hezkuntza eta Psikologia(2) | 433 | 472 | 7,0 | 9,0 |
| Zientziak | 541 | 576 | 8,6 | 6,5 |
| Farmazia | 664 | 659 | 9,8 | -0,8 |
| Arkitektura | 568 | 487 | 7,2 | -14,3 |
| Teknologia | 138 | 147 | 2,2 | 6,5 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientziak | 942 | 982 | 14,6 | 4,2 |
| Idazkaritza eta Administrazioa | 95 | 123 | 1,8 | 29,5 |
| Erizaintza | 477 | 487 | 7,2 | 2,1 |
| **Gipuzkoa** | **1.072** | **1.040** | **100,0** | **-3,0** |
| Industria Ingeniaritza | 989 | 1.001 | 96,3 | 1,2 |
| Idazkaritza eta Administrazioa | 83 | 39 | 3,8 | -53,0 |
| **Guztira** | **7.694** | **7.776** | **100,0** | **1,1** |

*(1): Gainera, doktoregoko 886 ikasle eta masterreko 641 ikasle daude Nafarroan eta Gipuzkoan.*
*(2): 14/15 ikasturtetik eskaintzen da titulazio hori.*
*Iturria: Nafarroako Unibertsitatea.*

Datuak campusen arabera bereizita, argi nabarmentzen da aldakuntza positiboa Nafarroako campusarekin datorrela bat (% 1,7), eta ez gipuzkoarrarekin, % 3ko beherakada izan baitu. Gorakada horretan neurri handiagoan edo txikiagoan eragina izan dute Nafarroako eskaintza eratzen duten fakultate guztiek, Informazioaren Zientzien Fakultateak, Farmaziakoak eta Arkitekturakoak salbu (-% 6,1eko, -% 0,8ko eta -% 14,3ko beherakada izan dute, hurrenez hurren), baina azpimarratu behar da hiruren artean ez dutela partaidetzaren % 30 gainditzen. Gorakadak direla eta, Medikuntza Fakultateak,

ordezkapen handiena duenak (% 18,9) oso geldo egin du aurrera (% 2,3); Idazkaritzan eta Administrazioan gorakadak nabarmenagoak dira (% 29,5), bai eta Zuzenbide Fakultatean ere (% 12,5), nahiz eta horietako matrikulazio-indizeak baxuenak diren (% 1,8 eta % 6,9). Hazkunde-erritmo motelagoak, bi digituetatik beherakoak, izan dituzte gainerako fakultateek, nahiz zertxobait gora egin duten ikasle kopuruan.

Gipuzkoan ikasturte honetan iazkoan baino 32 ikasle gutxiago matrikulatu dira, nagusiki Idazkaritzan eta Administrazioan egon den beherakadaren ondorioz (-% 53); hala, gutxieneko partaidetza izanik ere (% 3,8), balantza alde negatibora igaro da. Industria Ingeniaritzako Fakultateak % 1,2ko gorakada izan du, baina, hala ere, hori ez da nahikoa izan ikasturtea saldo positiboarekin ixteko.

**141. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP)** (1)

| Fakultateak eta unibertsitate-eskolak | 14/15 ikasturtea | 15/16 ikasturtea (3) | % | ∆% aurreko urtea |
|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza Ingeniaritzen GET | 478 | 499 | 7,2 | 4,4 |
| Industria Ingeniaritza eta Telekom. GET | 2.182 | 2047 | 29,5 | -6,2 |
| Osasun Ikasketen UE | 612 | 633 | 9,1 | 3,4 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien F. | 1.318 | 1.245 | 17,9 | -5,5 |
| Giza eta Gizarte Zientzien F. | 1.744 | 1.733 | 24,9 | -0,6 |
| Zientzia Juridikoen F. | 560 | 582 | 8,4 | 3,9 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien F. / Zientzia Juridikoak (2) | 171 | 209 | 3,0 | 22,2 |
| **Guztira** | **7.065** | **6.948** | **100,0** | **-1,7** |

*(1): 15/16 ikasturtea - Behin-behineko datuak.*
*(2): Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzean matrikulatutako ikasleak jasotzen ditu.*
*(3): Gainera, doktoregoko 448 ikasle eta masterreko 768 ikasle daude.*
*Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.*

2015/2016 ikasturtean, Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) guztira 6.948 ikasle izan ditu, aurreko ikasturtean baino % 1,7 gutxiago. Murrizketa horretan eragin duten fakultateak honako hauek dira: Industria Ingeniarien eta Telekomunikazioen GET (-% 6,2), Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (-% 5,5) eta Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea (-% 0,6); hiruren artean ikasle guztien % 72,3 hartzen dituzte. Gainerako fakultateek, besteak beste, Nekazaritza Ingeniarien GETak, Zientzia Juridikoen Fakultateak eta Osasun Ikasketen UEk antzeko gorakadak izan dituzte (% 4,4, % 3,9 eta % 3,4), eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak - Zientzia Juridikoenak gorakada nabarmena izan du, % 22,2koa. Alabaina, azken horren partaidetza eskasa dela eta (% 3), ez du gehiegi aldatu ikasleen behin betiko balantzea.

# 3. GARRAIOA

## 3.1 ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA

Garraioaren kapitulua errepide bidezko garraiotik hasita, Nafarroako Foru Erkidegoan hobekuntza nabari da berriro jardueran. Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak emandako datuen arabera, 2014an ibilgailu parkeak % 0,1eko gorakada erregistratu zuen, eta 2015ean indartu egin da goranzko joera hori (% 0,9). Hala, parkeak 436.193 ibilgailu ditu guztira, aurreko ekitaldian baino 4.013 gehiago.

Datuetan sakonduz eta ibilgailu motari dagokionez, autoak dira parkeko ibilgailu gehienak, zehazki, % 69,7, eta urtetik urterako % 1,5eko gorakada izan dute. Horien ondoren daude kamioiak (% 17,7). Horiek jaitsi egin dute presentzia (-% 0,9), hau da, motozikleten aurkako joera izan dute; izan ere, % 7,4ko sarrera izan dute, eta, hortaz, bilakaera positiboa izan dute: % 3ko gorakada izan dute aurreko ekitaldiko balioetatik. Azkenik, industria-traktoreek eta autobusek askoz ere partaidetza txikiagoa izan dute (% 1 eta % 0,2, hurrenez hurren), eta bilakaera desberdina izan dute. Lehenengoek % 0,6ko beherakada txiki bat izan dute, eta industria-traktoreek urtetik urterako goranzko aldakuntza izan dute (% 5,5).

**142. koadroa Nafarroako ibilgailu-parkea**

*(unitateak)*

| Urtea | Kamioiak | Autobusak | Autoak | Motozikletak | Industria-trakt. | Beste batzuk | Guztira | % ∆ |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2006 | 76.408 | 893 | 273.940 | 21.220 | 4.272 | 15.848 | 392.481 | 2,6 |
| 2007 | 80.847 | 923 | 286.394 | 23.740 | 4.695 | 17.221 | 413.820 | 5,4 |
| 2008 | 81.997 | 936 | 291.838 | 25.832 | 4.739 | 17.819 | 423.161 | 2,3 |
| 2009 | 82.087 | 950 | 294.293 | 27.206 | 4.510 | 17.916 | 426.962 | 0,9 |
| 2010 | 82.425 | 934 | 297.770 | 28.499 | 4.282 | 18.064 | 431.974 | 1,2 |
| 2011 | 81.745 | 932 | 301.238 | 29.700 | 4.290 | 18.268 | 436.173 | 1,0 |
| 2012 | 80.765 | 903 | 301.600 | 30.121 | 4.178 | 18.165 | 435.732 | -0,1 |
| 2013 | 79.249 | 842 | 299.058 | 30.406 | 4.198 | 18.151 | 431.904 | -0,9 |
| 2014 | 77.899 | 817 | 299.536 | 31.224 | 4.043 | 18.661 | 432.180 | 0,1 |
| 2015 | 77.178 | 812 | 303.975 | 32.166 | 4.267 | 17.795 | 436.193 | 0,9 |

*Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.*

Azterketarekin aurrera eginez, kamioiei, industria-traktoreei eta autobusei dagokien matrikulazio garbiaren datuen berrikuspen batek agerian jarri du 2015ean Nafarroan geldotu egin dela 2014an adierazle horretan erregistratutako beherakada. Zehatzago esanda, aurreko ekitaldian 1.530 unitateko galera izan zen, eta 2015ean balio hori 502 unitatera murriztu da. Estatu-mailan, egoera aurkakoa da; urteetan beherakada handiak

egon ondoren, matrikulazio garbiak 22.084 unitate egin du gora, eta hori kontuan hartuta, itxiera positiboa izan duen lehen urtea da 2008. urtetik.

**143. koadroa Kamioi, industria-traktore eta autobusen matrikulazio garbia(*)**

*(unitateak)*

| Urtea | Kamioiak eta industria-traktoreak | | Autobusak | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia |
| 2006 | 2.552 | 182.917 | 21 | 38 | 2.573 | 182.955 |
| 2007 | 4.862 | 320.747 | 30 | 2.753 | 4.892 | 323.500 |
| 2008 | 1.192 | 52.302 | 13 | 1.157 | 1.207 | 53.459 |
| 2009 | -139 | -62.641 | 14 | 467 | -125 | -62.174 |
| 2010 | 110 | -39.478 | -16 | -218 | 94 | -39.696 |
| 2011 | -672 | -46.715 | -2 | -87 | -674 | -46.802 |
| 2012 | -1.092 | -85.065 | -29 | -1.231 | -1.121 | -86.296 |
| 2013 | -1.496 | -101.512 | -61 | -1.235 | -1.557 | -102.747 |
| 2014 | -1.505 | -44.630 | -25 | -93 | -1.530 | -44.723 |
| 2015 | -497 | 21.631 | -5 | 453 | -502 | 22.084 |

*(*): Parkearen urte arteko aldakuntza.*
*Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.*

Motorizazio-indizeak direla eta, 1.000 biztanleko ibilgailuen tasari dagokionez, goranzko joera antzeman da, bai Nafarroako Foru Erkidegoan bai estatu-mailan. Nafarroak Estatuak baino tasa altuagoa lortu du: 1.000 biztanleko ratioa 685 ibilgailutan dago (679 ziren 2014. urtean). Bestalde, auto bakoitzeko biztanle kopurua neurtzen duen adierazleari dagokionez, indarrean jarraitzen dute aurreko ekitaldiko balioek, alegia, 2,1 bai Estaturako bai Foru Erkidegorako.

**144. koadroa Motorizazio-indizeak**

| Urtea | Ibilgailu/1.000 biztanle | | Biztanle/auto | |
|---|---|---|---|---|
| | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia |
| 2006 | 652 | 638 | 2,2 | 2,2 |
| 2007 | 683 | 671 | 2,1 | 2,0 |
| 2008 | 682 | 670 | 2,1 | 2,1 |
| 2009 | 677 | 660 | 2,1 | 2,1 |
| 2010 | 678 | 661 | 2,1 | 2,1 |
| 2011 | 679 | 663 | 2,1 | 2,1 |
| 2012 | 676 | 660 | 2,1 | 2,1 |
| 2013 | 676 | 662 | 2,1 | 2,1 |
| 2014 | 679 | 666 | 2,1 | 2,1 |
| 2015 | 685 | 676 | 2,1 | 2,1 |

*Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia eta geuk egina.*

Ibilgailuen autobideko trafikoari buruzko informazioa kontuan hartuta, 2015 ekitaldiak itxiera positiboa izan du. Adierazle honi esker, nahiko zehatz neur daiteke sektoreko jardueraren joera. 2014an hasitako joerari jarraipena emateko eta urteetan zehar

zenbatekoek okerrera egin ostean, hazkunde-erritmoa areagotu egin da azken urte honetan: % 4,5eko hazkundea izan du (2014an, % 1,2). Hala, autobideko trafikoa eguneko 18.168 ibilgailura iritsi da, eta zenbatekoa oso positiboa izan arren, krisi aurreko balioen azpitik dago. Informazioa ibilgailu moten arabera banatuta eta ordezkaritza handiena dutenetatik hasita (% 79,9), ibilgailu arinen trafikoak % 4ko gorakada izan du. Joera horri ibilgailu astunak gehitzen zaizkio (% 6,3ko hazkundea).

**145. koadroa Autobideko ibilgailuen trafikoa, Nafarroan***

| Urtea | Ibilgailu arinak | % ∆ | Ibilgailu astunak | % ∆ | Ibilgailuak, guztira | % ∆ |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2006 | 14.922 | 4,6 | 4.298 | 2,6 | 19.220 | 4,1 |
| 2007 | 15.367 | 3,0 | 4.384 | 2,0 | 19.751 | 2,8 |
| 2008 | 16.010 | 4,2 | 4.271 | -2,6 | 20.281 | 2,7 |
| 2009 | 15.954 | -0,3 | 3.703 | -13,3 | 19.657 | -3,1 |
| 2010 | 15.902 | -0,3 | 3.698 | -0,1 | 19.600 | -0,3 |
| 2011 | 15.633 | -1,7 | 3.686 | -0,3 | 19.319 | -1,4 |
| 2012 | 14.388 | -8,0 | 3.326 | -9,8 | 17.714 | -8,3 |
| 2013 | 13.850 | -3,7 | 3.330 | 0,1 | 17.180 | -3,0 |
| 2014 | 13.963 | 0,8 | 3.428 | 2,9 | 17.391 | 1,2 |
| 2015 | 14.523 | 4,0 | 3.645 | 6,3 | 18.168 | 4,5 |

*(*): Eguneko ibilgailuen batezbestekoa.*
*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.*

Nafarroako errepide bidezko garraioaren atalarekin amaitzeko, jatorria edota helmuga Nafarroan duten merkantziei buruzko informazioa aurkeztuko dugu.

Errepideko Merkantzia Garraioaren Inkesta Iraunkorrean[1] argitaratutako datuei jarraikiz, Nafarroan aurtengo joera iazkoaren aurkakoa izan da; izan ere, iaz beherakada nabarmena izan zen jardueran (-% 14,8), eta ekitaldi honetan % 34,4ko gorakada izan da. Horrenbestez, merkantzien garraioak gora egin du, 38.305 mila tona garraiatu baitira. Estatu-mailan ere gorakada izan da trafikoan. Hala ere, Nafarroari dagokion gorakada baino txikiagoa izan da; hau da; % 8,2ko gorakada eta, denera, 971.617 mila tona garraiatu dira.

Datuetan sakonduz gero eta eskualde barruko eta kanpoko garraioari lotutako jarduera kontuan hartuta, biek ekarpen bera egin diote Nafarroako merkantzien trafikoaren hazkundeari, antzeko aldakuntzak erregistratu baitira bietan. Batetik, eskualde barneko garraioak % 33 egin du gora, eta eskualde arteko garraioak, berriz, % 35 (pisu espezifiko handiagoa izan du: % 67,6). Azterketa estatu-mailara eramanda, bi partidek egin diote

[1] Ikuspuntu metodologikotik, inkesta Trenbide eta Errepide bidezko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiak errepideko garraiorako baimendutako ibilgailu astunen kolektiboari zuzenduta dago; ibilgailu horien karga erabilgarrirako edukierak 3,5 Tm-tik gorakoa izan behar du eta gehieneko pisu baimenduak 6 Tm-tik gorakoa.

ekarpena % 8,2ko hazkundeari, baina, hala ere, gorakada handiagoa izan du eskualde arteko garraioak (% 11) eskualde barneko garraioak baino (% 6,9), eta askoz ere ekarpen handiagoa egin dio multzo osoari (% 69,7).

**146. koadroa Garraiatutako merkantziak. Jatorriko eta/edo helmugako eskualde barruko eta eskualde arteko garraioa***

*(m Tm)*

| Eremua | Nafarroa | | | Espainia | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | % ∆ | 2014 | 2015 | % ∆ |
| Eskualde barruko garraioa | 9.338 | 12.423 | 33,0 | 632.384 | 676.312 | 6,9 |
| Eskualde arteko garraioa | 19.166 | 25.882 | 35,0 | 265.780 | 295.305 | 11,1 |
| **Guztira** | **28.504** | **38.305** | **34,4** | **898.164** | **971.617** | **8,2** |

*(*): Zifrak urte bakoitzeko osotasunari dagozkio.*
*Iturria: Sustapen Ministerioaren Estatistika Aldizkaria.*

## 3.2 AIRE BIDEZKO GARRAIOA

Garraioari buruzko kapitulua amaitzeko, jarraian, Noaingo aireportuko magnitude handiak aztertuko ditugu. Datuen lehen begiratuan, agerian geratzen da adierazle nagusietan erregistratutako bilakaera oso diskretua izan bada ere, behintzat urrun dagoela aurreko urteetan erregistratutako balio negatiboetatik. Hala, aireontzi kopuruari dagokionez, % 0,1eko hazkunde txiki izan du zenbatekoetan; hala ere, bidaiari kopuruan izan da hazkunderik handiena (% 7,2). Nabarmendu beharrekoa da hau izan dela 2009tik adierazle honetan urtetik urterako aldakuntza positiboa erregistratu den lehen ekitaldia. Azkenik, eta salgaien aireko trafikoari dagokionez (oso txikia da Noainen), erdira murriztu da ia.

**147. koadroa Iruñeko aireportuko aire bidezko garraioa**

| Urtea | Aireontziak | | | Bidaiariak (m) | | | Merkantziak (Tm) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | % ∆ | Espainiako % | Guztira | % ∆ | Espainiako % | Guztira | % ∆ | Espainiako % |
| 2009 | 7.416 | -23,3 | 0,41 | 327,0 | -23,5 | 0,18 | 44,6 | -15,7 | 0,01 |
| 2010 | 6.973 | -6,0 | 0,38 | 284,4 | -13,0 | 0,15 | 42,6 | -4,5 | 0,01 |
| 2011 | 6.484 | -7,0 | 0,35 | 230,5 | -19,0 | 0,11 | 34,2 | -19,7 | 0,005 |
| 2012 | 4.963 | -23,5 | 0,29 | 183,9 | -20,3 | 0,10 | 12,0 | -64,9 | 0,002 |
| 2013 | 3.540 | -28,7 | 0,23 | 153,9 | -16,2 | 0,08 | 2,8 | -76,7 | 0,0004 |
| 2014 | 3.131 | -11,6 | 0,19 | 134,3 | -12,7 | 0,07 | 8,3 | 196,4 | 0,001 |
| 2015 | 3.133 | 0,06 | 0,19 | 144,0 | 7,22 | 0,07 | 4,3 | -48,19 | 0,001 |

*Iturria: Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia.*

Noaingo aireportuko aireko trafikoaren izaera nazionala edo internazionala kontuan hartuta, 2014an aurkeztutako egoera gailentzen da; hau da, jarduera nazionala da nagusi

aireontzien zein bidaiarien trafikoan (% 91,5 eta % 96,2, hurrenez hurren). Merkantzien trafikoari dagokionez, alderantzikatu egin dira rolak: % 76,7 erori da berriro jarduera nazioarteko trafikoan.

Bilakaerari dagokionez, aurreko ekitaldiaren aldean, barneko aireko trafikoak gora egin du; bereziki begi-bistakoa izan da bidaiarien mugimenduan izan den joera positiboa (% 6,3); aireontzien kasuan, oso ahul egin du gora (% 0,5). Merkantzien barneko trafikoari dagokionez, 1 tona garraiatzea lortu bada ere (2014an 0,1), Noaingo trafiko osoari eginiko ekarpena ez da nabarmentzeko modukoa. Nazioarteko trafikoari dagokionez, datu positiboa bidaiariei dagokiena da bakarrik; izan ere, erregistro hori % 37,5 areagotu da aurreko ekitalditik, kontuan hartuta kanpoaldearekiko trafikoa oso urria dela, bai aireontzien kopuruari (-% 4,3) bai merkantziei (-% 59,8) dagokienez.

**148. koadroa Iruñeko aireportuko aire bidezko garraioa, jatorriaren arabera**

| Urtea | Aireontziak | | | Bidaiariak (m) | | | Merkantziak (Tm) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Barrukoa | Nazioartekoa | Guztira | Barrukoa | Nazioartekoa | Guztira | Barrukoa | Nazioartekoa |
| 2009 | 7.416 | 6.703 | 713 | 327 | 317,7 | 9,3 | 44,6 | 35,8 | 8,8 |
| 2010 | 6.973 | 6.218 | 755 | 284,4 | 273,8 | 10,6 | 42,6 | 28,6 | 14 |
| 2011 | 6.484 | 6.131 | 353 | 230,5 | 222,5 | 8,0 | 34,2 | 7,0 | 27,2 |
| 2012 | 4.963 | 4.805 | 158 | 183,6 | 180,1 | 3,5 | 12 | 5,2 | 6,8 |
| 2013 | 3.540 | 3.267 | 273 | 153,9 | 148,9 | 5,0 | 2,8 | 0,9 | 1,9 |
| 2014 | 3.131 | 2.853 | 278 | 134,3 | 130,3 | 4,0 | 8,3 | 0,1 | 8,2 |
| 2015 | 3.133 | 2.867 | 266 | 144,0 | 138,5 | 5,5 | 4,3 | 1,0 | 3,3 |

*Iturria: Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia.*

Azkenik, eta Noaingo aerodromoaren egoerari dagokionez, aurten hegaldi-eskaintza gero eta urriagoa da. Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak ikerketa bat agindu du jakiteko ea bideragarria den Iruñeko aireportua Frankfurtekin, Parisekin, Amsterdamekin eta Bartzelonarekin konektatzea, eta ea nolako eragina izango luketen konexio horiek Nafarroaren ekonomian. Garrantzitsua da nabarmentzea Iruñeko aerodromoak urte asko daramatzala atzeraldian. Kezkatuta ditu horrek agintariak; are gehiago kontuan hartuta 2010ean hainbat berrikuntza egin zirela bidaiariei arreta emateko ekipamenduetan zein nabigazioan, lurreratze-pistaren egokitzapena barne, aireontzi handien zirkulazioa ahalbidetzeko. Gainera, badirudi ez dutela helburua lortu; alegia, jarduera areagotzea.